



Jacques Lacan:



erreal,
irudimenezkoa
eta sinbolikoa

M i k e l
H a r a n b u r u
O i h a r b i d e



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

Jacques Lacan:

erreal,

irudimenezkoa

eta sinbolikoa

MIKEL HARANBURU OIHARBIDE

AURKIBIDEA

Jacques Lacan:

erreala,

irudimenezkoa

eta sinbolikoa

Sarrera

Biografia

Erregistroen teoria

Ispilu aroa eta Irudimenezkoaren erregistroa

Erregistro sinbolikoa

Errealaren eremua

Haurraren garapena

Premia, eskaera, desira, zikiratzea eta hizkuntza

Bulkadak eta gozamena

Metonimia, metafora eta Aitaren funtzioa

Kant, Sade eta Lacan

Psikopatologia

Ondorioak

Bibliografia

Sarrera

Subjektuaren egitura psikikoaren hiru erregistro edo dimentsioak aztertzen ditu Lacanek: Errealak, Imajinarioa eta Sinbolikoa. Haurren garapenean ispilu aroak garrantzi handia hartzen du, gorputz zatikatuaren irudia gainditu eta osotasunaren kontzientzia hartzeko garaian. Ispilu aroan bizi izaten duen identifikazio esperientziari esker, ispiluan islatua ikusten duena bere iruditzen hartzen du haurrak eta ihes egiten die gorputz zatikatuaren fantasiei.

Eremu imajinarioa irudien eta azaleko itxuraren erreinu moduan aurkeztuko du Lacanek; erregistro horrek emango dio osotasunaren zentzua haurrari. Eremu sinbolikoa hizkuntzaren adierazleez artikulatua dago eta harremanen, itunen, legearen eta hertsapenen erreinu gisara aurkeztu du Lacanek. Errealaren erregistroa eremu sinbolikoaren pitzadura edo arrakala da eta arrakala horren inguru egituratzen da ordena sinbolikoa. Errealak sinbolizatu eta errepresentatu ezina da.

Haurrak, garapenean aurrera doan heinean, premia, eskaera eta desira bereizten ditu. Premia horiek asebate nahi baditu, eskaeretan artikulatu behar ditu. Hizkuntzaren bidez bereizten dira premia eta eskaera. Eskaera maitasun eskaera gisara aurkeztu da. Premia hutseko subjekturik ez dago. Premiak biologiatik harantzago joaten dira, eskaera bihurtzen direnean, eta beste esanahi batzuk hartzen dituzte. Premia eta eskaera bereiztean, desira agertzen da. Eskaera, amodio eskaera batez ere, eskatzen dituen objektuetatik harantzago doa eta presentzia baten edo absentsia baten eskaera da; besteari egindako dei bat izaten da eskaera, sarritan premiaz mozorrotzen bada ere. Haurren premien esperientziei interpretazio sinboliko eta sozialak erantzen zaizkie.

Gozamenaren eta atseginaren arteko tirabirak zatitzen du subjektua. Gozamenak ez du objektu eta asmo jakinik; atseginaren printzipiotik harantzago doan esperientzia aurreikusi ezina da gozamina. Bulkadaren asebetetzea da gozamina, premia baten edo eskaera baten asebetetzea baino areago. Bulkada ez da asebetetzen; adierazleen katean txertatzen da. Subjektuak joera iraunkorra du atseginaren printzipioaren mugak gainditu eta gehiegizko desirara jotzeko. Bulkaden bidez atsegin printzipioa gainditu eta gozamenaren bila joaten da gizakia. Bulkadak heriotza bulkada dira eta gozamenak heriotzara eramaten du.

Aitaren izenaren adierazleak azaltzen du adierazleen katearen funtzionamendua. Adierazleen multzoan agintzen duena Aitaren izena da. Aitaren izena Besteari Bestea da, neurosia eta psikosia bereizteko beharrezkoa dena. Psikosian Aitaren izena forkluitu egiten da. Psikosian eta neurosian modu ezberdinean itzultzen da erreprimetua. Neurosian erreprimetua sinbolikoki itzultzen da, konpromisoetako sintoma bat eratuz. Psikosian hasieratik gertatzen da bazteretzea. Hasieratik sinbolizatua izan ez zena, ez da erreprimitzen. Errealean baztertzen da eta errealean itzultzen da, sinbolikotik kanpora dagoelako.

Neurotikoak hizkuntza baliatzen du eta psikotikoa hizkuntzak baliatzen du. Psikosiak agerian uzten du inkontzientea. Esanahiz betea dago, baina ez da sinbolikoraino heltzen, haren atarian gelditu baita. Psikotikoen forklusioan sinbolikoa ezabatzen da; bizitzen den

moduan agertzen du inkontzientea, gorputzaren bidez, sintoma psikosomatikoetan bezala. Haluzinazioak ez daude sinbolikoki ainguratuta; horregatik dira ulertezinak.

Forklusioaren ondorio psikikoak sinbolikoan eta imajinarioan nabaritzen dira. Sinbolikoan espazioaren eta denboraren ohiko erreferentziak eta norberaren identitatearen errepresentazioak aldatzen ditu. Adierazlearen eremuan irekitako zuloan errealtate berri bat eraikiko da, eldarnio eta haluzinazioz egituratuta.

Errepresioan elementu psikiko baztertua inkontzientean hobiratu gelditzen da, forklusioan ez bezala. Lehen errepresioari eta aitaren metaforari esker, hizkuntza desirari nagusitzen zaio; desira hizkuntzan besterentzen da. Aitaren metaforak objektu galdutik objektu ordezkatzailera darama haurra; ondorioz, desira eraldatu egiten da. Eraldaketa horri esker, haurrak eten egiten du amarekin lotzen zuen lotura imajinarioa, eta dimentsio sinbolikoan sartzen da. Hitz egiten duen subjektu desiratzaile bihurtzen da eta hizkuntzaren erabilerari kateatua gelditzen da. Horrela gertatu ezean, Aitaren Izena forkluitzen da eta psikosian eror liteke. Forklusio prozesuak bereizten ditu psikotikoa eta neurotikoa. Desira hizkuntzaren bidez antolatzen denean, asebate gabe gelditzen da; horrek gozamena ahalbidetzen du, baina ez gozamen osoa; desira behin eta berriro berpizten den arren, gozamen osoa ez da inoiz lortzen. Adierazlea da gozamenaren kausa.

Nia ilusioen jesarlekua da: nia indartzeak subjektuaren besterentzea areagotzen du. Nia tratamendu psikoanalitikoari aurre egiten dio eta nia indartzeak erresistentzia gehitzea esan nahi du. Lacan psikoanalisiaren bidez nia indartzearen kontra dago. Izan ere, nia finkapen imajinario bat da, eta kontra egiten dio aldaketari, dialektikari eta hazkuntzari. Tratamendu psikoanalitikoak niaren finkotasuna apurtu eta desiraren dialektika berriro abiarazi behar du. Lacanentzat, analizatuaren nia ez du izan behar analizatzailearen aliatua. Errealitatea ez da zerbait objektiboa, hartara pertsonak egokitzeke; errealtatea pertsonaren errepresentazio eta proiektzioen emaitza da.

Biografia

Jacques Marie Émile Lacan 1901ean jaio zen, Pariseko familia katoliko burges batean. Haren aitak ozpinaren ekoizpen eta salerosketan egiten zuen lan. Lehen eta bigarren mailako ikasketak Pariseko Stanislas ikastetxe maristan egin zituen; Pariseko familia burgesetako haurrak biltzen ziren ikastetxe horretan.

Bigarren mailako ikasketak egiten ari zela hasi zen Lacan Spinoza irakurtzen. Oso gazterik hasi zen intelektualen liburu-dendetako tertulietara joaten eta abangoardiako arteaz interesatzen. 1919ko udazkenean ekin zion Pariseko Unibertsitatean medikuntza ikasteari. 1920an ezagutu zituen Andre Breton eta mugimendu surrealista. 1921ean zerbitzu militarretik libre geratu zen, argalegia zelako.

Lacanen lehen testuak 1920ko hamarkadaren amaierakoak dira, baina 1926an hasi zen psikiatrian espezializatzen eta lehen lanak argitaratzen. Garai horretan sortu zen Frantziako lehen elkarte freudiarra: Pariseko Elkarte Psikoanalitikoa.

1927-28 urteetan egin zuen prestakuntza klinikoa Sainte-Anne Ospitalean. 1928an gerrako traumaz artikulatu bat eta haluzinaziozko eldarnioei buruzko beste bat idatzi zituen Lacanek, lankide batzuekin batera.

1930ean psikoanalisiara eta surrealismora (Breton, Dalí, Picasso) hurbildu zen, *Littérature* aldizkariaren bidez. Salvador Dali ezagutu zuen, hark “Asto usteldua” argitaratu zuenean; jakin mina piztu zion hark egiten zuen paranoiaren interpretazioak. Urte berean bi hilabeteko egonaldia egin zuen, Suitzako Zurich-eko Burghölzli klinikan. 1931n argitaratu zuen “*Structures des psychoses paranoïaques*” eta medikuntza forentseko diploma lortu zuen. 1931n Sainte-Anne ospitalera itzuli zen Lacan; han paranoia auto-zigortzailea jasaten zuen Aimée (Marguerite Pantaine-Anzieu) analizatu zuen eta doktorego tesia prestatu zuen paziente haren kasua gaitzat hartuta. Aktoresak bati eraso egin izanagatik zegoen Aimée ospitalean (Evans, 2006). Lacanek ez zuen onartzen paranoiaren sustrai homosexualei buruzko Freuden teoria eta forklusioaren teoria proposatu zuen. Eldarnioz eratutako psikosi mota bat litzateke paranoia, forklusioaren mekanismoak azaltzen duena (Evans, 2006).

Lacane paranoiaiekiko duen interesa psikoanalisiarekiko duena baino lehenagokoa da; bere lehen lan nagusiaren, hots, bere doktorego-tesiaren gaia da (Lacan, 1932). Lan horretan, Lacanek «Aimée» deitzen duen emakume psikotiko bati buruz hitz egiten du, eta «auto-zigor paranoia» (paranoïa d'autopunition) pairatzen duela diagnostikatzen du —Lacanek berak proposatutako kategoria kliniko berria—. Lacan paranoiaren gaira itzultzen da 1955–6ko bere mintegian, eta Schreber kasuari buruzko iruzkin iraunkor bati eskaintzen dio. Freuden paranoiaren sustrai homosexualei buruzko teoria desagokia iruditzen zaio Lacani eta, horren ordez, FORKLUSIOAREN teoria proposatzen du psikosiaren mekanismo espezifikoko gisa (or. 137, Evans, 2006).

Sainte-Anne-n zegoela amodiozko harremana izan zuen Marie-Thérèse Bergerot-ekin eta hari eskaini zion doktorego tesia 1932an. Olesia Sienkiewicz-ekin ere harreman estua izan zuen. 1932an argitaratu zen *Revue Française de Psychanalyse* aldizkarian Lacanek itzultitako Freud-en idazlana: *Jeloskortasunaren, paranoiaren eta homosexualitatearen mekanismo neurotikoa* batzuk. Urte horretan bertan defendatu zuen *De la Psychose paranoïaque dans ses*

rapports avec la personnalité izenburua zeraman doktorego tesia. Tesi horretan autozigorketa-paranoia diagnostikatu zitzaion Aimée-ri. Pierre Janetek eta Dalík Lacanen ikerketa goraipatu zuten. Freudi ere bidali zion Lacanek tesiaren kopia bat, baina hark ez zuen bere iritzia eman. Urte horretan hasi zen Lacan Rudolph Loewenstein-ekin psikoanalizatzen. 1933an Lacanek bi artikulua argitaratu zituen *Minotauro* aldizkari surrealistan.

1933an ezagutu zuen Lacanek Marie-Louise Blondin, bere lagun Sylvain Blondin-en ahizpa; hartaz maitemindu eta 1934an ezkondu ziren biak. Blondin-ekin hiru haur izan zituen Lacanek: Caroline, Thibaut eta Sybille.

1934ko urrian Alexander Kojève-k Hegelen *Espirituaren Fenomenologiari* buruz École Pratique des Hautes Études-en emandako mintegian esku-hartu zuen Lacanek eta 1937ra bitartean jarraitu zituen mintegi horiek. Mintegi horietan aztertu zituen Hegel, Heidegger, Nietzsche eta Husserl, besteak beste (Shepherdson, 2003). Han ezagutu zituen Georges Bataille eta Raymond Queneau.

Nazioarteko Elkarte Psikoanalitikoa 1910ean sortu zuen Freudek, munduan zehar sortutako hainbat elkarte psikoanalitiko babesteko. 1934ko azaroan bihurtu zen Lacan Pariseko Elkarte Psikoanalitikoko kide eta 1936an ekin zion jarduera psikoanalitiko pribatuari. 1936ko abuztuan, Marienbad-eko Nazioarteko Elkarte Psikoanalitikoaren XVI. kongresuan aurkeztu zuen Lacanek “Ispiluaren aroari” buruzko lehen ikerketa. Nazioarteko Elkarte Psikoanalitikoaren Lehendakari zen Ernest Jones-ek eragotzi egin zion Lacani hitzaldia amaitzea, lanaren aurkezpenarako ezarritako denbora-muga gainditu zuelako (Lacan, 1966). Aurkezpena hasi eta hamar minutura eten zuen komunikazioa, finkatu baitzegoen komunikazio bakoitzak izango zuen denbora-tartea. Komunikazio hori ez zen argitaratu kongresuko beste lanen artean, Lacanek ez zuen kopiarik utzi eta. Lacanen lan horretatik Françoise Doltok hartutako apunte batzuk eta Lacanekin lankidetzan jardun zen Kojève-ren artikulua baten zirriborroa besterik ez zaigu geratzen.

Löwenstein-ekin prestakuntza analisia egin zuen Lacanek 1932tik 1939ra bitartean, eta desadostasun batekin eten zuten analisia: Lacan eta Löwenstein ez zeuden ados analisiaren amaierari buruz; Lacanek erabaki zuen analisia amaitua zegoela eta ez zen itzuli Löwenstein-en kontsultara. 1938an Löwenstein-ek onartu zuen Lacan Pariseko Elkarte Psikoanalitikoan analizatzaile entrenadore izateko hautagai izatea, baina baldintza batekin: analisisan jarraitzekotan. Baina, elkarteko kide izendatua izan zenean, analisia eten egin zuen Lacanek eta Löwenstein haserretu egin zen. 1938an Pariseko Elkarte Psikoanalitikoaren kide titular bihurtu zen Lacan (Diatkine, 2007). 1938an familiari buruzko artikulua bat idatzi zuen Lacanek eta Entziklopedia Frantsesean argitaratu zuen.

Hitlerrek Austria bereganatu zuenean, Freud Londonera joan zen, Parisetik pasatu ostean. Parisen Freuden ohoretan egindako ekitaldira ez zen agertu Lacan. 1939an hil zen Freud Londonen. 1940an, Vichyren erregimenak agintea hartu zuenean, Pariseko Elkarte Psikoanalitikoak bere jarduera eten egin zuen. Alemaniak Frantzia menderatu zuenean, 1940an, Pariseko Val-de Grâce Ospitale militarrean egin zuen zerbitzua Lacanek eta Sylvia Bataille-ren maitale izan zen; Sylviarekin haurra izan zuen 1941ean: Judith Bataille. Bataille deitura eman zioten, Lacanek lehen emaztearekin ezkondata jarraitzen zuelako. Lacan eta haren emaztea 1941ean dibortziatu ziren, baina Lacanek Blondinekin izandako haurrek ez zuten denbora luzez Sylviaren berririk izan. Sylviak erbesteratze mehatxua jaso zuen, judua zelako.

1944an Lacanek Merleau-Ponty, Sartre eta Picasso ezagutu zituen eta haien eragina izan zuen. 1949an hasi zuen Levi-Strauss-ekin adiskidantza aldi luze bat.

II. Mundu Gerraren garaian txinera ikasten jardun zen Lacan eta Ekialdeko Hizkuntzetan lizentziatu zen. 1945ean Ingalaterran hilabete eman zuen gerra garaiko psikiatriaren egoera aztertzen eta presoak berregokitzeko terapiak ezagutu zituen. Gerra garaian eta gerra ostean hainbat testu garrantzitsu idatzi zituen, 1966an *Écrits*-en argitaratu zirenak: *“Logical Time and the Assertion of Anticipated Certainty: A New Sophism”* (1945); *“Presentation on Psychical Causality”* (1946); *“Aggressiveness in Psychoanalysis”* (1948); eta *“The Mirror Stage as Formative of the I Function as Revealed in Psychoanalytic Experience”* (1949). 1946an bere jarduerari berrekin zion Pariseko Elkarte Psikoanalitikoak eta elkarte horretako irakaskuntza batzordeko kide bihurtu zen Lacan 1948an.

II. Mundu Gerraren ostean hasi zen Lacan Psikoanalisia irakasten. 1953tik hil arte jardun zen mintegiak ematen Sainte-Anne Ospitalean, École Normale Supérieure-n eta Zuzenbide Fakultatean. *Pariseko Eskola Freudiarra* 1964an fundatu zuen eta 1980an berak desegin zuen. Gogoeta filosofikoa (Hegel, Nietzsche...) psikoanalisiarekin elkartu zuen eta kontuan hartu zituen beste diziplinetako lorpenak, hala nola, estrukturalismoarena, matematiketako topologiarena eta hizkuntzalaritzarena.

Zorotasunaren alderdi positiboak aldarrikatzen zituzten Lacanek eta surrealisten (Breton, Dali...). Paranoia gizakiaren egoera naturalizat hartzen zuten eta histeria ez zuten gertaera patologikotzat hartzen, gertaera psikologikoen adierazpide egokitzen baizik.

1948an Melanie Kleinen tesiak defendatzen zituen lan bat aurkeztu zuen Lacanek Hizkuntza Frantseseko Psikoanalisten XI. Kongresuan. 1949an Zurich-en ospatu zen IParen (NEParen) Psikoanalisiaren Nazioarteko XVI. Kongresuan ispiluaren aroari buruzko lan hau aurkeztu zuen: *Ispilu aroa niaren funtzioaren eratzaile moduan, esperientzia psikoanalitikoan agertzen zaigun gisara* (Ecrits, 1966).

1950ean Hizkuntza Frantseseko Psikoanalisten XIII. Kongresuan lan bat aurkeztu zuen Lacanek Kriminologian psikoanalisia erabiltzeari buruz. Elkarrizketa psikoanalitikoaren bidez kriminalaren mundu imajinarioa uler litekeela esaten zuen. Gaizkileak komunitatean berrintegratzeko ahaleaginean Ego Psikologia albora utzi zuen, Lévi-Strauss, Heidegger, Saussure, Jakobson eta Hegelen eraginari jarraituz. Pentsalari horien eraginez, ondorio honetara heldu zen: ez da psikologia hizkuntzaren izaera azaltzen duena, baizik hizkuntza, psikologia determinatzen duena; inkontzientea hizkuntza baten moduan egituratua dago. Egitura psikikoa aztertzeko ahaleaginean, Niaren Psikologiaren autoreen kontra (Heinz Hartman, Lowenstein eta Ernst Kris) eta hizkuntza baliatzearen alde egin zuen Lacanek (Feher-Gurewich, 2003).

1951 urtean luzera aldakorreko psikoanalisia saioak egitea proposatu zuen Lacanek. Pariseko Elkarte Psikoanalitikoko beste kideek gaitzetsi egin zuten proposamen hori. Urte horretan hasi zen Lacan asteroko mintegiak ematen, Sylvia Bataille-ren apartamenduan. Urte berean Amsterdam-en ospatu zen IPako (NEP: *Nazioarteko Elkarte Psikoanalitikoa*) Kongresuan azkeneko aldiz parte hartu zuen Lacanek.

1951-52 ikasturtean Freuden Giza-Otsoaren kasua aztertzeko mintegi bat eman zuen. 1952-53 ikasturtean Freuden Giza-Arratoiaren kasua aztertu zuen. Pariseko Elkarte Psikoanalitikoaren baitan eztabaida asko izan ziren, besteak beste, psikoanalisiako saioen iraupenaz; 1953an zatitu egin ziren eta Lacan lehendakari izendatu zuten. Urte horretan Lacan

Bataille-rekin ezkondu zen, Ediporen Konplexua berraztertu zuen eta *Aitarek Izena* adierazpena sortu zuen. Istiluak izan ziren Pariseko Elkarte Psikoanalitikoaren baitan eta Lacanek lehendakari izan zen. Daniel Lagache-k, Françoise Dolto eta Juliette Fabez-Boutonnier-ek Frantziako Elkarte Psikoanalitikoaren baitan sortu zuten. Lacanek utzi egin zion *Pariseko Elkarte Psikoanalitikoko* kide izateari, 20 urtez kide izanda gero, eta Frantziako Elkarte Psikoanalitikoaren kide egin zen. Laster, ordea, Nazioarteko Elkarte Psikoanalitikoak jaurtiki egin zituen bere baitatik Frantziako Elkarte Psikoanalitikoko kideak (Diatkine, 2007).

1953ko azaroan hasi zen Lacan Santa Ana ospitalean lehen mintegia ematen: *Freud's Papers on Technique* (1953–1954). Geroztik, hogeita zazpi urtez jardun zen urtero mintegia ematen. 1953tik 1963ra arte, Sainte-Anne Ospitalean eman zituen mintegiak. 1963tik 1969ra École Normale Supérieure-en eman zituen. Azkenik, 1969tik 1980ra bitartean, Panthéon-go Zuzenbide Fakultatean eman zituen. Nazioarteko Elkarte Psikoanalitikoak behin eta berriro ukatu zion sarrera Frantziako Elkarte Psikoanalitikoari, Lacan haren kide zelako.

Psikoanalisiarako saio laburren defentsa arrazoi hauetan oinarrituta egin zuen Lacanek: saioaren etetea pazientearen diskurtsoa puntuatzeko baliatu behar da. Tratamenduaren markoa alda liteke, bai denborari dagokionez, bai espazioari dagokionez. Freudek ordubeteko saioak egiten zituen, ingelesek, berrogeita hamar minutukoak eta frantsesek, hiru ordu laurdenekoak. Orduan, zergatik ez egin denbora laburragokoak? Terapia saioen iraupena ez da psikoanalisiak berez eskatzen duen zerbait, erregulazio administratibo bat baizik.

1953ko irailean eman zuen Lacanek Erromako diskurtso ezaguna: hizketaren eta hizkuntzaren funtzioa eta eremua psikoanalisian. Hitzaldi horretan adierazlearen teoria (Saussure-ren ikuspegia), imaginario-sinboliko-erreal hirukotea eta saioen iraupenaren aldakortasuna agertu zituen Lacanek. Lacan ordurako ezaguna zen psikoanalisiaren teoriko gisara: ispilu aroa, familia konplexuak eta Edipo ikertuak zituen (Diatkine, 2007; Dean, 1992).

1954an Carl Gustav Jung bisitatu zuen Lacanek Suitzan; bisitaldi horretan Jung-ek Lacani 1909an gertatutako pasarte bat kontatu zion: urte horretan, Estatu Batuetara joan ziren elkarrekin Freud eta Jung, Clark Unibertsitatean hitzaldi batzuk ematera, eta Freudek Jungi esan zion biek ala biek izurritea eramango zutela Estatu Batuetara.

Pariseko Elkarte Psikoanalitikoko kide izateari uztea Nazioarteko Elkarte Psikoanalitikoko kide izateari uztea zenez, Lacanek eskaera egin zion Nazioarteko Elkarte Psikoanalitikoari, Frantziako Elkarte Psikoanalitikoaren baitan har zezan, baina ez zuten onartu, 1955ean emandako erantzunean ikus daitekeen gisara. Nazioarteko Elkarte Psikoanalitikoko kide izateari uztean, elkarte itxitzat hartu zuen hura Lacanek; elkartearen prozedura burokratikoak kritikatu zituen, eta psikoanalistak entrenatzeko zuen programa ere bai. Niaren Psikologiari (Ego psikologiari) kritika gogorrak egin zizkion, eta baita Melanie Kleinen Psikoanalisiari eta Objektu Harremanen Teoriari ere. Niaren Psikologiari dagokionez, Freudek jadanik Inkontzientea eta Zera azpimarratu zituen, Niaren aurrez-aurre. Lacanek, berriz, Saussure, Lévi Strauss eta antropologia estrukturalistaren ekarpenetan oinarritu zuen bere irakaskuntza. Heidegger-ekin ere elkartu zen 1955ean. Argazki batean elkarrekin agertzen dira Heidegger, Elfriede Heidegger, Kostas Axelos interpretea, Lacan, Jean Beaufret, eta Sylvia Bataille (Lacanekin ezkondua).

<https://www.facebook.com/photo/?fbid=3246354888792445&set=quando-heidegger-conoci%C3%B3-a-lacan-1955esta-foto-ha-estado-circulando-en-facebook->

1950eko hamarkada oso emankorra izan zen Lacanen bizitzan. Garai horretakoak dira mintegi hauek: *Freuden idatzi teknikoak* (1953-54), *Nia Freuden teorian eta teknika psikoanalitikoan* (1954-55). Garai horretakoa da *Gauza freudiarra edo Freudenganako itzuleraren zentzua* izeneko hitzaldia ere. Ego Psikologiaren kontra gogor jo zuen *Sendatze-tipoaren aldaerak* izeneko idatzian.

1956an *La Psychanalyse* aldizkaria atera zen eta lehen zenbakia Lacani eskaini zitzaion. Artikuluaren artean *Erromako Txostena* eta Heidegger-en *Logos* (1951) izeneko artikulua, Lacanek itzulia, argitaratu ziren. Berriro ere Nazioarteko Elkarte Psikoanalitikoaren kide izateko eskaera egin zuen Frantziako Elkarte Psikoanalitikoak (FEP). Nazioarteko Elkarte Psikoanalitikoak 1961ean esan zuen Frantziako Elkarte Psikoanalitikoa haren kide izan zitekeela, Doltok eta Lacanek analisi didaktikoa uzten bazuten.

Azkenik, ikusita Lacanek iraupen jakinik gabeko saioak egiten eta ortodoxia psikoanalitikoarekiko jarrera kritikoa izaten jarraitzen zuela, honako hau erabaki zuen 1963an Nazioarteko Elkarte Psikoanalitikoak: Nazioarteko Elkartearen kide izateko eskaera onartuko zitzaion Frantziako Elkarte Psikoanalitikoari, analisten zerrendatik Lacan ezabatzen bazuten. Frantziako Elkarte Psikoanalitikoko kide gehienek onartu egin zuten eskaera eta Lacani kendu egin zitzaion analisi didaktikoa egiteko eta Sainte-Anne Ospitalean mintegiak ematen jarraitzeko baimena, hamar urtez mintegiak ematen jardun eta gero. Lacani kidegoa kentzeko arrazoi nagusia psikoanalisi saioen luzerari zegokiona zen; Nazioarteko Elkarte Psikoanalitikoak ez zuen onartzen iraupen aldakorreko saiorik.

1958 urtean Lacan-ek alemanez "Die Bedeutung des Phallus" ("The signification of the phallus") aurkeztu zuen Munich-eko Max-Planck Institutuan. 1963an "Kant Saderekin" izeneko saio teorikoa argitaratu zuen, desira, legea eta perbertsioari buruz.

Frantziako Elkarte Psikoanalitikoko kide izateari utzi ondoren, 1964an, sortu zuen Lacanek *Pariseko Eskola Freudiarra* (EFP = PEF), hainbat jarraitzaileekin batera. Eskola deitu zuen, prestakuntza psikoanalitikorako bitartekoa zelako, kide garrantzitsuen inguru antolaturiko erakunde bat baino areago. Ez zuen nahi hierarkiak erakundea menderatzerik, Nazioarteko Elkarte Psikoanalitikoan gertatu zen moduan. Eskolaren oinarritzko printzipiotzat honako hau hartu zuen: analizatzaileari autorizazioa emango diona bere burua da. Pariseko Eskola Freudiarrean kide guztiek (analizatzaileek, entrenatuek eta psikoanalisian interesa zutenek) eskubide berberak zituzten. Honako kide mota hauek zeuden: Eskolako Kideak, Eskolako Kide Analizatzaileak, Eskolako Analizatzaileak eta Analizatzaile Praktikatzailak. Eskolako Kide Analizatzaileei eta Eskolako kideei aitortzen zitzairen analizatzaile izaera, baina besteek ere egin zitzaketen analisiak, eta beren buruak izenda zitzaketen Analizatzaile Praktikatzailak. Eskolako Kide Analizatzaile izan nahi zuenak kide seniorrez osatutako epaitegi baten aurrean demostratu behar zen bi paziente modu egokian analizatu zituela. Eskolako Kide Analizatzaileak kide titularren modukoak ziren. Eskolako Analizatzaile titulua lortzeko, berriz, Pasearen prozedura erabiltzen zen. Prozedura horren bidez analisiaren amaiera egiaztatu behar zen. Pariseko Eskola Freudiarra azkar hedatu zen munduan zehar, eta 1980ra bitartean iraun zuen (or. 175, Evans, 2006).

Pasea lortu nahi zuenak bi pasatzaileri eman behar zien analisiaren esperientziaren berri. Pasatzaileek zazpi epaimahaikideri agertzen zieten entzundakoa. Epaimahaiari zegokion hautagaia Eskolako Analizatzaile izendatzea. Izendapen horretarako aurrez ezarritako irizpiderik ez zegoen. Izendatua izatea lortzen ez bazuen, berriro aurkez zezakeen bere

hautagaitza. Pasea ez zen derrigorreko prozesua, analizatzaile izateko baimena norberarengandik baitzectorren (or. 175, Evans, 2006).

1963-64ko Mintegia (XI.a) École Normale Supérieure-en (École Pratique de Hautes Études-en babesean) eman zuen Lacanek, *The Four Fundamental Concepts of Psychoanalysis* gaiari buruz, Claude Levi-Strauss eta Louis Althusser-en sostenguari esker. 1963an desegin zen Frantziako Elkarte Psikoanalitikoa. 1966an Lacanek hitzaldi batzuk eman zituen Estatu Batuetako Unibertsitate batzuetan (Columbia, Harvard eta MIT) eta "The Languages of Criticism and the Sciences of Man" izeneko nazioarteko sinposiumean parte hartu zuen, Johns Hopkins Unibertsitatean. 1966an, baita ere, *Écrits* idazlan bilduma argitaratu zuen Seuil argitaletxean, zuzentzaile lanetan honako hauek jardun zirelarik: Alain Miller, Wahl, Michel Foucault eta Gilles Deleuze. Lacanek 1936tik 1966ra bitartean idatzitako artikulu eta entsegu garrantzitsuenak biltzen ziren idazlan horretan. Mintegietako idatziak ulergarriagoak dira *Écrits*-ekoak baino. Jokoen teoriaren, estrukturalismoaren, Lévi-Strauss-en antropologiaren, Jakobsonen fonologiaren eta matematiketako topologiaren eraginez, gero eta grafo, sinbolizazio eta diagrama gehiago agertzen ziren Lacanen idatzietan.

1968ko maiatzeko ikasleen erreboltekiko izan zuen jarreraren ondorioz, École Normale Supérieure utzi beharrean gertatu zen Lacan: Eskola horretako zuzendari berriak, pertsona non grata izendatu zuen (Rabaté, 2006). 1969an Vincennes-eko Paris VIII Unibertsitateko Psikoanalisi Departamendua sortu zen eta Lacan Zuzenbide Fakultatean mintegiak ematen hasi zen. Han jarraitu zuen 1980an Pariseko Eskola Freudiarra desegin zen artean.

1968an *Scilicet* aldizkariaren lehen alea agertu zen eta Vincennes-ko Unibertsitatean Psikoanalisiako Saila sortu zuten. Lacanek École Normale utzi zuen eta 1969an Pantheon enparantzako Zuzenbide Fakultatean hasi zen asteroko mintegiak ematen. 1970 utzi zuen Leclaire-ek Paris VIII Unibertsitateko Psikoanalisi Sailaren zuzendaritza eta Jean Clavreul-ek hartu zuen haren lekua.

Ludwig Wittgenstein-en *Tractatus logico-philosophicus*-ek eragin handia izan zuen Lacanengan. *Psikoanalisiaren beste aldea* izeneko mintegian (XVII) komentatu zuen idazlan hori. Psikoanalisi zientzia zehatz bihurtu nahi izan zuen eta horretarako sortu zituen matema eta *korapilo* borromeoaren kontzeptuak; aspalditik zectorren Lacan matematikaren eta giza zientzien artean lotura bat ezarri nahian. Psikoanalisi matema sartu eta psikoanalisi diskurtso unibertsitarioan sartzeko ahalegindu zen. Asmo horrekin irudi topologiko batzuk landu zituen: Möbius-en banda, Klein-en botila, toroa edo eraztuna, kapela gurutzatua (Greenshields, 2017).

Psikoanalisiako lau oinarritzako kontzeptuak izeneko mintegiaren transkribapena 1973 urtean argitaratu zuen. Urte horretan Frantziako telebistak Lacan eta Miller-en arteko elkarrizketa bat emititu zuen. 1974an berrantolatu zen Paris VIII Unibertsitateko Psikoanalisi Saila, *Le Champ Freudien* izena hartu zuena. Lacan zuzendari eta Jacques-Alain Miller lehendakari izendatu zituzten. 1975ean argitaratu zen *Ornicar* aldizkariaren lehen alea.

1975-76 ikasturtean "*Joyce le sinthome*" izeneko hitzaldia eman zuen Lacanek eta "*Le sinthome*" izeneko mintegi bat eskaini zion Joyce-ri. Lacanek berriro ere Estatu Batuetan hitzaldi sorta bat eman zuen 1975ean. 1979an *Fondation du Champ Freudienne* eratu zuen eta bere alaba Judith Miller (Judith Bataille) izendatu zuen zuzendari.

1980an Pariseko Eskola Freudiarra desegin zuen Lacanek eta 1981ean hil zen koloneko minbizi baten ondorioz, laurogei urte zituela. Lacanen suhiak, Jacques-Alain Miller-ek, *Freudiar Kausaren Eskola* (ECF= École de la Cause Freudienne) fundatu zuen, Pariseko Eskola Freudiarren jarraipen modura. Lacanen idatzien argitalpenei buruzko kontrola Eskola horren eskuetan egon da eta berori izan da Lacanen idatzien bertsio ofizialak erabaki dituenak. Jacques Alain Miller-ek hartu zuen Lacanen mintegiak editatzeko ardura.

Erregistroen teoria

Irudimenezkoa, Sinbolikoa eta Erreala subjektu psikikoaren hiru oinarritzko dimentsio edo erregistroak dira Lacanentzat. Erregistro horietatik ulertzen dira Freuden lehen eta bigarren topikoak. Erregistro horietako bakoitza ulertzeko, beste biak kontuan hartu behar dira. Subjektuaren egitura psikikoaren hiru erregistro edo dimentsioak hiru uztaien bidez adierazten ditu Lacanek; uztaien arteko harremana korapilo borromeo deituaz errepresentatzen du. Elkarri lotutako hiru uztaiak hiru dimentsioak adierazten dituzte: Erreala, Imajinarioa eta Sinbolikoa. Hiru horietako bat bereizten badugu, beste biak ere elkarrengandik aldentu egiten dira. Uztaietako bat hausten bada, beste biak ere loturarik gabe geratzen dira. XXII. mintegian aztertu zuen Lacanek gai hori (1974-75: R.S.I. mintegia).

1970eko hamarkadan, Lacanek psikosiaren ikuspegia birformulatu zuen BORROMEOREN KORAPILOA nozioaren inguru. Korapiloaren hiru eraztunek hiru ordena adierazten dituzte: erreala, sinbolikoa eta imajinarioa. Neurosian hiru eraztun horiek modu jakin batean lotzen dira, baina psikosian askatu egiten dira. Disoziazio psikotiko hori batzuetan ekidin daiteke, ordea, beste hiru eraztunak elkarrekin lotzen dituen laugarren eraztun gisa jokatzeko duen formazio sintomatiko baten bidez (or. 157, Evans, 2006).

Bere bizitzaren amaieran Lacanek honako hau esango du, modu sinple batean, bigarren topikoko instantzien trilogia freudiarrari buruz: "Hemen dituzue: nire hirurak ez dira harenak. Nire hirurak erreala, sinbolikoa eta imajinarioa dira. Borromeoren korapiloaren topologiaren bidez kokatzen ditut nik" (Caracas, en L'Ane, nº 1) (Assoun, 2008).

Lacanen bizitza bana daiteke hiru etapetan: lehen etapan Irudimenezko erregistroa nagusitzen da; bigarrenengoan Sinbolikoaren erregistroa nagusitzen da; azkenengoan, Errealaren erregistroa nagusitzen da. Imajinarioaren, sinbolikoaren eta errealaren bidez nia (selfa) eratzen duena Bestea da. Inkontzientea eratzen duten indarrei egiten die erreferentzia Besteak. Beste imajinarioa ama da; harekin identifikatzen da haurra. Beste sinbolikoa aita da; hark errepresentatzen du hautemate inkontzienteek antolatzen duten hizkuntza. Beste erreala sinbolizatu ezina da (Dean 1992).

Ispilu aroa eta Irudimenezkoaren erregistroa

Haurrak bere bizitzako lehen hilabeteetan ez du osotasun moduan ikusten bere burua; zatikatua den zerbaiten gisara bizi du bere gorputza; haren zatiek ez dute loturarik eta koordinaziorik. Haurra liluratua sentituko da ispiluan bere burua osorik ikusten duenean. Zatikatua zegoen gorputza osorik eta integraturik ikusteak sortzen dion lilura da.

Oraindik ispilu aroan sartu ez den haurrak entitate zatikatu moduan ikusten du bere gorputza; ez du osotasun bateratu moduan hautematen. Haurrak ispiluan ikusten duen irudi bateratuak elkartuko ditu haren niaren zatiak; irudi horretan bateratuko dira haurraren gorputzaren zatiak. Ispiluak agertzen duen kanpoko irudiarekin identifikatzean, eraldaketa bat gertatuko da haurraren; ispiluak islatzen duen kanpoko irudi hori bihurtuko da haurraren niaren lehen ordezkari eta aurpegi irribarretsuz begiratuko dio irudi horri (Lacan, 1966).

“Horrela ulertuta, ispilu-aroa oinarritzko identifikazio baten esperientzia eta irudi baten konkista ere izango da, gorputzaren irudiarena, hain zuzen ere. Irudi horrek ni-moi edo hobeto esanda “je” egituratzen du, subjektua bestearekiko identifikazioaren dialektikan sartu aurretik, hizkuntzaren bitartekaritzaren bitartez” (or. 22, Palmier 1972).

Ispilu aroak harreman bitarikoaren izaera gatazkatsua ilustratzen du. Ispiluko bere irudiarekin identifikatzean eratzen da Nia edo Egoa. Haurrak sei hilabete dituen eta oraindik gorputzeko zatien koordinaziorik eta gorputz mugimenduen kontrolik ez duenean, ikusmen sistemak aurre hartzen dio gorputz eskemari eta eta haurrak bere burua ezagutzen du ispiluko irudian. Gorputza zatikatua sentitzen duen arren, bere burua ispiluan osorik hautematen du. Lacanentzat, ispiluan atzematen duen irudi horretan oinarritzen da subjektuaren egitura. Ispilu aroan gertatzen diren identifikazio prozesuek eratuko dute subjektua. Subjektua ispiluko irudiarekin identifikatuko da eta identifikazio horretatik eratorriko da haren Nia.

Sei hilabete eta urte eta erdi arteko haurrek baliabide fisiko eta psikiko murriztak dituzte eta besteen babesaren beharra dute (Lacan, 1966). Besteen babesik ezean, zapuztuak eta barne-hersturatuak sentitzen dira. Lacanentzat, ispiluaren aroan hasten da haurra bere osotasunaren kontzientzia hartzen. Ispilu aroan bizi izaten duen identifikazio esperientziari esker, ispiluan islatua ikusten duena bere iruditza hartzen du eta ihes egiten die gorputz zatikatuaren fantasia larriarazleei. Bere buruaren irudia ispiluan ikusteak osotasunaren lilura sortzen dio. Engoitik, ez du bere burua gorputz zatikatutzat hartzen, osotasun batu eta integratutzat baizik. Niaren erdigunean finkatzen da ispiluko irudi oso hori.

Onartu behar da gorputzaren batasuna ez dela hasieratikoa, lorpen luze baten emaitza baizik. Lehena dirudiena, aldiz, zatikaturiko gorputzaren antsietatea da. Ispiluaren eta berorri atxikitako fasearen funtzioa sakabanatze edo zatikamendu izu horri amaiera ematea izango da, haurra subjektu gisa osatuko duen dialektika batean integratuz (or. 23, Palmier, 1972).

Lacanen iritziz, hortik honako hau eratorriko litzateke: “ikusmenezko hautematearen heltze goiztiarrak aitzinatze funtzional baten balioa hartuko luke”. Era

berean, ezagutzaren ikusmenezko egitura nagusi izango litzateke, zalantzarik gabe (or. 24, Palmier, 1972).

Lacanek ispilu aroari dagokion aurkikuntza hori 1936an egin zuen eta ispilu aroa subjektuaren izaeraren egitura iraunkor bihurtu zuen 1950ean. Dimentsio imajinarioan subjektua bere irudiak atzematen duenean, harreman afektibo bat sortzen da haurraren eta besterentzen duen irudiaren artean eta elkarreragin horretatik sortzen da Nia izeneko antolamendu afektiboa (Lacan, 1966).

Lacanen ispilu-aroaren kontzeptua (Wallonen «ispilu-proba»-ren aurrez aurre) esperimentu hutsa baino askoz gehiago da: ispilu-aroak subjektibotasunaren egituraren oinarritzko alderdi bat adierazten du. 1936-49 urteen artean, badirudi Lacan-ek haurraren garapenaren une zehatz batean kokatu daitekeen etapa espezifiko baten modura ikusten duela ispilu aroa; etapa horrek hasiera bat (sei hilabete) eta amaiera bat (hemezortzi hilabete) izango lituzke (ikus E, 5) (or. 118, Evans, 2006).

Aldi horren amaieran kontzeptua zabaltzen ari den zantzuak ageri dira jada. 1950eko hamarkadaren hasieran Lacan-ek jada ez du haurraren bizitzako une bat soilik ikusten, baizik eta subjektibotasunaren egitura iraunkor bat irudikatzen duela ikusten du, hain zuzen ere, ordena IMAJINARIOAREN paradigma; estadio (stade) horretan subjektua betirako bere irudiak harrapatu eta liluratzen du (or. 118, Evans, 2006).

Honela, 1956an honakoa esan dezake Lacanek: «Ispilu-aroa urrun dago haurraren garapenean gertatzen den gertaera soil edo huts bat izatetik. Bitariko harremanaren izaera gatazkatsua ilustratzen du (S4, 17) (or. 118, Evans, 2006).

Haurrak ispiluan bere burua ikusten duenean, hasieran beste izaki erreal bat dela iruditzen zaio; gero konturatuko da izaki erreal baten irudia dela, eta ez izaki erreal bat; azkenik, irudi horretan bere buruaren irudia ikustera helduko da. Honako hauek dira, beraz, ispilu aroaren hiru aroak: Lehen fasea imajinarioa da: haurrak nahastu egiten ditu bere burua eta bestea; ispiluan dakusan bere buruaren irudia izaki erreal bati dagokiola pentsatzen du. Bigarren fasean haurrak bereizi egiten ditu bestearen errealitatea eta irudia eta konturatzen da ispiluan dakusan bestea irudi bat dela. Hirugarren fasean haurra konturatzen da ispiluan islatzen dena bere irudia dela eta bere lehen identitatea (Gorputz Nia edo Moi) lortzen du. Hiru fase horietan zehar ispilu aroak imajinarioaren dimentsioa irekiko du eta ispilu aroaren une batean kanpoko objektu baten irudikapenak harrapatzen du haurraren begirada. Ispiluko aroan subjektua imajinarioan besterentzen da, eta hortik aurrera bere burua ez du ezagutuko (Lacan, 1966; Palmier, 1977).

Haurrak ispiluaren aurrean bere gorputza eta bere irudi islatua bereizten ditu; liluraturik gelditzen da bere burua ispiluan islatua ikusten duenean eta bere iruditza hartzen duenean. Haurrak bere gorputzaren batasuna osatzen duen irudien espazioa modu sinbolikoan ulertzen du, ispiluko irudietatik sinbolikora pasatzen baita (Roudinesco, 2006).

Ispilu aroaren ideia sorburuan daude Lacan eta Salvador Daliren elkarriketak eta ezagutza paranoikoaren ideia. Subjektuak bestearen irudiarekin identifikatzen du bere burua, bizitzako bigarren urtean bere burua ispiluan ikusi eta bozkario handia sentitzen duenean. Tirabirak sentitzen ditu bere gorputz zatikatuaren eta ispiluko bere irudi osoaren artean. Bere baitan zatikatua sentitzen du gorputza, baina osatua ikusten du ikusmen eremuko irudian. Ispiluan ikusten duen irudiak osotasun ilusioa ematen dio eta osotasun ilusio horrek liluratzen

du; Nia irudi bat da. Ispiluko bere irudiarekin identifikatzen da haurra eta identifikazio hori izango da Niaren ernamuina.

Urte eta erdirekin, haurrak ez du oraindik bere gorputza kanpoko mundutik bereizten den osotasun moduan benetan ezagutzen. Baina, zer gertatzen da une honetan, hamasei eta hemezortzi hilabeteren artean? Hau da Lacanen ispilu aroaren teoriak erantzuten duen galdera. Subjektuak bere heltze propioa aurreikusten du, bere gorputzaren forma osoa bere baitatik at dagoen irudi baten egoeran atzemanetz, gorputz-eskemaren nozioaren aurreko garai batean; eta bera ez den irudi horrekin identifikatzean, haurrak bere burua ezagutzea lortzen du” (or. 35, Palmier, 1972).

Subjektua ispiluko irudian besterentzen da eta erregistro imajinarioan zatikatzen da: bere burua zatikatua sentitzen du, baina bere irudia osotasun moduan ikusten du. Ispilu aroan harreman gatazkatsuak eta bitarikoak izaten ditu haurrak. Erasokortasuna erretrospektiboki sortzen da, ispilu aroko irudi zatikatutik.

Lacane niaren eta kontrapartearen arteko bitariko harremanean kokatzen du erasokortasuna. ISPILU-AROAN haurrak ispiluan duen isla osotasun gisa ikusten du, gorputz errealeko deskoordinazioarekin kontrastean: kontraste hori ispiluko irudiaren eta gorputz errealearen arteko tentsio oldarkor gisa bizi izaten da, irudiaren osotasunak gorputza desagitearekin eta zatiketarekin mehatxatzen duela baitirudi (ikus GORPUTZA ZATIKATUA) (or. 6, Evans, 2006).

Haurra bere irudiarekin identifikatuko da eta gaingitu egingo ditu gorputzaren zatikamenduak sortzen dituen tirabirak. Haurraren Niaren lehen identitatean ez dago bestetasunik; ordena imajinarioan sartzean gertatzen da besterentze hori (Diatkine, 2007). Ispilu aroan beste baten irudiarekin identifikatzen da eta bere gorputzaren batasuna aurreikusten du (Roudinesco, 2006).

Lacane bereizi egiten ditu eremu imajinarioaren zati den ni edo self imajinarioa (ni-moi) eta eremu sinbolikoaren zati den inkontzientearen subjektua (ni-je). Haurrak ispiluko irudian ezagutzen du bere burua eta harekin identifikatzen da. Ispiluko irudiarekin egiten duen lehen identifikazio horretan aurkitu behar da subjektuaren jatorria. Bestearen begiradak esaten dio ispiluan hautematen duen irudia berea dela. Eremu imajinarioan haurraren eta haren ispiluko irudiaren artean bitariko erlazio nartzisista ezartzen da eta erlazio horren baitan eratzen da nia. Nartzisismo hori erasokortasunez igurtzia dago, norbera eta bestea gorputz propioarekin identifikatzen baitira. Nahasturik daude norbera eta bestea. Haurraren nia eratzen da horrela, bere buruaren etsai balitz bezala, herstura, zatikatze eta erasokortasun sentimenduz igurtzia. Etsaitasun sentimendua norberarengana eta besteengana hedatuko da. Egoa ordenu imajinarioaren zati da eta subjektua, ordenu sinbolikoaren zati. Subjektuak agentzia zentzu kontzientea eta inkontzientea, biak biltzen ditu. Subjektua, inkontzientearen subjektua da Lacanentzat. Lacanentzat kontzientzia imajinarioari dagokio; inkontzientea, berriz, sinbolikoaren erreinukoa da. Ikuspegi honetatik Egoaren psikologiatik urruntzen da Lacan. Egoaren psikologiak ez du ezagutzen inkontzientea eta hitzaren boterea.

Egoa identifikazio besterentzailez eratua dago eta benetako subjektua inkontzientearen subjektua da. Subjektua niarekiko deszentratua egoten da. Gure izatearen muina ez dator niarekin bat. Subjektuak norberaren kontzientziatik deszentratu egin behar

du. Subjektuaren esperientziaren baitan jartzen dute nia Freudek eta Lacanek. Niaz funtzio imajinarioa bat betetzen du subjektuaren baitan. Funtzio imajinario hori analisi klinikoko erresistentziarekin eta transferentzia negatiboarekin erlazionatua dago. Pazienteak analizatzailearekiko etsaitasuna agertzen du. Lacanek imajinarioari egozten dio terapiako erresistentzia.

1953an Lacanek subjektuaren eta EGOaren arteko bereizketa egin zuen, eta horrek jarraituko du bere lanetan zehar bereizketarik funtsezkoenetako bat izaten. Niaz ordena imajinarioaren parte den bitartean, subjektua sinbolikoaren parte da. Beraz, subjektua ez da agentzia zentzu kontziente baten baliokide hutsa, hau da, niak sortutako ilusio hutsa, inkontzientearen baliokidea baizik; Lacanen 'subjektua' inkontzientearen subjektua da. Lacanek dio bereizketa hori Freudek ere egiten zuela: «[Freud-ek] “Das Ich und das Es” idatzi zuen inkontzientearen benetako subjektuaren eta niaren arteko oinarritzko bereizketa horri eustearren, identifikazio besterentzaile sail batek eratzen duen moduan (E, 128). Tratamendu psikoanalitikoak niarengan eragin indartsuak dituen arren, subjektuarengan eragiten du nagusiki psikoanalisiak, eta ez niarengan (or. 197-198, Evans, 2006).

Lacanentzat ispiluko irudiarenganako erakarpen erotikoa da nartzisismoa. Ispiluko aroan egoa (nia) eratzen da, identifikazio primarioaren bidez. Identifikazio horren azpian erakarpen erotikoa nartzisista dago. Nartzisismo horrek osagai erotikoa eta erasokorrak ditu. Osagai erotikoa, subjektua bere irudiak erakartzen duelako. Osagai erasokorra, ispiluko irudiaren osotasunak kontraste egiten duelako subjektuaren gorputzaren zatikamenduarekin.

Nia pitzadurarik gabeko norberaren errepresentazioa da, batasunaren eta sintesiaren ilusioak harrapatua duena. Niaren irudi koherentearekin bat ez datorrena harengandik kanpora gelditzen da. Bere buruaz dituen usteen gainean eraikitzen da nia. Lacanek letra xehez idazten den “bestea” alter egoa da. Ni bestea naiz eta bestea ni da. “Ni bestea naiz”: nire bereizgarriak bestearengan kokatzen dira eta niregan onartzen ez dudana ez dut onartzen bestearengan. Onartua sentitzeko besteen onarpena behar du. “bestea ni da”: nia eratzeko oinarritzko mekanismoa da identifikazioa, identifikazioen batuketa baita Niaz. Egoa ezin da ulertu ingurukoekiko harremanetatik at. Ilusioak besterik ez dira auto-kontrola eta auto-nagusitasuna (García Arroyo eta Domínguez López, 2011).

Nia eta letra xehez idazten den bestea mundu simetriko moduan, ardatz imajinario moduan ageri dira: nia-bestearen ardatza. Egoa eraikuntza imajinarioa da, irudietan oinarritua. Harremanetan ohiz kanpoko irudia eman nahi izaten dugu, besteengan irudi liluragarria sortu nahi izaten dugu: “Ni zuretzat zoragarria naiz eta zu niretzat zoragarria zara”. Identifikazioa besteekiko ditugun antzekotasunetan oinarritzen da. Elkarrekin identifikatuta, elkarrekin bereko kide sentitzen gara. Ni-bestearen ardatza egiazko ezagutza eragozten duen “hizkuntza-harresia” da. Harresi hori komunikaziorako erabiltzen den diskurtso komuna da, nia bestearengan eta bestea niarengan indartzeko erabiltzen den hitz hutsa da, imajinarioak bitartekotzen duena. Horregatik, ardatz imajinariotik eta hizkuntzaren harresitik harantzago joan behar da, ardatz horrek erabateko ezagutza eragiten du eta (García Arroyo eta Domínguez López, 2011).

Gure izatearen nukleoa ez datza egoan. Pazienteak uste izaten du bere burua nia dela, baina, subjektuak hitz egiten duenean, ez daki zer esaten duen, ez duelako ezagutzen bere errealitatea. Egoaren ikuspegitik bakarrik ezagutzen du bere burua. Freudentzat niaren sistematik kanpora gelditzen da subjektua; subjektua eta nia ez dira gauza bera. Inkontzientea

subjektua da eta niak ez du haren berririk. Errotik ezberdinak dira inkontzientearen subjektua eta niaren antolamendua.

Lacanek garbi bereizten ditu letra xehez idazten den bestea eta letra larriz idazten den Bestea. “Beste Handia” ez da niarekin elkartruka litekeen edo niaren irudia den “bestea”. Bestea oinarritzko bestetasunak bereizten du eta Beste horrekin ezin gaitezke identifikatu. Iruditik eta ilusiotik harantzago doa bestetasun hori. Erregistro Sinbolikoan inskribatzen da Bestea; hitzak eratzen duen lekua da, niak ezagutzen ez duena. Hitza ez baitator nitik, Besteak antolatzen du. Kontrol kontzientetik eta kontzientziatik harantzago dago hitzaren jatorria. Gu jaio baino lehenagokoa da hizkuntza. Hizkuntza ez da gurea. Hizkuntzaren adierazle sistemak gizarte egitura batean kokatzen gaitu. Bestearengandik datozkigun hitzak dira subjektua fundatzen dutenak. Bestearen eta subjektuaren arteko harremanari dagokionez, gizartean dagokigun lekua Besteak ematen digu. Besteak gauzatzen du subjektuaren hezurmamitze sinbolikoa. Bestearengandik dator “benetako hitza” eta hark kokatzen du subjektua ardatz sinbolikoan (García Arroyo eta Domínguez López, 2011).

Lacanek horrela ISPILUKO IRUDIARENGANAKO erakarpen erotiko moduan definitzen du nartzisismoa; erlazio erotiko hori dago lehen identifikazioaren oinarrian eta identifikazio horri esker eratzen da egoa ispilu-aroan. Narzismoak izaera erotikoa eta izaera oldarkorra ditu (ikus ERASOKORTASUNA). Erotikoa da, Nartzisoren mitoak erakusten duen bezala, bere irudia den gestalt-ak biziki erakartzen baitu subjektua. Erasokorra da, ispiluko irudiaren osotasunak kontrastea egiten baitu subjektuaren benetako gorputzaren deskoordinazio eta batasun gabeziarekin, eta, beraz, badirudi subjektua desintegrazioarekin mehatxatzen duela. “Kausalitate psikikoari buruzko oharra” (Lacan, 1946) lanean, Lacan-ek “eraso suizida nartzisista” (agression suicidaire narcissique) terminoa darabil zera adierazteko: ispiluko irudiarekiko maitasun-zoraldi nartzisistaren izaera erotiko-agresiboak subjektua auto-suntsitzera eramane dezakeela (Nartzisoren mitoak ere erakusten duen bezala) (Ec, 187; Ec, 174). Erlazio nartzisistak giza harremanen irudimenezko dimentsioa eratzen du (S3, 92) (or. 123, Evans, 2006).

Nia ispiluko irudiarekin identifikatu eta besterendu egiten da. Ispilu aroan oraindik ez da bestearekiko identifikaziorik gertatu, baina niak lehen forma bat hartua du. Ordena imajinarioaren sustraia subjektuak bere gorputzaren irudiarekin duen harremanean dago. Haurraren nia besterentzen den unean sortzen da imajinarioa (Lacan, 1966). Niaren ezaugarria ez-ezagutza da. Haurra ispiluko irudiarekin identifikatzen da eta horretatik datorkio osotasunaren zentzu imajinarioa; eta bozkarioa sentitzen du osotasun irudi horren aurrean. Nia ez da, beraz, jaiotzetikoa, bestearekin identifikatuz eraikia baizik. Subjektuaren oinarritzko bereizgarria da besterentzea. Subjektua zatitua eta besterendua da oinarrian. Besterentzea eta imajinarioa elkarri lotuta daude.

Kontrapartearekin identifikatuz egoa eratzekeo prozesuaren ondorio saihestezina da besterentzea: «niaren lehen sintesia alter ego bat da funtsean, besterendua dago» (S3, 39). Rimbauden hitzetan, «Nia beste bat da» (E, 23). Beraz,

besterentzea ordena imajinarioari dagokio: «Besterentzeak ordena imajinarioa eratzen du. Horrela, besterentzea imajinarioa da» (S3, 146). Besterentzea subjektibotasun ororen funtsezko ezaugarria den arren, psikosiak besterentze modu muturrekoagoa adierazten du (or. 9, Evans, 2006).

Niaren jatorria: haurrak sentitu behar du amaren desiraren objektua dela eta amaren begiradan topatuko du bere auto-pertzepzioa egituratuko duen irudia. Besteak edo amak bere desiraren objektutzat hartu behar du (Feher-Gurewich, 2003).

Eremu imajinarioa irudien eta azaleko itxura iruzurtzaileen erreinua da, haurrari osotasunaren zentzua ematen diona. Eremu sinbolikoa hizkuntzaren adierazleez osatua dago, harremanen, itunen, legearen eta hertsapenen erreinua da eta. Errealitateak Beste Handia adierazten du: ordena sinbolikoa, pertsonarteko harremanak, legea, itunak (Fink, 2007). Erreala eremu sinbolikoaren pitzadura edo arrakala da eta arrakala horren inguru egituratzen da ordena sinbolikoa. Erreala sinbolizatu eta errepresentatu ezina da; sinbolizatu denean edo kontzientziaritzen denean, erreal izateari uzten dio. Imajinarioaren eta sinbolikoaren arteko bereizketak itxuraren eta esentziaren arteko aurkakotasuna adierazten du. Imajinarioa behagarria denaren erreinua da; sinbolikoa azpiko egituren erreinua da. Azpiko egitura horiek behatu ez, baizik deduzitu egiten dira. Psikoanalisian ere, zientzian bezalatsu, itxura faltsuei ihes egiten dienak lortzen du egia.

Irudimenezkoaren eta sinbolikoaren arteko bereizketak berak dakar itxuraren eta esentziaren arteko oposizio hori. Imajinarioa behagarri diren fenomenoaren eremua da, amu moduan funtzionatzen duena; sinbolikoa, berriz, behatu ezin diren baina ondorioztatu beharreko azpiko egituren eremua da. Oposizio horrek ikerketa zientifiko ororen berri ematen du, eta horren oinarritzko aurreuposizioa da zientzialariak itxura faltsuak zeharkatuz ezkutuko errealitatean sartzen saiatu behar duela. Era berean, psikoanalisian, zientzian bezala, «itxura faltsuetatik ihes egiten duenak bakarrik lor dezake egia» (S7, 310) (or. 178, Evans, 2006).

Beste batekin modu imajinarioan identifikatzen denean, haurra besterendu egiten da, eta ez du bere burua zatikatua, ahula eta koordinatu gabea ikusten. Baina, hor arrakala edo zatiketa bat sortzen da subjektuaren eta haurrak bere iruditza hartu duen irudiaren artean. Niaren eraketa errealitaterako egokitzapenean baino gehiago oinarritzen da errealitatearen ez-ezagutza. Haurrak ez du ezagutzen benetan zatitua dagoela. Ez-ezagutza horretan eta osotasun fantasia horretan oinarrituta eratzen du Niaren identitatea. Zatikamenduaren egia erreprimatuz lortzen du atsegina; haurrak bozkarioa sentitzen du bere irudi osoaren aurrean (Dean, 1992).

Irudimenaren funtzioa, hain zuzen, hutsune hori betetzea da; horrela subjektuaren zatiketa estaltzen da eta batasun eta osotasun-zentzu imajinario bat aurkezten da (or. 72, Evans, 2006).

Bere burua ez dena bezala ikusten du haurrak bere burua. Ez datoz bat subjektua eta haren irudia. Ez datoz bat haurraren barneko zatikadura eta kanpoko irudiaren batasuna. Haurraren Nia beste barneratua da; bestearen irudia bere burutzat hartzen du eta bere burua bestetzat hartzen du, berarengandik at baitago irudi hori eta bere burua ez den zerbait baita.

Subjektuaren eta irudiaren arteko aurkakotasuna dago inkontzientearen eta niaren arteko aurkakotasunaren oinarrian. Subjektua desagertu egiten da eta irudi imajinarioa da identitate batua ematen diona; irudi horren inguru antolatuko du bere mundua eta irudi horri atxikiko dizkio desirak, haitemateak eta esperientziak.

Subjektua eta nia ez dira gauza bera. Gizakiaren baitan nia subjektuarengandik besterendua dago eta subjektua niarengandik deszentratua dago. Subjektuak bere burua Ni moduan ikusten duenean, bera ez den beste bat bezala ikusten du, besteen irudia barneratzetik baitator Nia. Nia beste bat da. Lacanek ez zuen egokitzapen edo sintesi bat lortzeko eragileztat eta heldutasun sexualaren eredutzat hartzen Nia, Freudek egin zuen moduan. Lacanentzat, besteen bitartekotzaren bidez lortzen da identitate sexuala, eta ez jaiotzetiko egitura instintiboetatik. Norberaren identitatea besteen bidez eraikitzen da, hots, norbere burua besterentzen duen prozesu baten bidez. Besterentze prozesu hori komunikaziozko edo hizkuntzazko harremanen bidez gertatzen da. Beraz, Selfaren bihotzean gabezia eta bestea daude (Dean, 1992).

Haurra garapenaren hasieratik dago hizkuntzaren sarean txertatua; ispiluan haitematen duena ere sare horretan bildua dago. Gurasoen hizkuntzaren sarean integratuko da haurrak ispiluan haitematen duena. Irudimenaren bidez eraikitzen den Niaren nukleoa Bestearen diskurtsoaren eta afektuen sarean integratzen da. Inguruko helduek Niaren ispiluko irudiarekin identifikatzera bultzatzen dute haurra. Beraz, niaren ispiluko irudiarekin identifikatzea eta irudimenezko erregistroa loturik doaz hizkuntzaren erregistro sinbolikoari (Lacan, 1966).

Haurra irudi batekin identifikatzen denean, imajinarioaren munduan kokatzen da. Ispiluko irudira Ni bateratu bat proiektatzen du haurrak eta proiektzio hori egitean, Besteak funtzio garrantzitsua betetzen du, ispiluko irudia besterik ez bada ere. Ispiluari begiratzean ikusten duen irudi arrotzak bereganatzen ditu haurra eta haren sentimenduak. Horrela, berarengandik at dagoen irudi batekin identifikatu eta harengan besterentzean, irudi hura ispiluko harremanen sarean sartzen du. Ispilura egiten duen lehen proiektiotik eratortzen den Niak beste hainbat proiektzio egingo ditu. Ispiluan ikusten duen eta ispilura proiektatzen duen Ni handi eta Idealak batasunaren promesa eta ilusioa pizten dizkio haurrari. Haurrak ezagutzen duen errealtatea, bere burua barne, fikziozkoa da, niak eraikia delako. Ispilura proiektatu duen irudiak subjektua liluratu eta bereganatu egiten du; hori da nartzisismoaren eta harengandik sortzen den erasokortasunaren iturburua. Nartzisistak bere nian inbertitzen du libidoa, baina autoerotismoan haurrak zatikatua jarraitzen du, ez baitu Ni baturik lortu oraindik. Zatikamendu sentimendutik mehatxua eta erasokortasuna eratortzen dira. Ispilu aroan haurrak ispiluko irudiarekiko erakarpen erotikoa intentsua sentitzen du eta ondorioz haurraren Nia eta nartzisismoa sortzen dira (Lacan, 1966).

Eremu imajinarioaren oinarri izaten jarraitzen du egoaren eraketak ISPILU AROAN. Egoa parekidearekin edo ispiluko irudiarekin identifikatuz eratzen denez, IDENTIFIKAZIOA irudimenezko ordenaren alderdi garrantzitsu bat da. Egoak eta kontraparteak bitariko harreman prototipikoa osatzen dute, eta trukagarriak dira. Nia beste txikiarekin identifikatuz eratzen den harreman horrek esan nahi du nia eta ordena imajinarioa bera, biak besterentze erradikal baten guneak direla; «Besterentzeak eratzen du irudimenezko ordena» (S3, 146). Niaren eta kontrapartearen arteko bitariko harremana nartzisista da funtsean, eta ordena imajinarioaren beste ezaugarri bat da NARTZISISMOA. Nartzisismoa beti dator elkartuta ERAKORTASUN maila batekin. Imajinarioa

irudiaren eta irudimenaren, iruzurraren eta beitaren (amuairen) erreinua da. Irudimenaren ilusio nagusiak osotasuna, sintesia, autonomia, bitarikotasuna eta, batez ere, antzekotasuna dira. Imajinarioa, honela, iruzurtzaileak diren azaleko itxuren ordena da; itxura horiek gertaera engainagarri eta behagarriak dira, azpiko egitura gordetzen dutenak; afektuak halako fenomenoak dira (or. 84, Evans, 2006). Nartzisismoan Egoan inbertitzen da libidoa. Nian inbertitzen den libidoa ez da objektuan inbertitzen. Objektura zuzendutako amodioa da objektuetan inbertitzen dena. Ez dira berdinak nartzisismoa eta autoerotizismoaren lehen estadioa; fase horretan egorik ez dago oraindik. Lacanentzat ispiluko irudiak eragiten duen erakarpen erotikoa da nartzisismoa. Erlazio erotikoa hori loturik dago identifikazioarekin eta ispilu irudiarekiko identifikazio horretan egoa eratzen da. Nartzisismoak izaera erotikoa eta erasokorra ditu: batetik, subjektua bere irudiaren gestaltak erotikoki erakartzen du; bestetik, erasokortasuna sentitzen du, ispiluko irudiaren osotasuna kontrajartzen baitzaio subjektuaren gorputz errealearen zatikatzeari.

Ispilu Aroaren fase batean haurrak ispiluan islatua ikusten du bere irudia eta harekin identifikatzen da. Ispilu fisikoak ez ezik beste pertsonen ere ispilu moduan jokatzen dute haurraren keinuak imitatzen dituztenean. Horrela, haurrak besteen keinuetan islaturik ikusten du bere burua. Ispiluko irudiaren sarean, irudimenaren atzaparretan, harrapatua geratzen da haurra eta inguruko pertsonengana proiektatuko du bere gorputzaren irudia. Baina ispiluko irudiaren saretik libre geratzen dira phallusa eta *a txikia* objektua.

Haurrak bere burua ispiluan ikusten duenean, izatea nahiko lukeena ikusten du, errealki dena baino areago. Gurasoak asebeteko dituen haur zoragarria ikusi nahiko luke ispiluko irudi idealean. Horrela, bere ni ideala eta ispiluan islatutako nia alderatzean, barne-herstura, lotsa eta erruduntasuna sentituko ditu. Beraz, ni ideal bat eraikiko du eta ideal horren arabera aurkeztuko da besteengana eta bere buruarengana. Era berean, Lacanentzat, analizatzaile klasikoak irudi ideal bat proposatzen dio analizatuari, eta eredu horretara egokitu behar du (Diatkine, 2007).

Zakila eta phallusa bereizten dituenean Lacanek, phallusa objektu imajinarioari deitzen dio. Phallus imajinarioa Ediporen aurreko amaren desiraren objektua da. Ediporen konplexuak eta zikiramendu konplexuak eramaten dute phallus imajinarioari uko egitera.

Ispiluko irudiarekiko harremanak hizkuntzari lotuak gelditzen dira; hizkuntzari esker haurra eta besteak adierazleen sarean harrapatuak gelditzen dira. Hala ere, haurrak ez du ulertuko amak esandakoa eta arrotz sentituko du hizkuntza; helduaren edo Bestearen mezuan beti dago zerbait haurrak ulertzen ez duena eta desirarekin lotua dagoena. Lacanek azpimarratu egiten du zerbait adierazteko adierazleak duen ezintasuna. Amaren bularrera itzultzeko fantasiak barne-herstura sortzen du haurraren, iruditzen baitzaio ispiluko irudiak irentsi egingo duela, Nartzisori ibaiko uretako irudiarekin gertatzen zaion moduan.

Ispilu aroko haurrak irudimenezko bitariko harremanak ditu amarekin; haurrak eta amak osatzen duten bikote imajinarioak batasun zentzua ematen dio haurraren gorputz zatikatuari. Amak eta haurrak elkar osatzen dute: haurrak amaren gabezia osatzen du eta amak haurraren gorputz zatikatua osatuko du. Eta phallusa izango da haurraren eta amaren arteko irudimenezko batasun fusionala apurtuko duena. Aitaren phallusaren kontzeptua amaren eta haurraren artean Aitaren Izenak egiten duen bitartekaritzari dagokio, eta ez zakil

biologikoari. Freudek zakilaren eta haurraren ekuazio (baliokidetasun) sinkolikoaz hitz egiten duenean, eta zakil bekaitza baretzen duenean (1917), ez da atal fisikoaz ari. Freudek funtzio sinbolikoa adierazteko darabil faliko terminoa. Funtzio falikoari esker ulertzen dira Ediporen konplexuaren eta zikiramendu konplexuaren garapena, funtzio hori baita amaren eta haurraren arteko lotura fusionala etenarazten duena. Aitaren Izenak edo Aitaren Legeak eragotzi egiten dio haurrari amarekin duen lotura fusionalean jarraitzea. Aita da inkontzientearen oinarritzko adierazlea, legearen ordezkaria eta funtzio sinbolikoa betetzen duena. Aitaren izenak aitaren funtzio debekatzaila eta funtzio sinbolikoaren sostengua adierazten du. Subjektuari identitatea ematen dion oinarritzko adierazlea, Ediporen galarazpena (intzestu tabua) adierazten duena da Aitaren Izena. Ediporen konplexua metafora bat da.

Era berean, ama-haur bikoteak irudimenezko triangeluaren hirugarren terminoaren mende egon behar du, hau da, faloa duen aitaren mende; hots, Legearen eramailea denaren eta Lacanek inkontzientearen oinarritzko adierazle gisa ulertzea agintzen digunaren mende (or. 80, Palmier, 1972).

Triangelu imajinarioa osatzen duten hiru elementuen arteko bat da phallusa, haurrarekin eta amarekin batera. Haurra amaren desira asebetetzen duen phallusarekin identifikatzen da. Amak objektu hori desiratzen du eta haurrak haren desira asebate nahi du, amaren faloarekin identifikatuz. Lacanentzat mutil eta neskek zikiramendua onartu eta baztertu egin behar dute amaren faloa izateko aukerari.

Desiraren dialektikan, umea lehen etapa batean amaren desiraren objektuarekin identifikatzen da; nahikoa da falo izatea. Gerora bakarrik identifikatuko da faloa daramanarekin (or. 80-81, Palmier, 1972).

Freudek phallus terminoa darabilenean ez du bereizketa garbirik egiten phallusaren eta zakilaren artean. Lacani phallusak fantasian betetzen duen rola interesatzen zaio, ez zakilaren errealtate biologikoa. Atal biologikoa izendatzeko darabil *zakil* terminoa eta atal horren funtzio imajinario eta sinbolikoa adierazteko *Phallus* terminoa darabil. Ediporen aurretiko fasean phallusa objektu imajinario bat da, haurra edo ama bezala: haurrak amaren desira asebate nahi duenez, amaren desira betetzen duen objektu faliko bihurtzen da. Haurra, ama eta phallusaren artean kokatuko den aitaren irudiak egoera berri bat planteatuko du. Aurrerantzean, haurra ezingo da amaren irudimenezko phallusarekin identifikatu eta aurre egin beharko dio zikiramenduari. Phallusa adierazleen sare osoaren bidez adierazten da eta subjektu zatitua edo gabetua dela adierazten du (Tombras, 2019; Lacan, 1966).

Faloa ez da fantasia bat, fantasiaz irudimenezko efektu bat ulertzen badugu. Ezta objektu bat ere, partziala edo barnekoa, ona edo txarra. Ez da sinbolizatzen duen zakilera edo klitorira mugatzen. Adierazle bat da, inkontzientearen funtsezko adierazlea (or. 65, Palmier, 1972).

Hizkuntzak eremu sinbolikoa eta imajinarioa biltzen ditu: sinbolikoak adierazleen bidez funtzionatzen du eta adierazien edo esanahien mundua irudimenezko eremuarekin erlazionatua dago. Lacanen arabera, ordena sinbolikoak egituratzen du imajinarioa; irudimenezkoaren ikusmen eremua ordenu sinbolikoak egituratzen du, lege sinbolikoen eta hizkuntzaren bidez (Lacan, 1964).

Irudimenak dimentsio linguistikoa ere badu bere baitan. Adierazlea ordena sinbolikoaren oinarria da; aldiz, ADIERAZIA eta SIGNIFIKAZIOA ordena imajinarioaren

parte dira. Beraz, hizkuntzak alderdi sinbolikoak eta irudimenezkoak ditu; bere irudimenezko alderdian, Bestearen diskurtsoa iraultzen eta desitxuratzen duen «hizkuntzaren horma» da hizkuntza (ikus L ESKEMA) (or. 84, Evans, 2006).

Lacanen uste oker arrunt baten arabera, hizkuntza ordena sinbolikoaren sinonimoa da. Hau, ordea, ez da zuzena; Lacanek dio hizkuntzak dimentsio sinbolikoa eta irudimenezkoa dituela: «Giza diskurtsoaren funtzio sinbolikoan badago ezabatu ezin daitekeen zerbait, eta hori da imajinarioak bertan jokatzeko duen papera» (S2, 306). Hizkuntzaren dimentsio sinbolikoa adierazlearena eta egiazko hizkerarena da. Hizkuntzaren irudimenezko dimentsioa adieraziarena, betekizunarena eta hizketa hutsarena da (or. 100-101, Evans, 2006).

Imajinarioak ilusioaren, liluraren eta sedukzioaren indarra du. Ispiluko irudiek eta identifikazioek eratzen dute. Imajinarioan sortzen dira ilusio mota guztiak: osotasun, sintesi, niaren autonomia eta antzekotasun ilusioak. Imajinario bidez eraikitzen dugu geure irudia eta errealitatea mozorrotzen dugu. Baina, imajinarioak ez du aski bere buruarekin; ordenu sinbolikoan oinarritu behar du bere izaera. Adierazle eta adieraziaren artekoa bezalakoa da Sinbolikoaren eta Imajinarioaren arteko harremana.

Erregistro sinbolikoa

Lévi-Straussentzat gizartea lege batzuen arabera egituratua zegoen eta Lacanentzat legea eta egitura hizkuntzari lotuta zeuden. Lacan 1936an hasi zen eremu sinbolikoaz gogoeta egiten eta Psikoanalisiaren erdigunean kokatu zuen sinbolikoaren erregistroa. Horretarako Niaren psikoanalisiari aurre egin behar izan zion. Lacanek hasieran izenondo moduan zerabilen sinboliko hitza eta 1953az geroztik hasi zen hitz hori izen moduan erabiltzen. Norberaren portaera ez zuen subjektuak determinatzen, inkontzienteko zeinuek eta signifikaioek baizik; Inkontzienteko zeinuek erregulatzen zuten norbera, konturatu ere egin gabe. Lacanentzak hizkuntzan oinarritutako errepresentazio sistema zen Inkontzientea. Dimentsio sinbolikoa hizkuntzaren sarearekin lotuta garatzen da, baina hizkuntzak, ordena sinbolikoaz gain, irudimenezko eremua eta errealearen eremua ere biltzen ditu. Eremu sinbolikoko hizkuntza adierazleaz egituratua dago eta adierazle horiek definitzen dituen elkarrekiko duten ezberdintasuna da, eta ez bakoitzaren existentzia positibo eta objektiboa. Adierazle, Aitaren Izena eta forklusio kontzeptuei loturik dago Eremu Sinbolikoa (Lacan, 1953).

Eremu sinbolikoak hizkuntzaren legea jarraitzen du. Irudimenezko eremuko objektu eta hautemate iragankorreki hizkuntzak ematen die iraunkortasuna. Haurra hizkuntzaren eremuan sartzen denean, objektu bat presente egon liteke, absente dagoenean ere. Absente dagoena presente bihurtzen du hitzak, absente dagoen objektua izendatzean. Hitzak objektuaren existentzia finkatu eta egonkortu egiten du, et ikusmenaren eremuan fisikoki presente ez egon arren, existentzia ematen dio. Hizkuntzak pertsonen arteko ituna adierazten du: adierazle batek adierazi bat adierazten du, hitzunak esanahiari buruz ados jartzen badira. Mundua mundu bihurtuko da hitzunak ados jartzen badira mundu horretako objektuak izendatzeko. Alde horretatik, hizkuntza arbitrarioa da, objektuak adierazteko soinu ezberdinak erabil baitaitezke; baina hitzunen arteko adostasunak egonkortasuna ematen dio adierazlearen esanahiari (Bannet, 1989).

Hizkuntzaren arabera dira gauzak, esperientziak eta selfa. Hizkuntzaren eremuan aurrez dauden gauzak adierazten ditu hitzunak. Hizkuntzak determinatzen ditu pentsamenduaren forma eta edukia. Desirak eta irudimen arloko esperientziak hizkuntzan dauden hitz eta kontzeptuen bidez adierazten ditu subjektuak. Ordena sinbolikoa nagusitzen da desiraz, pentsamenduaz, esperientziak eta errealtateaz. Zuzenagoa da gu hitz eginak garela esatea, guk hitz egiten dugula esatea baino. Hizkuntzaren mekanismoek erabakitzen dute guk egiten duguna eta esaten duguna; hizkuntzaren esanetara dauden subjektuak gara. Ezin dugu esan gizakiok hizkuntzaren maisuak garenik; esan behar dugu hizkuntzara jaurtikiak izan garela eta haren sareetan harrapatuak gaudela; gizakia ez da bere etxeko jauna; gizaki funtzio sinbolikoak kontrolatzen du; ordena sinbolikoaren mendeko gara gizakiok. Subjektuak hizkuntza bidez gauzatzen duen besterentzea ez da haren kontzientziara eta nira edo egora mugatzen; Lacanentzat ordena sinbolikoa inkontzienteraino sartzen da. Inkontzienteak nire baitan hitz egiten du, baina nia baino haratagotik hitz egiten du.

Lacan-ek id-a (zera) hizkeraren jatorri inkontziente gisa ulertzen du, imajinarioko egotik haratagoko 'it' sinbolikoa (Lacan-ek erabiltzen duen ça terminoa

Freuden Es-etik askoz hurbilago dago, biak eguneroko erabileran termino arruntak izanik, Edizio Estandarrean erabiltzen den latinezko id-a ez bezala). Hortaz, Groddeck-ek "bizi naiz" baieztapena baldintzapen zuzena baino ez dela esaten duen bitartean, "Gizakia zerak bizi du" (Groddeck, 1923:5) oinarritzko printzipioaren zati txiki eta azaleko zati bat baino ez du adierazten. Lacanen iritzia antzeko terminotan laburbildu liteke, 'bizi' aditza 'hitz egin' aditzarekin bakarrik ordezkatzuz; «Hitz egiten dut» baieztapena «Gizakia zerak hitz egina da» oinarritzko printzipioaren azaleko zati bat baino ez da. Hortik dator Lacanek zeraz eztabaidatzerakoan maiz erabiltzen duen esaldia; 'zera mintzo da' (le ça parle) (e.g. S7, 206) (or. 81, Evans, 2006).

Subjektu kontzientea hizkuntzako adierazle eta esanahien munduan mugitzen da; ordenu sinbolikoan eta hizkuntzan bilduta dauden zentzuen esanetara dago. Subjektu Inkontzientea erreprimetua denak kontrolatzen du. Niek zentzua adierazten du eta inkontzientea ahanzturan eta zentzu gabezia gordetzen da. Bere diskurtsora egokitzen ez dena zulo sakonera bidaltzen du ni kontzienteak. Zirkuitu inkontzientean dagoena azalera ateratzen saiatzen da. Inkontzienteak sintomen bidez bere burua agertzen du eta ordena kontzientea irauli egiten du, zentzua ezabatuz.

Nia izatearen forma besterendua da. Nia beharrezkoa da subjektuak forma bat izan dezan. Bere hautesmateak eta esperientziak gidatzeko forma eta fokua niak ematen du. Subjektuaren desira bestearengana proiektatzen da; bestearengan eta bestearen bidez gauzatzen da. Hizkuntzak besterentzen du subjektua gauzen errealitateetik, baina gizakiari bere mundu propioa, kulturala eta soziala ematen dio. Hizkuntzak besterentzen du subjektua bere esperientzia pertsonal sakonenetik, eta horrek subjektuarekotasuna ematen dio. Hori gabe, ez litzateke komunikaziorik eta elkarbizitzarik egongo. Lacanentzat, subjekturik izatekotan, nia beharrezkoa da; selfa egoteko, bestea beharrezkoa da, eta kontzientea egoteko inkontzientea beharrezkoa da.

Subjektua besteen irudi eta esanahietan besterentzen da; kanpokoak zaion ordena sinbolikoak programatzen du. Subjekturik ez dagoela, gauzatu gabe dagoela eta ez dela izatera heldu esango du Lacanek. Subjektua esanezina, ezereza eta negatibotasuna da, eta hori da haren sendotasuna. Benetako adierazlea ezer adierazten ez duen hura da. Zenbat eta gehiago ezereza adierazi, orduan eta ezabaezinagoa (Bannet, 1989). Lacanentzat adierazlea adieraziaren aurretik dago. Adierazlea esanahirik gabea denean, adierazle hutsa da. Adierazle erreala ezer adierazten ez duen adierazlea da. Ezer adierazten ez duen adierazlea ezabaezina da eta adierazle horrek determinatzen du subjektua. Adierazleak subjektuarengan duen eragina da inkontzientea eratzen duena.

Saussure-ek dio adierazlea eta esanahia (adierazia) elkarren mendeak direla; aldiz, Lacan-ek adierazten du adierazlea dela lehena eta berak sortzen duela esanahia. Adierazlea, lehenik, zentzurik gabeko elementu materiala da, sistema diferentzial itxi batean; «Esanahirik gabeko adierazle» horri «esanahi hutsa» deitzen dio Lacanek, nahiz eta hau lehentasun logikoaren kontua den, lehentasun kronologikoarena baino areago. «Adierazle erreal oro, bere horretan, ezer adierazten ez duen adierazlea da. Adierazleak zenbat eta gehiago ezereza adierazi, orduan eta suntsiezinagoa da» (S3, 185). Esangurarik gabeko adierazle suntsiezin horiek dira subjektua determinatzen

dutenak; adierazleak subjektuarengan dituen ondorioek inkontzientea osatzen dute, eta, hortaz, psikoanalisiaren eremu osoa ere eratzen dute (or. 189, Evans, 2006).

Saussure “zeinu linguistikotik” abiatzen da, hizkuntza sistemaren oinarritzko unitate gisa. Unitate horrek ez du eduki psikiko bat erreferente material batekin lotzen –bi aldeak psikikoak baitira–, “kontzeptu” edo ideia (esanahi) bat eta “irudi akustiko” (adierazle) bat baizik. Adierazlea eta adierazia relata dira, eta erlazio arbitrario hutsez elkartzen dira: bestela esanda, ez dago adierazlearen eta adieraziaren artean derrigorrezko antzekotasunik (or. 67, Assoun, 2008).

Subjektua ez da izaten norberak uste duena; haren ilusioen eta ispiluko irudien emaitza Egoa da. Gizakiak uste izaten du bera dela jasaten edo egiten duen guztiaren jatorria. Inkoherentzia mehatxuari aurre egiteko fikziozko koherentzia sortzen du Egoak. Baina, subjektua ez da fantasiazko Egoa; hizkuntzak eta haren adierazleak sortzen dute Inkontzientearen subjektua. Adierazleak ez dira subjektuaren emaitza. Subjektua da adierazleen emaitza. Subjektua hitz egiten hasi aurretik hor dago Inkontzientean adierazleen egitura. Adierazlea da subjektuaren kausa; adierazlerik gabe ez legoke subjekturik errealean. Adierazleak subjektua beste adierazle batentzat errepresentatzen du (XI. Mintegia).

Lacanentzat, Inkontzientea Bestearen diskurtsoa da eta erregistro sinbolikoa errotiko bestetasunaren edo Bestearen eremua da. Legearen erreinua da sinbolikoa. Legeak erregulatzen du Ediporen konplexuko desira. Sinbolikoa kulturaren erreinua da, naturaren ordena imajinarioai aurrejartzen zaiona. Imajinarioa bitariko harremanek bereizten dute eta sinbolikoa, hirutariko harremanek. Ordena sinbolikoan kokatzen dira heriotza, absentsia, gabezia, atseginaren printzipioa eta heriotza bulkada.

Lacanez erakutsiko du gizakia ez dela adierazlearen ordenaren jabe, baizik eta ordena hori dela gizakia gizaki gisa eratzen duena... Gizakiarengan Zerak hitz egiten duela baieztatzea, “inkontzientea Bestearen diskurtsoa dela” baieztatzea cogitoaren kritika erradikalean aurrez irudikatua dagoela dirudi (or. 20-21, Palmier, 1972).

Inkontzientean Zerak hitz egiten du. Hauxe da diskurtso honen lekuari buruz esan dezakegun guztia. Besteak, lehen onarpen honetan, beraz, inkontziente freudiarra izendatzen du (or. 73, Palmier, 1972).

Sinbolikoa ere Lacanez BESTEA deitzen duen alteritate erradikalaren eremua da. INKONTZIENTEA Beste honen diskurtsoa da, eta, beraz, ordena sinbolikoari dagokio guztiz. Sinbolikoa Ediporen konplexuan desira arautzen duen Legearen eremua da. Kulturaren eremua da, naturaren ordena imajinarioaren aurrez aurre. Imajinarioa erlazio bitarrek bereizten dute; aldiz, eremu sinbolikoa egitura hirutarrek bereizten dute, subjektuen arteko harremana beti hirugarren termino batek, Beste handiak, arartekotzen duelako. Ordena sinbolikoa HERIOTZAren, ABSENTZIAREN eta GABEZIAREN eremua ere bada. Sinbolikoa, aldi berean, Gauzarekiko distantzia arautzen duen PLAZERRAREN PRINTZIPIOA, eta errepikapenaren bidez «plazerraren printzipiotik haratago» doan HERIOTZA-BULKADA da (S2, 210); izan ere, «heriotza bulkada ordena sinbolikoaren mozorroa baino ez da» (S2, 326) (or. 203-204, Evans, 2006).

Lacane inkontzientea ez zuen ikusten nahimen arrazionalaren atzean ezkututzen den ziega ilun bat bezala, "Bestearen diskurtso" bezala baizik, hau da, gizarte eraketa sistemiko moduan.

Inkontzientea ez zuen ikusten nahimen arrazionalaren atzean ezkutatuta, inkurtsio kaltegarriak planifikatzen dituzten eta libido joeraz betetako deabrutxoak gainezka dituen ziega ilun baten moduan, baizik eta "Bestearen diskurtso" bezala, hau da, gizarte formazio sistemiko gisa, hitz, izen eta esaldi multzo bat bezala. Hitz, izen eta esaldi horietatik eratortzen dira adierazpen kolektiboak; hitz-multzo hori da nire bakartasun-berezitasuna azaltzen duena, sintoma gisa, hots, nire sintoma gisa agertzen den adierazleen kondentsazio espezifikokoaren agentziari esker (or. 11-12, Rabaté, 2006).

Lacanen iritzian, eremu sinbolikoa kulturak eta hizkuntza sareak osatzen dute eta sare horretan gertatzen da haurren garapen osoa, baita fase imajinarioko garapena ere. Irudimenaren estadioko ispilu aroan haurra irudi batean harrapatua gelditzen denean ere, hizkuntzaren sarean bildua dago haurra. Haurra izenen eta hitzen bidez lotzen zaio irudiari. Haurra irudi batekin eta adierazle batekin (sinbolikoki) identifikatuko da; alde batetik, irudi batekin identifikatuko da, modu nartzisikoan eta, bestetik, identifikazio sinbolikoa gauzatuko du. Sinbolikoarekiko identifikazio hori Niaren Idealarekiko identifikaziotzat hartzen du Lacanek. Lehenik, hizkuntzako edukiak hitzetan bildu eta gordeko ditu inkontzientean, eta gero hitzen sareak subjektuaren bizitza kontrolatuko du inkontzientetik. Lacanek psikoanalisi Psikologiatik urrundu eta hizkuntzaren eremuan kokatu zuen. Medikuntzaren eremutik atera eta artearen eremuan artean kokatu zuen Lacanek psikoanalisi. Kulturaren historiak bere monumentuak aztertzen dituen moduan, sintomak gorputzaren monumentu gisara aztertu behar zituen psikoanalisiak (Rabaté, 2006).

Lacanen iritziz, pertsona batek irudi bat bereganatzen duenean, irudia norbera balitz bezala ezagutzen duenean, eraldaketa bat gertatzen da harengan. Bi identifikazio mota bereizten ditu Lacanek: imajinarioa eta sinbolikoa. Lehen identifikazioan (imajinarioan) haurrak bere irudia ispiluan islatua ikusten du eta irudi horrekin identifikatzen da. Kanpoko irudi horrekin identifikatuz egituratzen da haren Nia. Ispilu aroko lehen identifikazio hori dago Ni Idealaren sustraian. Bigarren identifikazioa, identifikazio sinbolikoa edo adierazlearekiko identifikazioa, lehen identifikazioaren gain eratzen da eta identifikazio imajinarioaren partaide da. Identifikazio sinbolikoa Ediporen Konplexuaren garaian gertatzen den aitarekiko identifikazioa da eta identifikazio horretatik sortzen da Niaren Ideala. Bigarren identifikazio horri esker subjektuak lehen identifikazioaren erasokortasuna gainditzen du.

Bere lanaren hasieratik, Lacanek irudimenezko identifikazioa eta identifikazio sinbolikoa bereizten ditu.

1. Identifikazio imajinarioa ISPILU AROAN egoa sortzen duen mekanismoa da; ordena imajinarioari dagokio erabat. Giza haurrak ispiluan bere isla ikusten duenean, irudi horrekin identifikatzen da. Subjektutik kanpo (eta baita aurka ere) dagoen zerbaitekin identifikatuz nia eratzea da «subjektua bere buruaren arerio gisa egituratzen duena (E, 22) eta horrek erasokortasuna eta besterentzea dakartza». Ispilu aroak «lehen identifikazioa» eratzen du, eta EGO IDEALA sortzen du.

2. *EDIPOREN KONPLEXUAREN azken fasean aitarekin identifikatzea da Identifikazio sinbolikoa. Bigarren identifikazio horren bitartez subjektuak lehen identifikazioak berezko duen agresibitatea gainditzen du (E, 23), eta, horrela, nolabaiteko «normalizazio libidinal» bat irudikatzen duela esan daiteke (E, 2). Identifikazio horri «sinbolikoa» deitzen zaion arren, «identifikazio sekundarioa» da oraindik (E, 22) identifikazio primarioaren gain modelatua, eta horrela, identifikazio oro bezala, imajinarioaren parte da; «sinbolikoa» deitzen zaio soilik, subjektua ordena sinbolikora igarotzearen gauzatzea adierazten duelako (or. 82-83, Evans, 2006).*

Lacanentzat ordena sinbolikoak antolatzen du irudimenezkoaren eremua. Gizakiarengandik at dago sinbolikoa eta subjektuaren aurretik dago. Ordena sinbolikoko adierazleak dira irudiei beren esanahia ematen dietenak (Diatkine, 2007). Erregistro sinbolikoko eredu ideal batekin sinbolikoki identifikatzen denean, irudi imajinarioen atzaparretatik ihes egin eta erregistro sinbolikoan sustraiak botatzen ditu haurrak; erregistro horretan kokatzean, irudiaren mundua gainditzen du. Aurrerantzean, hizkuntzak erregulatuko du haurrak irudiarekin duen harremana. Haurrak sare sinboliko konplexu batean konbinatuko eta antolatuko ditu irudiak. Ikuspegi horretatik, ezberdinak dira Lacanentzat Ni Ideala eta Niaren Ideala. Ni Ideala norberak ispilitik edo imajinariotik bereganatzen duen irudia da. Niaren Ideala, berriz, osagai sinbolikoak haurrari ematen dion kokalekua; kokaleku horretatik begiratzen dio besteak norberari. Adibidez, norbaitek abesti bat ongi abesten duenean, abeslari batekin identifika liteke. Abeslari hori da haren Ni Ideala. Baina eremu sinbolikoa egituratzeko garrantzia duena hau da: norentzat identifikatzen da abeslariarekin? Ikuspegi hori adierazten du Niaren Idealak. Lacanek, batetik Nia eta Ni Ideala eta, bestetik subjektua eta Niaren ideala bereizten ditu: Nia irudimenezkoarekin erlazionatzen du eta Niaren Ideala edo subjektua, sinbolikoarekin (Lacan, 1953).

Horrela, 1953–54ko mintegian, EREDU OPTIKOA garatzen du, bi formazio hauek bereizteko. Niaren ideala introjekzio sinbolikoa dela dio, ni ideala irudimenezko proiektzio baten jatorria den bitartean (ikus S8, 414). Niaren ideala ideal gisa funtzionatzen duen adierazlea da, barneraturiko legearen egitasmo bat, ordena sinbolikoan subjektuak duen posizioa arautzen duen gidaria, eta, hortaz, bigarren identifikazioa (Edipiarra) aurreikusten duena (S1, 141) edo identifikazio horren emaitza dena (Lacan, 1957–8). Ego idealak, berriz, ispilu aroko irudi espektularrean du jatorria; etorkizuneko sintesiaren promesa da, eta harengana jotzen duen egoak, nia eraikitzen duen batasun-ilusioak. Ni ideala beti egoarekin batera doa, Ediporen aurreko harreman bitar ahalguztiduna berreskuratzeko etengabeko saiakera gisa (or. 53, Evans, 2006).

Lacanek funtzio imajinarioa duen Ni Ideala eta hizkuntzak determinatzen duen eremu sinbolikoa (Niaren Ideala eta Supernia) bereizten zituen. Supernia eta Niaren Ideala aitarekin identifikatzearen emaitzat hartu zituen. Ni Idealaren jatorria ordena imajinarioko ispilu irudian aurkitu behar da; irudimen arloko proiektzioan du jatorria; niaren batasunaren eta sintesiaren ilusioak sortua da; niaren irudiari loturik doa. Ni Idealak Ediporen aurretiko bitariko erlazioaren guztiahaltasuna lortu nahi du.

Nagusiaren eta mendekoaren dialektikari ihes egin behar zaio, baina ez ukatua kontzientziara eramanez, kontzientzia irudimenaren eremuko delako. Lengoaiaren funtzio sinbolikoaren eremuan dagoen mezu inkontzientea askatu behar da. Eremu sinbolikoko

Niaren Ideala eta irudimenaren eremuko Ni Ideala bereizi behar dira. Ni idealaren eremuan gauzatzen da nagusiaren eta mendekoaren dialektika. Eremu horretan kokatzen du analizatuak analizatzailea. Eremu horretan egituratzen dira ilusioak eta erresistentziak. Niaren Idealak, berriz, gizakien arteko elkartruke sinbolikoaren eremuan funtzionatzen du. Niaren Ideala hizkuntzaren munduan egituratzen da, eta Ni Ideala, kidekoaren irudiak eta imajinarioaren eremuak definitzen du (De la Maza, 2019).

Funtzio sinbolikoaren ardatza *Aitaren izena* da (Name-of-the-Father; Nom-du-Père) eta ardatz hori baliatu zuen Lacanek 1950eko hamarkadan intzestuaren debekua adierazteko. Aitaren izena aita sinbolikoari dagokio: bera da lege funtzioa eta debeku funtzioa betetzen dituen. Legea aipatzean, gizarteko harreman eta elkartrukeen itunak eta ahaidetasunezko erlazioak artikulatzen dituzten legeen oinarritzko printzipio unibertsalez ari da Lacan; ez da lege konkretuez ari.

Legeak eta hizkuntzak osatzen duten sare sinbolikoak bereizi egiten ditu gizakiak eta animaliak, ordena sinboliko-soziala eta ordena naturala. Kulturaren eremuari dagokio erregistro sinbolikoa; ordena imajinarioa, berriz, naturaren eremuari dagokio. Hizkuntza eta legeak batera doaz, legeak hizkuntzetan artikulatuak egoten baitira; legeak eta hizkuntzak erregulatzen dituzte pertsonen harreman sexualak. Errepresentazio sinbolikoa hizkuntzan oinarritzen da eta tratamendu psikoanalitikoa hizkuntzaren bidez eta eremu sinbolikoaren baitan gauzatzen da (Lacan, 1966).

Gizakiaren eta animaliaaren arteko aldeari dagokionez, animaliak emandakoa edo aurrean duena desiratzen du. Gizakiak emanda dagoena ukatzen du, emandakotik autonomia da eta emandakotik lokabetzen da, lanaren eta borrokaren bidez (Kojève, 2013: 547-550). Gizakiak desira desiratzen du, edukirik gabe. Bestearen desira desiratzen du, beste ni baten desira desiratzen du (Kojève, 2013: 53).

Giza desiraren helburua desira bera da; desirak bestearen desira desiratzen du. Lacanek arabera, ezagutza edo aitormen eskaera da subjektuaren bulkada nartzisistaren helburuetako bat. Premiak asebate ostean bere eskaeratik gelditzen dena da desira.

Hala ere, nahiko segurua da ia inoiz ez dugula topo egiten premia huts horrekin. Hizkuntzaren arroiletatik igaroz, desira eta eskaeraz infiltratua dago beti premia (or. 94, Palmier, 1972).

Giza subjektua bestearen desiran ezagutzen edo aitortzen bada, bere buruarengandik haratago doa beti eta inoiz ez da bere buruaren berdina. Bere absentsian bakarrik errepresenta liteke: Beste leku batean, hizkuntzan. Subjektua beste adierazle baten aurrean adierazle baten bidez errepresentatzen da eta esanahi moduan ezin da inoiz ulertu.

Aita sinbolikoa oinarritzko elementua da ordena sinbolikoaren egituran; kulturaren ordena sinbolikoa naturaren ordena imajinariotik bereizten duena gizonezkoen jatorri-lerro batean inskribatzea da. Ondorea belaunaldi batzuetan egituratuz, patrilinealtasunak ordena bat ezartzen du eta «haren egitura desberdina da ordena naturalaren egituratik» (S3, 320). Aita sinbolikoa hildako aita ere bada, bere semeek erail zuten lehen mailako hordaren aita (ikus Freud, 1912–13). Aita sinbolikoari AITAREN IZENA ere deitzen zaio (S1, 259) (or. 63, Evans, 2006)

Gizakiak hizkuntza bidez komunikatzen dira. Giza psikologia sinbolikoak erregulatzen du. Animalien psikologiak kode bidez eta irudimenaren arabera funtzionatzen du. Lacanentzat, intzestuaren debekuak bereizten ditu natura eta kultura. Ahaidetasuna intzestuaren tabuaren bidez erregulatzen denean, aitaren funtzioa kokatzen da gizakiak eta animaliak bereizten dituen gunean. Aitak bereizten ditu sinbolikoa eta imajinarioa.

Ediporen konplexuan signifikazioan sartutako lehen adierazlea, amaren adierazlea, ordezkatzan duen adierazlea izatea da aitaren funtzioa (or. 179, 5. mintegia).

Haurra amaren desiraren objektu den aitaren phallusarekin identifikatzen da. Aita legearen ordezkaria eta phallusaren adierazlea da. Oinarritzko adierazlea aitaren heriotzaren ondorioz sortua da. Aitaren adierazleak ezartzen du legea. Aitaren heriotza dago Aitaren Izenaren, Aita Sinbolikoaren edo legearen jatorrian. Aitaren heriotzak ordena sinbolikoarekin lotzen du gizakia. Jatorrizkoa deritzon hilketatik eratortzen da lege unibertsala. Aita hil delako aske gelditu ordez, aitaren heriotzak dena debekatzen du. Aita hil delako ezer ez delako zilegi (Lacan, 1966).

Ordena sinbolikoak gaingitu egiten du ordena imajinarioko antzekotasun eta simetriaren ilusioa. Ediporen konplexuak bitariko harremanetatik hirutarikoetara (edo lautarikoetara), imajinariotik sinbolikora eramaten du haurra. Ediporen Konplexuaren aurretiko aroa marrazten duen hirugarren elementua (phallus imajinarioa) amaren eta haurraren artean kokatzen da. Baina, Ediporen Konplexuan Aitaren Irudia sartzen denean, laugarren elementu moduan sartuko da amaren, haurraren eta phallusaren artean. Lacanentzat, ama-haurra-falo egitura imajinarioak osatzen duen egitura triangeluar izatetik, aita-falo-ama-haurra lautariko egitura izatera pasatzen da Ediporen konplexua. Une jakin batean, aita eta faloa bateratu egingo dira. Ama, haurrak eta aitak osatzen duten hirukoteari laugarren elementua eransten dio Lacanek: heriotza edo phallusa.

EDIPOREN AURREKO FASEA osatzen duen triangelu imajinarioko hiru elementuetako bat da faloa. Beste bi elementuen artean, ama eta haurraren artean, zirkulatzen duen irudimenezko objektu bat da (S3, 319). Amak objektu hori desiratzen du eta haurrak bere desira ase nahi du faloarekin edo ama falikoarekin identifikatuz. Ediporen konplexuan aitak laugarren termino gisa esku hartzen du irudimenezko triangelu honetan, haurra zikiratuz; hau da, ezinezko egiten du haurra irudimenezko faloarekin identifikatzea. Orduan haurra bere zikiratzea onartzearen (amaren faloa izan ezin dela onartzea) ala baztertzearen artean aukera egin beharrean aurkitzen da (or. 144, Evans, 2006).

Horrela, Edipo multzoko hiru elementuez (ama, haurra, aita) gain Lacanek laugarren elementu batez hitz egiten du maiz; batzuetan, laugarren elementu hori HERIOTZA dela dio (Lacan, 1953b: 237; S4, 431), eta beste batzuetan PHALLUSA dela (S3, 319) (or. 161, Evans, 2006).

Haurra konturatzen denean ezin daitekeela izan amaren phallusa, hura asebetetzea lortzen ez duelako, laugarren terminoa (aita) sartzen da jokoan. Aita izango da lege sinbolikoan oinarrituta phallusa duena. Phallusa ez da objektu bat, baizik zeinu edo adierazle

baten bidez bete daitekeen hutsunea. Adierazle horrek amak nahi duenarekin erlazionaturiko zerbait adierazten dio haurrari (Feher-Gurewich, 2003).

Irudizko ordenaren bitarikotasunaren aldean, ordena sinbolikoa hirukoteek bereizten dute. Ordena sinbolikoan harreman guztiek hiru termino dituzte, eta ez bi; hirugarren terminoa Beste handia da, irudimenezko harreman bitariko guztien bitartekaritza egiten duena. Irudimenezko bitariko harremanaren elkarrekikotasun-ilusioak sinbolikoarekin kontrastatzen du, hau da, «ez-elkarrekikotasun absolutuaren» eremua denarekin (Ec, 774). Ediporen konplexua egitura triangeluar paradigmaticoa da, Aita hirugarren termino gisa amaren eta haurraren arteko bitariko harremanean sartzen baita. Bitariko erlaziotik egitura triangeluarrera iragatea imajinarioaren eremutik ordena sinbolikora igarotzea baino ez da. Izan ere, egituraren kontzeptuak berak gutxienez hiru termino inplikatzeko ditu; «hiru termino daude beti egituran» (S1, 218) (or. 49, Evans, 2006).

Zikiratze konplexua da, mutilaren kasuan, Ediporen konplexuari amaiera ematen diola dirudiena, zigor goren horren beldurrez, ama maitasun-objektutzat edukitzeari uko egitera behartzen duena; neskarentzat, berriz, bere eta amaren zikiratzearen aurkikuntza da; ama bihurtzen du bere zikiratzearen erantzule eta horrek aitarengana gidatuko du. Beste hitz batzuetan esanda, zikiratze konplexuak Ediporen konplexuaren amaiera markatzen du mutilentzat; neskentzat, berriz, Ediporen konplexuaren hasiera (or. 64, Palmier, 1972).

Inkontzienteak ihes egiten dio pertsonari eta ezin izaten du hura kontrolatu. Ordena sinbolikoak eta hizkuntzak egituratzen dute inkontzientea. Beste Handia osatzen dute eta Beste horrek osatzen du Inkontzientearen nukleoa. Bestearen diskurtsoa baita da Inkontzientea eta adierazleek definitzen dute. Inkontzientea gu zeharkatzen gaituen hizkuntza da, guregandik zehar hitz egiten duena. Hizkuntzaren sarean harrapatuak gaude jaiotzatik; hizkuntzaren bidez adierazten ditugu geure desirak eta besteak. Pertsona bakoitzaren subjektutasuna ordena sinboliko kolektibo batean oinarritzen da (Lacan, 1966; Rabaté, 2006).

Haurra konturatzen denean bere desirak ezin dituela osoki bete, uko egiten dio ama asebeteko duen objektu oso eta eder (amaren faloa) izateari. Debekuek eta gabeziak arautzen dute desiraren dinamika. Ordena sinbolikoa gabezia horiek ordezkatzeko dituzten adierazleetan egituratzen da. Gabezia horiek izatearen gabeziarekin erlazionatuak daude, objektu baten gabeziarekin baino areago. Lacanentzat, izatearen gabeziaren metonimia da desira. Izatearen gabezia desirari lotua dago eta edukitzearen gabezia, eskaerari lotua. Ordena sinbolikoan hutsarteak tarte beteak bezain adierazleak dira. Izatearen gabezia dago esperientzia analitikoaren bihotzean (Lacan, 1966).

Lacan-en irakaskuntzan «gabezia» terminoa beti dago DESIRAREKIN lotuta. Gabezia da desira sorrarazten duena (ikus 8. Mintegia, 139). Hala ere, gabeziaren izaera zehatza aldatu egiten da Lacanen lanean zehar. Terminoa lehen aldiz agertzen denean, 1955ean, gabeziak IZATE gabezia izendatzen du lehenik eta behin (hemen Sartrearekin parekotasun estuak daude; ikus Sartre, 1943). Desiratzen dena izatea bera da.

«Izateak gabeziarekin duen erlazioa da desira. Falta dena izatearen falta da, zuzen hitz eginez. Ez da honen edo horren falta, izatearen falta baizik, edozein tokitan existitzen dela ere izatea» (S2, 223). Lacan 1958an itzultzen da gai horretara, desira izatearen gabeziaren metonimia dela argudiatzen duenean (izatearen gabezia; Sheridanek «want-to-be» eta Schneidermanek «want of being» bezala itzulia; ikus E, 259). Subjektuaren izate gabezia da «esperientzia analitikoaren muina» eta «neurotikoaren grina zabaltzen den eremua» (E, 251). Lacan-ek izatearen gabezia, desirarekin erlazionatua dagoena, edukitzearen gabeziari (ez edukitzeari) kontrajartzen dio, edukitze gabezia (ez edukitzea) eskaerarekin erlazionatua baitago (Ec, 730) (or. 98, Evans, 2006).

Alde batetik hizkuntza espezifikoa ditugu eta, bestetik, hizkuntza sistema orokorra edo lengoaiak. Lengoaia eta ordena sinbolikoa ez dira gauza bera. Lengoaia alderdi sinbolikoak eta imajinarioak osatzen dute. Ezin da ezabatu funtzio sinbolikoan imajinarioak betetzen duen tokia. Adierazleari dagokiona lengoaiaren alderdi sinbolikoa da: egiazko hizketa. Adieraziari dagokiona lengoaiaren alderdi imajinarioa: alderdi hutsa.

Lacanez lengoaiak eta kodeak bereizten ditu. Lengoiaren ez dago batetik baterako egokitzapenik zeinuaren eta erreferentziaren edo adierazle eta adieraziaren artean. Ambiguitasuna nabarmena da inkontzientziaren erakuntzetan.

Lacanen subjektua egitura sinboliko batean txertatua dago. Subjektua adierazle kate batek zeharkatzen du eta adierazle horiek inkontzientean ainguratzen dira. Pertsonaren egitura nia ez da nagusi, subjektuak beste adierazle batentzat adierazten duena baita adierazlea. Zeinuak, berriz, norbaitentzat zerbait adierazten du. Descartesek zerabilen “nik pentsatzen dut” esaldiaren ordezkari beste hau darabilte Freudek eta Lacanek: “Hark hitz egiten du nigan”. Subjektua zatitua dago eta haren inkontzienteak ez daki zer adierazten duen bere hitzak. Inkontzientziaren subjektua edo desiraren subjektua debekuek ezabatzen edo barratzen dute; ez dira gauza bera subjektua eta nia (Lacan, 1966).

Lacan-ek adierazlea honela definitzen du: beste adierazle batentzat subjektua ordezkatzeko duena», zeinuari kontrajarritako. Zeinuak «norbaitentzat zerbait ordezkatzeko du». (S11, 207). Zehatzago esateko, adierazle batek (adierazle maisua deitua, eta S1 idatzia) beste adierazle guztientzat subjektua adierazten du (S2 idatzia). Hala ere, ezein adierazle ezin du subjektua adierazi (or. 189, Evans, 2006).

Lacanez ezagutzen zuen Levi-Strauss-ek gizarte primitiboaren ahaidetasun sistemei buruz egindako lana: “The Elementary Structures of Kinship” (1949). Gizarte primitiboaren ezkontza harremanen arabera egituratzen zen gizartea eta hortik eratortzen ziren beste gizarte harreman guztiak. Ahaidetasuna egituratzean, hizkuntzako adierazleen moduan funtzionatzen zuten emakumeen trukeak. Lacanentzat, gizarteko harremanek egitura inkontziente bat dute eta ahaidetasun sisteman elkartruke sinbolikoak gertatzen dira. Espazio inkontzientean adierazleek modu autonomoan funtzionatzen dute. Ferdinand de Saussure-entzat, hizkuntzaren sistemako zeinuen soinu-irudiak eta kontzeptuak konektatzen dituzte; ez dituzte izenak gauzei konektatzen. Saussure-ek bereizteaz hartzen zituen zeinuaren bi alderdiak, baliokideak ziren adierazlea eta adierazia; baina, Lacanentzat, lehentasuna zuen adierazlea; adierazia ez zegoen adierazlearen aurretik. Zeinua honela adierazten zuen: adierazlea/adierazia. Adierazleak beste adierazle bati egiten zion erreferentzia, batez ere, eta ez adieraziari. Adierazlearen eta adieraziaren artean barra bat jartzen zuen Lacanek; barra horrek zeinuaren zatiketa adierazten zuen. Pertsona etengabe zeinuak sortzen ari zen:

adierazle batek bestearengana bidaltzen zuen, eta beste horrek hirugarren batengana. Adierazle baten esanahia ez zen zerbait finkoa; Lacanentzat, adieraziaren eta adierazlearen arteko harremana arbitrarioa eta konbentzionala zen. Adierazlearen azpiko adierazia ez zen finkoa, etengabe irrist egiten baitzuen. Horregatik esanahia egonkortzeko ainguratze puntuak jarri behar ziren. Esanahia hizkuntzaren zeinuen arteko harremanetatik zetorren, eta ez zeinu indibidualetatik. Esaldietako hitzak aukeratzean, ardatz sintagmatikoan sintaktikoki egoki datozen hitzak hautatzen ditugu (Lacan, 1966; Nobus, 2003).

Saussure-ren eta Lacan-en diagramen arteko desberdintasunik nabarmenena adierazlearen eta adieraziaren posizioei dagokiena da, haiek bereizten dituen barrarekiko. Saussure-en eskeman adierazia eta adierazlea barraren gainean eta azpian kokatzen dira, hurrenez hurren. Aldiz, Lacanen bertsioan haien posizioa trukatu egin da. Bigarrenik, Saussure-en diagramak baliokidetasun bat ez bada ere gutxienez adieraziaren eta adierazlearen arteko paralelismo bat iradokitzen du; izan ere, barraren gainean eta azpian grafikoki inskribatzean duten antzekotasuna dela eta, Lacan-en algoritmoak bi terminoen bateraezintasuna azpimarratzen du bisualki. Zeren Lacanen formularen adierazlea letra larriz (S) idazten da eta adierazia letra xehez (s) agertzen da, eta letra etzanez dator (s) (or. 53, Nobus, 2006).

Adierazlearen eta adieraziaren arteko harremana askoz prekarioagoa dela dio Lacanek; haien arteko BARRA Saussure-en algoritmoan ikusten du (ikus 18. irudia, or. 184.), lotura bat ez baizik haustura bat, signifikazioarekiko «erresistentzia» bat adierazten duena (E, 164). Lehenik eta behin, adierazlea logikoki adieraziaren aurretikoa da, hau da, adierazleen jokoaren efektu hutsa. Bigarrenik, adieraziak sortzen direnean ere, etengabe irristatu egiten dira adierazlearen azpian; mugimendu hori aldi baterako geldiarazten duten gauza bakarrak, adierazlea adieraziari une labur batez finkatuz eta esanahi egonkor baten ilusioa sortuz, POINTS DE CAPITON (Kapiton puntuak) dira. Signifikazioa ez da, Lacan-en lanean, adierazlearen eta adieraziaren arteko lotura egonkor bat, prozesu bat baizik —eta prozesu horretan adierazleen jokoak metonimiaren eta metaforaren tropoen bidez esanahiaren ilusioa sortzen du (or. 188, Evans, 2006).

Lacanek 'irrist egin' aditza erabiltzen du (eta hari dagokion izena, 'irristatzea') adierazlearen eta adieraziaren arteko erlazio ezegonkorra deskribatzeko. Terminoak, beraz, Saussurek eta Lacan-ek SIGNIFIKAZIOA ulertzeko dituzten modu desberdinak azpimarratzen ditu; Saussure-entzat adierazlearen eta adieraziaren arteko lotura egonkorra zen signifikazioa, baina Lacanentzat harreman ezegonkorra eta jariakorra da. Ezinezkoa da adierazleen eta adierazien artean banan-banako lotura egonkor bat ezartzea, eta Lacan-ek hori sinbolizatzen du haien artean barra bat idatziz Saussure-en algoritmoan (ikus 18. irudia, or. 184). Saussure-en algoritmoan barraren azpian adieraziek irrist eta laprast egiten dute eta etengabeko mugimenduan daude (E, 154); Kapiton puntuak aldi baterako soilik geldiarazten dute mugimendu hori. Behar adina Kapiton puntu ez dagoenean, PSIKOSIAN gertatzen den bezala,

amaigabea da adieraziaren mugimendu irristakorra, eta adierazi edo esanahi egonkorrak guztiz desagiten dira (or. 192, Evans, 2006).

Lacanek Lévi-Strauss-en ideiak bereganatu zituen. Levi-Straussentzat objektu sinbolikoak (adierazleak) objektu sinbolizatuak (adieraziak) baino garrantzitsuagoak dira eta bizitza sozialak eta hizkuntzak errealitate autonomo bera dute. Lacanek Saussure-ri egotzi zizkion ideia horiek, nahiz eta Lévi-Straussenak izan. Lévi-Straussek zioen adierazlea ez dela erabat egokitzen adieraziarekin. Adierazlea dela nagusi eta egokitzen ez dagoela adierazlearen eta adieraziaren artean (Nobus, 2006).

Lévi-Strauss-ek lengoaiaren eraginkortasun sinbolikoa azpimarratu zuen, psikoanalisiako hitzen eraginkortasunaren antzekoa. Haren eraginez, Lacanek hizkuntzaren alderdi semantikoa esperientzia bizituarekin eta eremu imajinarioarekin lotzen du; alderdi sintaktikoa, berriz, adierazleen artikulazio sintaktikoarekin. Lacanentzat adierazleak ez du ezer berezirik esan nahi. Ez da zeinu bat eta diferentzia bakarrik adierazten du (De la Maza, 2019).

“Adierazlearen lehen kokalekua” defendatzean eta adierazlea eta adierazia bereizten dituen lerroa «signifikazioari erresistentzia jartzen dion oztopo» gisa definitzean (E/S, or. 149. or.), Lévi-Strauss-ek zazpi bat urte lehenagotik zituen ideiak errepikatu eta formalizatu besterik ez zuen egin Lacanek.

...Lacan-ek Suitzako hizkuntzalariari egotzi zion, benetan Lévi-Strauss-ena zen adierazle eta adierazlearen arteko harremanaren ikuskera (or. 56, Novus, 2006).

Saussure-en iritzian, esan behar duguna gure egitura inkontzienteak erabakitzen du eta egitura hori hizkuntzaren sareak eraikitzen du. Inkontzientearen eta hizkuntzaren arteko erlazioa hizkuntzaren ardatz paradigmatico eta sintagmatikoen bidez (Saussure) eta haien ordezkatzailerik ziren metafora eta metonimiaren irudien bidez azaldu zuen Roman Jakobson-ek. Metafora ardatz paradigmaticoari edo hautespenaren ardatzari dagokio eta haren arabera, hitz bat edo adierazpen bat erabiltzen da, beste zerbait adierazteko. Metaforaren egiturari esker adierazle katearen hertsapenei ihes egin diezaiekegu, adierazle bat (adierazle kate batekoa) beste batez (beste adierazle kate batekoa) ordezkaturik. Sintomak metafora-mekanismo baten emaitzak dira (Tombras, 2019). Metonimia ardatz sintagmatikoari edo konbinazioaren ardatzari dagokio; hurbiltasunezko erlazioan oinarrituta, termino batek beste bati egiten dio erreferentzia, haren ondokoa delako. Inkontzientearen formazioak txisteak, ametsak, lapsusak eta sintomak dira. Inkontzienteko formazioen oinarritzko mekanismoak edo inkontzientearen legeak kondentsazioa eta desplazamendua edo metafora eta metonimia dira.

Bi afasia-moten arteko bereizketa oinarri hartuta, Jakobson-ek oinarritzko bi ardatz bereizi zituen: hizkuntza-elementuen hautapenez arduratzen den eta horien ordezkapena ahalbidetzen duen ardatz metaforikoa, eta hizkuntza-elementuen konbinazioaz sekuentzialki eta aldi berean arduratzen den ardatz metonimikoa. Metafora, beraz, Saussureren harreman paradigmaticoei (in absentia mantentzen direnei) dagokie eta metonimia, erlazio sintagmatikoei (in praesentia mantentzen direnei) (Jakobson, 1956) (or. 114, Evans, 2006).

Ametsaren kondentsazio-prozesuan hainbat zeinu edo irudi konbinatzen dira eta konbinatu diren elementuen esanahia lortzen da. Desplazamendu prozesuan zeinu batetik bestera transferitzen da esanahia.

Lacaneek Jakobsonen metafora eta metonimiaren egituren eredia baliatu zuen Freuden amets-lanaren kondentsazio eta desplazamendua azaltzeko. Inkontzientea hizkuntza baten modura egituratzen da eta metaforaren eta metonimiaren prozesu primarioak jarraitzen ditu. Metaforan, gauza bat deskribatu nahi denean beste batekin alderatzen da. Ardatz metaforikoan hizkuntza itemak hautatu eta ordezkatzeko dira. Ardatz metonimikoan hizkuntza itemak konbinatzen dira. Metaforek erlazio paradigmatisa dituzte eta absentiari erreferentzia egiten diote; metonimiek erlazio sintagmatikoak dituzte eta presentziari egiten diote erreferentzia.

Gainera, zeinu linguistikoak bi ardatzen arabera lotzen dira. Ardatz "sintagmatikoa", beste "adierazleekin" lotzen da eta ardatz "paradigmatikoa", adierazleen edo esanahien analogien bidez lotzen da (or. 67, Assoun, 2008).

Lacaneek Ediporen konplexua ordezkari kontzeptuaren bidez azaltzen du. Aitarenekin izena amaren desiraz ordezkari da. Lacaneek metafora kondentsazioarekin lotzen duen eta metonimia, desplazamenduekin. Metaforan adierazle bat beste batekin ordezkari du Metonimian adierazle bat beste batekin lotzen da; errepresentazio bat beste batez ordezkari da, bigarrenengoak lehenengoarekin hurbiltasun erlazio bat duenean. Metonimian adierazle bat beste batekin lotua ageri da. Errepresentazio batek beste bat ordezkari du, bien artean hurbiltasun erlazio bat dagoenean. Inkontzienteko erakuntza guztietan adierazle batek bestea ordezkari du. Errepresentazio batek erreprimetua izan den beste errepresentazio bat ordezkari du. Hori gertatzen da ekintza hutseginetan, ahanzturan, txisteetan, ametsetan.

Jakobson: munduko hizkuntza guztietako soinuak bil litezke fonema edo bereizgarri gutxi batzuen konbinazio eta ordezkarietara. Ildo beretik doa Lévi-Strauss: ahaidetasun sistemen, mitoen edo ipuinen osotasuna azaltzeko nahikoa da ahaidetasunaren bereizgarri gutxi batzuk konbinatzea. Inkontzientearen egitura hizkuntzaren sareak determinatzen du. Pertsonaren inkontzientea adierazle beteta dago eta hizkuntza bezala egituratua dago. Gizakiak besteekin dituen harremanak gidatzen dituena haren barneko egitura da (Burgoyne, 2003; Diatkine, 2007).

Egitura bat dago inkontzientean; hizkuntza-sareak determinatzen dute; eta gizakiari koordinatuak ematen zaizkio, barne-egitura horren bitartez, bere baitan duen egituraketa horren bitartez, besteekiko harremanak eratzeak gai izan dadin. Pertsonen munduari buruz dituzten iritziak –bertan duten lekuaz, besteekiko harremanen izaeraz eta nortzuk direnez– hizkuntzaren aparatu honek egituratzen ditu. Eta giza subjektu bat hizkuntzan inplikaturik dagoen bezalaxe, badirudi matematikak ere inplikaturik egon daitezkeela egituraketa linguistiko horretan. Beraz, naturaren liburua irakurtzea ez da gauza erraza; testuak norberaren baitan irakurtzea suposatzen du (or. 70-71, Burgoyne, 2006).

Sinbolikoaren arloan adierazleak oro sartzen dira, hizkuntza barne dela. Psikoanalisian adierazleen bidez ordenatzen eta aztertzen da analizatzailearen eta analizatuaren arteko

harremana, eta errealitatea ere bai. Lacanentzat, sinbolikoaren erregistrotik bakarrik uler litezke inkontzientea, adierazleak, absentsia, aitaren izena, legea, arauak, tradizioak, erritualak, ohiturak, forklusioa. Pertsonak darabiltzaten zeinuaren adierazleak ez dituzte objektu espezifiko eta objektiboak adierazten. Zeinuak ez doaz bakarrik; elkarrekin zeinu-sistema bat osatzen dute eta zeinu-sistema hori da zeinu baten esanahia erabakitzen duena. Zeinu batek beste zeinuen artean duen kokalekuak erabakitzen du haren esanahia. Haur jaioberria pertsonen arteko eta pertsonen gaitzaren kultura testuinguruan kokatzen da eta testuinguru horrek eragina izango du haren bizitzan.

Hizkuntza kontzientzia baino lehenagokoa da eta Inkontzientek egitura bat ezartzen dio. Inkontzientea ez da bulkaden edo gauzen errepresentazioen gordailu bat. Hizkuntzak errealitate bat islatu baino areago esperientziaren sistema baldintzatzen du; hizkuntzaren hertsapenak pertsona baten esperientzia ekoizten du (Lacan, 1966; Feher-Gurewich, 2006).

Freudentzat eta Lacanentzat inkontzientea ez da instintu biologikoen egoitza. Inkontzientea hizkuntza baten moduan egituratua dago; hitzek edo adierazleak subjektuarengan eragiten dituzten efektuen ondorioztat hartu behar da inkontzientea. Ordena sinbolikoak determinatzea du subjektua eta subjektuaren hizketaren efektuak ikusten dira Inkontzientean, Inkontzientea Bestearen diskurtsoa baita.

Inkontzientea ordena sinbolikoan kokatzen eta egituratzen da. Inkontzientea ez da barnean daramagun gordailu inkontziente objektibo bat; Inkontzientea kanpoan dago eta inguruko sare sinbolikoak determinatzen du. Inkontzientea, hizkuntza eta hizketa bezala, subjektuarengandik kanpora geratzen da eta gizabanakoaz haraindikoa da. Möbiusen bandaren bidez adierazi zuen Lacanek sistema kontziente eta inkontzientearen kontzeptua. Une batean kontziente dena hurrengoan inkontzientean geratzen da, Möbius-en bandan barneko aurpegia kanpoko bihurtzen den modu berean edo kanpoko aurpegia berriro ere barneko bihurtzen den moduan (Greenshields, 2017; Feher-Gurewich, 2003).

Bestea dago adierazlearen jatorrian, Bestea eta adierazlea elkarri loturik baitaude. Gorputz irudiak Bestearen bidez hartzen du esanahi bat eta Bestearen hitza arlo sinbolikoaren erregistroan mugitzen da. Hizki larriz idazten den Besteak dimentsio sinbolikoa adierazten du; hizki txikiz idazten denak imajinarioa eta fantasiaren mundua adierazten du. Lacanek Beste Handia izendatzeko A (Autre) letra erabili zuen; beste txikia adierazteko, *a* (autre) letra. Beste txikia ez zen benetako Bestea, imajinarioko Niaren isla eta proiektzioa (ispiluko irudia) baizik. Beste Handiak errotiko bestetasuna adierazten du, erregistro sinbolikoan sustraitua dago eta gaitzitu egiten du ilusiozko bestetasun imajinarioa. Beraz, Beste handiak errotiko bestetasuna adierazten du eta Beste txikia ez da bestea, egoarekin lotua baitago, ispilu aroan islatzen den moduan. Lacanengan besteak errealearen konnotazioak hartzen ditu, estatus imajinarioa inoiz galtzen ez badu ere. *a* txikia objektua ordenu Imajinariokoa da eta Egoaren eta haren ispiluko irudiaren rola betetzen du. A txikia objektua guk bestearengan bilatzen dugun desiraren objektua da. Desira mugimenduan jartzen duen edozer da *a* objektua. Desiraren kausa imajinarioa den objektua da. Herstura da *a* objektuaren itzulpen subjektiboa; herstura afektuaren objektua *a* objektua da.

a txikia ez da errealki bestea, Niaren isla eta proiektzio baizik. Ispiluko irudia da. Eredu imajinariokoa da. *a* txikia inoiz lortzen ez den objektua da, desiraren kausa da, desira mugimenduan jartzen duena. Bulkadek ez dute *a* txikia objektua lortu nahi, baizik haren inguruan biraka ibili. *a* txikia soberakina, hondakina, sinbolikoa errealean sartu baino lehen gelditzen dena da (1962-3 mintegia).

1955ean Lacan-ek «beste txikiaren» («beste») eta «Beste handiaren» («Bestea») arteko bereizketa egiten du (S2, 19. kap.), eta bereizketa horrek bere lanetan zehar funtsezkoa izaten jarraitzen du. Hortik aurrera, Lacanen aljebran, Beste handia A letraz izendatzen da (letra larria, frantsesezko Autre-rentzat) eta beste txikiari a (letra xehea eta etzana, frantsesezko autre-rentzat). Lacan-ek dio bereizketa horren kontzientzia oinarrikoa dela praktika analitikorako: analizatzaileak A eta a-ren arteko diferentziaz «ondo jantzia» egon behar du (E, 140), bere burua Bestearen lekuan kokatu ahal izateko, eta ez bestearen lekuan (Ec, 454).

1. Beste txikia benetan bestea ez den bestea da, EGOaren isla eta proiektzioa besterik ez dena (horregatik a sinboloak beste txikia eta egoa ordezkatu ditzake L ESKEMAN). Aldi berean KONTRAPARTEA eta ISPILUKO IRUDIA da. Beraz, beste txikia guztiz inskribatua dago ordena imaginarioan. Lacan-en lanean a sinboloaren garapenari buruzko eztabaida xehetuagoaren berri izateko, ikus ezazu A TXIKIA OBJEKTUA.

2. Beste handiak alteritate erradikala izendatzen du, irudimenezko eta ilusiozko bestetasuna gaingitzen duen bestetasun bat, identifikazioak ezin baitu asimilatu. Bestetasun erradikal hori hizkuntzarekin eta legearekin parekatzen du Lacanek, eta, hortaz, Beste handia sinbolikoaren ordenan inskribatzen da. Izan ere, Beste handia sinbolikoa da subjektu bakoitzarentzat berezitua den heinean. Bestea, beraz, beste subjektu bat da, bere bestetasun erradikalean eta bakartasun asimilaezinean, eta baita ordena sinbolikoa ere, beste subjektuarekiko harremanean bitartekari dena (or. 135-136, Evans, 2006).

Subjektua zatitua dago eta ez da bere buruaren jabe. a objektua desiraren kausa da; amaren desiraren objektua, amari falta zaion faloa da. Objektu horrek gabezia bat edo hutsune bat adierazten du. Objektu hori ez da premian oinarritzen, baizik hitzak irekitzen duen espazioan. a objektuak amaren zikiratzea edo falo gabezia sinbolizatzen du. Korapilo borromeoan hiru erregistroak (sinbolikoa, imaginarioa eta erreala) elkartzen diren gunean aurkitzen da a objektua. Lacanek faloa eta zakila bereizi zituen. Atal biologikoa (zakila) baino gehiago interesatzen zitzaizkion faloak betetzen dituen funtzio imaginario eta sinbolikoa. Gizonezkoaren atal sexuala baino gehiago interesatzen zitzaion atal horrek fantasian duen betetzen duen funtzioa. Zakila da atal biologikoa eta faloak funtzio imaginario eta sinbolikoa ditu. Faloa adierazle bat da, esanahi efektuen multzoa adierazteko erabiltzen dena.

Zikiratze-komplexuaren objektua ez da zakila organo gisa bakarrik eta dilema ez da aurkezten termino hauetan: zakila edo bagina bat edukitzea; horien existentzia ez du ezagutzen neskatalak. Dilema termino hauetan aurkezten da: phallusa edukitzea edo zikiratua izatea. Gizonezkoen organoak, beraz, sinbolo baten papera betetzen du hemen (or. 65, Palmier, 1972).

Zikiratze konplexua da, mutilaren kasuan, Ediporen konplexuari amaiera ematen diola dirudiena, zigor goren horren beldurrez, ama maitasun-objektutzat edukitzeari uko egitera behartzen duena; neskarentzat, berriz, bere eta amaren zikiratzearen aurkikuntza da; ama bihurtzen du bere zikiratzearen erantzule eta horrek aitarengana gidatuko du. Beste hitz batzuetan esanda, zikiratze konplexuak Ediporen

konplexuaren amaiera markatzen du mutilentzat; neskentzat, berriz, Ediporen konplexuaren hasiera (or. 64, Palmier, 1972).

Errotiko Bestea hizkuntzaren eta legearen baliokidea da. Beste horrek bitartekotza lana egiten du pertsonen artean. Hizkuntza Bestearen lekuan sortzen da; ez Niaren lekuan. Hizkuntza Bestearen diskurtsoa da; ez Niarena. Subjektuaren kontzienteak ez du hizkuntza kontrolatzen, hizkuntza Bestearen diskurtsoa delako. Haurrak ikusten du Bestea osorik ez dagoela, gabezia bat duela, ezabatua dagoela, zikiratua eta barratua dagoela eta haren hizkuntzan eta adierazleen sarean adierazleren bat falta dela. Gabezia horretatik abiatuta sortzen da zikiramenduaren konplexua. Hizkuntza eta hizketa ez daude subjektuaren kontrol kontzientearen esanera, hitza Bestearengan eratzen baita; hitzaren jatorria Bestearengan dago, niarengan edo subjektuarengan baino areago. Hizkuntzak kontzientzia baino harantzago du jatorria. Inkontzientea bestearen diskurtsoa da (Lacan, 1966).

Lacane Hegelen ikuspegitik aztertu zuen bestetasunaren arazoa. Ni bestearengan besterentzen banaiz, bestea ados ez dagoenean ni ezabatua gelditzen naiz. Inkontzientearen dialektikak borrokara darama, gizakiak desiratzen duena bere desira besteek aitortzea baita. Borroka sortzen da, bestearen aitortzea lortzeko hura ezabatu beharra dagoelako sarritan; bestearekin bizitzea zaila denez, nagusiaren eta mendekoaren arteko dialektika nagusitzen da eta hor sortzen den borrokak heriotzara eramaten du. Mendekoak ihes egin dio heriotza arriskuari eta nagusiarentzat lan egitea onartzen du (Lacan, 1966).

Lacane inkontzienteko hizkuntza aztertzen du, gizakiaren bizitza eta jokaera gidatzen dituen inkontzientea delako, eta ez kontzientzia edo subjektu kartesiarra. Inkontzientearen egitura norberaren kulturako adierazleen logikak eratzen du. Inkontzientea Bestearen diskurtsoa da. Inkontzientea eta Bestearen diskurtsoa eremu sinbolikoko lege, arau, tradizio eta errituek egituratzen dute. Niaren zentsura desagertzen denean, ametsak, lapsusak eta hutsegiteak agertzen dira eta horietan mozorroturik agertzen dira desira inkontzienteak.

Subjektua hizkuntzaren sarean harrapatua dagoenez, haren premien asebetetzea sare edo truke sinbolikoen sisteman txertatua dago; Besteak gidatzen du subjektuaren diskurtsoa eta lotura soziala. Oraindik hitz egiten ez dakien haurra ere hizkuntzaren munduan murgildua dago eta mundu horretan Besteak ematen dio izena, identitatea eta generoa. Haurra babesgabe sentitzen da beharrak eta premiak sentitzen dituenean. Horregatik, amak haurraren eskaera interpretatu eta bularra eskaintzen dionean, amaren gorputzaren zati batekin lotzen du desira. Zikiratze konplexuak haurra eta ama elkarrengandik urrundu egiten ditu, haurra hizkuntzaren munduan barneratzen du eta izatearen gozamena bizi du. Izatearen gozamena hori jatorrizko errepresioari lotzen zaio eta inkontzientearen oinarria bihurtzen da (Braunstein, 2006).

Errealaren eremua

Lacanentzat, hasieran, irudiaren erreinuaren aurrez-aurre, itxurez haraindiko izatearen erreinuan kokatzen zen erreala. 1950ean Lacanentzat erreala den guztia arrazionala zen, eta arrazionala erreala zen. 1953tik aurrera erreala hiru dimentsioetako bat bihurtu zen, sinbolikoarekin eta imajinarioarekin batera. Erreala imajinarioari kontrajartzen zitzaion, eta sinbolikotik harantzago kokatzen zen.

Sinbolikoa adierazle bereizi multzo batek osatzen du. Errealean absentziarik ez dago; bereizi gabea eta pitzadurarik gabea da. Sinbolikoan absentziak eta presentziak aurrez aurre jartzen dira. Sinbolikoak ebakidura bat sortzen du errealean, adierazpenen prozesuan. Hitzen munduak sortzen du gauzen mundua. Errealak Sinbolizazioa eragozten du, hizkuntzatik kanpora eta sinbolizatu gabe geratzen baita.

Lacanentzat ezinezkoa dena da erreala: ezinezkoa delako hura irudikatzea edo ordenu sinbolikoan integratzea. Ezintasun horrek ematen dio izaera traumatikoa errealari. Lacanentzat, phallus erreala zakil fisikoa da, phallus sinboliko eta imajinarioari kontrajarria.

1970az geroztik erreala eta errealtatea bereizten zituen Lacanek. Erreala sinbolizatu ezina da; errealtatea, berriz, eraikuntza sinboliko eta imajinarioetan oinarritutako errepresentazio subjektiboz josia dago (XXII. mintegia: Erreala, Sinbolikoa eta Imajinarioa. 1974–75). Errealak berezko gauza (Kanten numenoa) adierazten du. Errealaren dimentsioa Irudimenaren erregistroaren eta erregistro sinbolikoaren mugetatik at gelditzen da. Erreala urrun dago zuzeneko esperientzien alderdi fenomenologikotik. Bere teoriaren garapenaren une batean psikosiari eta bestetasunari lotua ikusten du Erreala Lacanek. Geroago, ordea, absentziarik, negatibotasunik edo gabeziarik gabeko osotasun moduan hartzen du Erreala (Lacan, 1953; Feher-Gurewich, 2003).

Erreala barne-hersturarekin lotua dago; ez du bitartekotzarik. Erreala ezin da ezagutu, imajinariotik eta sinbolikotik harantzago dagoelako. Gertaera bat ordenu sinbolikoan integratu ezin denean, psikosian gertatzen den moduan, errealean itzultzen da haluzinazio baten moduan. Kanten berezko gauza edo beregan den gauzaren antza du. Erreala ezagutu ezina da. Errealtateak errepresentazio subjektiboen berri ematen du. Errepresentazio horiek artikulazio sinboliko eta imajinarioen emaitzak dira.

Errealak kanpoko errealtate objektibo baten trazak baditu ere, haluzinazioak eta amets dramatikoak ere barne-hartzen ditu. Erreala barnean eta kanpoan dago.

Batetik, erreala ezin da ezagutu, imajinariotik zein sinbolikotik haratago joaten baita; berez den gauza kantiarra bezala, x ezagutezin bat da. Bestalde, Lacan-ek Hegel aipatzen du erreala arrazionala eta arrazionala erreala dela dioenean, horrek kalkulurako eta logikarako egokia dela inplikatzeko duelarik. Lacan-en lanean antzeman daiteke, 1970eko hamarkadaren hasieratik aurrera, indeterminazio hori

konpontzeko saiakera bat, erreala eta "errealitatea" bereizteari erreferentzia eginez (esaterako, Lacanek errealitatea "errealaren imintzio" gisa definitzen duenean (Lacan, 1973a:17; ikus S17, 148). Oposizio horretan, erreala tinko jarria dago ezagutzen ez denaren eta asimilaezina denaren alboan, eta «errealitateak» artikulazio sinboliko eta imajinarioen emaitzak diren errepresentazio subjektiboak (Freuden «errealitate psikikoa») adierazten ditu. Hala ere, oposizio hori ezarri ondoren, Lacanek ez du modu koherente edo sistematiko batean mantentzen; aldiz, kontrajartzea argi mantentzen den uneen eta «erreal» eta «errealitate» terminoak erabiltzeko aurreko ohiturara itzultzen den uneen artean kulunkatzen da (or. 163-164, Evans, 2006).

Erreala betea da. Errealak ez du gabeziarik. Haurrak zakil absentea sinbolizatzen duenean, han zerbait egon behar lukeela pentsatzen duelako da. Sinbolikoa errealean sartzen da. Falta dena ez da atal erreala, baizik objektu sinbolikoa, phallus sinbolikoa. Bere balio sinbolikoa frogatzen duena hau da: phallusa ordezkatzeko dezakeela haur batek neskaren inkontzientean. Erreala imajinarioari oposatua dago eta sinbolikotik harantzago kokatzen da. Eredu sinbolikoan presentziaren eta absentiaren oposizioa ageri da, baina errealean absentiari ez dago.

Gabetzea, beraz, emakumearen zakil faltari dagokio, eta hori argi eta garbi errealaren eremuko gabezia da. Hala ere, definizioz, «erreala beteta dago»; erreala ez da inoiz falta bere baitan, eta, beraz, «gabezia-nozioak... objektuaren sinbolizazioa dakar errealean» (S4, 218). Beste era batera esanda, haurrak zakila (organo erreal bat) absente bezala hautematen duenean, nolabait hor egon beharko lukeela uste duelako bakarrik da, eta sinbolikoa errealean sartzea da hori. Beraz, falta dena ez da benetako organoa, izan ere, biologikoki hitz eginez, bagina ez baita osatu gabea horrelako bat gabe; falta dena objektu sinboliko bat da, falo sinbolikoa. Neskaren inkontzientean haur batek ordezkatu ahal izateak baieztatzen du haren izaera sinbolikoa; zakilaren inbidia haur bat desiratzeko baretzen duenean, dio Freudek, neskak zakiletik haurraren gana egiten du laprast –ekuazio sinbolikoaren lerroetan barna (Freud, 1924d: SE XIX, 178–9) (or. 153, Evans, 2006).

Erreala, beraz, jada ez dago imajinarioari soilik kontrajarria, baizik eta sinbolikotik haratago kokatua ere badago. Presentziaren eta absentiaren arteko oposizioen arabera eratzen den sinbolikoan ez bezala, «errealean ez dago absentiari» (S2, 313) (or. 162, Evans, 2006).

Lacanentzat, eredu sinbolikotik forkluitutako adierazleek osatzen dute psikosiaren errealitatea (eldarnioa, haluzinazioa). Sinbolikoan gabeziak, absentiak eta presentziak daude, baina Errealak arrakalarik eta absentiari ez dago osagaien artean. Sinbolikoak errealean ebaketa egiten duenean, bereizi egiten dira osagaiak, eta esanahi bat hartzen dute. Hitzak munduak sortzen du gauzen mundua. Errepresentatzen duen munduaren aurretik

dago hizkuntza. Sinbolizatu, ezagutu eta asimilatu ezin dena eta hizkuntzatik at gelditzen dena Erreala da. Sinbolizatu ezina izateak ematen dio izaera traumatikoa.

Errealitate psikikoa eremu sinboliko eta imajinarioan sortutako errepresentazio subjektiboek osatzen dute. Sinbolikoa adierazle diskretu eta berezietz osatua dago. Erreala bereizi gabea eta pitzadurarik gabea da. Sinbolikoak ebakidura bat eragiten du. Hitzen munduak sortzen du gauzen mundua. Erreala sinbolizatu gabe eta hizkuntzatik at gelditzen da. Erreala ezintasunarekin lotua dago.

Sinbolikoa adierazleak deitzen diren elementu desberdindu eta diskretuen multzoa da; aldiz, erreala, berez, desberdindu gabea da; «errealak inolako arraildurarik gabe dago» (S2, 97). Sinbolikoa da signifikazioaren prozesuan zehar «errealean ebaki bat» sartzen duena... Erreala «ezinezkoa» da (S11, 167), imajinatzeke ezinezkoa delako, ordena sinbolikoan integratzea ezinezkoa eta inolaz ere lortu ezinezkoa delako. Ezintasunezko izaera hori eta sinbolizazioaren aurkako erresistentzia izaera hori da errealari funtsean ezaugarri traumatikoa ematen diona. Horrela, 1956-7ko mintegian Hans Txikiaren (Freud, 1909b) kasua irakurtzean, Lacanek bi elementu erreal bereizten ditu, haurraren irudimeneko harmonia preedipikoa aldatu eta hausten dutenak: zakil erreala, haurra masturbazioan sentitzen hasten dena, eta arreba jaio berria (S4, 308–9) (or. 162-163, Evans, 2006).

Adierazleak ez du errealitate bat adierazten, baizik beste adierazle bati egiten dio erreferentzia. Hizkuntzak bere burua bakarrik adierazten du. Hizkuntza sistema itxi bat da; ez dio erreferentziarik egiten hizkuntzaz kanpoko errealitate bati. Giza esperientziak ezin du errealitate numenikoa atzeman; gizakia errealitate horren hautemate mugatura bakarrik hel liteke: fenomenora, ez errealitate berera. Idealismo neokantiarreko gizakia bere hautemate aparailuaren burbuilan harrapatua dago. Hizkuntzak egituratutako kaiola edo espetxe bat sortu dute: adierazleen amaigabeko labirinto bat, gizadia errealitatetik bereizten duena.

Teoria psikoanalitikoarentzat giza errealitatearen alderdi bat ezin da sinbolizatu eta errepresentatu; erreala modu ezberdinetara aurkez daiteke; errepresentazio logiko eta matematikoak erabil daitezke, eta mitoak ere bai. Erreala sinbolizatu ezin denez, harengana hurbiltzeko mitoak arakatzen ditu Lacanek. Dor-en iritziz Lacanek sinbolo matematikoak erabiltzen zituen bere idatzietan; sinbolo horien bidez ematen zituen mintegietan zerabiltzan kontzeptu psikoanalitikoaren bertsio abstraktuak. Ez zuen psikoanalisi matematizatzeke asmorik (Dor, 1996).

Lacanen hitzetan errealerara hurbiltzeko bide baten moduan sartzen da mitoak, sinbolizazioari erresistentzia jartzen diona. Teoria psikoanalitikoaren oinarritzko printzipio bat honako hau da bada, hots, giza errealitatearen alderdi ez sinbolizagarri eta irudikaezin bat badagoela, ondorioz hura teorikoki tratatzeko saiakerak agian aurkezpen modu etenak eskatuko ditu. Norbaitek pentsa lezake hemen, ez bakarrik

Freudek egite duen mitoaren erabileran, baizik baita Lacanek egiten duen formalizazio matematiko eta logikoaren erabileran ere (or. 36, Leader, 2006).

Erreala berez benetan dena da eta itxuratik harantzago doa. Izatearen erreinuan kokatzen da eta irudiaren erreinuari kontrajartzen zaio. Lacanentzat, hasieran, Hegel-entzat bezala, erreala arrazionala eta arrazionala erreala da; erreala kalkula litekeen eta logikoki azter litekeen zerbait da. Baina 1953az geroztiko Lacanek, imajinarioaren kontra eta sinbolikotik harantzago jartzen du Erreala. Gauzen mundua hitzen munduak eratzen badu ere, erreala hizkuntzatik kanpora dago eta ezin daiteke sinbolizatu. Absentziarik eta pitzadurarik gabeko Errealaz mintzatuko da. Errealean ez da kategoriarik eta bitartekotzarik, eta barneherstura sortzen du. Ordena sinbolikoan integratu ezin dena Errealean agertzen da, haluzinazio moduan.

Lacanentzat, Imajinarioaren eta Sinbolikoaren nahasturatik eratortzen da errealtatea; Sinbolikoak eta Imajinarioak jositako errepresentazio subjektiboek osatzen dute errealtatea. Aldiz, Erreala ezin daiteke ezagutu edo sinbolizatu, eta zentzurik ezin zaio eman. Sinbolikoaren sarera heldu ez dena errealean agertzen da. Erreala ezin du subjektuak irudikatu eta etengabe errepikatzen da. Errealak kanpoko objektu errealez (errealtate materiala) gain, barneko amets eta haluzinazioak ere (errealtate psikikoa) biltzen ditu. Sinbolizaziotik kanpora gelditzen den eremua da erreala eta Sinbolikoak errealean duen efektua sintometan agertzen da.

Lacanek eragin bat baino gehiago jaso zuen filosofia, teologia, drama, poesia, artea, hizkuntzalaritza eta zientziatik. Lacanen bidez Descartes, Hegel, Freud, Kojève, Lévy-Strauss, Saussure, Nietzsche, Kierkegaard, Spinoza, Leibniz, Bertrand Russell, Jeremy Bentham eta Frege, Poincaré, Bourbaki, Moebius, Badiouk eta beste pentsalari asko hitz egiten dute. Baina, Lacanek etengabe aldatzen zituen bere teoriak. Esate baterako, adinean aurrera zihoan heinean, Lacani ez zitzaion iruditzen hizkuntzalaritzak psikoanalisiari eta Inkontzientearen ezagutzari ekarpen handirik egingo zionik. Linguistika albora utzi eta topologiari heldu zion. Inkontzientearen egitura aztertzen topologiak lagunduko zigun (Nobus, 2006).

Psikoanalisiaren historiako ezein idazlek ez du Jacques Lacanek baino gehiago egin teoria freudiarra tradizio filosofikoarekin elkarrizketan jartzeko. Bere lana pentsalari sorta ikaragarri zabal batekin konprometitzen da, bere garaikide hurbilekin ez ezik (Saussure, Benvéniste, Jakobson, Bataille, Merleau-Ponty, Lévi-Strauss, Piaget, Sartre, Kojève, Hyppolite, Koyré eta Althusser), baita Ilustrazioko irudi batzuekin ere (Nietzsche, Kierkegaard, Marx, Hegel eta Kant), eta haratagokoekin ere bai, Spinoza, Leibniz eta Descartesengandik Pascal, San Agustín, Aristoteles, Platon eta presokratikoetaraino. Haren erreferentziak, gainera, ez dira mugatzen bera interpretatzeko hainbestetan erabili izan diren tradizio post-estruturalistaren mugarri ezagunetara (Kojève eta Hegel, Saussure eta Lévi-Strauss), baizik eta tradizio britainiarreko pertsonaia ugari

biltzen ditu (Bertrand Russell, Jeremy Bentham, Isaac Newton, Jonathan Swift eta George Berkeley), eta baita zientziaren eta matematikaren historiatik ere (Cantor, Frege, Poincaré, Bourbaki, Moebius, Huyghens, Koperniko, Kepler eta Euklides) (or. 116, Shepherdson, 2006).

Lacanekek errearen eta sinbolikoaren arteko arrakala aztertu nahi zuen. Haren arazo zentrala ez zen hizkuntzari zegokiona, erreari zegokiona baizik. XVII. mendearen uko egin zion Lacanekek errearearen eta hizkuntzaren arteko oposizioari eta errearen muina artikulatzen saiatu zen. Erreal eta Gauza gauza bera dira Lacanentzat. Erreal ez da errearetea. Erreareteak erreal, imajinarioa eta sinbolikoa barne-hartzen ditu. Erreal edo gauza sinbolizatu ezin den hura da.

Erreal ez da imajinarioa eta ezin da sinbolizatu. Bere existentzia propioa du eta ezin da sinbolizatu edo errerepresentatu. Erreal heriotzarekin, izuarekin,eldarnioarekin erlazionatua dago. Errearetea sinbolikoki egituratua dago. Erreal ezin da sinbolizatu, baina ordena sinbolikotik nahikoa gertu dago. Adierazlearen oinarririk eza adierazten du. Erreal eta sinbolikoa estuki elkarri lotuak daude. Bestela pentsatzea fantasia utopikoetan galtzea zatekeen (Tomšič, 2015).

Fenomenologiaren ikuspegitik, objektuen existentzia haiek hautemateari lotua dago. Objektuen existentzia eta haien hautematea estuki lotuak daude; objektuak estuki lotuak daude gizakiak haietaz duen kontzientziarekin. Beraz, kontzientzia hori ez da gertaera objektiboen ezagutza soil, baizik gertaera horiek eratu eta eraikitze prozesu aktiboa. Heidegger-ek ere bereizi egiten ditu gauza eta objektua. Berezko gauza edo numenoa agertzen zaigun edo hautematen dugun fenomenotik harantzago doa. Teknikak menderatutako objektuak ahanztarazi egiten ditu berezko gauzaren (numenoaren) nozioa. Gauza numenikoak barne-herstura sortzen du eta subjektuak urrun eduki nahi izaten du. Errealak herstura sortzen du, baina gozamenarekin ere lotua dago. Atsegina eta desatsegina elkartzen ditu gozamenak (Laznik, 1990).

1953-54 eta 1954-55 mintegietan Maisuaren eta Esklaboaren dialektika hegeliarraren testuinguruan erabiltzen du Lacanek "gozamena" terminoa. Nagusiaren gozamenerako objektuak eskuratzeko lan egin behar du esklaboak. 1957an objektu sexualak emandako gozamenaz ari da Lacan, 4. mintegian orgasmo gozamena aztertzen du. 1960an gozamena eta atsegina bereizten ditu Lacanek, Hegel eta Kojève-ren haritik. Atsegin printzipioak gozamenari mugak jartzen dizkio. Subjektuak nahiko luke atsegin printzipioaren kateak eten eta gozamenari jartzen zaizkion mugak apurtzea, atseginaren printzipiotik haratago joateko. Baina, legeak behartzen du subjektua ahal den gutxiena goatzera. Hala ere, atseginaren printzipioa apurtuz lortzen dena ez da atsegina, oinazea baizik. Subjektuak atsegin kantitate jakin bat bakarrik jasan dezake. Muga horretatik harantzago, atsegina oinaze bihurtzen da eta oinazezko atsegin horri deritzo gozamena. Gozamena sufrikarioa da (Lacan, 1959-60. 7. mintegia).

Freuden arabera, psikeak hasieran atseginaren printzipioaren arabera jokatzen du; asebetetzea lortu nahi du, aurretiko asebetetzearen haluzinazio bidez. Subjektuak ikusten duenean, haluzinazioak ez dituela premiak asebetetzen, funtzionamendu mentalaren printzipio berri bati, errealtatearen printzipioari, heltzen dio. Atseginaren printzipioa albora uzten du eta lortu nahi duena lortzeko bide neketsuagoak hartzera behartzen du subjektua. Errealtatearen printzipioaren azken helburua ere bulkaden asebetetzea da, gerorako utzitako atsegin printzipioa besterik ez baita errealtatearen printzipioa. Subjektuak ez dauka errealtatea eta fantasia bereizteko bitarteko hutsezinik.

Lacanentzat atsegin printzipioak aparailu homeostatiko baten moduan funtzionatzen du eta kitzikapena maila baxuenean gordetzen saiatzen da, kitzikapena gehitzeak atsekabea dakarrelako. Lacanek hasieran atsegin printzipioa heriotza bulkadari kontrajartzen zion. Geroago Lacanek gozamena eta atsegina kontrajartzen zituen. Gozamena gehiegizko kitzikapen maila zen. Atseginaren printzipioa lege sinbolikoa da, gehiegizko kitzikapena eragotzi nahi duena. Agindua hau da: goza ezazu ahal den gutxien. Beste modu batera esanda, atseginaren printzipioak intzestua galarazten du. Subjektuaren eta Gauzaren arteko distantzia erregulatzen du. Subjektuak debeku hori apurtzen duenean, Gauzatik hurbil kokatzen da. Bulkadak (heriotza bulkadak) ahalbidetzen dio subjektuari atsegin printzipioa apurtzea. Gozamena errealetik hurbil dago. Atseginaren printzipioa legetik, debekutik, erregulaziotik hurbil dago. Atseginaren printzipioak adierazlearen nagusitasuna darama berekin. Sinbolikoa errepikapen konpultsioari lotua dago eta atseginaren printzipiotik harantzago doa.

Freudentzat libidoa eta gozamena baliokideak ziren. Lacanentzat gozamena eta atsegina ez ziren baliokideak. Atsegina eta orgasmoa lege naturalaren arabera ulertzen zituen; orgasmoa atseginaren printzipioaren arabera ulertzen zuen eta asebetetzearekin lotua zegoen; ez zegoen gozamenarekin lotua. Gozamena ez zuen lege naturalarekin lotzen; desira eta atseginarekin baino gehiago tentsioarekin eta minarekin lotzen zuen.

Lacanentzat ekintza sexualik ez dago. Izatearen gabeziari, objektu galdu edo objektu absenteari lotua dago desira. Asebetetzea objektu galduarekin lortu nahi luke pertsonak. Atseginak atsegin izateari uzten dionean agertzen da gozamena, eta fantasiaren bidez adierazten da. Frantseseko "jouissance" hitzak objektu sexual batez gozatzeari egiten dio erreferentzia eta badu konnotazio sexual bat. Hegelek eta Kojève-k gozamena eta atsegina bereizi zituzten eta ildo beretik Lacanek gozamena eta atsegina elkarren aurrez-aurre jarri zituen 1960an. Gozamenak ez zuen jokatzeko atseginaren printzipioaren arabera. Subjektua saiatzen zen legeak gozamenari jarritako mugak apurtu eta atseginaren printzipiotik harantzago joaten. Hala ere, subjektuak atsegin kantitate mugatu bat besterik ez dezake jasan eta muga hori gainditzean, minarekin nahasten da atsegina. Atseginaren, minaren, sufrikarioaren eta sintomaren nahaste bat da gozamena. Gozamenaren debekua berezkoa da hizkuntzaren egitura sinbolikoaren baitan, hitz egiten duenak galarazia baitu gozamena. Zikiratze konplexuaren garaian gozamenari uko egiten diolako sartzen da subjektua eremu

sinbolikoan. Bulkada asebetetzeari uko egitean oinarritzen da lotura soziala. Besteen objektuez gozatzea galarazia dagoenez, gozamina Bestearen eremuan kokatzen da.

Sexu-eremuan, orgasmoa, plazeraren printzipioarekin bat datorrena, "asebetetzearen" parekoa da, eta ez horrenbeste gozamenarena, hark honen etenaldia adierazten baitu; orgasmoak lege natural baten aginduetara egiten den gozamenaren kapitulazioa eskatzen du. Psikoanalisiak (Wilhelm Reich-ek izan ezik) inoiz ez zituen orgasmoaren laudorioak abestu. Freudek esan zezakeen: "Badakit sexu-topaketaren plazer maximoa genitalen jardueraren araberakoa den organo baten plazera baino ez dela" (SE 16, 325. or.); aldiz, Lacanek geroago errepikatu zuen "psikoanaliaren sekretu handia hau dela: sexu-ekintza ez dela existitzen". "Kopulazioa ere masturbazioaren kontzesiotzat hartzen zuen hark (or. 107, Braunstein, 2006).

Ordena sinbolikoan eta hizkuntzan, absentsia eta presentzia konbinatzen dira. *Fort! Da!* jokoak absentsia eta presentzia adierazten ditu. Hizkuntzan absentsiak presentzia eratzten du. Absentsia eta presentzia, biak dira ezinbestekoak eremu sinbolikoan. Ezereza objektu bihurtzen da. Phallusaren presentzia eta absentsiaren inguru eraikitzen da sexuen arteko diferentzia psikologikoa (Laznik, 1990). Joko horren bidez subjektuak fonemen dikotomia diakronikoki integratzen du. Sinboloa gauzaren heriotza moduan agertzen da eta heriotza desiraren betikotze moduan agertzen zaigu. Gizadia errepresentatzen duen lehen sinboloa hilobia da. Sinboloak gizaki bihurtzen duelako hitz egiten du gizakiak (Lacan, 1966; Braunstein, 2006).

Haurrak premia bat du eta premia hori asebetetzea eskatzen du. Bestea denez premiak asebate ditzakeena, bere burua gabezia egoeran sentitzen du haurrak. Amaren absentsiak barne-herstura sortzen du eta barne-herstura hori kontrolatu egin behar izaten da. Ama urrun dagoenean, barne-herstura agertzen da, eta ama hurbil dagoenean, atsegina. Haurra alde batetik beste aldera dabil, baina amaren eta haurraren artean beste polo bat agertzen da: amaren absentsien arrazoi posiblea den aita, Lacanek Aitaren izena (nom-du-père eta non-du-père) edo aitaren funtzioa izendatzen duena. Amaren guztiahaltasuna mugatzen duen poloa da. Ama urrun badago, zerbait (phallusa) falta zaiolako da eta phallus hori duena aita da (Tombras, 2019).

Haurrak amarekiko harreman imajinarioa utzi eta gizartean integratu behar du. Amarekiko atxikimendua gaindituko du aitaren irudiari esker. Neskak konturatzen denean zakilik ez duela, baliagarri zaion zerbaiten gabezia sentitzen du eta haur bat izanez konpentsatu nahiko luke gabezia hori. Amak falo imajinarioa desiratzen du. Haurra izango litzateke zakilaren ordezkari sinbolikoa. Lacan eta Freud ados dira: haurrak phallus sinbolikoa ordezkatzeko du amarentzat. Haurrak bilatzen du amaren desira asebetetzea, phallus imajinarioarekin edo ama phalikoarekin identifikatuz. Baina, ordezkari sinboliko horrek ez du ama asebetetzen. Amaren phallusaren desirak hor jarraitzen du haurra izanda gero ere.

Lacanen iritziz, egitura psikikoa eratzerakoan ezinbestekoak dira aitaren irudiaren funtzio babeslea eta funtzio galarazlea, gure gizartean aitaren irudia indarra galtzen ari den arren (Lacan, 1938). Klinek garrantzi handia ematen zion haurraren eta amaren arteko harremanari; Lacanek aitaren irudiari ematen zion garrantzia. Aitak bitarteko lana egiten zuen haurraren, amaren eta phallusaren arteko bitarteko edo hirutariko erlazioetan. Hasieran haurra aitarekin lehiatzen da, amaren maitasuna bereganatzeko; gero, ordea, haurrak gizarte ordenaren ordezkari hartzen du aita eta harekin identifikatuz gainditzen du Ediporen konplexua. Aitaren absentsia ezinbestekoa izango da haurra dimentsio sinbolikoan barneratzeko. Aitarekin identifikatzean sare sinbolikoan txertatzen da haurra eta horrela ez du egitura psikopatologikoa eta psikosirik garatuko.

Lacanek aita sinbolikoa, aita imajinarioa eta aita erreala bereizi zituen. Aita sinbolikoa ez da izate erreal bat, aitaren funtzioa betetzen duen ordena sinbolikoko giltzarria da. Aitaren irudiak amaren eta haurraren arteko harremanean esku hartzen du, haiek elkarrengandik bereizi eta haien desira erregulatzeko. Aitaren irudiak legea ezarriko du eta haurraren eta amaren desira erregulatuko du. Aitaren funtzioak bereizten ditu naturaren ordena imajinarioa eta kulturaren ordena sinbolikoa. Ediporen konplexu garaian semeek leinuko aita erailtzen dute eta hura Aita sinboliko bihurtzen da. Horri deritza Aitaren Izena. Aitarengandik semearengana doan oinordekotzak ordena sinbolikoa ezartzen du eta ordena hori ez da naturarena.

Ediporen konplexuaren aurretik jadanik presente zegoen falo imajinarioa; horrek esan nahi du aita sinbolikoa jadanik presente zegoela Ediporen aurretiko aroan eta sinbolo hori absente egotetik eratortzen dela egitura psikotikoa. Psikosia ulertzeko ordena sinbolikoaren teoria ezinbestekoa da. Aitaren Izena ez dago integratua psikotikoaren unibertso sinbolikoan

eta, ondorioz, zulo bat ageri da unibertso horretan. Psikosian inkontzientea presente dago, baina ez du funtzionatzen. Psikosian aitaren funtzioa aitaren irudira mugatzen da eta, ondorioz, Sinbolikoa imajinaria mugatzen da.

Psikosiaren egitura eta psikosiaren sintomak (eldarnio eta haluzinazioak) bereizten ditu Lacanek. Psikosia ager dadin subjektuak egitura psikotikoa eduki behar du eta Aitaren Izenak subjektuarekin oposizio sinbolikoan egon behar du. Gerta daiteke egitura psikotikoa eduki eta haluzinaziorik ez izatea. Bi baldintzak betetzen direnean, psikosia aktibatzen da eta haluzinazio eta eldarnioak agertzen dira.

1970eko hamarkadan psikosia azaltzeko korapilo borromeoa darabil Lacanek. Korapiloko hiru uztaiek hiru ordenen adierazpenak dira: erreala, imajinarioa eta sinbolikoa. Neurosian hiru angeluak elkarri lotuak daude, baina psikosian bereiziak daude. Psikosian geratzen den disoziazio hori eragotz lezake batzuetan laugarren uztai moduan jokatzen duen formazio sintomatiko batek.

Tratamendu psikoanalitikoa egokia jotzen da neurosien tratamendurako, baina ez psikosien tratamendurako, ezkutuko psikosi bat agerraraz baitezake (Lacan, 1955-56. 3. Mintegia). Asoziazio askea eta sofa ez dira hasieratik erabiliko; pazienteak psikosirik ez duela ziur dagoenean erabiliko ditu sofa eta elkarketa askea. Lacanek lan egin zuen paziente psikotikoekin, baina ez zuen hitz egin erabili zituen teknikez. Psikosian gehien agertzen diren sintomak lengoaiaren nahasteak dira. Psikosia diagnostikatzeko nahaste horiek agertu behar dute. Lengoi nahasteen artean holofraseak eta neologismoak ageri dira. Lacanek esaten du psikotikoek nahaste horiek agertzen dituztela, behar beste ainguratze puntu ez dutelako. Esperientzia psikotikoan adieraziak txirrista egiten du adierazleen azpian. Neurotikoa lengoaia habitatzen ari da; psikotikoa lengoaiak habitatzen du.

Psikosietan Aitaren Izena baztertu egiten da (Verwerfung). Psikotikoarentzat ama Jainkosa bat da; ezin zaio erantsi phallus sinbolikorik (Aitaren Izenik). Aitaren Izena funtzio sinbolikoaren oinarria da. Psikotikoak aita eskluitu egiten du berak eta amak eratutako gotorlekutik. Garrantzia duena ez da aita pertsona moduan, amak haren hitzei ematen dien garrantzia baizik.

Lacani sinesten badiogu, psikosia agertzeko baldintza hau izango litzateke: inkontzienteko funtsezko adierazlearen absentsia; Legearen eramaile den aitaren

absentzia. Zehaztu dezagun aita adierazlearen absentzia horrek ez duela zerikusirik aita erreal baten presentziarekin edo absentziarekin (or. 82, Palmier, 1972).

Ama da haurraren lehen zaintzailea. Haurrak amaren beharra du bere premiak asebetetzeko. Bestearengandik dependitzen du erabat. Amak haurra zaintzen duenean, haren premiak asebeteko dituen objektuak emanez, objektuek funtzio sinboliko bat hartzen dute: amaren amodioaren ikur sinboliko bihurtzen dira. Azkenean, amaren presentzia da haren amodioaren lekukotza hartzen duena, nahiz eta objekturik eman ez. Ondorioz, amaren absentzia baztertze traumatikotzat hartzen da; amodioaren galera moduan.

Lacaneek esaten digu eskaera ez dela eskatzaileak eskatzen duenaren asebetetzea; beste zerbait dela. "Presentzia baten edo absentzia baten eskaera da. Maitasun-eskaera da batez ere" (or. 94, Palmier, 1972)

Aita imajinarioaren irudia ideala, guztiahaltsua edo ankerra izan daiteke. Subjektuak ikusten du irudi horrek ez duela erlazio handirik aita errealararekin. Aita imajinarioa izan daiteke babesle bihozbera edo erasotzaile ankerra. Aita izaki guztiahaltsu moduan agertzen da, bai babesle moduan agertzen denean, bai erasotzaile moduan agertzen denean. Psikosian eta perbertsioan aita sinbolikoa aita imajinarioaren irudira murrizten da.

Aita errealak gauzatzen du zikiratze sinbolikoa. Aita erreala hizkuntzaren efektua da; hizkuntzaren erreala, biologiako erreala baino areago. Ediporen konplexuko aita erreala haurraren eta amaren arteko bitariko/hirutariko erlazioan bitarteko moduan sartzen da eta haurra zikiratzen du. Aitaren funtzioa zikiratzaileaz hitz egitean ez gara ari haren presentzia fisikoaz, hark betetzen duen funtzioaz baizik. Gerta daiteke, aitak presente egon eta bere funtziorik ez betetzea, edo fisikoki aurrean ez egon arren, bere zikiratze funtzioa betetzea. Aitaren esku hartze zikiratzaileak barne-hersturatik babesten du haurra. Funtzio hori betetzen ez badu aitak, objektu fobikoak ordezkatzeko du aita erreal absentea. Aitaren bitartekaritzak osagai berri bat eransten dio haurrak, amak eta phallusak osatzen duten hirukoteari. Horrela, amaren, haurraren eta phallusaren hirutariko harremanak lautarikoak bihurtzen dira. Harreman horien egituratzean eragina izan dute Lévi-Straussen ahaidetasunaren unitateek (Lévi-Strauss, 1945).

Haurraren garapena

Lacanek hasieran onartzen zuen Freuden garapen eta finkamendu sexualaren teoria, baina gero zalantzan jarri zuen garapen horren ordena naturala. Haren iritziz, garapen denboraren ikuskera lerrokatua ez dator bat teoria psikoanalitikoarekin. Freuden garapenaren teoriaren arabera, haurrak heldutasunean aurrera egin ahala, sexualitatearen sintesia gertatzen da; Lacanentzat, ordea, ez dago sintesirik.

Objektuen Erlazioaren Teoriaren eta Niaren Psikologiaren arabera, garapen psikosexualak azken estadio batera eraman behar du pertsona: objektuarekin harreman genital garatu bat izatera. Baina, Lacanentzat ez dago heldutasunera eramango duen garapen kronologiko naturalik, ez dago garapen sexualaren fase natural eta normalik.

Genital aurreko etapak ez dira haurraren garapenean kronologikoki ordenatutako unek, funtsean iraganera atzeraeraginean proiektatzen diren denbora gabeko egiturak baizik; «Ediporen konplexuaren atzeraeraginean ordenatzen dira» (E, 197). Lacanek, beraz, baztertu egiten ditu «haurren behaketa zuzena deritzonaren bidez» (E, 242) estadio psikosexualen sekuentziari buruzko frogak enpirikoak marrazteko saiakera guztiak, eta helduen azterketan halako etapak berreraikitzeari ematen dio garrantzia (or. 41, Evans, 2006).

Lacanek eskaeran oinarrituta antolatzen ditu genital aurreko estadioak eta hizkuntzaren egituraren baitan gauzatzen da eskaera. Hizkuntza eskuratzen den heinean, garapenaren faseak eta segida logiko-kronologikoa lerrokatzen dira. Baina, Lacanek haurraren egitura sinbolikoaren antolamendua aztertzen du eta ez zaio garapenaren segida kronologikoa interesatzen. Haren iritziz, haurra ez da adierazleen unibertsoan poliki-poliki eta modu mailakatuan sartzen, kolpetik baizik. Adierazleak ez ditu bakarka eskuratzen, sarean elkarrekin josita daudelako. Adierazleen munduan kolpetik murgiltzen da, eta hitz egiten hasi baino lehen murgildu ere.

Freud zein Lacanentzat, haurrak hasiera batean ez du sexu-desberdintasuna ezagutzen eta, beraz, ezin du jarrera sexualik hartu. Haurrak zikiratze konplexuan sexu-desberdintasuna aurkitzen duenean bakarrik has daiteke kokapen sexual bat hartzen. Freud eta Lacan-ek kokapen sexual bat hartzeko prozesu hori oso lotuta ikusten dute EDIPOREN KONPLEXUAREKIN, baina loturaren izaera zehatzean ezberdintzen dira. Freud ustez, subjektuaren kokapen sexuala Ediporen konplexuan subjektua identifikatzen den gurasoaren sexuaren arabera zehazten da (subjektua aitarekin identifikatzen bada, kokaleku maskulinoa hartzen du; amarekin identifikatzeak kokapen femenino bat hartzera eramango du). Lacanentzat, ordea, Ediporen konplexuak beti dakar Aitarekiko identifikazio sinbolikoa, eta, hortaz, identifikazio edipiarrek ezin du kokape sexuala determinatu. Lacanen ustez, beraz, ez da identifikazioa baizik eta subjektuak PHALLUSAREKIN duen harremana kokapen sexuala determinatzen duena (or. 181, Evans, 2006).

Hiru urtetik bost urtera bitartean luzatzen da Ediporen konplexua. Haurrak lehen urteetan pentsatzen du ama hermafrodita dela; harra eta emea elkartzan dituela bere baitan. Bi sexuen arteko diferentzia anatomikoaz jabetzen denean, zikiramenduaren ondorioz

gertatu dela pentsatzen du, hots, pentsatzen du neskatilari zakila kendu diotela (Freud, 1908). Horrela pasatzen da denek zakila dutela pentsatzetik, neskatilak zikiratuak izan direla pentsatzera. Zikiramendu konplexua garatzen denean, neskatilak pentsatzen du bera jadanik zikiratua dagoela eta mutikoa beldur da aitak zakila kenduko ote dioten.

Neskatilak pentsatzen du zikiramendu hori konpentsa dezakeela, aitarekin haur bat izanez. Zikiratze konplexua Ediporen Konplexuan sartzeko unean gertatzen da; amarekiko erresumindua dago, hark gabetu baitu zakilaz; horregatik amarengandik aitarengana bideratzen du bere desira.

Mutikoa, berriz, zikiratze konplexuari esker irtengo da Ediporen Konplexutik; zikiratze beldurak eraginda uko egingo dio amarekiko desirari eta latentzia aroan sartuko da (Freud, 1923, 1924). Zikiratze konplexua eta Ediporen konplexua phallus imajinarioarekin erlazionatzen dira; diferentzia sexuala, berriz, phallus sinbolikoarekin erlazionatua dago. Falo sinbolikoa ezin daiteke uka, falo imajinarioa bezala. Plano sinbolikoan absentsia bat entitate positibo bat baita, presentzia bat bezalaxe. Beraz, alde batetik emakumeari falo sinbolikoa falta zaio, baina beste aldetik falo sinbolikoa badu, hura sinbolikoki ez edukitzea edukitzeko modu bat baita. Gizonarengan posible da falo sinbolikoa edukitzea, aurrez zikiratzea bereganatu duelako.

Freudek argudiatu zuen zikiratze konplexua EDIPOREN konplexuarekin oso lotuta dagoela, baina Ediporen konplexuan duen rola ezberdina dela mutilarentzat eta neskarentzat. Mutilaren kasuan, zikiratze konplexua Ediporen konplexutik irteteko puntua da, haren krisi terminala; zikiratzearen beldurra dela eta (askotan mehatxu batek piztua) mutikoak amarekiko desirari uko egiten dio eta, horrela, latentzia-aldian sartzen da. Neskaren kasuan, zikiratze konplexua Ediporen konplexuan sartzeko puntua da; berari zakila kendu izana leporatzen dio amari, eta horregatik harekiko erresumina sentitzen du; horregatik, bere libidozko desirak amarengandik urrundu eta aitarengana bideratzen ditu. Ezberdintasun hori dela eta, neskaren kasuan Ediporen konplexuak ez du mutilaren kasuan duen krisi terminal definitiboaren parekorik (Freud, 1924d) (or. 22, Evans, 2006).

Lacane 1956-57ko mintegian gai honi heltzen dionean, zikiratzea ez du ikusten haurra atal erreal batez gabetze moduan, falo imajinarioaz gabetze gisara baizik. Freudek bezala, Lacane ere Ediporen Konplexua zikiratze konplexuan oinarritzen du. Baina, Freudentzat neskengan eta mutilengan modu ezberdinean gertatzen dira zikiratze konplexua eta Ediporen konplexua. Aldiz, Lacanentzat, zikiratze konplexua Ediporen konplexuaren azken unea da, bai mutilengan, bai neskengan.

Subjektua aliantza eta ahaidetasun sistema baten barnean jaiotzen da; sistema horretan intzestua galarazten duen legea dago. Ediporen konplexua hain zuzen ere. Lacanentzat, Ediporen Konplexua ez da antolatzen subjektuak bere gurasoak desiratzen dituelako, baizik haurra gurasoen desiraren objektu zelako, jaio aurretik. Jaio aurretik subjektuak zor sinboliko bat egin du (Diatkine, 2007).

Lacane ezagutzen zituen Malinowskyren lanak eta Familiari buruzko artikuluan (1938) Ediporen konplexuaren historikotasuna erlatibizatu egin zuen. 1950ean Ediporen konplexuari buruzko ikuspegi berria plazaratu zuen. Inkontzientearen konplexu nagusitzat

zeukan Lacanek Ediporen konplexua, baina Freudengandik aldendu egin zen. Lacanen ikuspegitik haurrak beti ama desiratzen du, mutila izan zein neska izan. Lacanentzat, mutilak Ediporen konplexua modu asimetrico batean bizi du, neskarekiko. Ediporen konplexuak egitura triangeluarra du. Aita da haurraren eta amaren arteko bitariko erlazioa hirutariko egitura bihurtzen duen hirugarren terminoa. Ediporen konplexua ordena imajinarioaren eta sinbolikoaren arteko zubia da. Sinbolikorako sarbidea diferentzia sexualaren konstatazioak irekitzen du.

Imajinariotik sinbolikora pasatzeko Ediporen Konplexuko hiru estadiotatik pasa behar da.

1950eko hamarkadan hasi zen Lacan Ediporen konplexuaren ikuskera bereizgarria garatzen. Hark Freud beti jarraitzen badu ere, Ediporen konplexua inkontzienteko konplexu zentralizat hartzerakoan, orain Freudengandik hainbat puntu garrantzitsutan desberdintzen hasten da. Desberdintasun horien artean garrantzitsuena da, Lacan-en iritziz, subjektuak ama desiratzen duela beti, eta aita beti arerioa duela, subjektua gizonezkoa edo emakumezkoa den kontuan hartu gabe (or. 130, Evans, 2006).

Baina, neskak eta mutilak modu ezberdinean bizi izaten dute Ediporen konplexua. Lacanentzat, amarekiko harreman dualekin edo ama eta phallusarekiko egitura hirutarikoarekin kontrastatzen duen egitura lautarikoa da Ediporen konplexua. Ediporen konplexuko funtzio giltza Aitari dagokiona da; aita da laugarren terminoa eta hark bilakatzen du hirutariko harremana lautariko egitura. Horrela, Ediporen konplexua ordena imajinariotik ordena sinbolikora pasatzea da. Lacanentzat, imajinariotik sinbolikorako urratsa hiru denboralditan ematen du konplexu horrek:

Lehenengo denbora: Ediporen konplexuaren lehen fasean irudimen arloko triangelu bat eratzen dute haurrak, amak eta phallusak. Ediporen aurreko fasea da. Fase horretan haurra konturatzen da berak eta amak duten gabezia. Gabezia horren jakitun delarik, amak ez-oso moduan dakusa bere burua eta horregatik desiratzen du falta zaion phallusa. Haurrak, berriz, amaren desiraren objektu bihurtu nahi du; haurrak amaren phallusa izan nahi du, haren gabezia betetzeko. Baina, haurra berehala konturatzen da amaren desira ezin duela bete, eta gabezia bat sentitzen du; haurrak ikusten du beregandik harantzagoko zerbait desiratzen duela amak. Bai amari, bai haurrari phallus imajinarioa falta zaie. Beraz, Lacanek Ediporen fasearen aurreko hirutariko harreman bat planteatzen du. Beraz, aita agertu baino lehen ere amaren eta haurraren arteko harremana ez zen bitarikoa: beti egon da hirugarren termino bat, phallusa, haurrarengandik harantzago amak desiratzen duena. Lacanen ustez, triangelu imajinarioan presente dagoen phallusa aita sinbolikoaren ordezkatzaileria da. Bestearen desiraren adierazlea da phallusa (Lacan, 1966).

Bigarren denbora: aita imajinarioak parte hartzen du. Aitak amaren desiran bere legea ezartzen du. Amari objektu falikorako sarrera eragozten dio. Amaren zikiratzea edo gabetzea eragiten du eta subjektuari eragozten dio amarengana sartzea. Aitaren esku-hartze hori amaren diskurtsoaren bidez gertatzen da. Ez da aita bera legea ezartzen duena; amaren bidez ezartzen du legea, amak berak legea onartu eta errespetatzen baitu, bere hitz eta ekintzen bidez. Aita imajinarioak intzestuen tabua aldarrikatzen du eta debekatu egiten dio amari objektu falikoa desiratzea; objektu falikoaz gabetzen du ama. Aitak debekatu egiten dio haurrari amarenganako sarrera. Lacanentzat, aitaren esku-hartzeak ama zikiratzen edo gabetzen du.

Hirugarren denbora: Aita errealak parte hartzen du. Ediporen konplexuaren hirugarren fasean aita erreala phallusaren jabe moduan agertzen da eta ezinezko bihurtzen du haurrak amaren phallusa izaten jarraitzea. Aitak erakusten du phallusa berak duela eta haurra zikiratzen du. Haurrak uko egiten dio amaren phallusa izateko fantasiari eta aurrerantzean ez da aitarekin lehiatuko, hari irabazterik ez dago eta. Haurrak ez du amaren phallusa izaten jarraituko, horrek barne-herstura sortzen diolako. Haurra barne-herstura horretatik askatu egiten du aita phallusaren jabe moduan ikusteak. Aitarekin identifikatzen bada, amaren phallusa izan beharrik ez du edukiko haurrak. Bigarren identifikazio horrek (identifikazio sinbolikoa) askatuko du haurra identifikazio imajinarioak sortzen duen erasokortasunetik. Freudentzat eta Lacanentzat supernia aitarekin identifikatzetik dator; aitarekin identifikatzean, haren legea barneratzen da eta Supernia sortzen da. Sinbolikoaren eremua Legearen erresuma da eta Ediporen Konplexuak funtzio erregulatzaileria betetzen du ordena sinbolikoaren baitan.

Lacan-ek eboluzio hori hiru etapetan ulertzea proposatzen digu.

Lehenengo etapan, haurrak uste du ama asetzeko nahikoa dela haren desiraren objektuarekin identifikatzea: aitaren faloarekin. Haurra izango da aurrerantzean amari falta zaion faloa, aitak eman edo ukatu diezaiokeena.

Hala ere, identifikazio hori oso urrun dago, kasu patologikoetan izan ezik, ama asebetetzetik. Haurrak orduan ulertzen du identifikazio hori ez dela nahikoa. Haurrak inoiz ez du aseko eta amaren desirak ihes egiten dion haratagoko jomuga bat du beti. Hau da bigarren etaparen funtsa.

Hirugarrena, haurraren desirak markatzen du. Desira horren arabera, haurrak ez du izan nahi amari falta zaion faloa, baizik faloa daramana edo beste batengandik faloa espero duena (or. 100, Palmier, 1972).

Ediporen konplexutik dator neurosia. Psikosia, perbertsioa eta fobia ere gertatzen dira Ediporen konplexuan zerbait osatu gabe dagoelako. Psikosian blokeo bat gertatzen da Ediporen konplexuaren lehen denboran. Perbertsioan hirugarren denboran aitarekin identifikatu ordez, amarekin identifikatzen da haurra. Fobian haurra ez da pasatzen Ediporen bigarren alditik hirugarrenera, aita errealak esku-hartzen ez duelako. Aita errealaren esku-hartzea ordezkatzeko da fobian, eta horrek Ediporen konplexuko hirugarren aldira pasatzea ahalbidetzen du.

Lacane Ediporen konplexua hiru «denboratan» banatzen du (Lacan, 1957–8: 1958ko urtarrilaren 22ko mintegia). Lehenengo aldian, haurrak hautematen du amak umearengandik haratago zerbait nahi duela —alegia, irudimenezko faloa—, eta ondoren amarentzat falo izaten saiatzen da (ikus EDIPOREN AURREKO FASEA). Bigarren aldian, aita imajinarioak esku hartzen du amari bere objektua kentzeko, intzestuaren tabua aldarrikatuz; egoki esanda, hau ez da zikiratzea, gabetzea baizik. Zikiratzea hirugarren eta azken denboran bakarrik gauzatzen da, eta horrek Ediporen konplexuaren «desegitea»

adierazten du. Orduan esku hartzen du benetako aitak, faloa errealki daukala erakutsiz, halako moduz ezen behartua baitago phallusa izateko saiakerei uko egitera (S4, 208–9, 227) (or. 23, Evans, 2006).

Aho eta uzki aroen ostean sartzen da haurra aro genitalean. Aro hori 3-5 urte artean garatzen da, latentzia aroan eteten da eta pubertaroan libidoa berrantolatzen da eta heldutasun psikosexuala lortzen da, aurreko estadioetako sexualitate perbertso-polimorfoaren osagaiak sintetizatuz. Lacanentzat, aro genitala zikiratzearen onarpenaren bidez lortzen da. Zikiratzea onartzen duenean sartzen da haurra aro genitalera. Egituraketa genitalak aurreko faseetako sexualitate perbertso polimorfoa erregulatzen badu ere, hor jarraitzen du aro genitalaren aurreko sexualitateak; aro genitalak ez baitu aurretiko sexualitate guztia sintetizatzen. Gizakiaren barneko zatiketak ezabatu egiten du harmonia genitalaren ilusioa. Lacanentzat ilusio hutsa da maitasun baldintza gabe eta interesik gabearen fantasia; haren iritziz, horrelako maitasun eskuzabal bat uzki arotik eta neurosi obsesibotik hurbilago dago erotismo genitaletik baino. Lacan ados dator Freudek erregalien eta hondakinen artean ezartzen duen baliokidetasunarekin (Lacan, 1966).

Lacanentzat, haurra jaio aurretik kokatzen du gizarteak kate sinboliko batean eta hilda gero ere kate horretan jarraitzen du. Kate horrek determinatzen du haren bizitza, hark nahi izan ala ez. Ezarria izan zaionetik eta ordena sinbolikotik at bizi bada, ez da ezer (Bannet, 1989).

«Katea» terminoa gero eta gehiago erabiltzen du Lacanek 1950eko hamarkadaren erdialdetik aurrera, beti ere ordena sinbolikoari erreferentzia eginez. Hasieran, 1956an, ez du adierazleen kateaz hitz egiten, kate sinbolikoaz baizik; kate sinboliko horren bidez, ondorengotza lerro bat denotatzen du; lerro horren barruan subjektu bakoitza jaio aurretik eta hil ondoren inskribatzen da, eta lerro horrek bere patuan inkontzienteki eragiten du (Ec. , 468). Urte berean «diskurtso-kateaz» hitz egiten du (S3, 261) (or. 190, Evans, 2006).

Adierazleak elkarri lotuta daude adierazleen katean. Baina kate hori inoiz ez da osoa, beti erants baitakioke beste adierazle bat. Eta horrela infinituraino. Mugagabetasun horrek desiraren betikotasuna adierazten du. Desira metonimikoa da eta adierazleen katea ere halaxe da. Esanahiak etengabeko jauziak egiten ditu adierazle batetik bestera.

1957an sartu zuen Lacanek "adierazleen katea" terminoa elkarrekin lotuta dauden ADIERAZLE-multzo bati erreferentzia egiteko. Adierazleen katea inoiz ezin da osoa izan, beti posible baita hari beste adierazle bat gehitzea, ad infinitum, desiraren betiko izaera adierazten duen modu batean; horregatik, desira metonimikoa da. Kate metonimikoa da, esanahiaren edo adieraziaren ekoizpenean ere; signifikaioa ez dago presente katearen edozein puntutan, baizik eta esangurak "insistitu" egiten du adierazle batetik besterako mugimenduan (ikus E, 153) (or. 190, Evans, 2006).

Irudimenezkoa fantasiarekin lotzen da; fantasiaren eta transferentziaren erdigunean dago. Irudimenezkoaren bidez irudikatzen dugu nolakoak garen, besteen ikuspegia zein den

eta haiek zer komunikatu nahi diguten. Baina Irudimenezkoaren erregistroa Errealaren eta Sinbolikoaren erregistroekin erlazionatua dago. Irudimenezkoa Sinbolikoaren mendean jartzen da. Pertsonaren hautemateak, esperientziak, irudiak eta emozioak sare sozio-linguistikoaren esanetara jartzen dira eta hizkuntzan kodetutako gatazka inkontzienteak gaixotasun moduan inskribaturik agertzen dira gorputzean.

Saussure-k garbi bereizten zituen hizkuntza eta hizketa. Lehena soinu artikulatuen sistema eta egitura soziala zen. Hizketa, berriz, pertsona bakoitzak hizkuntzaz egiten duen erabilpen indibidual kontzientearen zen. Lacanentzat hizkuntza ez zen Ni Kontzientearen hizketa. Hizkuntzaz hitz egitean, inkontzienteko adierazleek elkarrekiko dituzten ezberdintasunez eta haien harreman diferentzialez ari zen. Adierazle batek besteekiko duen diferentziatik zetorren esanahia. Nia bera, adierazle den neurrian, besteekiko duen harreman diferentzialak definitzen du (Lacan, 1966).

Alexandre Kojève-k 1933 eta 1939 urteen artean Hegelen filosofiari buruz emandako mintegietan naturatik kulturarako (auto-kontzientziarako) urratsaren nondik-norakoak aztertu zituen. Hegelen arabera, auto-kontzientzia auto-gogoetaren bidez lortzen da. Giza subjektua agertuko bada, auto-kontzientzia eta auto-gogoeta landu behar ditu eta beste norbaitek giza subjektutzat hartu behar du. Hegelek prozesu hori Nagusiaren eta Esklaboaren arteko dialektikaren bidez deskribatu zuen. Dialektika horren arabera, Nagusiak eta Esklaboak elkarri aitormena egin behar diote. Nagusiak ezinbestekoa du Esklaboaren aitormena, subjektu izatera heldu behar badu; era berean, Esklaboak ere Nagusiaren aitormena behar du. Nagusia Esklaboaren mende dago, haren aitormenetik elikatzen delako bere identitatea. Aldiz, Esklaboa ez dago Nagusiaren aitormenaren mende, lanaren bidez baieztatu dezakeelako bere identitatea. Ondorioz, libre dena ez da Nagusia, Esklaboa baizik (Lacan, 1966).

Desira ezagutza eta aitormen desira da. Hortik dator maisuaren eta esklaboaren arteko dialektika. Aitormena lortzeko subjektuak besteari ezarri behar dio bere buruaz edo besteez duen ideia. Besteak ere aitormen desira berbera duenez, aitormen hori lortzeko borroka egin beharrean aurkitzen da. Aitormena lortzeko borroka prestigioaren aldeko borroka da eta heriotzarainoko borroka bihur liteke. Nagusiak eta mendekoak aitormena lortzeko egiten duten borrokak demostratzen du lehia hori guztiz gizatiarra dela. Borrokalari bat hiltzen denean, bizirik gelditu denaren ezagutza eskuratzen du. Borroka amaitzen da bi lehiakideetako batek amore ematen duenean. Menderatuak bestearen garaitzapena ezagutzen du eta haren esklabo bihurtzen da. Gizartea bideragarri gertatzeko gizaki batzuek esklabo direla onartu behar dute, heriotzara heldu baino lehen. Garaipenaren ostean maisuak beretzat lanean jartzen du esklaboa. Baina, garaipena ez da guztizkoa. Maisu eta mendekoaren arteko harremana dialektikoa da; elkarren posizioak ukatu egiten dituzte. Maisuaren aitormena ez da ase-betetzailea, esklaboaren aitormena bakarrik baitauka. Eta esklaboa beste maila bateko izakia da beretzat. Nagusi moduan jokatzeko duen gizakia inoiz ez da asebetetzen. Baina esklaboa konpentsatua gelditzen da, lanaren bidez bere burua goratu duelako eta bere destinoaren jabe bihurtu delako. Nagusia, berriz, mendekoaren lanaren bitartekotzak bakarrik aldatzen du.

Kojèveren ustez, nagusiaren eta esklaboaren DIALEKTIKA egitate honen ondorio saihestezina da: gizakiaren DESIRA aitormen desira da. Aitorpena lortzeko, subjektuak bere buruaz duen ideia beste bati ezarri behar dio. Hala ere, beste honek ere aitortza desira duenez, berak ere gauza bera egin behar du, eta horregatik subjektua bestearekin borroka egitera behartuta dago.

Aitorpena edo «prestigio hutsa» lortzeko borroka honek (Kojève, 1947:7; ikus S1, 223) «heriotzara arteko borroka» izan behar du, izan ere, aitorpenaren mesedetan bere bizitza arriskuan jarritz soilik frogatzea dezake batek bera benetan gizakia dela. Hala ere, borrokalari baten heriotza baino lehen gelditu behar du borroka, aitorpena izaki bizidun batek baino ezin baitu eman. Hala, borroka amaitzen da bietako batek bere aitorpen desirari uko egiten dionean eta besteari amore ematen dionean; garaituak bere «nagusi» gisa aitortzen du garailea eta haren «esklabo» bihurtzen da. Izan ere, giza gizartea posible da gizaki batzuk hil arte borrokatu beharrean, esklabo izatea onartzen dutelako; maisuen komunitate bat ezinezkoa litzateke (or. 108, Evans, 2006).

Halaber, bi kontzientzia hauen topaketa prestigio hutseko borroka batek markatuko du; borroka horretan kontzientzia bakoitzak aitorpena lortu nahi du, besteari aitorpenik egin gabe. Hau da esaera hegeliar ospetsuaren zentzua: “kontzientzia bakoitzak bestearen heriotza bilatzen du”. Prestigio hutseko borroka honetan inork ez du hil behar, eta hortik sortuko da auto-kontzientzia. Arrisku absolutua onartu duena, bere buruaren kontzientziaren egia hori irabazteko bere bizitza galtzea onartu duena, Maisu bihurtzen da. Maisu absolutuaren aurrean, heriotzaren aurrean atzera egiten duena, Esklabo bihurtuko da. Badakigu dialektika horren irteera: Maisua aitorpen faltsu baten preso dago. Esklabo bihurtu duen gizonak ezin dio jada benetako aitorpenik egin, horren oinarria askatasuna baita (or. 97, Palmier, 1972).

Premia, eskaera, desira, zikiratzea eta hizkuntza

Libidoaren ekonomiaren metapsikologia ulertzeko bulkadaren teoria aztertu behar da, Freuden iritziz. Pertsona batek jaiotzetik dakartza bulkadak; jaiotzetiko agindu biologikoak dira bulkadak. Haur txikiak ez dira gai beren premiak asebetetzeko; beren premiak inguruko pertsona helduen premiekin artikulatu behar dituzte. Hitz egiten ez dakiten haurrek negarra, keinuak eta beste adierazpide batzuk baliatuko dituzte beren premiak inguruko helduei agertzeko eta helduek interpretatu egin behar dituzte haurren eskaerak. Helduek esanahi bat ematen diete haurren eskaerei. Gurasoei esker haurrek beren premiak eta premia horien adierazpenak elkarrekin erlazionatzen dituzte. Haurrak hizkuntza eskuratzen doazen heinean, gero eta argiago lotzen dituzte beren premiak eta eskaerak. Gorputzaren premiak Bestetasun Sinboliko baten adierazleen bidez idazten dira; naturaren kateetatik askatu eta faktore soziokulturalen esanetara gelditzen dira (Lacan, 1966).

Lacanez premia, eskaera eta desira bereizten dituenean, premia intuitutik hurbil dagoen kontzeptu biologikotzat hartzen du. Premia horiek asebate nahi baditu, eskaeratan artikulatu behar ditu. Hizkuntzaren bidez zatiketa bat sortzen da premiaren eta eskaeraren artean. Eskaera ez da premiaren artikulazio soila, maitasun eskaera ere bada. Premia hutsaren subjekturik ez dago. Premiak biologiatik harantzago joaten dira eskaera bihurtzen direnean; premiek beste esanahi batzuk hartzen dituzte. Premia eta eskaera zatitzearen edo bereiztearen ondorioz desira agertzen da. Premia fisiologikoa objektuen atzetik doa, baina hizkuntzaren galbahetik pasatzean, eskaera eta desirarekin nahasten da. Eskaera, amodio eskaera batez ere, eskatzen dituen objektuetatik harantzago doa eta presentzia baten edo absentsia baten eskaera da; besteari egindako dei bat izaten da eskaera. Amodio eskaera premiaz mozorrotzen da. Haurren premien esperientziei interpretazio sinboliko eta sozialak eransten zaizkie. Haurrak gose dela adierazten du eta, eskaera hori interpretatuz, gurasoak janari bat ematen dio; horrek haurrarentzat esanahi bat du: ulertu diote eta maite dute, haien arreta harengan jarria dagoelako.

"The Signification of the Phallus" terminoa darabil Lacanez (1958): eskaerari premia kentzen zaionean gelditzen dena da desira. Haurren eskaera guztiak maitasun eskaerak dira. Eskaera bat egiten denean, desiratzen dena bestearen amodioa lortzea da, eta ez premia asebetetzea.

Haur disorexiko batek amari janaria eskatzen dionean, hari zuzendutako amodio eskaera baten aurrean gaude, ez premia baten aurrean. Amaren besarkada eskatzen ari daiteke, janaria eskatzen jardun ordez. Desira, berriz, subjektuaren irudimenean sustraitzen da eta bestearen desira da; besteak bere desira ezagutu dezan desiratzen du. el Gizakiaren desira Bestearen desira da (Lacan, 1966).

Demagun "beharraren" eta "desiraren" arteko bereizketa. Lacanez Kojève-rengandik hartu zuen bereizketa hori. Kojève-k gizakiaren desiran insistitu zuen eta "desira antropogenetikoa" deitu zuen. Desira hori funtsean "aitorpena lortzeko desira" da eta, beraz, funtsean ezberdina da "animalien desiratik, Lacanez "beharra" deitu zuenetik, eta objektuarekiko senezko erlazioaren eta biziraupen biologikoaren eskaeren gain modelatua denetik (adibide klasikoa "elikagaiaren beharra" da). Animaliak beharraren objektuarekiko duen harremana, beraz, modu baliagarrian bereizten da gizakiak besteekin duen harremanetik, hau da, funtsean, bestearen desirarekiko harremana denetik.

Hortik dator Lacanek Kojèverengandik xurgatzen duen formula ospetsua: "Gizakiaren desira bestearen desira da" (or. 130, Shepherdson, 2006).

Lacanek Kojève-rengandik hartu zuen premia eta desiraren arteko ezberdintasunaren ideia. Giza desira aitormen desira da; animalien desira, berriz, premia da. Premia instintuak erabakitzen du. Desira agertuko bada, berriz, adierazle batean artikulatu behar du premiak. Horrela, premia eskaera bihurtzen da. Norbaiten premiak asebeteko badira, hizkuntza batean eskaera moduan antolatu behar dira. Eskaera ez da premiaren artikulatze soil; amodioaren eskaera ere bada. Haurrak amari eskaera bat zuzentzen badio eta amak eskaera asebeteko duen objektu bat ematen badio haurrari, ez du asebeteko haurraren baldintza gabeko amodioaren eskaera.

Premiaren eta eskaeraren arteko pitzadura asebate ezin den desirari dagokio. Desira ezin da inoiz asebate. Inoiz asebate ezin daitekeen eskaeraren zatia da desira. Eskaera bat Besteari zuzentzen diodanean, badago eskaera horretan asebate ezin daitekeen zerbait. Neskatilek amari gozokia eskatzen dionean, ez da asebeteko gozoki soil bat ematen hutsarekin. Ezberdinak dira animaliak premiaren objektuekin duen erlazioa eta gizakiak bestearekin duena. Gizakiak bestearekin duen desira bestearen desiraren desira da (Shepherdson, 2003; Župančič, 2006).

Desiraren ezaugarria subjektuaren irudimenean errotuta egotea da. Beste baten desira da, baina beste desira baten desira, norberaren desira. Besteak aitortu dezan desiratzea. Horixe da jadanik klasiko bihurtu den formula honek adierazten duena: "Gizakiaren desira Bestearen desira da"... Baieztapen horren bidez, San Agustinetik Hegelengana hedatzen den tradizio baten gailurra adierazten du, dudarik gabe (or. 95-96, Palmier, 1972).

Premia-eskaera-desira hirukotea josteko ordena sinbolikoaren adierazleak baliatu behar dira. Adierazle horiek haurraren gorputza eta gogamena ebakitzen dituzte eta premiaren subjektua desiraren subjektu bihurtzen da. Subjektua premia naturaletatik besterendu egiten da eta naturalak ez diren desiren esanetara jartzen da. Premia sentitu eta babesgabe sentitzen den haurrak amari dei egiten dio; haurraren eskaera interpretatzen duen Bestea da ama; haurraren eskaera interpretatu eta bularra ematen diona. Modu horretara, amaren gorputzaren zati bat desiraren adierazle bihurtzen da, haurra hizkuntzaren sarean harrapatua gelditzen da eta premiak truke sinbolikoaren sisteman asebetetzen dira. Haurrak infans izateari uzten dio, sare sinbolikoan harrapatua gelditzen da eta besteek hizkuntzaren sarean inskribatzen dutenean, identitate zeinuak eskuratzen ditu. Gure premiak hizkuntzaren bidez adierazten ditugunean, premiaren objektua deuseztatu eta beste erregistro batera eramaten gaitu hizkuntzaren erabilerak; garrantzia duena maitasunaren adierazlea da eta ez premia asetzeko objektua (Lacan, 1966).

Objektu baten eskaera izaten da eskaera; desira, berriz, ezerezaren desira. Eskaerak asebetetzea eskatzen du, baina eskaera egiten duena premiatik harantzago doa. Jateari uko egiten dion anorexikoaren desira eskaeratik harantzago doa. Desirak ezkutuan dagoen premia irudikatzen du, modu mitikoan. Desira eskaeraren atzean gordetzen da; tirabira sortzen da bien artean eta premia bigarren mailan gelditzen da.

Haurrak amari gozoki bat eskatzen dionean, gozoki premiak baino indar gehiago hartzen du eskaeraren maitasun alderdiak. Haurrak maitasun frogatzat hartzen du berak eskatutakoa ematen dion ala ez. Eskaera maitasun eskaera denez, hura asebetetzea

ezinezkoa da. Asebetetzerik eza oroitzearekin lotua dago desiraren objektua. Haurrak amaren gozamenarekin topo egiten du. Haurra konturatzen da berak ez duen zerbait desiratzen duela amak. Amaren desirak ez du objektu miresgarri, maitagarri eta desiragarri bihurtzen haurra. Subjektuak Bestearen desiraren objektu izateari uzten dio eta gozamen objektu bihurtzen da bestearentzat.

Desiraren objektua gozamenaren objektua da, errepresentaziorik ez duen objektua. Haurrak desiraren objektu izateari uzten dio eta galdu egiten du amaren begiradak ematen zion batasun zentzua. Bestearen eskaerak irentsiko duen beldurra sortzen zaio. Amaren desiraren objektu izateari uzteak eraman dezake Bestearen gozamenaren objektu izatera. Egoera honetan zikiratzearen kontzeptuak ematen dio irtenbidea haurrari. Amaren arreta erakartzeari eta phallusa izaten saiatzeari utzi eta bere buruari galdetzen dio berak ez duen zer ote duen beste horrek (Feher-Gurewich, 2006).

Horregatik, eskaerak laster funtzio bikoitza hartzen du, premiaren artikulazio gisa eta maitasunaren eskakizun gisa balio duena. Hala ere, subjektuak bere beharrak asetzeko behar dituen objektuak horni ditzake Besteak, baina ezingo du hornitu subjektuak eskatzen duen baldintzarik gabeko maitasun hori. Horregatik, eskaeran artikulatzen ziren beharrak ase ondoren ere, eskaeraren beste alderdiak, maitasunaren irrikak, ase gabe jarraitzen du, eta soberakin hori desira da. «Desira ez da, ez asebetetze gosea, ez maitasun-eskaera, lehena bigarrenari kentzeak sortzen duen aldea baizik» (E, 287) (or. 38; Evans, 2006).

Premia eta eskaera artikulatzeak sortzen duen soberakina da desira. Eskaera premiatik eteten den gunean sortzen da desira. Premia asebate daiteke, baina desira ezin da asebate, iraunkorra eta jarraitua delako. Desiraren izateko arrazoia ez da jomuga lortzea, desira moduan erreproduzitzea baizik (Žižek). Lacanentzat, desira bat da eta bulkadak anitz dira. Desirazko indarraren agerpen partzialak dira bulkadak, desira batzuk bulkadetan agertzen ez badira ere. Desiraren objektua *a txikia* da: objektu partzial zenbaitek irudikatzeen dute objektu hori, bulkada partzialetan. Desira ez da objektu batekin erlazionatzen, gabezia batekin baizik (Lacan, 1966).

Lacanentzat, Spinozarentzat bezala, desiraren kontzeptua giza izaeraren oinarritzko kontzeptua da; desira da giza existentziaren erdigunea eta psikoanalisiaren kezka zentrala (Spinoza, 1677). Desira kontzienteak bere garrantzia badu ere, desiraren alderik garrantzitsuena desira inkontziente da Lacanentzat. Desira inkontziente erabat sexuala da.

Psikoanalisiaren helburua analizatuari desiraren egia ezagutaraztea da. Analisiaren helburua ez da, beraz, inkontziente kontziente bihurtzea. Psikoanalisiaren egitekoa analizatuari desira artikulatzen eta izendatzen laguntzea da. Desira izatera heltzen da, norbaitek hizketaren bidez artikulatzen duenean. Desiraren egia hizketatik eratortzen da, baina hizketak ez du desiraren egia osoa artikulatzen, gainezka egiten duelako hizketaren muetatik (Lacan, 1966).

Tratamendu psikoanalitikoaren helburua da analizatzailea eramatea bere desirari buruzko egia aitortzera. Dena den, hizkeran artikulatua denean baino ezin da aitortu norberaren desira, edozein dela ere: «Formulatua eta

bestearen aurrean izendatua denean bakarrik egin dakioke aitorpena desirari, terminoaren zentzu osoan (S1, 183).

Beraz, psikoanalisian «garrantzitsua dena da subjektuari irakastea desira izendatzen, artikulatzen, eta desira hori existentziara eramaten» (S2, 228). Dena den, kuestioa ez da desira jakin batentzat adierazpide berri bat aurkitzea, horrek hizkuntzaren teoria espresionista bat eskatuko lukeelako. Aitzitik, hizketan artikulatzen duelarik, analizatuak existentziara eramaten du hura (or. 37, Evans, 2006).

Analisiak ez du errealitate bat determinatuko, baizik errealitatetik bereizi egingo da eta subjektuaren egia gauzatuko du hitz egitean. Subjektuak bestearen ohoretan hitz egin behar du, bere buruaren kontzientziara heltzeko, hizkuntza komun batean besterendu behar baitu, espazio ireki komun batean besteek ezagutzen dutelarik. Hizkuntza batean bere irudia kanporatzen du, ispiluko beste ni batekin identifikatzen da, eta horren bidez nia eratzen da. Horregatik, norberarengandik urrundua bakarrik ikusi daiteke nia, bere buruarengandik urrundua edo absente gisara (De la Maza, 2019).

Desiraren objektu bakarra dago: A Objektu Txikia. A Objektu Txikia desiraren kausa da; desira ez da objektu batekiko erlazioa, baizik gabezia batekiko erlazioa. Desira Bestearen desiraren desira da: bestearen desiraren objektua da eta besteak ezagutua izateko desira da (Lacan, 1966). Desira gizatiarra da gorputza desiratu ordeztu bestearen desira desiratzen bada, desiratu eta ezagutua izatea nahi bada. Bestearen desiraren objektu izateko desira da Ediporen konplexuaren lehen denboran agertzen dena; amaren falo izatea desiratzen du haurrak. Subjektuak bestearen ikuspegitik desiratzen du: norberaren desiraren objektua beste norbaitek desiratutako objektua da.

Subjektuak Bestea den neurrian desiratzen du (E, 312): hau da, subjektuak beste baten ikuspuntutik desiratzen du. Horren ondorioa honakoa da: "gizakiaren desiraren objektua... funtsean beste norbaitek desiratzen duen objektua da" (Lacan, 1951b: 12). Objektu bat desiragarri egiten duena ez da berez gauzaren berezko nolakotasun bat, bere horretan, beste batek desiratu izatearen gertaera baizik. Bestearen desira da, beraz, objektuak baliokide eta trukagarri bihurtzen dituena; honek «edozein objektu jakin baten esangura berezia murrizten du, baina, aldi berean, zenbakirik gabeko objektuen existentzia ikusgarri bihurtzen du» (Lacan, 1951b: 12) (or. 39, Evans, 2006).

Desiraren bereizgarri unibertsal hori agerian uzten du histeriak. Histerikoak beste pertsonaren desira bihurtzen du bere desira. Histerikoaren analisisan desiraren objektua aurkitzea baino garrantzitsuagoa da zein lekutatik desiratzen duen jakitea, zein subjektuekin identifikatzen den jakitea. Desira norberaren ekoizpen pribatua, ekoizpen soziala da; beste subjektuen desirak hautematen dira eta hautemate horiekin harreman dialektikoan agertzen da desira. Bestearen lekua lehenik hartzen duena ama da, eta haren desiraren arabera dabil haurra. Ama zikiratuz desira legearekin artikulatzen duenean Aitak, haurra aske gelditzen da amaren desiraren apetetatik.

Hasierako egoeran haurrak eta amak (Besteak) elkar asebetetzen dute. Amaren absentsiak hasten direnean, hasierako gozamen egoera galtzen du haurrak eta babesik gabe

geratzen da. Amarekiko zuen lotura mitikoaren dolua egin beharrean aurkitzen da haurra. Haurrak ezin du bere ama asebate eta, ondorioz, gabezia bat sentitzen du bere baitan. Bestearen desira berak eman ez dezakeen zerbaiten desira da. Subjektua konturatzen da ezein objektuk ezin duela bere bulkada eta bere maitasun eskaera asebate.

Lacanek (1958) mendebaldeko filosofiaren tradizioan kokatzen du bere burua, gizakiaren desira Bestearen desira dela aipatzean. San Agustinengandik Hegelengana doan tradizioaren harian Nagusi eta Mendekoaren dialektikan laburbiltzen da tradizio hori: bi kontzientziak elkarrekin topo egitean, ospea lortzeko borrokari ekiten diote; kontzientzia bakoitzak bestearen aitormena bilatzen du, baina berak besteari aitormenik egin gabe; ondorioz, subjektu kontziente bakoitzak bestearen heriotza bilatzen du. Ospe hutseko borroka antzu horretan murgildu ondoren, atera egin behar dute nolabait hortik. Arrisku gehien hartzen duena aterako da garaile borrokatik; egiaren atzetik norberaren bizitza galtzea onartu duena bihurtzen da Nagusi eta heriotza arriskuaren aurrean atzera egin duena Mendeko bilakatzen da. Dialektika horren irteera: Nagusiak Mendekoaren aitormen faltsua lortzen du. Faltsua da, mendean gelditu denak ezin diezaiokeelako benetako ezagutzarik aitortu, horretarako askatasunik ez duelako.

Desiraren ikuskera lacaniarra ulertezina da Espirituaren Fenomenologiari, eta bereziki Maisuaren eta Esklaboaren "dialektika"-ri erreferentzia zehatzik egin gabe... Kontzientziatik auto-kontzientziarako urratsa deskribatzea da kontua. Espirituaren Fenomenologia osoa zorigaiztoko kontzientzia honen istorioa da, bere buruaren ziurtasuna lortu nahi duena, bere egia subjektiboa irudikatuta ikusiz" (or. 97, Palmier, 1972).

Bulkadak eta gozamena

Freudek eta Lacanen bereizi egiten dituzte instintua eta bulkada. Bulkada ez doa jomuga bat lortzera. Bulkada eraikuntza kulturala eta sinbolikoa da eta zirkularki biratzen da objektuaren inguru. Bulkada bakoitzak bere eskualde erogenoa du. Pubertaroan bulkada partzial horiek atal genitalen lehentasunaren mendeantzat dira Freudentzat, baina Lacanek ez du onartzen bulkada partzialak fusionatu eta osotasun batean antolatzen direnik. Bulkadek ez dute ordezkatzeko sexualitatearen ugalketa funtzioa, gozamen dimentsioa baizik.

‘Sena’ (“instintua”) kontzeptu biologiko hutsa da (ikus BIOLOGIA) eta animalien etologiaren azterketari dagokio. Animaliak instintuak gidatzen ditu, nahiko zurrunik eta aldaezinak dira instintu horiek eta objektu batekiko erlazio zuzena inplikatzeko dute, baina giza sexualitatea bulkaden kontua da, eta horiek oso aldakorak dira eta inoiz ez dute bere xedea lortzen. Lacanek bere hasierako lanetan maiz erabiltzen badu ere «sena» terminoa, 1950etik aurrera gutxiagotan erabiltzen du terminoa, nahiago baitu senaren kontzeptua berriro kontzeptualizatzea PREMIAREN termino gisa (or. 87, Evans, 2006).

Gozamenaren eta desiraren arteko tirabirak zatitzen du subjektua. Gozamenak ez du objektu jakinik seinalatzen eta ez du asmo jakinik; atseginaren printzipiotik harantzago doan esperientzia aurreikusi ezina da gozamena. Bulkadaren asebetetzea da gozamena, premia baten edo eskaera baten asebetetzea baino areago. Bulkada ez da asebetetzen; adierazleentzako katean txertatzen da. Subjektuak joera iraunkorra du atseginaren printzipioaren mugak gainditu eta gehiegizko desirara jotzeko. Bulkaden bidez atsegin printzipiotik gozamenaren bila joaten da gizakia. Bulkadak heriotza bulkada dira eta gozamenak heriotzara eramaten du. Lacanek une batean esaten du gozamena oinarrian maskulinoa, falikoa eta sexuala dela eta ez duela harremanik Bestearekin. 1973an Lacanek dio badagoela bereziki femeninoa den gozamen bat: gozamen gehigarria, phallusetik harantzago doana, Bestearen gozamena. Lacanen iritzian, gozamen femeninoa esanezina da, emakumeek esperimentatzen dute, baina ez dakite ezer hartaz (Lacan, 1966; Braunstein, 2006).

Halakoa da desiraren eta gozamenaren arteko oposizioaren oinarria. Desirak objektu galdu eta absente baterantz seinalatzen du; izatearen gabezia da, eta galdutako objektuarekin topo egitean asebetetzeko irrika. Haren adierazpen konkretua fantasia da. Gozamenak, berriz, ez du ezer seinalatzen, ez du ezertarako balio; ezusteko esperientzia bat da, plazer printzipiotik haratago, edozein topaketatik (topaketa mitikotik) ezberdina. Subjektuak gozamen/desira polaritatearen arabera zatitua aurkitzen du bere burua. Horregatik, desira, fantasia eta plazera oztopoak dira gozamenerako bidean (or. 106-107, Braunstein, 2006).

Bulkaden asebetetzea heriotza-bulkadari lotua dago eta ezinezkoa da, neurotikoek erakusten dutenez. Bulkadak gozamena du helburu, ez du atsegin-desatsegin printzipioari dagokion jomuga objektibo jakinik; prozesuari begiratzen dio eta adierazlearen mailan jokatzeko du. Heriotza bulkadaren asebetetzea da gozamena. 1960an atsegina eta gozamena kontrajarri zituen Lacanek. Gozamena kitzikapen kantitate handiegia dagoenean agertzen da.

Atseginaren printzipioak kitzikapen maila erregulatzeko tresna homeostatiko baten moduan jokatzeko du: ahal den maila baxuenean eutsi nahi izaten dio kitzikapenari, kitzikapen gehiegiak desatsegina dakarrelako. Atseginaren printzipioak homeostasia eta egonkortasuna zaintzeko honako lege sinboliko hau darama bere baitan: goza ezazu ahal den gutxiena. Homeostasia hori apurtzera dator gozamenaren. Atseginaren printzipioak adierazleak sortzen ditu eta subjektua adierazletik adierazlerra eramaten du, tentsio maila baxuari eusteko eta aparailu psikikoak ongi funtziona dezan (Lacan, 1966; Braunstein, 2006).

1960ra artean ez du garatzen du Lacanek gozamenaren eta plazeraren arteko oposizio klasikoa. Oposizio horrek Genuß (gozamenaren) eta Atseginaren (plazeraren) arteko bereizketa hegeliar/kojeviarrari egiten dio aipamena (cf. Kojève, 1947:46). Plazeraren printzipioak gozamenaren muga gisa funtzionatzen du; subjektuari «ahalik eta gutxien gozatzeko» agintzen dion lege bat da. Aldi berean, subjektua etengabe saiatzen da bere gozamenari ezarritako debekuak gaingitzen, «plazeraren printzipiotik haratago» joaten. Hala ere, plazeraren printzipioa gaingitzearen emaitza ez da plazer gehiago, mina baizik, subjektuak ezin baitezake plazer kantitate batetik gora jasan. Muga horretatik haratago, plazera min bihurtzen da, eta «plazer mingarri» hori da Lacanek gozamenaren deitzen duena; 'gozamenaren sufrikarioa da' (S7, 184). Gozamenaren terminoak ongi adierazten du, beraz, subjektuak bere sintomatik ateratzen duen asebetetze paradoxikoa, edo, beste modu batera esanda, bere asebetetze propiotik ateratzen duen sufrikarioa (Freud-ek «gaixotasunetik ateratako irabazi nagusia» deitzen duena) (or. 93, Evans, 2006).

Plazeraren printzipioari buruzko Lacanen lehen eztabaida hedatua 1954-55eko mintegian agertzen da. Hemen Lacanek kitzikapena maila funtzional baxuenean mantentzea helburu duen gailu homeostatiko batekin alderatzen du plazeraren printzipioa (S2, 79-80). Hau bat dator desatsegina kitzikapen-kantitateen gehikuntzarekin eta plazera haien murrizketarekin lotuta dagoela dioen Freuden tesiarekin. Lacanek «errestituzio-joera» izendatzen duen plazeraren printzipioa, heriotza bulkadari («errepikapen-joerari») kontrajartzen dio, Freuden iritziarekin bat etorriz; honen arabera, heriotza-bulkada «plazeraren printzipiotik haratago» doa (S2, 79-80). 1960an, laster kontzeptu garrantzitsua izango dena garatzen du Lacanek bere obran: plazeraren eta GOZAMENAREN arteko oposizioaren ideia. Gozamenaren gaur egun plazeraren printzipioak saihestu nahiko lukeen gehiegizko kitzikapen gisa definitzen da. Beraz, plazeraren printzipioa lege sinboliko gisa ikusten da, «ahalik eta gutxien goza ezazu» esaldiaz adieraz daitekeen agindu baten modura (horregatik deitu zuen Freudek hasieran atsekabearen printzipioa; ikus Freud, 1900a: SE V, 574). Plazera homeostasia eta konstantzia egoera baten babesa da, zeina etengabe eten eta traumatizatzearekin mehatxatzen duen gozamenaren (or. 150, Evans, 2006).

Atseginaren printzipioa intzestuaren debekuarekin lotua dago. Subjektuaren eta gauzaren artean distantzia bat gordetzera zuzendua dago debekua eta subjektuak sufritu egiten du, bulkadek eraginda, distantzia hori apurtu eta gauzara gehiegi hurbiltzen denean. Atseginaren printzipioa sinbolikoan kokatzen dugu, galarazpenarekin, legearekin eta erregulatzearekin erlazionatua dagoelako eta adierazleak direlako nagusi eremu horretan. Gozamina, berriz, errearen eremuan kokatzen da.

Beste modu batean esanda, plazeraren printzipioa intzestuaren debekua da, «subjektuaren eta das Ding-en arteko distantzia arautzen duena» (S7, 69; ikus GAUZA). Subjektuak debeku hori gaingitzen duenean, Gauzara gehiegi hurbiltzen denean, orduan sufritu egiten du. Subjektuari plazer-printzipioa apurtzea ahalbidetzen diotenak bulkadak direnez, bulkada bakoitza HERIOTZA BULKADA dela ondorioztatzen da.

Plazerraren printzipioa debekuarekin, legearekin eta erregulazioarekin lotuta dagoenez, argi eta garbi sinbolikoaren aldean dago; gozamina, berriz, errearen aldean dago. Atsegin-printzipioa, beraz, «adierazlearen nagusitasuna baino ez da» (S7, 134). Honek Lacan paradoxa batean biltzen du, sinbolikoa ere ERREPIKATZE konpultsioaren eremua baita, hau da, Freuden esanetan, plazer printzipiotik haratago doana hain zuzen. Izan ere, Lacan-ek egiten dituen plazer-printzipioaren deskribapen batzuek errepikapen-kompultsioaren ia berdina dirudite: «Plazer-printzipioaren funtzioa hau lortzea da: gizakiak beti bila dezala berriro aurkitu behar duena da, baina inoiz lortuko ez duena» (S7). , 68) (or. 150-151, Evans, 2006).

Hizkuntza ez da komunikaziora mugatzen; Erreala eralda dezakeen eragilea da. Bulkada premietatik dator: hizkuntzak premia naturalak eraldatzen ditu. Hizkuntza ez da nahi dugun moduan erabil dezakegun tresna bat; ez da besteekin komunikatzea ahalbidetzen duen tresna bat. Hizkuntza errealean inskribatua dago. Gizakia ez da instintuek menderatzen duten animalia bat; hizkuntzak erregulatzen du (Soler, 2006).

Lacanentzat, erreala, gozamenaren erreala, iritsiezina da; subjektuak errearekin topo egiten duenean, asebetetze osoa ezinezkoa dela ikusten du. Gozamenara heltzeko hizkuntzaren galbahetik eta sintometatik pasatu behar da. Sintomak besteak gidatzen ditu, bestearengana zuzenduak baitaude. Hizkuntzaren sarean integraturik dago Bestea. Gozamina legeari eta lege-apurketari lotua dago, desiraren beste aurpegia da eta atseginaren printzipiotik harantzago doa. Gozamen bila doan bulkada ez doa jomuga ukigarri baten bila, jomuga galdu izanak sortutako efektua interesatzen baitzaio: damua, aitortza, desagertzea, sintomak. Gaixoak lortzen ez duen asebetetzea ordezkatzeko dute sintomak. Sintomak transferentzian eguneratzen dira eta sintoma neurotikoen gozamina Bestearekin harremanean gertatzen da. Bestearen gozamenaren jabe egin nahi du subjektuak desiraren itzulginguruen bidez. Bulkada ez doa jomuga ikusgarri eta ukigarri bat lortzera, baizik itzulginguruek sortzen duten efektua lortzera (Braunstein, 2006).

Sublimazioan libidoa jardura ez-sexualetara bideratzen da: sormen artistikora, lan intelektualera. Gehiegizko energia sexuala sozialki onartutako helburuetara zuzentzen da. Horrela egingo ez balitz, energia hori modu desagokietan deskargatuko litzateke: portaera perbertsoan, sintoma neurotikotik. Freudek zioen sublimazio osoa posible zela jende landu eta kulturatu batzuegan, baina Lacanentzat hori ezinezkoa zen.

Freudek uste zuen sublimazio osoa posible izan zitekeela pertsona bereziki birfindu edo eskolatu batzuentzat; aldiz, Lacanek dio «sublimazio osoa ez dela posible gizabanakoarentzat» (S7, 91) (or. 200, Evans, 2006).

Freudentzat sublimazioa gertatzen denean, objektu ez-sexual batera bideratzen da bulkada. Lacanentzat, aldatzen dena ez da bulkadaren objektua, fantasiaren egituraren objektuak hartzen duen kokalekua baizik. Sublimazioan, objektu ezberdin batera bulkada bideratu baino areago, objektuaren izaera aldatzen da. Lacanek, sormenarekin, artearekin eta Heriotza bulkadarekin lotzen du sublimazioa eta gauzaren duintasuna ematen dio objektuari. Heriotza bulkada ezabatze bulkada eta ezerezetik hasita sortzeko borondatea da aldi berean.

Freuden esanetan, bulkada beste objektu batera (ez sexuala) birbideratzea dakar sublimazioak. Lacanen esanetan, ordea, aldatzen dena ez da objektua, fantasiaren egituraren hark duen posizioa baizik. Beste era batera esanda, sublimazioak ez dakar bulkada beste objektu batera zuzentzea, baizik eta objektuaren izaera aldatzea, objektu horretara bulkada jada zuzenduta zegoenean; «objektu beraren aldaketa bat, posible bihurtu den zerbait, adierazlearen artikulazioak bulkada jadanik sakonki markatua duelako» (S7, 293). Objektu baten kalitate sublimea, beraz, ez zaio zor objektuaren beraren propietate intrintseko bati; aldiz, objektuak fantasiaren egitura sinbolikoan duen posizioaren efektu bat besterik ez da. Zehatzagoa izateko, sublimazioak objektu bat GAUZAREN posizioan birkokatzen du. Sublimaziorako formula Lacaniarra honako hau da, beraz: «objektu bat... Gauzaren duintasunera jasotzen du» (S7, 112).

Lacan-ek Freud-i jarraitzen dio, sublimazioa sormenarekin eta ARTEarekin lotzean; baina, hori konplikatu egiten du sublimazioa HERIOTZA-BULKADAREKIN ere lotzen duenean (S4, 431). Hori azaltzeko hainbat arrazoi eman daitezke. Lehenik eta behin, heriotza-bultzadaren kontzeptua Freuden beraren sublimazioaren produktu gisa ikusten da (S7, 212). Bigarrenik, heriotza-bultzada ez da «ezabatze bulkada» soil, baizik baita «zerotik abiatuta sortzeko borondatea» ere (S7, 212-13). Hirugarrenik, objektu sublimeak, Gauzaren duintasunera jasotzen denean, lilura sortzeko ahalmena du, eta horrek azken finean heriotza eta suntsipenera eramaten du (or. 200-201, Evans, 2006).

Freudek sexualitatearen teoriaren oinarrian jartzen du bulkadaren kontzeptua. Gizakiaren sexualitatea ez du instintu biologikoak erregulatzen, bulkadek baizik. Instintuak aldakaitzak dira; bulkadak, aldakorak. Instintuak asebetetzen dira, baina bulkadak ez; bulkadek ez dute jomugatzat objektu bat hartzen; haren inguru biraka ibiltzen dira (S11, 168). Lacan ados dator Freudek egiten zuen bulkada eta instintuaren arteko bereizketarekin. Instintuak hizkuntzaren aurretiko premia biologikoak izendatzen ditu. Bulkadak ez du asebetetze osora jotzen, biraketa zirkular batera baizik.

«Senak» hizkuntzaren aurretiko BEHAR edo PREMIA mitiko bat adierazten du; aldiz, bulkada BIOLOGIAREN eremutik erabat erauzia dago. Bulkadak behar biologikoetatik bereizten dira, ezin direlako inoiz ase, eta ez

dute objektu bat helburu, baizik eta etengabe objektua inguratzen ari dira. Lacanek dio bulkadaren (Triebziel) helburua ez dela helburu bat (azken helmuga bat) lortzea, baizik bere helburuari (bideari berari) jarraitzea, hau da, objektuaren inguruan biraka ibiltzea (S11, 168). Beraz, bulkadaren benetako xedea ez da asebetetze osoko helburu mitikoren bat, bere bide zirkularrera itzultzea baizik; eta gozamenaren benetako iturria zirkuitu itxi horren mugimendu errepikakorra da (or. 47, Evans, 2006).

Gozamenera eramaten duena zirkuitu itxi bateko mugimendu errepikatzailea da. Bulkadak ez du jatorri biologikorik; eraikuntza kultural eta sinbolikoa da. Bulkadaren zirkuituaren bidez subjektuak atseginaren printzipioa apurtzen du. Freudentzat haurraren bulkadek bakoitzak bere aldetik eta koordinaziorik gabe funtzionatzen zuten, baina pubertarora helduan, atal genitalen zuzendaritzaren mendeantzat ziren bulkada horiek (Freud, 1905). Lacanentzat, ordea, oso zalantzazkoa da eskualde genitalaren gidaritzaren mendeantzat bulkada partzialak modu harmoniatsuan integratzearen ideia. Bulkada partzialak deritze sexualitatearen zati bat bakarrik ordezkatzeko dutelako; gozamenaren dimentsioa bakarrik errepresentatzen dute, eta ez sexualitatearen ugalketa funtzioa.

Freud dualista zen eta bulkada sexualak eta niaren edo auto-kontserbazioaren bulkadak bereizi zituen. Lacanek sinbolikoa eta irudimenezkoa kontrajartzen ditu, eta ez bulkada mota ezberdinak. Harentzat, bulkada guztiak dira bulkada sexualak eta heriotza bulkadak.

Freuden dualismoari eustea garrantzitsua dela dio Lacanek, eta Jung-en monismoa arbuiatzen du. Jung-ek argudiatzen zuen, indar psikiko guztiak energia psikikoaren kontzeptu bakar batera murriztu zitezkeela (S1, 118-20). Hala ere, Lacanek nahiago du dualismo hori sinbolikoaren eta irudimenezkoaren arteko oposizio baten arabera birkontzeptualizatu, eta ez bulkada mota ezberdinen arteko oposizio baten terminotan. Hortaz, Lacanentzat, bulkada guztiak sexu bulkadak dira, eta bulkada bakoitza HERIOTZA-BULKADA da, bulkada bakoitza gehiegizkoa, errepikakorra eta, azken batean, suntsitzailea baita (Ec, 848) (or. 49, Evans, 2006).

Lacanentzat heriotza bulkada ez da bulkada bereizi bat; bulkada guztien alderdi bat da. Bulkadaren bi alderdi dira bizitza bulkada eta heriotza bulkada.

Lacan-en eta Freuden heriotza bulkaden beste desberdintasun bat 1964an azaleratu zen. Freudek heriotza-bulkada sexu-bulkaden aurrez-aurre jarri zuen, baina orain Lacanek dio heriotza bulkada ez dela bulkada bereizi bat, baizik BULKADA bakoitzaren alderdi bat dela. «Bizitza bulkadaren eta heriotza bulkadaren arteko bereizketa egiazkoa da, bulkadaren bi alderdi adierazten dituen heinean» (S11, 257). Horregatik, Lacan-ek idazten du: «Bulkada oro heriotza bulkada bat da errealki» (Ec, 848), (i) bulkada bakoitzak bere desagertzea bilatzen duelako, (ii) bulkada bakoitzak subjektua errepikapenean inplikatzeko duelako eta (iii) bulkada oro plazer-printzipiotik haratago, gehiegizko GOZAMENAREN eremura joateko saiakera bat delako, gozamena sufrikario gisa bizi den eremura, hain zuzen ere (or. 34, Evans, 2006).

Gozamena tentsioz eta minez igurtzia ageri zaigu. Gozamena ez da premiaren edo eskaeraren asebetetzea, bulkadaren asebetetzea baizik. Ez da gorputzaren bulkaden asebetetzea, baizik heriotza bulkadaren asebetetzea. Bulkadak asebetetzearen ezintasuna azpimarratzen du. Desira izatearen gabezia da eta objektu absentea edo galdua seinalatzen du. Gozamenak ez du ezer seinalatzen. Gozamena positibotasuna da, desirarekin eta atseginarekin erlazionatzen da, baina atseginaren printzipiotik harantzago doan sentipena da. Atseginak atsegin izateari uzten dionean gorputzak bizi duen zerbait da gozamena. Gozamena ez da premiaren asebetetzea, baizik bulkadaren asebetetzea. Gozamenaren asebetetzea ez da premiaren edo eskaeraren asebetetzea, ez da gorputzaren bulkada baten asebetetzea, baizik heriotza bulkadari lotua. Bulkadak asebetetzearen ezintasuna azpimarratzen du (Braunstein, 2006).

Errealaren erregistroari lotua ageri zaigu gozamenaren nozioa. Premietatik eratortzen da bulkada; hizkuntzaren bidez eraldatutako premia naturalek eratzen dute bulkada. Eskaerak artikulatu beharrak eragiten du eraldatze hori. Hizkuntza errealean txertatua dago. Gizakiak, hitz egiten duen heinean, aberetasunaren instintu-erregulatzaileak galtzen ditu eta hizkuntzazko izaki bat edo parlêtre bat bihurtzen da. Gauza errealean egindako zulo bat da, gozamenerako gogoia sortzen duena. Hizkuntzak natura gabetzen du eta Gauzak eskatzen duena lortzen du, neurri batean (Soler, 2006).

Bulkada premietatik dator, hizkuntzak premia naturalak eraldatzen dituenean, bulkada sortzen baita; horretarako eskaerak artikulatu behar ditu. Hizkuntza ez da nahi bezala erabil dezakegun tresna bat; ez da geure burua adieraztea edo besteekin komunikatzea ahalbidetzen digun tresna bat. Errealean inskribatua dago hizkuntza, nagusiki. Hitz egiten duenean gizakiak galdu egiten du aberetasunaren instintu bidezko erregulazioa. Gizakia naturagabetzen duen kausa eta Gauzak eskatzen duena partzialki lortzeko bidea da hizkuntza. Hizkuntza Gauzaren kausa da; errealeko zulo baten antzekoa, gozamen borondatea sortzen duen zerbait, asebetetzera etengabe bultzatzen duena. (Soler, 2006).

Lacanentzat, atseginaren printzipiotik harantzago doa gozamenaren nozioa. Bulkada guztiak heriotza bulkadak dira eta orekaren edo asebetetzearen kontra ageri dira. Desiraren frustrazioa eta inhibizioa dago gozamenaren oinarrian. Freud-ek errepikatze konpultsioa jarri zuen atseginaren printzipioaren gaineratik, heriotza bulkadak eragindako gertaerek eten egiten baitute atseginaren printzipioaren nagusitasuna. Heriotza bulkadak eragindako esperientzia errepikatuak apurtu egiten dute subjektuaren errealitate irudimenezko eta sinbolikoaren oreka. Gozamena Errealarekin, transgresioarekin eta mugako hausturekin lotuta dago. Haur txikia subjektu hitzun bihurtzean, zikiratze Sinbolikoa gertatzen da eta galdu egiten du berehalako gozamenerako sarrera. Subjektu hitzunak galdutako gozamena mugako esperientzia traumatikoetan bizi izaten da. Arazoz betetako gozamenarekin bizi behar du gizakiak.

Legearen eta desiraren arteko harremana, ordea, dialektikoa da; «desira legearen alderantzizkoa da» (Ec, 787). Batetik, legeak desirari mugak jartzen dizkio, baina egia da, baita ere, desirak legea sortzen duela, debekua sortuz. Desira, funtsean, transgresio desira da, eta transgresioa egon dadin behar-beharrezkoa da lehenik debekua egotea (S7, 83-4). Beraz, ez da gertatzen legeak arautu behar duen alde aurretiko desira bat dagoenik. Gertatzen dena

da desira hori arautze prozesutik sortzen dela; «Hemen ikusten duguna desiraren eta Legearen arteko lotura estua da» (S7, 177) (or. 102, Evans, 2006).

Beyond the Pleasure Principle (1920) idazlanean Freudek batasuna sustatzen duen bizitza bulkada eta harremanak desegitera zuzendutako heriotza bulkada bereizi bazituen ere, bulkada horiek ez dira inoiz egoera puruan aurkitzen; elkarrekin proportzio ezberdinetan nahastuta topatzen ditugu. Freudek zioen heriotza bulkada ez genukeela hautemango (isila delako), erotismoarekin nahasturik ez balego (Freud, 1930). Lacanek, Freudek bezala, psikoanalisiaren erdigunean ikusten zuen heriotza bulkada eta hasiera batean Ediporen aurreko fasearekin eta nartzisismoarekin lotu zuen bulkada hori, baina hiru erregistroen teoria asmatu zuenean, imajinariotik sinbolikora pasa zuen heriotza bulkada. Ordena sinbolikoak egoera traumatikoak errepikatzeke joera du; joera hori da heriotza bulkada, 1954-55eko mintegian Lacanek zioenez. Heriotza bulkada ordena sinbolikoak hartzen duen moztarra da, kulturarekin lotua dagoena, naturarekin baino areago; heriotza bulkada ez da biologia kontua. Freudek heriotza bulkada bulkada sexualetatik bereizten zuen, baina Lacanentzat heriotza bulkada ez da bulkada bereizi bat, edozein bulkadaren alderdi bat da. Bulkadak bi alderdi ditu: bizitza bulkadarena eta heriotza bulkadarena. Bulkada guztiak doaz atsegin printzipiotik harantzago, bulkada guztiek lortu nahi dute beren iraungitzea, bulkada guztiak dira heriotza bulkada birtualak. Bulkadek atsegin printzipiotik harantzago garamatzate, gehiegizko gozamenaren erreinura, eta han gozamena sufrikario moduan bizi izaten da.

Heriotza bulkada eremu sinbolikoan sendo kokatuz, naturarekin baino kulturarekin areago artikulatzen du hura Lacanek; hark dio heriotza-bulkada «ez dela biologia kontua» (E, 102), eta bereizi egin behar dela bizigabeen erreinura itzultzeko instintu biologikotik (S7, 211-12) (or. 33-34, Evans, 2006)

Faloa ez da gozamenaren adierazlea, gozamena ezin baitaiteke irudika. Gozamenerako oztopoa eta desiraren ibilbidea adierazten ditu faloak. Faloaren atalasetik harantzago Bestearen gozamenaren mundu mitikoa irekitzen da. Faloak gozamenaren kanporatzeak (sintoma, fantasma, ekintza) markatzen ditu. Subjektuak desiraren, bulkaden, fantasiaren objektutzat hartzen du bere burua; Besteak maitatuko duela pentsatzen du. Sentitzen duen gozamenak ez dio uzten subjektuari Bestearen gozamena zertan datzan jakiten. Bestearen gozamenetik ezin dezakegu goza. Gozamen hori fantasia eta suposizio bat da. Errealari dagokion zerbait. Bestearen gozamena ez dago Bestearengan, norberarengan baizik (Braunstein, 2006).

Metonimia, metafora eta Aitaren funtzioa

Adierazleen kateak agintzen du adierazien multzoaren gain. Adierazleen sareak ematen dio koherentzia adieraziei. Ametsetako kondentsazioa prozesu metaforikoa da; ametsetako desplazamendua, berriz, prozesu metonimikoa da. Metaforan adierazle bat beste batek ordezkatzan du, bata bestearen antz semantiko edo homofonikoa duelako. Kondentsazioan ere elkarrekin fusionatzen dira antzeko bereizgarriak dituzten ezkutuko osagaiak eta agiriko osagai batek ordezkatzan ditu. Horrela, irudi konposatu asko ikusten ditugu ametsetan. Sarritan, pertsona baten atzean pertsona asko gordetzen dira (Lacan, 1966).

Freudek bigarren mailako garrantzia eman zion hizkuntzari bere teoriarik. Lacanek, berriz, analisiaren bihotzean kokatu zuen hizkuntza. Sintoma neurotikoa hizkuntzaren egitura zuela zioen, ametsak esaldi baten edo hieroglifikoa baten egitura duela. Inkontziente osoak du hizkuntzaren egitura.

Metonimian objektu edo ideia bat izendatzeko beste objektu edo ideia bati dagokion izena erabiltzen da; izen hori erabiltzeko, bi izenen artean hurbiltasunezko erlazio bat egon behar du; adibidez: *kopa bat edan* esaten dugu, *kopakoa edan* esan ordez. Jakobson-en ildotik, Lacanek ere hizkuntzaren ardatz konbinatorioarekin lotzen du metonimia eta ardatz ordezkatzailari oposatzen zaio. Metonimian adierazleen kate horizontalean konbinatzen dira adierazleak. Metonimian adierazle baten eta bestearen artean erlazio diakronikoa dago.

Metonimia tropo bat da, zeinetan objektu bat denotatzeko termino bat erabiltzen den, objektuari erreferentzia literala egiten ez diona, baina harekin estuki loturik dagoena. Lotura hori izan daiteke hurbiltasun fisikoak ematen duena (esaterako, 'hogeita hamar bela' erabil daiteke 'hogeita hamar belaontzi' adierazteko, baina ez nahitaez (esaterako, 'Ez dut Shakespeare irakurri' erabil daiteke, 'Ez dut Shakespeare idatzitako ezer irakurri' adierazteko) (or. 116, Evans, 2006).

Metaforan signifikazio kate bateko adierazlea beste kate bateko adierazle batek ordezkatu lezake. Ohikoa ez den esanahi bat ematen zaio hitz bati, bi esanahien artean erlazio bat dagoenean. Metaforan ideia abstraktu bat termino konkretu batek ordezkatu lezake. Esanahi bikoitzeko hitza metaforatzat har liteke. Bulkada erreprimetua desplazatu egiten da, esanahi bikoitzeko hitz bat aurkitu bitartean; hitz horrek aukera ematen dio zentsurari ihes egin eta asebetetzeko. Lacanentzat disoziazioa gertatzen da hitz ekibokoaren adierazlearen eta adieraziaren artean. Adierazlea desplazatzen da eta bi posizio ezberdin hartzen ditu.

Ametsetako material ezkutuarien zati handi bat mozorrotua ageri da ageriko mailan: zentzua desplazatu egiten da eta ezkutuko edukian garrantzitsua zena ageriko edukian garrantzirik gabekoaren moduan agertzen da. Adierazle batek ordezkatu dezake hurbiltasunezko harremana duen beste bat. Ametsaren agiriko edukiaren esanahia

interpretatu nahi denean, elkartze askeen teknika baliatu behar da; ametsaren ageriko edukiak libreki elkartuz haren ezkutuko esanahira helduko gara.

Txistearen oinarrian kondentsazio metaforikoa eta desplazamendu metonimikoa konbinatzen dira. Sintoman adierazle erreprimitu bat haren metafora den beste batek ordezkatzeko du; adierazle berria ordezkatzeko duen adierazle erreprimituaren antzekoa da. Ametsen interpretazioan egiten den gisara, sintomen interpretazioan ere elkartze askeak egin behar dira adierazle erreprimitua identifikatzeko. Sintomaren eraikuntza metaforikoan hainbat gertaerek hartu dute parte eta gertaera horien oroitzapenak berreskuratu behar dira. Oroitzapen horiek landuz ulertuko dugu nola eraiki den sintoma. Sintoma metafora bat da eta hura ulertzeko metafora osatzen duten bi adierazleen antzekotasunak bistaratu behar dira, beharrezko elkartze libreak eginez. Lacanentzat sintoma ebatziko bada, hizkuntza aztertu behar da, sintoma hizkuntza baten moduan egituratua baitago. Sintomaren esanahia askatu egin behar da. Txiste bat ere uler liteke desplazamendu metonimiko eta kondentsazio metaforiko moduan. Glosolaliak eta eldarniozko hizkuntzak ere eraikuntza metaforiko eta metonimikotzat har litezke (Lacan, 1966).

Medikuntzan gaixotasunaren adierazgarria edo indizea da sintoma, baina psikoanalisian sintoma adierazle bat da. Animalien kodeak adierazgarriak edo indizeak osatuak daude, baina giza hizkuntzak adierazleak osatuak daude. Indizearen eta haren erreferentearen artean erlazio finko eta biunibokoa dago animaliengan. Baina horrelako erlazioak ez dago gizakiaren adierazleen eta haien erreferenteen artean. Giza hizkuntzan ambiguitasunak eta ekibokotasunak etengabe gertatzen dira.

Bereizketa horren oinarria HIZKUNTZA da; gizakiek hizkuntza dute; animaliek, berriz, KODEAK besterik ez (baina ikus S1, 240 ohar interesgarri baterako). Oinarritzko ezberdintasun horren ondorioa da animalien psikologian erabat nagusi dela imajinarioa; aldiz, gizakiaren psikologia konplikatu egiten du sinbolikoaren dimentsio gehigarriak (or. 123, Evans, 2006).

Hala ere, Lacanek bereizketa garrantzitsua egiten du HIZKUNTZA eta kode kontzeptuen artean (ikus E, 84). Kodeak animalien komunikazioaren lurraldea dira, ez subjektuen arteko komunikazioarenak. Hizkuntza baten elementuak ADIERAZLEAK dira; kode baten elementuak indizeak dira (ikus INDEX). Oinarritzko ezberdintasuna honetan datza: indize baten eta haren erreferentearen artean erlazio bi-uniboko (bat-bateko) finko bat dago, eta ez dago halako erlazioak adierazle baten eta erreferente baten artean edo adierazle baten eta adierazi baten artean. Indizeen eta erreferenteen erlazio bi-unibokoa dela eta, kodeei falta zaie Lacanek giza hizkuntzen oinarritzko ezaugarritzat hartzen duena: ambiguitasunerako eta ekibokaziorako potentziala (ikus Lacan, 1973b) (or. 26, Evans, 2006).

Charles S. Peirce semiotiko iparramerikarrak asmatutako ZEINUEN tipologian, irudikatzen duen objektuarekin «erlazio existentziala» duen zeinua da indizea

(hau da, indizea beti dago espazio eta denbora dimentsioetan objektutik hurbil). Peirce-k indizea sinboloari kontrajartzen dio. Sinboloa, Saussureren zeinu-kontzeptua bezala, zeinuaren eta haren objektuaren artean ezinbesteko loturarik ez izateak bereizten du. Esaterako, kea suaren indizea da, eta orban gorriak hainbat gaixotasunen indize dira, hala nola elgorriarenak (Peirce, 1932). Lacanen diskurtsoan, «indize» terminoak ADIERAZLE terminoarekin oposizioan funtzionatzen du (eta ez, Peirce-ren filosofia bezala, sinbolo terminoarekin oposizioan). Lacan-ek, beraz, indizea «zeinu natural» gisa ulertzen du; indize horretan korrespondentzia finko eta bi-unibokoa dago zeinuaren eta objektuaren artean (adierazlean ez bezala, adierazleak ez baitu lotura finkorik inolako adierazi edo esanahirekin) (or. 86, Evans, 2006).

Giza hizkuntzak anbiguitasunerako eta huts egiteko potentziala du, baina indizeek ez dute halakorik. Animalien psikologia imajinarioaren mendean dago; gizakienak, berriz, sinbolikoaren dimentsioa ere badu. Lévi-Strauss-i jarraiki, Lacanentzat intzestuaren debekuak bereizten ditu kultura eta natura. Aitaren funtzioa gizakien eta animalien arteko zatiketaren bihotzean dago eta hark bereizten ditu sinbolikoa eta imajinarioa. Gizakiek badute dimentsio imajinarioa, animaliek bezala, baina gizakiek, horretaz gain, dimentsio sinbolikoa ere badute. Imajinarioa komuna zaie gizaki eta animaliei. Baina, ordena sinbolikoak erabat besterentzen du gizakia naturatik. Gizakien munduan premiaren hurbileneko esanahiak ere adierazlearen legeen mende daude. Gizakiak adierazleen mende daude. Gizakiarengan premia ez da inoiz agertzen hizkuntza eskuratu aurretiko egoera batean. Intzestuaren tabuak erregulatzen ditu ahaidetasun harremanak: belaunaldien arteko oinordekotza arrarengandik arrarengana, gizonezkoarengandik gizonezkoarengana pasatzen da (Lacan, 1966; Feher-Gurewich, 2003).

Intzestuaren tabuaren bidez ahaidetasun-harremanak erregulatzeak adierazten du gizakien eta animalien arteko hausturaren muinean aitaren funtzioa dagoela. Gizonezkoarengandik gizonezkoarenganako ondorengotza lerro bat inskribatuz, eta horrela belaunaldi batzuk ordenatuz, Aitak markatzen du sinbolikoaren eta imajinarioaren arteko aldea. Beste era batera esanda, gizakien berezitasuna ez da animalien psikologiaren irudimenezko dimentsiorik ez izatea, baizik eta irudimenezko ordena hori gizakiengan sinbolikoaren dimentsio erantsiak desitxuratzen duela (or. 123, Evans, 2006).

Giza sexualitatea ez dago ordena naturalaren mende. Sexualitatea erabat harrapatua dago kulturaren sarean, ez baitago sexualitate naturalik. Perbertsioak desiraren antza du. Giza desira perbertsoa da, ez baitator ados animalien munduko egokitzenarekin eta biziraupenarekin. Perbertsioak ihes egiten die naturako arauari; giza sexualitatea ez dute gobernatzen instintu aldagaitzek, bulkada aldakorrek baizik. Sexualitatearen helburua funtzio biologikotik harantzago doa. Instintu animaliak erlatiboki aldagaitzak dira, baina giza

sexualitatea bulkada aldakorrek gobernatzen dute eta haien helburua ez da funtzio biologiko bat.

Lacanentzat amodioa irudimenaren mundukoa da, nahiz eta ordena sinbolikoak eragina izan. Amodioak egitura nartzisista eta auto-erotikoa du. Amodioan gauzatu (erreal bihurtu) duen egoa maite izaten du pertsonak, baina eremu imajinarioan. Amodioak elkarrekikotasun edo erreziprozitate imajinario bat du beregan, maitatzearen oinarrian maitatua izateko desira baitago. Maitatzearen eta maitatua izatearen arteko elkarrekikotasuna edo erreziprozitatea da amodioaren ilusioa sortzen duena.

Maitasuna irudimenezko fenomeno huts gisa kokatzen du Lacanek, ordena sinbolikoan ondorioak dituen arren (efektu horietako bat «sinbolikoaren benetako subdukzio bat» sortzea da —S1, 142). Maitasuna auto-erotikoa da, eta funtsean egitura nartzisista du (S11, 186), «norberaren egoa baita batek maitasunean maite duena, norberaren egoa irudimenezko mailan erreal bihurtua» (S1, 142; ikus NARTZISISMOA). Maitasunaren irudimenezko izaerak eramaten du Lacan analizatzaile hauei guztiei (Balint-i esaterako) kontra egitera, tratamendu psikoanalitikoan maitasuna ideal gisa planteatzen dutelako (S7, 8; ikus GENITALA).

Maitasunak elkarrekikotasun imajinarioa dakar, izan ere, «maitatzea, funtsean, maitatua izan nahi izatea baita» (S11, 253). «Maitatzea» eta «maitatua izatearen» arteko elkarrekikotasun hori da maitasunaren ilusioa eratzen duena, eta hura bulkaden ordenatik bereizten duena, bulkadetan ez baitago elkarrekikotasunik, jarduera hutsa baizik (S11, 200) (or. 105, Evans, 2006).

Elkarrekikotasuna da bulkadak eta amodioa bereizten dituen: bulkaden eremuan jarduera da nagusi eta ez dago elkarrekikotasunik. Amodioak konpentsatzen du harreman sexualik eza, maitatuarekiko fusioaren fantasiaren bidez. Baina, Lacanentzat, amodioa iruzurra da, norberak ez duena ematea baita.

Maitasuna iruzurtia da; «Ispiluko efektu gisa, maitasuna funtsean iruzurra da» (S11, 268). Iruzurtia da, norberak ez duena (hau da, faloa) ematea dakarrelako; maitatzea «batek ez daukana ematea» da (S8, 147). Maitasuna ez da maitasun-objektuak duenera zuzentzen, falta zaionera baizik, objektutik haratagoko ezerezera. Objektua baloratzen da falta horren lekuan datorren heinean (ikus errezelaren eskema S4, 156) (or. 106, Evans, 2006).

Maitasunaren objektuak ez duenera edo objektuari falta zaionera zuzentzen da amodioa. Amodioa maitatuarekiko batasun-fantasian oinarritzen da eta desira erailtzen du. Amodioa desirari kontrajartzen zaio, desira Bestearen eremuan eta ordena sinbolikoan inskribatzen baita. Objektuak gabeziaren lekua hartzen du eta balio bihurtzen da. Jomugatzat duen objektuaren ezerezera edo gabeziara zuzentzen da amodioa.

Antzekoak dira amodioaren egitura eta desirarena: maitatua izateko desira eta Bestearen desiraren objektu bihurtu nahia. Biak ere antzekoak dira, asebate ezinak direlako. Amodioa metafora bat da eta desira metonimia da. La Rochefoucauld-ek dioen moduan, zenbaitek ez zuen amodiorik sentituko, amodioaz hitz egiten entzun izan ez balu. Amodio perfektua ez da naturaren emaitza, baizik pertsona arteko adostasun baten emaitza (Lacan, 1966; Luepnitz, 2006).

Hizkuntzaren sarean desira harrapatu nahi duenak erredundantziazko gune eta xehetasunetan jarri behar du arreta, eta ez mezuan bertan. Adibidez, “ardoa” eskatu ordez, “ardoz betetako zahatoa” esaten badugu, xehetasun horietan jarri behar dugu arreta. Desirak distortsioa eragiten du: desiraren objektua objektu absente bat da, amaren faloa, hain zuzen ere. Faloarean esanahiak zakilaren eta gabeziaren ideiak elkartzen ditu. Zakilaren eta gabeziaren ideia elkarturik gelditzen dira; zakilaren eta absentiaren ideiak elkarturik ageri dira eta desiraren objektua, amarengan bilatu nahi dena, absente egongo da eta ezingo da ikusi.

Lacanen (1958) ikuspegitik, aitaren funtzioa betetzen duen objektua ez da aita erreala, baizik aitaren irudi metaforikoa, hots, Aitaren Izena. Aita adierazle edo metafora bat da eta adierazle moduan, beste adierazle bat ordezkatzeko du. Metafora horren bidez azal litezke zikiratzearen konplexua, funtzio falikoa eta Ediporen konplexua. Aitaren funtzioa ez dago haren absentiari edo presentziari lotuta, baizik funtzio horrek seinalatzen duen lekuari lotua. Kokapen horrek esanahi sinboliko bat ematen dio aitaren irudiari.

Ediporen konplexuaren garaian haurra amarengandik bereizi eta aitaren irudiarekin identifikatzen da. Bereizkuntza horren aurretik, amarekin lotura zuzenean elkarturik zegoen haurra. Bereizketa prozesu hori nola gauzatzen den azaltzeko bere biloba batek egiten duen joko bat aurkezten du Freudek: *Fort-Da* jokoak. Joko horren bidez lortzen duen autonomiari esker, haurrak uko egiten dio amarekiko lotura sinbiotikoaren bidez bere bulkada asebetetzeari. Haurrak lokarri bati lotuta jaurtikitzen duen bobinak ama adierazten du; amaren metafora moduan jokatzen du bobinak.

Lokarriari lotutako bobina jaurtikitzen du; bobinaren urruntzeak amaren urruntzea adierazten du. Gero haurrak hariari tiratu eta bobina beregana erakartzen du; bobinaren itzultzeak amaren itzulera antzeztzen du; bobinaren desagertzeak eta berragertzeak amaren desagertzea eta berragertzea adierazten ditu.

Joko sinbolikoa asmatu aurretik amaren joan-etorrien mende zegoen haurra: amaren absentiak eta presentziak haren urruntze eta hurbiltzeekin batera gertatzen ziren. Haurrak jarrera pasiboa zeukan amarekiko. Orain, joko sinbolikoari esker, haurrak paper aktiboa hartzen du eta irudikatu egiten ditu amaren absentzia eta presentziak. Haurra bera da orain ama utzi edo erakartzen duena eta pozik sentituko da galdu duen amaren absentzia eta presentzia kontrolatzen dituelako. Hemendik aurrera, objektu galdua ordezkatzeko duten beste objektuetara bideratuko du haurrak bere afektua. Objektuaren absentiak eta presentziak joko sinbolikoen eta hizkuntzaren bidez irudikatuko ditu, bere desiren arabera.

Haurra konturatzen da amaren absentzia aitaren presentziari lotua dagoela, aita presente dagoenean desagertzen dela ama.

Aurrerantzean, galdu duen objektuaren (amaren) ordezeko diren objektuetara bideratuko du haurrak desira. Haurrak hitz bihurtu eta diskurtsoko adierazleen katean sartzen du bere desira eta eskaera moduan agertzen du. Adierazle horiek jatorrizko desiraren objektuak seinalatzen badituzte ere, haien ordezeko objektuak adierazten dituzte. Aitaren Izena eta hizkuntzaren bitartekaritza tarteko direla, haurraren desira bestearen desira moduan agertuko da. Horrela, jatorrizko desira ez da asebetetzen, adierazleen eta hizkuntzaren sarean txertatu delako. Bera sinbolizatzeke erabiltzen den adierazletik kanpora gelditzen da desira.

Aitaren metaforak amarekiko lotura imajinariotik askatu eta eremu sinbolikoan sartzen du haurra. Aitaren Izenaren metafora arrakastaz garatzen bada haurrarengan, hizkuntzaren dimentsioan sartzen da haurra eta horrek zatiketa bat eragiten du harengan: bere buruaren zati bat bereizi eta inkontzientea sortzen du subjektuak. Aitaren Izenaren metaforak objektu ordezkatzailerik objektu galduaren ordezkari bihurtzen du.

Aitaren Izenaren metaforak adierazten du aitatasuna ez dela gertaera biologiko bat, errealitate sinboliko bat baizik. Lehen adierazlea da eta adierazle horren inguru antolatzen dira gizakiaren nortasuna eta portaera. Metafora horren baitan eginkizun garrantzitsua betetzen dute intzestuak, zikiratzeak eta faloak. Haurra amari eta haren desira lehenari (faloari) erabat lotua dagoenean, saiatzen da amaren desiraren objektu izaten, oraindik subjektu izatera ez baita heldu. Aitaren Izena aita errearen tokia hartzen duen leku sinbolikoa da; amak ekoiztutako adierazpen sinbolikoa; intzestuaren debekuaren legea ordezkatzeko duena, zikiratzeari lotua. Aita erreala den pertsona Aitaren Izenaren lege sinbolikoak zeharkatzen du (Feher-Gurewich, 2003).

Inkontzientean desagertzen edo ezabatzen da subjektua. Lacanen iritziz, gizakiaren oinarritzko erasokortasuna subjektuaren identifikazio imajinariotik eratorria da. Subjektuak etengabeki barneratzen ditu beste pertsonen irudiak; horrela eratzen du bere auto-irudi idealizatua; gero, bere irudi hori besteengana proiektatuko du berriro. Beste pertsona auto-irudi idealizatuarekin bat datorrenean, afektua harengan inbertitzen du eta maitemindu egiten da. Lacanentzat, maitemintzean, amodioan, norbere burua maitatzen da; norbere burua maila imajinarioan gauzatua (I. mintegia).

Kant, Sade eta Lacan

Gauza onak eginez gaizki senti gintezke eta gauza txarrak eginez ongi senti gintezke. Esate baterako, egiten diguten ebakuntza kirurgiko batean gaizki senti gintezke, nahiz eta hura gure onerako izan. XIX. mendean zehar gaizkiak sortzen duen zoriontasunaz ugari hitz egin zen. Gizakiak ez du beti zoriontasuna eta atsegina lortzera jotzen, modu libre eta arrazionalen; gizakiaren baitan ez da sortzen atsegin iraunkorrik eta zoriontasun sentimendu iraunkorrik. Kanten arabera, gizakiaren borondateak askatu egin behar du sentikortasun enpirikotik eta arrazoiaren ahotsaren mende jarri behar du. Arrazoiaren inperatibo kategorikoak gidatu behar du lege moralara. Bat etorri behar dute borondateak agindutakoak eta lege unibertsalaren printzipioek (Nobus, 2017).

Inperatibo kategorikoak ez du eduki edo forma espezifikorik: kasu eta baldintza guztietarako balio behar duen forma hutsa da. Kanten arabera, inperatibo kategorikoak sentikortasunaren bitartekotzarik gabe bideratzen du pertsonaren borondatea. Norbere buruaren sentikortasunaren eta interesen gainetik dago lege moralara.

Lege moralaren oinarri arrazionala eta formala jartzerakoan, Kant eta Sade alderatzen ditu Lacanek. Lacanen iritziz, Sadek modu zintzoagoan jokatzeko du gai horretan Kanten baino. Lacanentzat inperatibo kategorikoaren logika agindu analitikoei bakarrik aplikatu dakieke, ez agindu sintetikoari. Gizaki arrazionalaren aginduak lege unibertsalaren printzipio baten moduan funtzionatu behar du, konbikzio positiboa barne dela. Inperatibo kategorikoaren proposamenetan predikatuak subjektuaren kontzeptuan txertatua egon behar du jadanik. Proposamen sintetikoetan subjektua eta predikatua ez dira berdinak; ez da agerikoa subjektuaren eta predikatuaren arteko erlazioa. Aldiz, agindu analitikoak azaltzaileak eta unibertsalak dira; haien predikatuetan ez dago ezer, jadanik subjektuaren kontzeptuan ez zegoenik.

Lacanen iritziz, Kanten ezin du inperatibo kategorikoa objektu enpiriko batean oinarritu. Subjektuaren kontzeptuan inkluitua egon behar du inperatibo kategorikoak. Beraz, inperatibo horren formulazioan ezin da sartu gehieneko ongiaren objektua. Kant oker zegoen sintetikoa zen proposamen bat analitiko bihurtu zuenean (Nobus, 2017).

Aldiz, Sadek arrazoimena bakarrik hartzen du kontuan. Erreziprozitateari gabeko gozamen maximoaren printzipioa aldarrikatzen du. Printzipio horren arabera, Subjektuaren eta Bestearen arteko harremanak disimetrikoak dira, atsegina ezin baita erreziprokoa izan. Izan ere, guk atsegina lortuko badugu, beste norbaitek atseginik gabe geratu behar du; gure zerbitzariak atsegina hartzen badu, bere buruaz okupatuago egongo da nagusiaren atseginaz baino. Saderen arabera, atsegin sexuala lortu beharrek despota bihurtzen ditu pertsonak; nagusiak atsegina lor dezan sakrifikatu egin behar du mendeakoa.

Lege moralaren arabera jokatzeko atsekabea sor dezake pertsonarengan, baina Kanten (*Arrazoi Praktikoaren Kritikan*) eta Estoikoek bertutea lortzeko gizakiak duen gaitasuna azpimarratzen zuten eta arreta gutxi jarri zioten minari. Baina, atseginerako borondatea dagoen lekuan badago lekune bat atsegina ez denarentzat ere.

Naturaren ahotsa berekoia da: goza dezagula eta ahal denik eta atsegin gehien lor dezagula esaten digu, eta ez dio begiratzen gure atseginak besteentzat zenbat sufrikario ekartzen duen. Libertinoaren fantasia ahal denik eta atsegin gehien lortzea da, baina atsegin osoaren fantasia ez da inoiz erabat betetzen, horretarako uko egin behar baitzaio besteenganako errespetuari, errukiari, sinpatiari. Azkenean, gainera, grinei berei ere uko egin beharrean gertatzen da Saderen libertinoa, ikusten baitu orgasmoak apurtu egiten duela atsegin mugagabearen ilusioa. Hala eta guztiz ere, Gozamen gorenaren fantasiari eusten dio libertinoak eta atseginerako abagune guztiak baliatzen jarraitzen du. Dinamika horretan, mina eta atsegina konbinatzen dira, baina min-aldiek atsegin-aldiek baino gehiago irauten dute. Minak gogorrago erasotzen du atseginak baino.

Lacan-en iritziz, Saderen libertinoak gozamenerako borondatea asebate nahi du, desiraren objektutzat objektu partziala hartuta; objektu partzialari zerbait falta zaio barnetik. Lacan ez dago ados harreman objektalen ikuspegia dutenekin; haientzat harreman egokiak posible dira subjektuen eta objektuen artean, baina Lacanentzat, subjektu zatikatuak fantasia bidez (ez harreman harmoniatsuz) bakarrik eduki ditzake harremanak objektuarekin (Lacan, 1966; Nobus, 2017).

Saderen libertinoak biktimak behar ditu bere atsegina lortzeko, baina libertinoaren helburua ez da biktimei sufrikarioa eragitea, gozamina lortzea baizik. Gozamina lortuko badu, ordena sinbolikoa errotik ezabatu beharra du, eta ordena sinbolikoa ezabatzeko biktimaren subjektibitatea zatitu beharra dauka. Modu horretara, libertinoa sinbolikoaren aurreko ordenara itzultzen da (Nobus, 2017).

Organismoari eramangaitza zaion gehiegizko edo gutxiegiako gozamina deitzen du gozamina Lacanek. Psikoanalisiaren esparruan hizkuntza eta gozamina nahasten dira; gozamina errealaren erregistroan mugitzen da, sinbolizazioari, adierazleei eta esanahiei ihes egiten baitie. Errealaren erregistroak sinbolikoa eta imajinarioa sorrarazten ditu.

Psikopatologia

Ediporen Konplexuak ongi funtzionatzen ez duenean neurosiak eta beste patologiaak agertzen dira. Egitura klinikoak konplexu horren baitako zailtasunei loturik daude. Neurosia, psikosia, perbertsioa eta fobia gaizki garatutako Ediporen konplexutik datoz.

Lacan 1938rako hasia zen Ediporen konplexuaz hitz egiten, baina 1950ean agertu zuen ikuspegi berria. Lacanentzat, haur txikiek (mutilek zein neskek) ama desiratzen dute. Baina, Ediporen konplexuaren garaian sartzean, aita betetzen du funtzio nagusia. Aitari esker, haurraren eta amaren arteko hirutariko harremanak lautariko bihurtzen dira. Aitaren irudiari esker pasatzen da haurra ordena imaginariotik ordena sinbolikora.

Ediporen konplexuan ordena sinbolikoak funtzio erregulatzailerak betetzen du eta funtzio hori egitura klinikoekin erlazionatua dago. Zikiratzeak aukera baten aurrean jartzen du subjektua: zikiratzea onartu ala ez. Zikiratzea baztertzen denean, egitura psikopatologikoak garatzen dira. Lacanen iritzian, zikiratzea onartuta bakarrik lor dezake subjektuak identitate sexual eta egitura psikologiko normala.

Ediporen konplexuko lehen denboran blokeo bat gertatzean sortzen da psikosia. Aita errealak esku-hartzen ez duenean, haurra Ediporen bigarren denboratik hirugarrenera ezin izaten da iragan eta fobia gertatzen da. Aita errearen esku-hartzea da haurrari laguntzen diona Ediporen Konplexuaren hirugarren denborara pasatzen. Perbertsioan konplexuan hirugarren aroa egongo litzateke ukitua: aitarekin identifikatu ordez, amarekin edo falo imaginarioarekin identifikatuko litzateke haurra eta Ediporen aurreko triangelu imaginarioan kokatuko litzateke.

Bestalde, psikosia, perbertsioa eta fobia sortzen dira «Ediporen konplexuan funtsean zerbait osatu gabe dagoenean» (S2, 201). Psikosian, oinarritzko blokeo bat dago Ediporen konplexuaren lehen aldia baino lehen. Perbertsioan, konplexua hirugarren aldira eramaten da, baina aitarekin identifikatu beharrean, subjektua amarekin edo/eta irudimenezko faloarekin identifikatzen da, eta horrela Ediporen aurreko irudimenezko triangelura itzultzen da. Fobia sortzen da subjektuak ezin duenean Ediporen konplexuaren bigarren alditik hirugarren aldirako trantsizioa egin, benetako aita esku hartzen ez duelako; fobiak orduan benetako aitaren esku-hartzearen ordezkoko gisa funtzionatzen du, eta horrela subjektuari Ediporen konplexuaren hirugarren denborara igarotzea ahalbidetzen dio (nahiz eta askotan modu atipikoan) (or. 132, Evans, 2006).

Lacane neurosia, psikosia eta perbertsioa bereizten ditu; neurosia psikosia eta perbertsioari kontrajartzen zaie. Egitura horietaz ari garenean ez gara sintoma multzo batez ari, egitura kliniko batez baizik. Egitura normala neurosia litzateke. Freudek sendatu behar den gaixotasun moduan jartzen du neurosia. Lacanentzat aldatu beharrik ez dagoen egitura bat da neurosia. Tratamendu psikoanalitikoan egiten dena ez da neurosia erauztea, subjektuak neurosiaren aurrean duen jarrera aldatzea baizik.

Egitura neurotikoak neurosi histerikoa eta obsesiboa biltzen ditu. Neurosi histerikoan subjektuaren gorputzean inskribatzen dira sintomak. Neurosi obsesiboan, berriz,

pentsamenduan agertzen dira sintomak. Egitura psikotikoak psikosi paranoikoa eta eskizofrenia biltzen ditu.

Neurosian subjektuak bere burua defendatzen du Bestearen gabeziaren kontra eta zikiratzearen kontzientzia erreprimitu egiten du. Zikiratzea onartzea beharrezkoa da desira garatzeko behar den gabezia sortzeko. Osagai bat erreprimitzen da eta adierazleen sarera edo mundu sinbolikora berriro itzultzen da. Errepresioa ukatu egiten da egitura histeriko, obsesibo eta perbertsoan. Subjektu neurotikoa zalantzaren munduan bizi da. Psikotikoa eldarnioek sortzen duten ziurtasunaren munduan bizi da.

Psikotikoak imajinariotik haratago joateko ezintasunarekin edo, hobeto, sinbolikoan hura integrateko ezintasunarekin egingo luke topo; neurotikoa, aitzitik, sinbolikoaren ordenara sarrera baduenek, objektua libidoz karga dezake (or. 37, Palmier, 1972)

Subjektuak, errepresioaz gain, beste mekanismo bat ere erabiltzen du, Sinbolikoari ihes egiteko. Osagai bat forkluitzen denean, Aitaren Izena ezabatu, baztertu eta mundu sinbolikotik at geratzen da; errealean bakarrik agertzen da, haluzinazioen moduan. Adierazlerik, Aitaren Izenik eta esanahirik gabe aurkitzen da subjektua.

Subjektuaren unibertso sinbolikoan Aitaren Izena falta denean, haluzinazio psikotikoak gertatzen dira. Eldarnio psikotikoetan aita sinbolikorik ez da aurkitzen eta pitzadura edo hutsune batekin topo egiten du subjektuak. Eldarniozko esanahiek hartzen dute esanahi edipiarren tokia; esanahi gabeziak utzitako pitzadura estali eta munduari esanahi bat eman nahi diote. Baztertua izan den eta Sinbolikoaren argitan jalgi ez den adierazlea errealearen dimentsioan agertzen da. Phallusa gabeziaren adierazlea da; adierazleen sarea gabeziaren metafora moduan sortua da eta subjektu zatitua adierazleen sareak errepresentatzen du (Tombras, 2019).

Lacan-ek dio haluzinazio psikotikoak FORKLUSIOAREN eragiketaren ondorio direla. AITAREN IZENA subjektu psikotikoaren unibertso sinbolikotik absente egoteari egiten dio erreferentzia FORKLUSIOAK. Adierazle forkluitu hori errealearen dimentsioan itzultzea da haluzinazio bat. «Sinbolikoaren argitan agertu ez dena errealean agertzen da» (Ec, 388) (or. 78, Evans, 2006).

Giza Otsoaren kasuan Lacanek *Verneinung* eta *Verwerfung* bereizi zituen eta neurosia eta psikosiaren mekanismotzat hartu zituen. *Verneinung*-en subjektuak modu negatiboan ezagutzen du erreprimitua dena, denegazioaren bidez; erreinu sinbolikoan jadanik txertatua dagoen zerbait da; erreprimituak kontzientziarako mugimendua hasia du; erreinu sinbolikoan txertatua dagoena berreskuratzen da neurosia. *Verleugnung*-en subjektuak ukatu eta ber-ukatu egiten du hautematen duen zerbaiten errealtatea. Ez du ezagutzen ukazioaren azpian dagoen egia. Ukazio sakonagoa da, psikositik hurbilago dagoena. Psikosian lehen errepresioaren absentsia gertatzen da. *Verwerfung*: kanpotik hautematen duena baztertu egiten du eta haluzinazio moduan itzultzen zaio. Ezabatze sinbolikoa: Aitaren Izena ezabatzen du, hura denean ordena sinboliko osoa eraikitzen duena. Sinbolizatzen ez dena Erreal bihurtzen da (Dean, 1992; Shepherdson, 2003).

Lacan-entzat, Verneinung, Verleugnung eta Verwerfung-ek (hurrenez hurren, "ukapena", "baztertzea edo gaitzespena" eta "forklusioa") Freuden terminologian hiru ezeztapen forma izendatzen dituzte, ez zentzu logiko batean

soilik, hiru mekanismo psikikoei dagokien zentzuan baizik. Hiru mekanismo horiek korrelazioan egingo lirateke neurosi, perbertsio eta psikosien diagnostiko-kategoriekin.

Inkontzientea adierazteko prozesuan dagoen pentsamendu bat neurotikoki ukatzea adierazten du hor "ukazioak" ("Ametsean nire ama dela esango duzu, baina ziurtatzen dizut ez dela nire ama", SE 19, 235. or.). "Gaitzespenak", aldiz, uko egite sakonagoa adierazten du, ezeztapenaren zeinupeko egia ("ez da nire ama") hainbeste aitortzen ez duena, baizik eta ukatzen dena guztiz baztertzen duena... Azken terminoari dagokionez, "Forklusioak", aldiz, Lacanentzat oraindik gabeziarik eza sakonagoa adierazten du, halako moldetako ezen subjektuak ez baitu erregistratu ere egin fetixistak ezkutatu nahi duen ezberdintasuna, bereizketa sinbolikoa, fetixistak gorde nahi lukeena. "Forklusioak", beraz, psikositik beste mekanismoak baino hurbilago dagoen ukapen-modua adierazten du; ukapen mota hori errepresentazio-sisteman inskribatuta geratzen da, modu seguruagoan (or. 123-124, Shepherdson, 2006).

Alde batetik, Freudek *Verneinung*-i (ukazioari edo denegazioari) buruz hitz egin zuen. Bestetik, Lacanek Jean Hyppolite-ri eskatu zion *Verneinung* kontzeptua komentatzeko. Kontzeptu hori Hegelen *Aufhebung* kontzeptuarekin lotua dago. *Aufhebung*-ek ukatu eta ukatua kontserbatu adierazten du. Dena ez denaren moduan aurkeztea da denegazioa Freudentzat; errepresioaren *Aufhebung* bat da, erreprimitua onartzen ez duena.

Gauza bat subjektu batentzat existituko bada, lehen baieztapen bat behar da, ez ukazioaren ukazio soilak. Lehen baieztapen hori agertu ezean forklusioa (*Verwerfung*) gertatzen da. Zerbait subjektuarentzat ez balitz bezala gertatzen dira gauzak. Lehen baieztapena (*Bejahung*) lehen sinbolizazioa da Lacanentzat, subjektua hasieratik harrapatzen duen sinbolizazioa. Lehen baieztapen hori inkontzientea da eta ukazioaren ukazioaz finkatzen da, ez modu kontzientean (De la Maza, 2019).

Inkontzientea adierazleak kateak eratzen du (Lacan, 1966). Inkontzienteak egitura ezartzen die artikulatu gabeko osagai hauei: bulkadei, emozioei, errepresentazioei eta oroitzapenei. Inkontzientea eratuko duen oinarritzko adierazlearen gabezia adierazten du psikosiak; legearen ordezkari den aitaren gabezia. Garrantzia duena ez da aita errealearen absentsia edo presentzia, aitaren adierazlearen gabezia baizik. Schreber-en desira aitaren adierazlearen absentiaren inguru antolatzen da. Nia zatitua dago eta zatitze horrek adierazlearen zatitzea adierazten du. Zatiketa hori adierazten duena adierazlearen eta adieraziaren arteko bereizketa barra da (Leader, 2003).

Ordena sinbolikoak eratzen eta egituratzen du subjektua. Edgar Poe-ren "Gutun ebatsia"-n ikus daiteke gutun lapurtua adierazle bat dela, subjektuaren funtzioa betetzen duena. Pertsonaiek ez dute gutunaren edukia ezagutzen, baina hark adierazle nagusiaren funtzioa betetzen du. Erreginak gorde egiten du gutuna, erregea eta ministroa etortzean; ministroa konturatu egiten da eta gutuna berak hartzen du; erregina konturatzen da jokoaz, baina isilik egon beharra du. Dupin poliziak ministroa iruzurtu eta gutuna hartzen du; ministroak ez daki gutuna kendu diotenik. Dupinek dauka gutuna; ministroak agiri faltsu bat besterik ez.

Egoera berria, horrela sortua, zera da: ministroak ez duela gutunik eta ez dakiela ez duenik; erreginak orain badaki gutuna ez dagoela bere eskuetan (or. 46, Palmier, 1972) .

Erreginak polizia prefektuari gutuna berreskuratzeko esaten dio. Prefektuak Dupini laguntza eskatzen dio. Dupini esaten dio erregina bere bulegoan zegoela gutunarekin eta kolpetik erregea eta ministroa sartu zirela han. Erregina urduri jarri zen eta ministroa horretaz konturatu egin zen. Erregeak ez zuen ezer ikusi. Ministroak gutuna ostu zien erreginari eta beste batez ordezkatu. Erreginak ezin zezakeen ezer egin, erregea kontura ez zedin. Ministroak berekin darama gutuna. Erreginak gutun hori berreskuratu beharra du, erregeak gutun horren berririk balu, berak arazoak izango bailituzke. Dupinek prefektuari esaten dio egoera konponduko duela, baina diru baten truke. Orduan ministroaren bulegora joan zen eta gutuna ikusi zuen. Edonork ikusteko moduko tokian zegoen. Ministroa distraitu zuen eta Dupinek Erreginaren gutuna berreskuratu zuen eta prefektuak dirua eman zion. Lehen pasarteetan ministroak erreginaren trikimailua ikusi zuen moduan, Dupinek ministroarena ikusten du bigarrenengoan. Gutun ostua irudi grafiko bat da; gertaeren kausa ez da objektu bat, hitza baizik; adierazlea desplazatzen da. Adierazlea da subjektuen jardura eta destinoa determinatzen dituen. Adierazlearen lekualdatzeek determinatzen dituzte subjektuen ekintzak; pertsona guztiak gutunaren atzetik dabilta; gutuna ordezkatzuz, pertsonak iruzurtzen dira. Beraz, gizakiaren portaera erabakitzen dutenak adierazleak dira, gizakiaren existentzia ordena sinbolikoan txertatua dagoelako. Adierazleak boterea du pertsonak mugiarazteko. Adierazlea autonomia da adieraziarekiko; adierazleen kateak gobernatzen du esanahien sarea. Adierazlea nagusi da bai esanahiari buruz, bai subjektuari buruz.

Lapurtutako gutunaren adierazleari subjektuaren benetako funtzioa aitortu behar zaio, eta horixe da Edgar Poeren ipuinak adierazten duena. Adierazlearen lekualdatzeak subjektuak determinatzen ditu beren ekintzetan, beren patuan eta inork ezin dio lege horri ihes egin... Inkontzientearen egia hau da: gizakiaren baitan bizi da adierazlea, eta adierazleak gizakia eraldatzen du (or. 47, Palmier , 1972).

Gutunaren bi pasarteetan gauza bera gertatzen da: pertsonaia batek ez du ikusten gertatzen ari dena eta beste pertsonaiak ikusten du lehena ez dela ezertaz konturatu; hirugarren pertsonaia batek ikusten du trikimailua eta konturatzen da gutuna interesatu guztientzat irekia dagoela. Baina bi kasuetan aldatzen doaz pertsonak hartzen dituzten gutunarekiko rolak.

Lacanen iritziz, Poeren istorioko pertsonaiek adierazle inkontzienteek obeditu behar diete, gizarteko ordena kontzienterako arriskutsua bada ere. Ordena sozial hori Erregearen eta Erreginaren arteko ezkontzak adierazten du. Gutunak ordena kontzientearen egonkortasunerako mehatxua suposatzen du eta subjektu libre eta originalaren absentsia adierazten du. Eskuz-esku pasatzen den gutunak denak bere sarean harrapatzen ditu. Gutun hori errepikapen konpultsioaren sinbolo da, jadanik idatzia dagoena, inkontzientearen arabera jokatzera eramaten gaituena. Gutunaz jabetzen zarenean, hark harrapatzen zaitu.

Lacanentzat, gertatzen denaz konturatzen ez den pertsonaia egoarekin identifikatzen da. Bere burua iruzurtzen duena, gutuna ezkutatzean arrakasta eduki duela pentsatuz, inkontzientearekin identifikatzen da; trikimailua ikusi eta gutuna hor hartzeko dagoela

pentsatzen duena analizatzailearekin identifikatzen da. Analizatzaileak ez du jokatu behar istorioko poliziaren moduan: hark pentsatzen du gutuna toki oso ezkutuan gordea egongo dela. Erreginak eta ministroak pentsatzen dute gutuna seguru dagoela, begien aurrean jarria dagoenean (Bannet, 1989).

Hizkuntzak antolatzen ditu gure gorputza eta anatomia; hizkuntzak gorputzaren gain egiten duen eraikuntza da anatomia. Inguruaren antolamendu sinbolikoaren arabera eraikitzen ditu pertsona batek bere gorputza eta premiak. Gorputzaren premiak amaren eta aitaren eskaeren arabera antolatzen dira; irudi izatetik hizkuntzaren arabera antolatua egotera pasatzen da gorputza. Hitzetan jarri den gorputza ez da hezur eta haragiz osatutako objektu trinko bat, inguruko pertsonen esaerez eta desirez zeharkatua dagoen gorputza baizik. Gorputza antolatzen duten objektuak erregistro sinbolikoan kokatzen dira, ez irudimenaren erregistroan. Gorputz horren egitura berreskuratu nahi badu pertsonak, berorri buruz egindako kontakizunak hartu behar ditu kontuan. Hizkuntzari esker objektu berezietan antolatu da gorputza eta objektu horiek (α objektu txikiak) desiraren kausa dira. Histeriak ere gorputzarekin du zerikusia, baina hizkuntzaren iragazkitik pasatu den gorputzarekin.

Marguerite Pantainek nobela bat idatzi zuen eta eleberri horretako pertsonaietako batek Aimée izena zuen. Geroztik, Aimée izenarekin ezagutzen da Marguerite, Lacanek ere Aimée izena eman baitzion bere tesian. Neska horrek jazarpeneko ideiak izan zituen 28 urte zituenean. Kalte egin nahi ziotela pentsatzen zuen eta portaera erasokorrak agertu zituen. Hilda jaio zen Aimée-ren lehen alaba. Bigarren haurra (Didier) izan zuenean, ez zion inori utzi harengana hurbiltzen, kalte egingo zioten beldurrez. Jazarpen ideiak gero eta larriagoak zirela ikusita, ospitaleratu egin zuten. Ospitaletik irtetean, Parisera joan zen eta aktorea batek bere semea kalte egin nahi ziola pentsatzen zuen. Ondorioz, labana batez aktorea eraso zuen eta espetxeratu egin zuten. Gero Santa Ana ospitalera eraman zuten Aimée eta han auto-zigortze paranoia diagnostikatu zion Lacanek. Zigortua izateak bere onera ekarri zuen Aimée: hilketa saioagatik zigortu zutenean sendatu zen. Errudun izateagatik zigortua izateak eldarnioak garatu beharrik ez izatera eraman zuen. Aimée-ren semea, Didier, Lacanen kontsultategira joan zen tratamendu bila, Lacanek bere ama tratatu zuela jakin gabe. Didier-ek jakin zuenean bere ama Lacanek psikoanalizatu zuela, eta hark idatzitako nobelak Lacanen eskutan zeudela, saiatu zen nobela horiek berreskuratzen, baina ez zuen lortu. Didier bera idazle bihurtu zen.

Lacanek Psikosi Paranoikoari buruzko tesian auto-zigortzearen paranoia aztertu zuen eta Aimée izeneko emakumearen kasuaz ilustratu zuen paranoia mota hori. Aiméek ospe handiko aktorea bati eraso egin zionean, hura bezalakoa izan nahi zuen. Aktorea erasotzean, bere burua eraso nahi izan zuen Aiméek, berak izan nahi zuenaren eredu eta bere gorrotoaren jomuga baitzen aktorea. Aimée-ren kasuaren bidez, irudiaz eta idealaz interesaturik agertu zen Lacan eta ikusi zuen gizakiaren identitateak bil ditzakeela bere gorputzaren mugetatik harantzagoko alderdiak.

Kasu horren bidez, Aimée-ren auto-zigorketa paranoiak azaltzen du niaren erakuntza. Joera auto-zigortzailea gertatzen da nia eta zera elkartzen eta bateratzen direnean. Nia eratzean nia eta zera ez dira garbi bereizten; identifikazioaren baitan errealtatearen ez-ezagutza dago; errealtate hori errealtatearen ilusio bat da, desira nartzisikoa bestearengana jaurtikitzea. Aiméek munduari ezartzen dio bere errealtate distorsionatua (Dean, 1992).

Psikosiaren klinikan subjektua aitatasunaren korapilora heltzen denean, errealean zulo bat irekitzen da. Zulo horren aurrean subjektuak erantzun bat asmatu behar du

imaginarioan. Errealean zulo horri erantzuna emateko sinbolorik ez badu, subjektua zoratu egiten da, zorotasuna eta zientziaren aurkikuntza oinarritzat erlazionatuak baitaude. Zoro bihurtu diren matematikoak bezala (Cantor edo Gödel), subjektua zoro bihurtzen da, ez arrazoa galdu duelako, baizik arrazoa azken ondorioetaraino eraman duelako. Chesterton: “zoroa ez da arrazoa galdu duen gizakia; arrazoa izan ezik, beste guztia galdu duena da zoroa”. Gaixotasuna baino areago, sendatzeko entsegua da eldarnioa. Zentzu gabeziaren hutsuneari aurre egin nahi dion aldamioa da eldarnioa.

Munduari eta errealtateari esanahia emateko aitaren eta amaren funtzioek hartzen dituzten egitura sinbolikoen matxurak dira gaixotasunak. Zoratze ez den subjektua ez da bere Niarekin nahasten. Zoratzen den subjektua Niarekin edo beste imaginarioko edozein irudirekin nahasten da. Lacanen subjektua zatitua bakarrik existitzen da; ez da bere buruaren berdina; Niarengan errepresentatzen bada, haren berdina dela uste izan gabe da. Amets egin dezake edo fantasiak izan ditzake amesten duenarekin edo fantaseatzen duenarekin berdina sentitu gabe.

Subjektuak bere nortasuna eta Nia nahasten dituenean, zorotasuna hedatu egiten da. Lacanentzat arazoa ez da paranoiak nortasunarekin harremana izatea, nortasuna paranoia izatea baizik. Nortasuna paranoikoa da subjektua Niarekin nahasten denean, eta Nia errealtate subjektibo guztiaren erreferentzia gune bihurtzen denean. Aitaren lizenaren forklusioari subjektuak emandako erantzunarekin da lotua dago zorotasuna. Schreber normala izan zen aitatasunaren arazoa planteatu artean, eta mundu sinbolikoan adierazle bat falta zitzaiolako eldarnio paranoiko bat garatu artean.

Errealaren eraginez subjektuaren adierazleen katea hausten denean, kanpoko zerbait ezartzen zaio subjektuari. Hausturaren eraginez esanahia aitzinatzen da hitzezko haluzinazio eta eldarnioetan. Hautemateen nahastea baino areago hizkuntza gertaera bat da haluzinazioa. Hizkuntzak subjektuari ezartzen zaion adierazlearen egitura bera du haluzinazioak.

Psikosiaren barne-hizkuntzako gertaerek inkontzienteko adierazleen egitura dute. Subjektu psikotikoak harreman estu eta jarraitua du bere gorputzean duen hizkuntza egiturekin. Niaren funtzioari esker bereizten da subjektu normala hizkuntzaren inertziatik. Subjektuaren eta hitzaren (Bestearen) artean pantaila bat jartzen duen eraikuntza imaginarioa da Niaren funtzioa. Hizkuntzaren errealarari erantzunez, eldarnioak eta neologismoak erabiliz sendatzen da subjektua. Erreala izendatzeko hitz berriak asmatuz erantzuten du subjektuak psikosiaren klinikan. Batzuetan hitz arruntak erabiltzen ditu, baina esanahi ezberdina emanez. James Joyce-ren lanetan makineria neologiko bat ageri da. Ikus “Finnegans Wake”. Mintegi bat eskainiko dio Lacanek. Subjektuak sintoma edo hizkuntzaren asmakuntza bat eraikitzen du, errealarari zentzua emateko, errealean hizkuntzaren haluzinazioari erantzuteko.

Heidegger-en heriotzarako izakia hizkuntzak eta gozamenak zatitutako izakia da Lacanentzat. Sexua ez da genitalera erreduzitzen. Sexuan gozamenarekin artikulatzen da hizkuntza. Subjektuak hizkuntzaren egitura osoarekin harremanean eraikitzen du sintoma, errealarari erantzuna emanez.

Sintoma ez da subjektua errealtatera ez egokitzearen erantzuna, ez da zuzendu behar den subjektuaren erantzun bat. Sintoma eta zorotasuna eraikuntza sinbolikoak eta egitura adierazleak dira. Sintoman mezu zifratu bidez gauzatzen da gozamina. Subjektuak ezin du sentitu gozamen hori, ezpada desatsegin moduan gauzatuta. Mezua desfizatzen duenean askatzen da subjektua desatsegin horretatik, sintoma beste modu batera erabiliz. Sintomaren

funtzio positiboa azpimarratzeko sortu zen Lacanek "Sinthome" neologismoa. Sinthomea: eldarnio lana sintomaren eraikuntza da. Sinthomea gozamenaren eremuan ez zoratzeko beharrezkoa den premiazko zorotasuna da. Subjektu bakoitzak duen premiazko zorotasuna munduko errealari erantzuteko, erreal horretara egokitzeko ezintasunari erantzuteko. Gurasoen adierazleak ez dira nahikoa gozamena ordenatzeko.

Zorua ez da adimen txirotua duena edo errealtatetik urruntzen dena, selfean arazoak dituen baizik. Zorotasuna ez da pertsona baten ahultasunengatik gertatzen; haren barne izaeran irekitako arrakala bat da. Paranoideak gaixorik daude self erreal sendaezinen eta self ideala edo imaginarioaren arteko arrakala sendatzen saiatzen direlako. Direnaren eta idealaren arteko desadostasun iraunkorra ezabatzen saiatzen dira eta hori da egiten duten krimenaren kausa.

Krimenak aska dezake Aimée erruduntasunetik, baina aldi berean indartu egiten du denaren eta izan nahi duenaren arteko desadostasuna. Krimena askatasuneranzko mugimendu paradoxiko bat da; zorotasun forma bat eta espetxe bat da. Zorotasuna askatasun mota bat da eta haren mugak markatzen ditu. Portaera paranoikoaren megalomania sintomatikoa: norbere burua goratzearen eta auto-zigorketaren dialektika.

Paranoikoa saiatzen da errealtaren eta idealaren arteko desadostasuna ebazten, ilusiozko ideal bat eraikiz. Eragiketa psikiko horrek krimenera eramaten du, bere ilusioa mantentzeko. Ekintza kriminalak ez du uztartzen paranoikoa bere idealarekin, nahiz eta uztartze hori duen helburu paranoikoaren egitura psikologikoak. Krimenak askatzen du subjektua eldarnioaren jatorrizko erruduntasun inkontzientetik, baina egoaren baitako absentsia agerian uzten du. Egoak osatzen du self imaginario moduan defini daitekeen nitasuna. Horretarako egiten dituen saioak gorabehera, huts egiten du bere idealarekin identifikatzean. Haren self egitura hutsa da. Barnean duen zuloa eta absentsia eldarnioak etengabe bete behar du. Ilusioak mozorrotu behar du errealeko gabezia mingarria.

Aimée arindua sentitzen da bere hilketaren ondoren, baina harrapatua jarraitzen du ispiluen munduan; ispiluko irudian gaizki islatzen da bere burua (Dean, 1992). Krimenaren bidez sendatu nahiko luke. Subjektua zorotasunaren arrakala irekira irristatzen da. Zorotasun horrek errealtatea eta ideala uztartu nahi ditu eta errealtatea errepresentatzen du. Jatorrizko Epistemologiaren muinean dago Selfik ez dagoen lekuan Selfa sortzeko desira. Ekintza kriminalak ezagutzaren mugak erakusten ditu; selfa ilusio bat dela, ispiluko isla bat besterik ez dela adierazten du.

Lacanentzat, ekintza kriminalak selfa sinbolizatzen zuen; ez zuen iradokitzen kontzientziaren azpiko inkontzientea. Ekintza kriminalak ez zuen selfaren egia errepresentatzen, hura etengabe desplazatua zelako; aldi berean patologia eta sendatzea zelako. Nia egitura imaginario bat zen eta haren funtzioa jatorrizko absentsiari aurre egitea zen, ekintza kriminalaren bidez (Dean, 1992).

Paranoia libido homosexualarekin lotua zegoen Freudentzat. Lacanek adierazleetan aurkitu zuen psikosiaren jatorria. Harentzat, inkontzientea hizkuntza baten moduan egituratua zegoen. Pertsona hizkuntzaren egituran inskribatua zegoen.

Aitaren izenaren adierazleak azaltzen du adierazleen katearen funtzionamendua. Adierazleen multzoan agintzen duena Aitaren izena da. Aitaren izena Bestearen Bestea da, neurosia eta psikosia bereizteko beharrezkoa dena. Psikosian Aitaren izena forkluitu egiten da. Lacanentzat, psikosia ezin daiteke azaldu bulkada homosexualaren bidez. Psikosian eta

neurosian modu ezberdinean itzultzen da erreprimitua. Neurosian erreprimitua sinbolikoan itzultzen da, konpromisozko sintoma bat eratuz. Gauza bera dira errepresioa eta erreprimituaren itzulera (Lacan, 1956). Psikosian hasieratik gertatzen da baztertzea. Hasieratik sinbolizatua izan ez zena, ez da erreprimitzen. Errealean baztertzen da eta errealerara itzultzen da, sinbolikotik kanpora dagoelako.

Psikosian Aitaren izena forkluitzen da eta aitaren metaforak ezin du funtzionatu. Neurosian Aitaren izena adierazleak amaren desira metaforizatzen du. Psikosian metafora-efektua ez da gauzatzen. Faloak ez du sinbolizatzen amaren desira.

Paranoia haluzinazio mota berezi bat duen psikosi mota da. Freudek (1911) Schreber epailariaren idatziak aztertu zituen eta esan zuen paranoia homosexualitatearen kontrako defentsa zela. Doktorego tesian (Lacan, 1932) ez ezik, 1955-56ko mintegian ere heldu zion Lacanek gai horri. Lacanentzat desegokia da paranoiaren sustrai homosexualari buruzko Freuden teoria. Emakume bihurtzearen fantasma dago Schreber-en eldarnioaren bihotzean. Schreber-ek mundua salbatuko badu, Jainkoaren emazte bihurtu behar du. Eldarnioaren bidez proposamen hori ukatu nahi luke: nik, gizon honek, hura, gizon hura, maite dut. Schreber homosexualitatearen kontra defendatzen da, bere desira ukatu eta bestearengana proiektatuz. Bere baitan maite duenaren kontra gorrotoa proiektatzen du. Ukatu egiten du hura maite duela eta ukatu duen amodioa gorroto bihurtzen du. Gorroto hori da gero beste batengana proiektatzen duena, ezin baitezake onartu amodioa gorroto bihurtu dela. Ez du maite, gorroto du, hark jazartzen duelako eta hark gorroto duelako. Maite dut; ez, ez dut maite. Ez da gizona nik maite dudana; emakumea dena maite dut nik; hark (emakumeak) ni maite nauelako maite dut nik hura. Paranoiaren bidez babesten da Schreber bere aitarenganako eta anaiarenganako desira homosexualetik. Beraz, paranoia homosexualitatearen kontrako defentsa bat da.

Nia egitura besterentzailez osatua dago. Desira ere besterentzez osatua dago: gizakiaren desira Bestearen desira da. Desira homosexuala Flechsig doktorearengana zuzentzen du. Subjektuak desira bat izatekotan aurrez Bestearen desira bat behar da. Subjektua eratzekotan Besteak hor egon behar du aurretik. Desira bat egotekotan aurrez beste desira bat behar da. Identifikazioek eratzen dute subjektuaren desira. Desiraren oinarrian identifikazioak daude. Identifikazio bat erortzen denean, desira berri bat agertzen da.

Hitzaren ekintza Besteak bermatu behar du. Hitzaren ekintza bermatuko duen Besterik ez dagoenean, hitzaren ekintza ezin da bete. Hautsi egiten da Bestearekiko lotura. Loturarik egotekotan Beste handia behar da. Kideen arteko loturak Beste handiarekiko adostasuna eskatzen du.

Ispilu aroa identifikazio aroa da. Subjektuak bestearekiko lotura ezarriko badu, identifikazio batetik pasatu behar du eta urradura bat gertatu behar du. Zapia urratzen den lekuan identifikazio agertzen da, soluziobide moduan. Lacanentzat subjektuaren baitan urratze bat gertatzen da, urratze hori identifikazio batez konpentsatzen da. Identifikazioan zalantzak izatean, psikosia agertzen da. Urratzeak errepikatzen direnean, identifikazioan zalantzak gertatzean, psikosia agertzen da.

Matrize sinbolikoan oraindik ez dago adierazlerik, ez dago egitura sinbolikorik. Matrize sinbolikoa niaren lehen forma da. Matrize sinbolikoak egitura bat du eta haren gainean sostengatuko dira subjektuaren esperientziak. Irudimen mailako efektu guztiak matrize horrek gidatuko ditu. Lacanek bereizi egiten ditu matrize sinbolikoa eta bestearekin

identifikatzeko dialektika. Irudimen mailako efektuak identifikazioen dialektikan sartzen dira. Puntu finkoa matrize sinbolikoa da eta eboluzionatzeko gai den puntua identifikazioen seriea da.

Aitarekin lehen identifikazioa: niaren idealaren jatorria. Inkorporazio prozesuaren antza duen identifikazioa. Bigarren identifikazioa: objektuarekiko harremana eraldatzen da eta amodioa identifikazio bihurtzen da. Subjektua aitaren ikurrekin identifikatzen da. Bigarren identifikazioa identitate besterentzailearen oinarria da. Besterentze paranoikoan ispiluko nitik ni sozialera biraketa bat gertatzen da. Subjektua besteen desiratik abiatuta eraikitzen da. Nia kidekoetatik edo ni txikietatik abiatuta eratzen da.

Harreman imajinarioetan, pasioa agertzen da subjektuak bere antzeko bat ikusten duenean bestearengan. Hori dago ospearen aldeko borrokaren edo erasokortasunaren oinarrian. Niak bestearen irudia bereganatzen du eta bestearengandik abiatuta eratzen da. Lacanentzat sentimendu altruista guztiak niarengandik niarenganako harremanaren mailan kokatzen dira eta badituzten zailtasun batzuk. Freudentzat libidoa objektu batetik bestera lekualdatzeko arazoak izaten dira inertzia imajinarioa gertatzean. Lacanek imajinarioaren erregistroan kokatzen ditu asebetetzea eta libidoa. Libidoaren biskositatea, finkatzea, inertzia: imajinarioko terminoak dira.

Niaren egitura paranoikoa: nia bestearekin batera eratzen da. Gizakia haren kidekoak zatitzen du. Lacanen nartzisismoa nartzisismo zatitua eta besterendua da. Nia = Nia identitate ezinezkoa (Miller, 2004).

Forklusioak psikosiara eramaten du eta errepresioak (Verdrängung) neurosiara. Forklusioaren teoria proposatu zuen Lacanek psikosiaren mekanismo berezizat. Psikosian zikiratzearen esperientzia ez da modu egokian sinbolizatzen eta Aitaren Izenaren metafora ez du inkontzientean inskribatzen. Zikiratzea ongi sinbolizatzen denean, haurrak onartuko du bere identitate sexuala eta errealitatea ere bai; baina prozesu hori ondo ez bada gauzatzen, ziurtasunik ez du izango bere identitate sexualean eta errealitatean zentzuaren aldaketa gauzatuko du, psikosian gertatzen den antzera.

Neurosian zikiratzearen errepresentazio bat beste batez ordezkutzen da eta beste hori niarentzat onargarriagoa da. Psikosian niak jaurtiki edo baztertu egiten du zikiratzearen errepresentazio jasanezina. Zikiratzearen errepresentazioa errealitatearen zati bati loturik dago; forklusioan nia bereizi egiten da errealitate horretatik eta aparailu psikikotik jaurtiki egiten du zikiratzearen errepresentazio mingarria. Errepresentaziotik kanpora jaurtikitzen du eduki afektiboa ere, errepresioan gertatzen ez den bezala. Baina, gero jaurtikia edo baztertua izan dena kanpotik itzuli egingo da, haluzinazio edo eldarnio moduan. Psikosian forklusioa da hor subjektuak darabilen mekanismoa.

Psikosiaren funtsezko mekanismoa aitaren izenaren, metafora falikoaren forklusioa dela aitortu da hemen (or. 84, Palmier, 1972).

Haurrak behar zuen garaian ez du alboan izan Aitaren Izenaren adierazlea. Subjektuaren eskaerari inolako erantzunik ez zaio eman. Forklusioa gerta dadin haurrak eskaera bat egin behar du eta eskaera horren atzetik ez da adierazle bat etorriko. Azkenean, haurrak Aitaren Izena forkluitzen du eta horrek inoiz beteko ez den zulo bat uzten du haren ordena sinbolikoan. Aitaren metaforaren lekuan zulo bat edo ordenu sinbolikoaren gabezia bat geldituko da. Ondorioz, Aitaren Izen forkluitua errealitatean agertuko da eta horrek izaera psikotikoari dagozkion eldarnio eta haluzinazioak sortuko ditu (Lacan, 1966).

Aitaren Izena gai jakin baterako forkluitzen denean, inoiz bete ezin den zulo bat uzten du ordena sinbolikoan; orduan subjektuak egitura psikotiko bat duela esan daiteke, nahiz eta psikosiaren zeinu klasikorik ez erakutsi. Lehenago edo beranduago, Aitaren izen forkluitua errealean berriro agertzen denean, subjektua ez da gai hori asimilatzeko, eta «asimilaezina den adierazle horrekin talka» egitearen ondorioa «psikosian sartzea» da (S3, 321). Sarrera hori HALUZINAZIO eta ELDARNIOEN agerpenak bereizten du (or. 65-66, Evans, 2006).

Lacanentzat Gizotsoak errealaren eremuko gertaera moduan (ez sinbolizatu moduan) bizi zuen bere zikiratze beldurra, zikiratzea ez zuelako inoiz kokatu sare sinbolikoan. Sare sinboliko horretan eratzen da identitatea. Freud eta Lacanentzat zikiratze beldurrak amaren galarazpena sinbolizatzen du; zikiratze beldurrak amari uko egin eta aitarekin identifikatzera darama mutila. Horrela ebatzen du Ediporen Konplexua eta lortzen du identitate sexuala. Baina, Gizotsoak inoiz ez zuen gainditu garapen estadio hori. Haurra zelarik, jatorrizko eszenaren lekuko izan zen, baina haren esanahia forkluitu zuen, amaren phallus absentearen adierazle zen zikiratzea baztertuz. Haurrak amari atxikia jarraitzen du: ez du zikiratzea sinbolizatzen eta ez da aitarekin identifikatzen. Gizotsoak zikiratze-adierazle baztertzen du eta haluzinazio psikotikoak izaten ditu bost urterekin; baztertzen duen zikiratzea haluzinazio moduan itzultzen zaio, hatza ebaki duela uste duenean.

Zikiratzea, hain zuen berarentzat existitu ez dena, berak irudikatzen duen moduan agertzen da: hatz txikia hain sakon moztu du, ezen azal zati txiki batek bakarrik eusten dio. Orduan, adierazi ezineko hondamendi baten sentimenduak gainditzen du, hain adieraezina non ez baita ausartzen ondoan duen pertsonari horretaz hitz egitera (or. 97, 1. mintegia).

Haluzinazio psikotikoa sinbolizatu ezina da, egonkortasunik gabeko adierazle multzoa baitarabil. Haluzinazioak ez du adostasunik lortzen kontzeptuen eta haien esanahien artean. Esanahiak eta adierazleak ez dira antolatzen. Psikotikoak etena du hizkuntzaren eta ordena sinbolikoaren arteko harremana.

Neurosiak dezifratu behar diren kode sinbolikoen segida adierazten du. Neurotikoak hizkuntza baliatzen du eta psikotikoa hizkuntzak baliatzen du. Psikosiak agerian uzten du inkontzientea. Esanahiz betea dago, baina ez da sinbolikoraino heltzen, haren atarian gelditu baita. Psikotikoen forklusioan sinbolikoa ezabatzen da; bizitzen den moduan agertzen du inkontzientea, gorputzaren bidez, sintoma psikosomatikoetan bezala. Haluzinazioak ez daude sinbolikoki ainguratuta; horregatik dira ulertezinak (Dean, 1992).

Forklusioaren ondorio psikikoak sinbolikoan eta imajinarioan nabaritzen dira. Sinbolikoan espazioaren eta denboraren ohiko erreferentziak eta norberaren identitatearen errepresentazioak aldatzen ditu. Adierazlearen eremuan irekitako zuloan errealtate berri bat eraikiko da, eldarnio eta haluzinazioz egituratuta. Imajinarioaren eremuan ni psikotikoak bestearekin duen harreman imajinarioa gauzatzen da eta harreman hori erasokortasunez igurtzia egongo da, ispilu aroan gertatzen den moduan.

Errepresioan elementu psikiko baztertua inkontzientean hobiratu gelditzen da, forklusioan ez bezala. Lehen errepresioari eta aitaren metaforari esker desirari nagusitzen zaio hizkuntza; desira hizkuntzan besterentzen da. Falo izateko desira erreprimitu egiten da, faloa edukitzeko desiraren faboretan. Faloa lortzeko desira hizkuntzaren bidez sinbolizatu eta

eskaera bihurtu behar da. Aitaren metaforak objektu galdutik objektu ordezkatzailera darama haurra; ondorioz, desira eraldatu egiten da. Eraldaketa horri esker, haurrak eten egiten du amarekin lotzen zuen lotura imajinarioa eta dimentsio sinbolikoan sartzen da. Hitz egiten duen subjektu desiratzailer bihurtzen da eta hizkuntzaren erabilerari kateatua gelditzen da. Horrela gertatu ezean, Aitaren Izena forkluitzen da eta psikosian eror liteke. Forklusio prozesuak bereizten ditu psikotikoa eta neurotikoa. Desira hizkuntzaren bidez antolatzen denean, asebate gabe gelditzen da; horrek gozamina ahalbideratzen du, baina ez gozamen osoa; desira behin eta berriro berpizten den arren gozamen osoa ez da inoiz lortzen. Adierazlea da gozamenaren kausa (Tombras, 2019).

Psikosiari buruzko Lacanen eztabaida xehetuena haren 1955–6ko mintegian agertzen da, "The Psychoses" izenburuarekin. Hemen azaltzen ditu EROMENAREN ikuspegi lacaniarraren oinarri nagusiak izan direnak. Psikosia hiru EGITURA klinikoetako bat bezala definitzen da, eta horietako bat FORKLUSIOAREN eragiketak definitzen du. Eragiketa honetan, AITAREN IZENA ez da psikotikoaren unibertso sinbolikoan integratzen ("forkluitua" dago), eta ondorioz ordena sinbolikoan zulo bat geratzen da. Ordena sinbolikoko zuloaz hitz egitea ez da psikotikoak inkontzienterik ez duela esatea: aitzitik, psikosian «inkontzientea presente dago, baina ez du funtzionatzen» (S3, 208). Egitura psikotikoa, beraz, Ediporen konplexuaren nolabaiteko funtzionamendu oker batetik eratortzen da, aitaren funtzioaren gabezia batetik; zehatzago esanda, psikosian aitaren funtzioa aitaren irudira murrizten da (sinbolikoa imajinariora murrizten da) (or. 157, Evans, 2006).

Funtzio falikoaren ideia *Hiru Entseguetan* (1905) iradoki zuen Freudek eta 1923an *Haurraren Antolamendu Genitala* izeneko idatzian argitaratu zuen. Faloaren lehentasuna azpimarratzen du eta ez eskualde genitalaren lehentasuna. Ez da ari objektu anatomiko baten lehentasunaz, atal baten gabeziak subjektuaren baitan errepresenta dezakeenaz baizik. Erregistro sinbolikoak Aitaren Legea ezartzen du eta honek bere funtzioa betetzen ez badu, Aitaren Izena forkluitu egiten da eta psikosia gertatzen da. Ordena sinbolikoa intzestuaren debekuan eta aitaren heriotzan oinarritzen da. Objektua desagertzean, gabeziatik eta absentsiatik sortzen da. Ordena sinbolikoa nagusitzean, kulturaren erreinuko harreman sinbolikoen sarean harrapatua gelditzen da gizakia. Ediporen konplexuan haurraren desira faloaren inguru korapilatzen da, faloa baita imajinarioaren eta sinbolikoaren artean kokatzen den desiraren adierazle lehena.

Orrialde batzuk lehenago, honako hau idazteaz arduratu zen Freud: «Errepresioa arbuioa ez den beste zerbait da... Ikusi dugunez, "Verwerfung" termino hori da Lacan-ek forklusio gisa itzultzea proposatzen duena. Freudek, gainera, zehazten du: "Ez zen judiziorik egin zikiratzearen existentziari buruz, baina zikiratzerik existituko ez balitz bezala gertatzen ziren gauzak". Hortaz, zikiratzea baztertzeak edo forkluitzeak (arbuioak) haren gertaerari buruzko existentzia-judizio ororen absentsia adierazten du. Errepresioak, aitzitik, erreprimitu beharreko elementua existitzen dela aitortzea eskatzen du" (or. 87, Palmier, 1972).

Hizketarako solaskidea behar da eta Inkontzientea bestearen diskurtsoa eta adierazleen katea da. Hizketaren subjektuaren efektua da Inkontzientea. Hizketa beste nonbaitetik, beste kokapen psikiko batetik, zuzentzen zaio subjektuari. Lévi-Strauss-ek *Structures élémentaires de la parenté* liburuan (1949) dioenaren arabera, gizakia adierazleen ordenak gobernatzen du eta ordena hori egitura inkontzienteetan inskribatzen da. Gizakia ez da adierazleen munduaren nagusia; adierazleen mundua da gizakia eratzen duena. Gizakiarengan Zera da agintzen duena eta hitz egiten duena, Bestearen diskurtsoa den inkontzientea (Lacan, 1966).

Gizon eta emakumeek kokapen sexual bat lortu nahi badute, zikiratzea onartu behar dute. Psikitikoak zikiramendua arbuiatzen du, gertatu izan ez balitz bezala. Sinbolikoa baztertzen duenean, errealean agertzen da zikiratzea. Gorputz zatikatuaren haluzinazioak agertzen dira. Lacanentzat, mutilek zein neskek onartu behar dute beren zikiratzea; uko egin behar diote amaren phallusa izateari. Phallus imajinarioarekin identifikatzeari uko egiten badiote bi sexutakoek, horrek bidea irekiko die phallus sinbolikoarekin harremanak izateko.

Hortik aurrera, ordena sinbolikoan erreprimitutakoa, hots, falo edo zakila adierazlea, errealtatean berriro agertuko da, haluzinazioaren forman. Hau da, hain zuzen ere, Otsoen Gizonaren eta Schreber presidentearen kasua, non forkluitzen dena aitaren antzeko zerbait den, faloaren eramaile gisa (or. 88, Palmier, 1972).

Lacane dio mutilek zein neskek beren zikiratzea beren gain hartu behar dutela, zentzu honetan: haur bakoitzak amaren falo izateko aukerari uko egin behar dio; «faloarekiko harreman hori... sexuen desberdintasun anatomikoa kontuan hartu gabe ezartzen da» (E, 282). Bi sexuek falo imajinarioarekin identifikatzeari uko egiteak bidea zabaltzen du sexuentzat ezberdina den falo sinbolikoarekiko harreman baterako; gizonak falo sinbolikoa du (edo, zehatzago esanda, «hura ez da faloa eduki gabe» [il n'est pas sans l'avoir]), baina emakumeak ez. Hori konplikatu egiten da, gertaera honengatik: gizakiak falo sinbolikoa baldintza honekin bakarrik aldarrikatzen du: bere zikiratzea bere gain hartu du (falo imajinario izateari uko egin dio), eta emakumearen falo sinbolikoaren gabezia ere jabetza moduko bat da (S4, 153) (or. 144, Evans, 2006).

Haurrengan psikosia agertzea oinarritzko nahaste baten ondorioztat hartu behar da; nahaste horrek ukitu egiten du haurrak bere gorputzarekin duen harremana, irudimenaren mailan bizitakoa. Gorputz zatikatuaren fantasma berriro agertuko da suntsipen psikitikoan (or. 35, Palmier, 1972).

Lacane Hegelen ikuspegitik aztertzen du bestearen gaia. *Psikosiak* izeneko mintegian (Lacan, 1955-56. III. mintegia) Lacane honela dakusa arazoa: ni bestearengan besterentzen naizenean, ezabatua izan naiteke, bestea nirekin ados ez dagoelako. Inkontzientearen dialektikan, nagusiaren eta esklaboaren dialektikan gerta daiteke bestearekin bizitzeko zailtasunak izatea. Hegelen arabera, bestearen ezagutza eta aitormena hil ala biziko borrokatik pasatzen dira. Pertsona bakoitzak desiratzen duena bere desira ezagutua izatea da, ahalegin horretan bestea ezabatuko baldin badu ere (Lacan, 1966).

Hegelek *Espirituaren Fenomenologia* liburuan agertzen du nagusiaren eta esklaboaren dialektika eta Lacanek Kojève-ren bidez jasotzen du haren berri (Kojève, 1947). Dialektika horretan desira aitormen desira moduan ikusten da. Bestearen aitormena lortu nahi dugunean, geure buruaz dugun ideia bestearen buruan ezarri behar dugu. Baina besteak ere gauza bera egin behar du aitormena lortzeko. Horregatik, pertsona behartua dago bestearekin borroka egitera. Aitormena lortzeko egiten den borroka hori, ospea lortzeko “heriotzarainoko borroka” bihurtzen da, aitormen premiak eramanda norbere bizitza arriskuan jartzen denean. Heriotzarainoko borroka horrek bi lehiakideetako bat hil baino lehen amaitu behar du, aitormena egin behar duena bizirik egotea nahi bada. Bi lehiakideetako batek amore ematen duenean amaitzen da borroka. Borroka amaitzeko bietako batek bestearen garaipena onartu eta haren esklabo bihurtu behar du; pertsona batek bestearen esklabo izatea onartu behar du, heriotzara arte borrokatzeari uko eginda. Gizartean ezinezkoa da nagusi soilen elkarte bat. Nagusiak garaipena lortzen duenean, esklaboak harentzat lan egin behar du. Baina, nagusiaren eta mendekoaren artean sortzen den erlazio dialektikoan, nagusia ez du asebetetzen lortzen duen aitormenak, aitormena egiten duena esklabo bat baldin bada. Aitormena egin behar duenak pertsona askea izan behar du. Osterantzean, ez da baliozko aitormena. Gainera, esklaboak bere burua aldatzen du, lanari esker. Nagusia, berriz, esklaboaren lanak bakarrik alda dezake. Historiaren aurrerapena esklaboaren lanean oinarritzen da (Kojève, 1947). Nagusia irteerarik gabeko egoeran gelditzen den artean, esklaboak aitormena lor dezake bere esklabotasuna dialektikoki gaindituz (Lacan, 1966).

Garaipena lortu ondoren, nagusiak bere zerbitzurako lanean jartzen du esklaboa. Esklaboak natura eraldatuz egiten du lan, nagusiak hura kontsumitu eta goza dezan. Hala ere, garaipena ez da dirudien bezain erabatekoa; nagusiaren eta esklaboaren arteko harremana dialektikoa da, dagozkien kokapenei uko egitea dakarrelako. Alde batetik, ugazabek lortutako aitorpena ez da asegarria, ez baita beste gizon bat aitorpen hori ematen diona, baizik eta, nagusiarentzat animalia edo gauza hutsa den esklabo soil bat; horrela, «Maisu gisa jokatzeko duen gizakia ez da inoiz aseko» (Kojève, 1947: 20). Aldiz, esklaboari bere porrota neurri batean konpentsatzen zaio, gertaera honengatik: lan eginez bere burua naturaren gaintetik jartzen du eta lehen ez zena bihurtzen da. Mundua aldatzeko prozesuan esklaboak bere burua aldatzen du eta bere patuaren egile bihurtzen da, esklaboaren lanaren bitartekaritzaz soilik aldatzen den nagusia ez bezala. Aurrerapen historikoa orain «esklabo langilearen emaitza da, eta ez Maisu gerrazalearena» (Kojève, 1947: 52). Dialektikaren emaitza, beraz, paradoxikoa da: ugazabak «inpase existentzial» asegabatu batean amaitzen du; aldiz, esklaboak, bere esklabotza «dialektikoki gaindituz», benetako asebetetzea lortzeko aukerari eusten dio (or. 109, Evans, 2006).

Ediporen Konplexua pasatzeko moduak erabakitzen du pertsona baten kokapen soziala eta posizio sexuala. Lacanentzat *Totem eta Tabu*-ko mitoaren egitura Ediporen mitoaren egituraren kontrakoa da. Ediporen mitoan aitaren heriotzak aukera ematen dio Edipori amarekin harreman sexualak gozatzeko; baina, *Totem eta Tabu*-ko mitoan, aitaren hilketak ez du irekitzen aitaren emakumeenganako biderik; intzestua galarazten duen Legea indartu besterik ez du egiten.

Lacanentzat *Totem eta Tabu*-ko mitoa Ediporen mitoa baino zuzenagoa da; mito horrek esaten du amaren gozamina ezinezkoa dela. Ediporen mitoarentzat amaren gozamina galarazia dago, baina ez da ezinezkoa; gozamenaren galarazpenak haren ezintasuna ezkutatze balio du; subjektuak jarrai dezake ilusio neurotikoa: galarazten duen Legearengatik ez balitz, gozamina posible izango litzatekeela. Lacan lautariko eredutik abiatzen da eta Ediporen konplexuaren irudi hirukoitza kritikatzeko du. Ediporen konplexua har liteke bitariko harremanetik hirutariko harremanerako iraganbide moduan; baina, Lacanentzat Ediporen aurretiko hirutariko harremanetik (ama-haurra-faloo) Ediporen garaiko lautariko harremanera (ama-haurra-aita-phallusa) iragate gisara ulertu behar da.

Beraz, Ediporen konplexua erlazio bitarretik egitura triangeluar baterako trantsizio gisa ikus daitekeen arren, Lacanek dio zehatzago irudikatzen dela Ediporen aurreko triangelu batetik (ama-haurra-faloo) Edipo LAUTAR baterako (ama-haurra-aita-phallusa) trantsizio gisa. Beste aukera bat Ediporen konplexua Ediporen aurretiko triangelutik (ama-haurra-faloo) Ediporen triangelurako (ama-haurra-aita) trantsizio gisa ikustea da (or. 133, Evans, 2006).

Freudek bereizgarri psikiko maskulino eta femeninoen garapena deskribatzen du. Bereizgarri horien eskurapen-prozesuan faktore biologikoak, psikikoak eta sozialak sartzen dira jokoan. Subjektu sexuatu izatera heltzeko zikiratze konplexutik pasatu behar du. Haurrak hasieran ez du diferentzia sexualik ezagutzen. Zikiratze konplexuaren baitan diferentzia sexualaz konturatzean eta Ediporen Konplexua garatzean, bere kokapen sexuala hartzen hasten da haurra.

Haurrek eskuratu behar duten kokapen sexuala identifikazioaren arabera izango da. Freudentzat, haurraren kokapen sexuala determinatzen duena Ediporen konplexuan haurra identifikatzen den gurasoaren sexua da: aitarekin identifikatzen bada, bereizgarri maskulinoak bereganatzen ditu; amarekin identifikatzen bada, bereizgarri femeninoak bereganatzen ditu. Lacanentzat, Ediporen konplexuak Aitarekin sinbolikoki identifikatzera darama, baina kokapen sexuala determinatzen duena ez da Ediporen identifikazioa, baizik Faloarekin haurrak duen harremana. Faloo "edukitzearen" edo "ez edukitzearen" arabera gertatzen da kokapen sexuala: gizonen phallus sinbolikoa dute eta emakumeek ez dute. Sexuen arteko aldea eremu sinbolikoko kontua da, ez eremu biologikoa. Kokapen sexual normal bat lortzeko, inajinarioaren eremutik irteten egin behar da eta gizonaren eta emakumearen funtzioak sinbolizatu behar dira (Lacan, 1966). Harra eta emea hizkuntzaren eraikuntzak dira; ez kategoria biologikoak. Freud eta Lacanentzat zikiratze konplexua da hasiera puntua (Tombras, 2019).

Freud zein Lacanentzat, haurrak hasiera batean ez du sexu-desberdintasuna ezagutzen eta, beraz, ezin du kokapen sexualik hartu. Zikiratze konplexuan sexu-desberdintasuna aurkitzen duenean bakarrik has daiteke haurra sexu-posizio bat hartzen. Freud eta Lacan-ek sexu-posizio bat hartzeko prozesu hori oso lotuta ikusten dute EDIPOREN KONPLEXUAREKIN, baina loturaren izaera zehatzean ezberdintzen dira. Freuden ustez, subjektuaren posizio sexuala zehazten duena Ediporen konplexuan subjektua identifikatzen den gurasoaren sexua da (subjektua aitarekin identifikatzen bada, posizio maskulinoa hartzen du; amarekin identifikatzen bada, posizio femeninoa hartuko du). Lacanentzat, ordea, Ediporen konplexuak beti dakar Aitarekiko identifikazio sinbolikoa, eta, hortaz, Ediporen konplexuko identifikazioak ezin du determinatu kokapen sexuala. Lacanen ustez, beraz, ez da identifikazioa, baizik eta subjektuak PHALLUSAREKIN duen harremana, posizio sexuala determinatzen duena (or. 181, Evans, 2006).

Falo imajinarioaren inguru biratzen dira zikiramendu konplexua eta Ediporen konplexua. Diferentzia sexuala, berriz, falo sinbolikoaren inguru biratzen da. Faloak ez dauka bere kidekoa den adierazle femeninorik. Faloa baliokiderik ez duen sinboloa da. Adierazle disimetrikoa da. Bai mutilak, bai neskak, falo sinbolikoaren bidez bereganatzen dute beren sexua.

Zikiratze konplexua eta Ediporen konplexua irudimenezko faloaren inguruan dabilta; aldiz, sexu-desberdintasunaren auzia falo sinbolikoaren inguruan dabil. Faloak ez du pareko adierazle femeninorik; “faloa korrespondentziarik, baliokiderik ez duen sinbolo bat da. Adierazle-disimetria kontua da» (S3, 176). Gizonezkoek zein emakumezkoek beren sexua falo sinbolikoaren bidez eskuratzen dute (Evans, 2006).

Falo imajinarioa uka liteke, baina falo sinbolikoa ez, plano sinbolikoan absentsia eta presentzia positiboak baitira. Falo sinbolikorik ez duen emakumeak ere falo hori eduki baitezake, falo sinbolikoa ez edukitzea hura edukitzeko modu bat delako. Alderantziz, berriz, gizakiak falo sinbolikoa har dezake, aurrez bere zikiratzea onartu badu.

Falo imajinarioa ez bezala, falo sinbolikoa ezin da ukatu, hain zuzen ere, eremu sinbolikoan presentzia bezain entitate positiboa baita absentsia (ikus E, 320). Beraz, esan daiteke, falo sinbolikoa falta zaion emakumeak ere falo hura baduela nolabait, ez edukitzea bera edukitzearen forma bat baita eremu sinbolikoan (S4, 153). Aitzitik, gizakiak falo sinbolikoa bere gain hartzea egoera honetan bakarrik da posible: norbere zikiratzea aurretiaz onartua denean (Evans, 2006).

Lacanentzat falo sinbolikoa agertzen da Bestearengan, adierazlerik ez dagoen lekuan. Falo sinbolikoa adierazirik ez duen adierazlea da.

Lacane 1961ean honakoa adierazten jarraitzen du: falo sinbolikoa Bestearen baitako adierazlearen gabeziaren lekuan agertzen dena dela (S8, 278-81). Ez da adierazle

arrunta, baizik desira beraren presentzia erreala (S8, 290). 1973an esaten du falo sinbolikoa «esanahirik ez duen adierazlea» dela (S20, 75) (or. 145, Evans, 2006).

Subjektuaren identitate sexuala ez da sarritan gauza finkoa izaten. Etengabe eztabaidatzen da. Norbere identitate sexualari buruzko galderak definitzen du histeria. Galdera hori gizon zein emakume histerikoengan ikusten dugu: gizona naiz ala emakumea? Hauraren definizio sexualean anatomiak badu eragina, baina ez da erabakigarria. Histerikoaren kuestioa subjektuaren posizio sexualari dagokio: emakumea ala gizona naiz? Obsesiboak baztertu egiten du sexuaren kuestioa. Ez da ez gizona, ez emakumea. Existentzia eta heriotzari buruzkoa da galdera. Etengabeko zalantza eta prokrastinazioa, heriotzaren zain dagoen artean.

Hala ere, ez dago sexu-desberdintasunaren adierazlerik, subjektuari gizonaren eta emakumearen funtzioa guztiz sinbolizatzea ahalbidetuko liokeenik, eta, hortaz, ezinezkoa da "sexu-posizio erabat normal eta amaitu" bat lortzea. Subjektuaren identitate sexuala, beraz, beti da gai nahiko prekariora, etengabeko auto-galdetzearen iturria. Norberaren sexuari buruzko galdera (Gizona ala emakumea naiz?) da HISTERIA definitzen duen galdera. «Beste sexu» misteriotsua emakumea da beti, gizon zein emakumeentzat, eta, beraz, histerikoaren galdera («Zer da emakumea?») galdera bera da histeriko gizonezkoentzat eta emakumezkoentzat (S3, 178) (or. 182, Evans, 2006).

Zer da obsesibo bat? Laburbilduz, bere papera betetzen duen aktorea da eta antzezpen kopuru jakin bat hilda balego bezala egiten duena. Jolas bizia da, norbere burua «zaurgaitza» dela erakustean datzana (or. 13, 4. mintegia)

Diferentzia sexual biologikoa ugalketa funtzioari lotua doa, baina inkontzientean ez dago errepresentaturik funtzio hori. Psikean eta ordena sinbolikoan ez dago sexu-diferentziaren adierazlerik. Lacanentzat phallusa da adierazle sexual bakarra eta ez dago adierazle horren aldaera femeninorik. Adierazleetan simetriarik ez dago. Ediporen konplexuan ez dago simetriarik gizonen eta emakumeen adierazleen artean. Horrela, emakumearen sexua ez dago sinbolizatua eta phallusaren sinboloak ez du baliokide femeninorik. Haur mutilak beste sexuko gurasoa desiratzen du eta sexu bereko gurasoarekin identifikatzen da. Haur neskatilak sexu bereko gurasoa desiratzen du eta beste sexuko irudia hartzen du identifikazioaren oinarritzat. Irudi maskulinoa eta femeninoa bereizten dituen jarduera/pasibotasun bikotea da; sexuaren bi poloak jarduerak eta pasibotasunak errepresentatzen dituzte. Maskulinoa eta femeninoa ez datoz biologiatik. (Lacan, 1966; Braunstein, 2003; Luepnitz, 2003).

Subjektuaren anatomiak/BIOLOGIAk subjektuak hartuko duen sexu-kokapenari buruzko galderan parte hartzen badu ere, teoria psikoanalitikoko oinarritzko axioma da anatomiak ez duela sexu-kokapena zehazten. Haustura bat dago sexualitatearen ugaltze-funtzioarekin zerikusia duen sexu-desberdintasunaren alderdi biologikoaren (kromosomen mailan, adibidez) eta ugaltze-funtzio hori irudikatzen ez den inkontzientearen artean. Inkontzientean sexualitatearen ugaltze-funtzioa ez dela irudikatzen kontuan hartuta, «psikean ez dago ezer subjektua gizonezko edo emakumezko izaki gisa kokatu ahal izango duenik» (S11, 204).

Adierazlearen funtsezko disimetria hori da gizonen eta emakumeen Ediporen konplexuaren arteko disimetria eragiten duena. Subjektu gizonezkoak beste sexuko gurasoa desiratzen du eta sexu bereko gurasoarekin identifikatzen da; subjektu emakumezkoak sexu bereko gurasoa desiratzen du eta "beste sexuko irudia bere identifikazioaren oinarritzat hartu behar du". (S3, 176) (or. 182, Evans, 2006).

Bada, maskulino-femenino oposiziorako sinbolorik ez badago, sexu-desberdintasuna ulertzeko modu bakarra jarduera-pasibotasun oposizioaren araberkoa da (S11, 192). Polaritate hori da modu bakarra gizon-emakumearen aurkakotasuna psikean irudikatzeko, sexualitatearen (ugalketaren) funtzio biologikoa ez baita irudikatzen (S11, 204). Horregatik, gizon edo emakume gisa zer egin behar den galdetzea drama bat da, guztiz Bestearen eremuan kokatzen dena (S11, 204), hau da, subjektuak maila sinbolikoaren gainean bakarrik gauza dezake bere sexualitatea (S3, 170). (or. 182, Evans, 2006).

Lacanentzat ez dago harreman sexualik edo erlazio sexualaren moduko gauzarik. Harreman sexuala ezinezkoa da, harreman sexuala deitzen duguna eraikuntza sinbolikoen kontua delako. Emakumerik ez dago. Emakumea gizonaren ametsa da (Tombras, 2019; Greenshields, 2017). Kokapen maskulinoa eta femeninoa ez dira erlazionatzen. Bi kokapenen artean hizkuntzaren ordena dago, hirugarren kokapen moduan. Izaki maskulino eta femeninoen arteko harremana adierazleak markatzen du, ez instintuak (Lacan, 1975).

Ez dago harreman zuzen eta bitartekari gabekorik gizonezkoen eta emakumezkoen sexu-posizioen artean, hizkuntzaren Bestea haien artean baitago hirugarren zati gisa (S20, 64). «Izaki gizon eta emakumezkoen artean ez dago senezko harremanik», sexualitate oro adierazleak markatzen duelako (Lacan, 1975b). Honen ondorio bat da ezinezkoa dela perbertsioa definitzea sexu-harremanaren ustezko forma natural bati erreferentzia eginez (Freudek egin zuen bezala). Heterosexualitatea, beraz, ez da naturala, arauzkoa baizik (Ec, 223) (or. 184, Evans, 2006).

Perbertsioak eta heterosexualitatea gizartearen arauekin eta ordena sinbolikoarekin erlazionatzen dira, ez naturarekin. Harreman sexualak gobernatzen dituen adierazle bakarra (phallusa) da, eta sexuen arteko harremanetan simetriarik ez dago. Ordena sinbolikoa asimetrikoa da. Sexu femeninoa eta maskulinoa adierazteko adierazlerik ez dago.

Gizonezkoen eta emakumezkoaren posizioen artean ez dago elkarrekikotasunik edo simetriarik, ordena sinbolikoa funtsean asimetrikoa delako; ez dago emakumeari dagokion adierazlerik, gizonezkoen sexua sinbolizatzeko dagoen modukorik. Sexuen arteko harremanak zuzentzen dituen adierazle bakarra dago, PHALLUSA (E, 289). Ez dago, beraz, sexu-harreman simetrikorako sinbolorik: «harreman sexuala ezin da idatzi» (S20, 35) (or. 184, Evans, 2006).

Ordena sinbolikoa oinarrian asimetrikoa denez, gizonen eta emakumeen arteko harremana ezin daiteke inoiz harmoniatsua izan. Harremanen harmoniaren ilusioari amodioak eusten dio. Harreman sexuala subjektuaren eta *a* objektu partzialaren artean gauzatzen; ez dago beste harremanik. Galdutako kidearen lekua hartzen du *a* objektuak. Fantasia objektu moduan existitzen da emakumea gizonarentzat, ez objektu erreal moduan.

Emakumeak ez ditu harreman sexualak emakume moduan izaten, ama moduan baizik. Sexua ez dago esanahiari eta zentzuari lotua, errealean sustraitua dago (Rabinovich, 2006).

Gizon eta emakumeen arteko harremanak ezin dira inoiz harmoniatsuak izan; «Gizon eta emakumeen arteko lehiarik biluziena betikoa da» (S2, 263). Amodioa ez da sexuen arteko harreman harmoniatsurik eza osatzeko diseinatutako ilusio bat besterik (dela termino mitikoetan aurkeztua, Platonen Sinposium-ean bezala, edo termino psikoanalitikoetan, Balint-en amodio GENITALAREN kontzeptuan bezala) (or. 184, Evans, 2006).

Emakumeak ezin du sexualki emakume gisa funtzionatu; ama gisa bakarrik funtziona dezake; «Emakumea ama gisa bakarrik hasten da sexu harremanean funtzionatzen» (S20, 36) (or. 184, Evans, 2006).

Lacanen arabera, ez dago harreman sexualik. Inkontzientearen erdigunean gabezia edo zulo bat dago, zikratze konplexuari dagokiona. Ez dago egirik eta ez dago gozamenik (Rabinovich, 2006).

Freudek bereizi egiten zituen portaera sexual perbertsoa eta harreman genital heterosexuala. Lacanentzat perbertsioa ez zen portaera mota bat, egitura kliniko bat baizik. Perbertsoak zikratzea ukatzen du: ikusten du amari faloa falta zaiola, baina ez du onartzen errealitate traumatikoa. Ediporen konplexuaren araudia hausten du perbertsioak, baina egitura perbertsoa duenaren portaera soziala izan daiteke egokitua. Faloarekiko harreman gatazkatsua perbertsio guztietan ageri da.

Fetitxismoan amari falta zaion faloa sinbolizatzen du fetitxeak. Amaren falo gabeziarentzat ordezkatzaille sinbolikoa da fetitxea. Exhibizionismoan eta voyeurismoan (eskoptofilian) bulkada eskopikoaren objektutzat hartzen du perbertsoak bere burua (Feher-Gurewich, 2003). Perbertsoarengan bulkadaren egitura ez da garbi agertzen.

Lacane bi modu nagusitan deskribatzen du egitura perbertsoa.

● **PHALLUSA eta EZEZTAPENA** Perbertsioa gainontzeko egitura klinikoetatik bereizten da ezeztapenaren eragiketarik. Perbertsoak zikratzea baztertzen du; amari faloa falta zaiola hautematen du, eta, aldi berean, uko egiten dio hautemate traumatiko horren errealitatea onartzeari. Hori agerikoagoa da FETITXEAN («perbertsioen perbertsioan»; S4, 194), non fetitxea amari falta zaion faloaren ordezeko sinbolikoa den. Hala ere, faloarekiko erlazio problematiko hori ez da fetitxismoaren eksklusiboa, perbertsio guztietara hedatzen baita (S4, 192-3). «Perbertsioen arazo osoa honetan datza: haurra, amarekin duen harremanean... nola identifikatzen den [haren] desiraren [hau da] irudimenezko objektuarekin [hau da, faloarekin]» (E, 197-8). Horregatik, jokatzeko duen hain paper garrantzitsua egitura perbertsoan Ediporen aurretiko irudimenezko triangeluak. Perbertsioetan, faloak estali gisa bakarrik funtziona dezake (ikus fetitxismoan, trabestismoan, homosexualitatean eta exhibizionismoan beloak duen paperari buruzko Lacan-en eztabaida; S4, 159-63).

- **BULKADA** Subjektuak bere burua bulkadarekin harremanean kokatzeko duen modu berezi bat ere bada perbertsioa. Perbertsioan subjektuak bere burua bulkadaren objektu gisa kokatzen du, bestearen gozamenerako bitarteko gisa (S11, 185). Hau FANTASIaren egitura alderantzikatzea da; horregatik perbertsiorako formula lehen eskema moduan agertzen da 'Kant with Sade'-n (Ec, 774), fantasiaren matemaren iraulketa moduan. Perbertsoak «gozatzeko borondatearen» (*volonté de jouissance*) objektu-tresnaren posizioa hartzen du, eta hori ez da haren nahia, Beste handiarena baizik. Perbertsoak ez du bere jardueran bere atseginerako jarraitzen, Beste handiaren gozamenerako baizik. Instrumentalizazio horretan aurkitzen du gozamina, Bestearen gozamenerako lanean; «hemen subjektua Bestearen gozamenaren tresna bihurtzen da» (E, 320). Hortaz, exhibizionismoa eta voyeurismoa biltzen dituen scopophilian (eskoptofilia ere idatzia), perbertsoak bere burua bulkada eskopikoaren objektu gisa kokatzen du. SADISMO/MASOKISMOAN, subjektuak bere burua kokatzen du inbokazio-bulkadaren objektu gisa (S11, 182-5). Perbertsoa da bulkadaren egitura argien agertzen duen pertsona, eta baita plazer printzipiotik haratago joateko saiakera mugaraino daraman pertsona ere, «gozamenaren bidetik ahal duen urrutien doana». (E, 323) (or. 143, Evans, 2006).

Ediporen aurreko triangelu imajinarioak funtzio garrantzitsua betetzen du egitura perbertsoan. Perbertsioan desiraren objektu imajinarioarekin identifikatzen du bere burua pertsonak. Perbertsoak bestearen gozamenerako bitarteko objektu bihurtzen du bere burua. Perbertsoak bere atsegin propioa baino areago Beste Handiaren gozamina bilatzen du. Perbertsoak bere burua Bestearen gozamenerako tresna edo bitarteko moduan hartzen du. Perbertsioen arazoa honako hau da: haurrak bere amarekiko erlazioan bere burua identifikatzen ote duen bere desiraren objektu imajinarioarekin (phallusarekin).

Perbertsioa beste egitura klinikoetatik bereizten duena ukazio eragiketa da. Freudentzat, perbertsioa instintu naturalaren adierazpen zuzena da; instintu natural hori erreprimitu egiten da neurosian. Lacanentzat bulkada ez da modu zuzenean deskargatu behar litzatekeen instintu natural moduan hartu behar. Perbertsoak bulkadarekin duen lotura neurosiak bulkadarekin duena bezain konplexua da. Perbertsioak eta neurosiak lortua dute Ediporen konplexuaren hirugarren estadioa. Freudentzat neurosia perbertsioen negatiboa da; perbertsioa eta neurosia alderantzizko bidetik egituratu dira, nahiz eta berdintsuki egitratzen diren. Neurosia kuestioak bereizten duen bezala, perbertsioa kuestio gabeziak bereizten du. Perbertsoaren ekintza Bestearen gozamina lortzera doa.

Antzeko konplexutasun maila dute perbertsoaren eta neurotikoaren bulkadarekiko erlazioek; biek dute antzeko garapen maila; biak heldu dira Ediporen konplexuaren hirugarren denborara. Perbertsioa instintu natural baten adierazpen zuzena da; baina, adierazpen zuzen hori galarazi egiten da neurosian (Freud, 1905). Perbertsoak asebetetze psikikoa lor dezake bestearen fantasiaren eragile bihurturik. Lacanentzat bulkada ez da zuzenki deskarga daitekeen instintu natural bat.

Freud-ek azpimarratu izan du «neurosiak perbertsioen negatiboa direla»; baieztape hori batzuetan honela interpretatu izan da: perbertsioa NEUROSIA erreprimitutako sen natural baten adierazpen zuzena besterik ez

dela (Freud, 1905d: SE VII, 165). Hala ere, Lacanek interpretazio hori erabat baztertu du (S4, 113, 250). Lehenik eta behin, bulkada ez da modu zuzenean deskarga daitekeen instintu natural gisa ulertu behar; ez du zero mailako asebetetze gradurik. Bigarrenik, aurreko oharretatik argi ikusten denez, perbertsoak bulkadarekin duen erlazioa neurotikoena bezain konplexua eta landua da. Garapen genetikoaren ikuspuntutik, perbertsioa neurosiaren maila berean dago; biak Ediporen konplexuaren hirugarren «denborara» iritsi dira (S4, 251). Perbertsioak, beraz, [neurosi batek] duen «dimentsio aberastasun bera aurkezten du: ugaritasun bera, erritmo berberak, etapa berberak» (S4, 113). Beharrezkoa da, beraz, Freuden oharpena beste era batera interpretatzea: perbertsioa neurosiaren alderantzizko era batean egituratuta dago, baina berdin egituratuta dago (S4, 251) (or. 142, Evans, 2006).

Perbertsoaren drama hau da: neurotikoak porrot egiten duen tokian berak arrakasta lortzen duela. Neurotikoak desira bizirik mantentzen du, hura gauzatzea saihesteko estrategiak asmatuz; perbertituak neurotikoaren desira bizitzea lortzen du, bere burua sakrifikatzearen truke. Perbertsoek neurotikoek baino argiago ikusten dute bizitza sozialaren arkitektura, baina espazio gutxiago dute beren burua engainatzeko, eta beste oinpekorik gabe ametsak eta itxaropenak sustatzeko gaitasuna larriki ahultzen da (or. 192, Feher-Gurewich, 2006).

Lacanek, hasieran, ispilu aroko zatikamendu mehatxuarekin lotuta ikusten zuen barne-herstura. Ispilu aroaren ostean gorputzaren zatikatzearen fantasiak zakilaren inguru pilatzen dira, eta hor zikiratzeak barne-herstura sortzen du. Freudek esaten zuen antsietatearen zergatietako bat amarengandik bereiztea zela; Lacanek dio amarengandik ez bereiztea dela antsietatea sortzen duena.

Lacanek, gerra aurreko bere idazkietan, lehenik barne-herstura erlazionatzen du subjektuak ispiluaren fasean jasaten duen zatiketa-mehatxuarekin (ikus GORPUTZ ZATIKATUA). Lacanen ustez, ispilu etapa igaro eta askoz geroago elkartzen dira gorputz zatikatuaren fantasia horiek zakilaren inguruan, zikiratze barne-herstura sortuz (Lacan, 1938: 44). Lacanek antsietatea lotzen du, baita ere, ama irensleak irentsia izateko haurrak duen beldurrarekin. Gai honek (bere tonu kleinian berezia duen honek) Lacanen antsietatearen azalpenaren alderdi garrantzitsu bat izaten jarraitzen du gero, eta Lacanen eta Freuden arteko itxurazko aldea markatzen du: Freudek dio antsietatearen kausetako bat amarengandik banantzea dela; aldiz, Lacanek dio, hain zuzen ere, amarengandik ez banantzeak eragiten duela antsietatea (or. 10-11, Evans, 2006).

Haurra beldur da ama irensleak bereganatuko ote duen, eta horrek barne-herstura sortzen dio. 1953az geroztiko Lacanek errealaren kontzeptuarekin lotzen zuen barne-herstura; sinbolizaziotik kanpora gelditzen den osagai traumatikoarekin, bitartekotzarik ez duenarekin, lotu zuen. Antsietatea errealarekin eta ordena imajinarioarekin lotzen du eta erruduntasuna sinbolikoarekin erlazionatzen du. Bitariko erlazioa desagertzeaz dagoenean

barne-herstura sortzen da. Subjektuak fobiak eta fetitxismoa garatzen ditu, antsietatea ekiditeko ahaleaginean. Fobietan beldurrak ordezkatzeko du barne-herstura eta beldurra objektu jakin batean fokatzeko du fobia duenak. Barne-herstura ez da fokatzeko objektu partikular batean. Antsietatea nabaria da egitura neurotikotik, baina fobietan barne-herstura beldurrak ordezkatzeko du.

Freudek aztertutako Hans Txikiak beldur izugarria zuten zaldiei. Haietako batekin ez topo egitearren, etxetik ez zuten irten nahi izaten. Lacanentzat, Hans-ek zaldiekiko fobia garatu zuten, haren aita erreala ez zuelako zikiramenduaren egile moduan funtzionatzen. Aita erreala esku-hartu izan balu, Hans barne-hersturatik askatuko zukeen, hura sinbolikoki zikiratuz. Baina, aitaren esku-hartzerik ezean, Hansek ordezkari bat aurkitzen du fobian. Fobian objektu imaginario bat erabiltzen da Hansen mundu sinbolikoa antolatzeke eta ordena imaginariotik sinbolikora pasatzeko. Freudek fobiaren eta barne-hersturaren arteko diferentzia azpimarratzen du. Fobiak hauraren barne-herstura objektu bereizi batean fokatzeko du. Lacanentzat, objektu fobikoak ez du objektu bakarra erreprezentatzen. Pertsona edo objektu desberdinak ordezkatzeko ditu txandaka.

Lacane, 1956–7ko mintegian, Hans Txikiaren kasuaren irakurketa zehatza eskaintzen du, eta fobiari buruzko ikuspegi propioa proposatzen du. Freud-i jarraiki, fobiaren eta barne-hersturaren arteko aldea azpimarratzen du: antsietatea agertzen da lehenik, eta fobia eraketa defentsibo bat da, antsietatea beldur bilakatzen duena, hura objektu zehatz batean zentratuz (S4, 207, 400). Hala ere, Freudek egiten duen bezala, objektu fobikoa aitaren ordezkari gisa identifikatzea baino gehiago, Lacane dio objektu fobikoaren oinarritzeko ezaugarria ez dela pertsona bat sinpleki ordezkatzeko, baizik eta aldiko pertsona desberdin bat ordezkatzeko (S4, 283-88). Fobiaren une ezberdinetan zaldi beldurgarria deskribatzeko Hansek dituen modu guztiz anitzak adierazten ditu Lacane; adibidez, une batean Hans beldur da zaldi batek hozka egingo ote dion, eta beste momentu batean zaldi bat eroriko ote den beldur da (S4, 305-6). Momentu ezberdin horietako bakoitzean, Lacane dio, zaldiak pertsona ezberdin bat irudikatzen duela Hansen bizitzan (S4, 307). Hortaz, zaldiak ez du esanahi bakar baten baliokide gisa funtzionatzen, baizik eta zentzu unibokorik ez duen eta aldiko adierazi ezberdinetara lekualdatzen den adierazle gisa (S4, 288). Lacane dio Hansek zaldi-fobia garatzen duela, bere benetako aitak ez duelako esku hartzen zikiratzearen eragile gisa, horixe baita berak EDIPOREN KONPLEXUAN duen eginkizuna (S4, 212) (or. 148, Evans, 2006).

Lacane, 1956–7ko mintegian, Hans Txikiaren kasuaren irakurketa xehetua eskaintzen du, eta fobiaren ikuspegi propioa proposatzen du. Freud-i jarraiki, fobiaren eta antsietatearen arteko aldea azpimarratzen du: antsietatea agertzen da lehenik, eta fobia eraketa defentsibo bat da, zeinak antsietatea beldur bihurtzen duen, objektu zehatz batean fokoa jarriz (S4, 207, 400) (or. 148, Evans, 2006).

Objektu edo egoera partikular bati zaion beldur izugarria adierazten du fobiak. Objektu edo egoera fobikoarekin topo egitean barne-herstura sentitzen dute fobia dutenek

eta hura ekiditeko estrategiak garatzen dituzte. Estrategia horiek bizimodu hertsia eramatera behartzen dute pertsona. Hans txikiaren kasua hartzen badugu, bost urte baino lehen zaldiekiko beldur handia garatu zuen Hansek eta ez zuen etxetik kanpora irten nahi izaten, kalean zaldiren batekin ez topo egitearren. Freuden ustez, amarekiko erlazioek sortutako kitzikadura sexualak eragiten zuen barne herstura; zaldiek Hansen aita ordezkatzeko zuten, eta haren zigorraren beldur zen Hans (Freud, 1909).

Lacane fobiaren eta antsietatearen arteko aldea azpimarratzen du. Barne-herstura hasieran agertzen da; gero, barne-herstura objektu konkretu batean fokatzen da eta beldur bihurtzen da; objektu batean fokatuta eratu den fobia eraikuntza defentsibo bat da. Zaldia aita errepresentatzen du, baina une ezberdinetan pertsona ezberdinak errepresentatzen ditu. Beraz, zaldia ez da esanahi unibokoa duen adierazlea. Objektu fobikoak pertsona ezberdinak adierazten ditu, txandaka. Hansentzat zaldian une ezberdinetan aita, ama, arreba, lagunak, bere burua edo beste zerbait errepresenta lezake.

Lacanentzat, Hansek motibo batengatik garatzen du fobia: aita erreala ez duelako betetzen zikiratze funtzioa. Ediporen aurreko triangeluak (ama-haurra-falo imajinarioa) utzi egiten dio gozamen iturri izateari eta barne-herstura sortzen hasten da. Aita errealaren esku-hartzeak barne-herstura horretatik libratuko zuen haurra, hura sinbolikoki zikiratuz, baina aitaren esku-hartzerik gertatzen ez denean, ordezkari fobikoak hartzen du haren lekua. Fobian haurrak bere mundu sinbolikoa berrantolatzen du, objektu imajinarioa baliatuz. Hansek zaldia baliatzen du. Horrela pasatzen da ordena imajinariotik eremu sinbolikora. Objektu fobikoa elementu imajinarioa da eta adierazle moduan subjektuaren munduko elementu posible guztiak errepresenta ditzake.

Lacanentzat, Hansen fobiak Lévi-Straussen mitoen moduan jokatzeko du. Mitoetan garrantzia duena ez da elementu isolatuen esanahi naturala edo arketipala, baizik elementu horien konbinatzeko modua. Konbinatzeko modu horiek edo elementuen kokalekuen arteko harremanak ez dira aldatzen, banakako elementuak lekuz aldatzen badira ere. Freuden eta Lacanen mitoen arteko ezberdintasuna: Freudek bere mitoak kontatuz kontraesanez betetako erreala, ezinezkoa dena, azaltzen du; Lacane, berriz, kontakizun mitikoen arteko erlazioaren bidez azaltzen du erreala hori (Lévi-Strauss, 1955; Leader, 2006).

Mitoaren lehen formulazioetako batean, Lévi-Strauss-ek honela definitu zuen: "Bi harreman (kontraesanezko) elkarrekin lotzeko ezintasuna gainditzen da (edo, hobeto esanda, ordezkatzeko) baieztapen positibo honen bidez: kontraesanezko harremanak berdina dira, biak antzeko moduan elkarrekiko kontraesankorrak diren heinean. Mito batek A eta Bren arteko hasierako kontraesana hartzen du eta C eta Dren arteko areagoko beste kontraesana bat antzeko moduan kontraesankorra dela erakusten du. Lacane mitoen definizio hori lan-eredu gisa hartu zuen, bere etxean Freud kasu-historiei buruz egindako lehen mintegian, eta gero 1950eko hamarkadaren amaieran. Mitoa, Lacan-ek termino oso Lévi-Strausstarretan esan zuen moduan, «ezinezko egoera bati aurre egiteko modu bat zen, konponbidearen ezintasunaren forma guztien artikulazio jarraiaren bidez» (or. 39-40, Leader, 2006)

Lacanen iritzian, barne-herstura egoera honetan agertzen da: subjektua Ediporen aurreko triangelu imajinarioaren eta Ediporen garaiko lautariko egituraren artean

kulunkatzen denean. Haurrak neur badezake amak hura maitatzeko duen motiboaren (falo imajinarioa) eta hark benetan eskaintzeko duenaren (atal erreala) arteko aldea, barne-herstura sortuko zaio. Hans-ek ez zuen antsietaterik izango aita errealak hura zikiratu izan balu, baina hori ez zen gertatu; aitik ez zuen esku-hartu Hans bere amarengandik bereizteko, eta Hans-ek fobia bat garatu zuen esku-hartze hori ordezkatzeko.

Benetako aitaren esku-hartzeak antsietate horretatik salbatuko zukeen Hans, hura sinbolikoki zikiratuz, baina esku-hartze hura gertatu ezean, fobian ordezeko bat aurkitzera behartuta dago Hans. Hansen mundu sinbolikoa berrantolatzeke eta horrela irudimenetik ordena sinbolikora igarotzen hari laguntzeko irudimenezko objektu bat (zaldia) erabiliz funtzionatzen du fobiak (S4, 230, 245–6, 284) (or. 148, Evans, 2006).

Lacanentzat, Hans-en barne-herstura ez zuen sortu amarengandik bereizteak, harengandik ez bereizteak baizik. Ondorioz, antsietatea sortzen duena ez da zikiratzea; zikiratzeak babestu egiten du antsietatetik. Lacanek denok bizi dugun barne-herstura mota deskribatzen du; bestea barne-hersturen lehen iturburua da. Amaren eskaerek inbaditu izanaren barne-herstura: Bestearen Eskaera.

Amaren bularrera itzultzearen fantasia, zorionaren definizioa dena, amesgaiztoa da Lacanentzat. Objektuaren galera ez da barne-hersturaren kausa nagusia; bigarren mailakoa da. Lacanek dioenez, ez da amaren absentsia barne-herstura sortarazten duena, baizik amaren bularraren edo objektuaren presentzia. Freuden planteamenduari bira ematen dio: haurrak erreala kanporatzen badu, ez da hura desagerrarazteko, baizik barne-hersturaren iturburua desagerrarazteko (Diatkine, 2007).

Hans Txikiaren kasua aztertzean (Freud, 1909b), Lacanek dio subjektua Ediporen aurreko irudimenezko triangeluaren eta fase edipiar lautarraren artean kokatuta dagoen unean sortzen dela antsietatea. Bidegurutze horretan Hansen zakil erreala nabaritzen da haurren masturbazioan; antsietatea sortzen da, hark orain neurtu dezakeelako amaren maitasunaren zergatiaren (irudimenezko falo gisa duen posizioa) eta emateko errealki duenaren (bere organo erreal hutsala) arteko aldea (S4, 243).

Antsietatea duen subjektu bat bi momenturen arteko puntu batean dago: jada non dagoen ez dakien momentu baten eta bere burua berriro aurkitu ezingo duen etorkizun baten artean (S4, 226). Hans antsietate horretatik salbatuko zukeen benetako aitaren esku-hartze zikiratzaileak, baina ez da hori gertatzen; aitik ez du esku hartzen Hans amarengandik bereizteko, eta horrela Hansek fobia bat garatzen du esku-hartze horren ordezeko gisa. Berriro ere, Lacanek Hans Txikiari buruz egindako kontakizunetik ateratzen dena da ez dela amarengandik bereiztea antsietatea sortzen duena, harengandik ez bereiztea baizik (S4, 319). Ondorioz, zikiratzea, antsietate-iturri nagusia izatetik urrun, subjektua antsietatetik salbatzen duena da (or. 11, Evans, 2006).

Lacanek dio barne-herstura ez dela objektu gabea; objektu mota ezberdina du, beste objektuen modura sinbolizatu ezin daitekeena eta desiraren zergati dena (*a* objektu txikia). *a* txikiaren ordezkari zerbait agertzen denean sortzen da barne-herstura. Subjektuak bestearen desirari aurre egin behar dionean eta haren desirarentzat zer objektu mota den ez dakienean agertzen da barne-herstura. Barne-hersturak desirari eusten dio. Desirak barne-hersturaren

arazoa konpontzen du, barne-herstura baino errazago eramaten delako. Desira gabeziatik sortzen da, eta antsietatea agertzen da gabezia hori agertzen ez denean; gabeziaren gabeziak dakar barne-herstura; antsietatea eta gabezia elkartzen ditu Lacanek. Antsietatea sortzen duena ez da bularraren absentsia, haren presentzia inbaditzailea baizik.

Mintegi honetan lotzen du, baita ere, Lacanek barne-herstura gabeziaren kontzeptuarekin. Desira oro gabeziatik sortzen da, eta barne-herstura sortzen da gabezia hori bera falta denean; antsietatea gabezia baten gabezia da. Barne-herstura ez da bularraren gabezia, haren presentzia inguratzailea baizik; haren gabeziaren aukera da, hain zuzen ere, barne-hersturatik salbatzen gaituena. Acting out eta ekintzara pasatzea antsietatearen aurkako azken defentsak dira (or. 12, Evans, 2006).

Ametsetan eta neurosietan gertaerak errepikatzen zirela ikusi zuen Freudek eta *Au delà du principe de plaisir* (1920) idatzian errepikapenaren printzipioa aurkeztu zuen. Printzipio horren arabera, pazienteak errepikatu egiten ditu Atseginaren Printzipioari ihes egiten dioten esperientzia mingarriak eta sintoma neurotikoak. Errepikapenaren konpulsioa Heriotzaren Bulkadarekin lotzen du Freud-ek. Errepikatzeko konpulsioaren jatorria ahanzten duenak gertaera errepikatu egiten du. Tratamendu psikoanalitikoak errepikapenen zikloa amai dezake pazienteari gertaera oroitarazten badio. 1950eko hamarkadan Lacanek adierazlearen insistentzia, letraren insistentzia edo kate adierazlearen insistentzia terminoa erabili zuen errepikapen konpulsioa adierazteko. 1960ko hamarkadan gozamenaren itzulerarekin lotu zuen Lacanek errepikapena. Gehiegizko gozamena behin eta berriro itzultzen da, atseginaren printzipioaren mugak hausten ditu eta heriotza bilatzen du. Baina, Lacanentzat, errepikapenaren forma espezifiko bat bakarrik da transferentzia (Lacan, 1966).

Lacanek errepikapen automatismoaren terminoa inoiz erabat alde batera uzten ez badu ere, 1950eko hamarkadan gero eta gehiago erabiltzen du "insistentzia" (Fr. instantzia) terminoa errepikapen-beharrari erreferentzia egiteko. Horrela, adierazlearen insistentzia edo signifkazio katearen insistentzia edo letraren insistentzia (letraren instantzia) bezala definitzen da gaur egun errepikapena; «errepikapena, funtsean, hizketaren insistentzia da» (S3, 242). Zenbait adierazle subjektuaren bizitzan itzultzen tematzen dira, horiek blokeatzen dituzten erresistentziak gorabehera. L. ESKEMAN, A-S ardatzak adierazten du errepikapena/insistentzia, eta a-a' ardatzak berriz errepikatzearen aurka dagoen erresistentzia (edo 'inertzia') adierazten du. 1960ko hamarkadan, errepikapena gozamenaren itzulera gisa birdefinitzen da; gehiegizko gozamen bat, behin eta berriro itzultzen dena PLAZERAREN PRINTZIPIOAREN mugak gainditzera eta heriotza bilatzera (S17, 51). Errepikapen-kompulsioa tratamendu analitikoko TRASFERENTZIAN agertzen da; tratamendu horretan analizatzailearekiko harremanean jarrera batzuk errepikatzen ditu analizatuak; jarrera horiek aurrez bere gurasoekin eta besteekin izandako harremanak karakterizatzen dituzte (or. 167, Evans, 2006).

Lacanentzat sinboloak gauzaren heriotzari egiten dio erreferentzia. Giza historiaren lehen sinboloa hilobia da. Gizakiak sinboloaren bidez irudikatzen du heriotza. Adierazleak hilezkortu egiten du gizakia. Baina, ordena sinbolikoan Aitaren adierazleari lotua dago heriotza, aita sinbolikoa aita hila delako. Heriotzak eginkizun garrantzitsua du Nagusiaren eta Mendekoaren arteko dialektikan. Heriotza desirarekin estuki loturik dago, heriotzaren desiraren bidez baieztatzen baitu Nagusiak bere burua besteen aurrean. Lacanentzat,

heriotzak ezarritako mugari esker hartzen du esanahia giza existentziak; gizakia heriotzarako izakia baita (Heidegger-en eragina).

Lacanek ideia hau bereganatzen du: heriotza gizakiaren askatasunaren eratzaille eta «Maisu absolutu» dela (Kojève, 1947:21). Heriotzak berebiziko garrantzia du NAGUSIAREN eta esklaboaren dialektika hegeldarrean; dialektika horretan heriotza desirarekin estuki lotuta dago eta nagusiak heriotza-desiraren bidez baino ez du bere burua berresten besteen aurrean (E, 105). Lacan-ek ideia hau hartzen du Heideggerengandik: gizakiaren existentziak heriotzak ezarritako muga mugatuaren indarrez soilik hartzen du esanahia; horrela, giza subjektua «heriotzarako-izate» bat da; hori bat dator Lacanen iritziarekin, analizatua prozesu analitikoaren bidez, bere hilkortasuna asumitzera heldu behar lukeela dioen iritziarekin (E, 104-5) (or. 32-33, Evans, 2006).

Analizatuak bere hilkortasuna onartu behar du, prozesu analitikoan. Hilkortasuna onartzearen prozesu horretan analizatzaileak hildakoarena egiten du, bere burua hilotz bihurtzen du eta heriotza presente egiten du. Neurosi obsesiboaren egitura galdera honek agertzen du: bizirik ala hilda nago? (Lacan, 1966; Shepherdson, 2006).

Neurosi obsesiboa eratzen duen galdera norberaren existentziaren kontingentziari buruzkoa da; HERIOTZARI buruzko galdera, «Izan ala ez izan?», «Hilda ala bizirik nago?» edo «Zergatik existitzen naiz?» (S3, 179–80). Obsesiboaren erantzuna bere existentzia (obsesiboak sentitzen duen erruduntasunaren zama bereziaren lekukotza ere ematen duena) justifikatzeko sutsuki lan egitea da; obsesiboak erritu konpulsibo batzuk egiten ditu, uste baitu horrek bestearen gabeziari, bestearen zikiratzeari ihes egiteko aukera emango diola, gabezia eta zikiratze horiek fantasian sarritan hondamendi izugarri bat irudikatzen dutelarik (or. 129, Evans, 2006).

Lacanentzat ez dago osasun mental normal deiturik. Identifikatzen zituen hiru egituren (neurosia, psikosia eta perbertsioa) arteko egitura normala neurosia da. Senda zitekeen nahaste baten moduan ikusten zuen neurosia Freudek. Lacanek, berriz, alda ezin daitekeen egituratzat hartzen zuen; harentzat, osasun mentalaren ideia osotasunaren ilusiozko ideia da, inoiz lortu ezin dena, subjektua sakonean zatitua dagoelako. Lacanentzat, beraz, psikoanalisiaren egitekoa ez da neurosia ezabatzea, baizik neurosiaren aurrean subjektuak duen kokalekua aldatzea.

Egitura aldetik, beraz, ez dago subjektu normalaren eta neurotikoaren arteko bereizketarik. Horrela, nosologia lacaniarrak hiru egitura kliniko identifikatzen ditu: neurosia, psikosia eta perbertsioa, eta horietan ez dago normaltzat jo litekeen «osasun mentalaren» posiziorik (S8, 374-5; baina ikus E, 163). Egitura normala, populazioaren gehiengo estatistikokoan aurkitzen denaren zentzuan, neurosia da, eta «osasuna mentala» osotasunaren ilusiozko ideal bat da, inoiz lortu ezin dena, subjektua funtsean zatituta dagoelako. Beraz, Freudek senda daitekeen gaixotasun gisa ikusten du neurosia; aldiz, Lacanek, aldatu ezin den egitura gisa ikusten du. Tratamendu psikoanalitikoaren helburua, beraz, ez da

neurosia desagerraraztea, baizik eta neurosiaren aurrean subjektuaren jarrera aldatzea (or. 126, Evans, 2006).

Lacanentzat, neurosiaren egitura galdera batek azaltzen du: Ba naiz ala ez naiz? Hilda nago ala bizirik? Zergatik existitzen naiz? Obsesiboak galderari ematen dion erantzuna sutsuki lan egitea da, bere existentzia justifikatzeko. Arratoi gizonaren kasuan pertsona obsesibo konpultsiboak aitak ezarritako zigorrari ihes egiteko erritualak egiten ditu. Neurotiko obsesiboak bi sexuak baztertzen ditu, ez da sexu batekoa ez bestekoa, bere buruari arra zein emea dela esaten dio. Bere burua hilezko jotzen du, jadanik hila delako. Erruduntasun zentzuarekin eta uzki erotismoarekin lotura estua du, gorozkia opari eta oparia gorozki bihurtzen baitu. Ekintza erritual konpultsiboek baimenduko diote Bestearen gabeziari edo bestearen zikiratzeari ihes egitea. Neurotiko obsesiboaren egiturak mozorrotu eta ukatu egin nahi du sakoneko erasokortasuna (Lacan, 1966). Histerikoaren galdera honako hau da: gizona ala emakumea naiz? Identitate sexualari eta existentziari buruzko galdera horiek ez dute konponbiderik adierazlearen mailan.

Freudentzat, Niaren zatiketa fetitxismoan eta psikosian nabarmentzen da, baina Lacanentzat zatiketa subjektibotasunaren bereizgarri orokorra da, eta ez fetitxismoaren edo psikosiaren kontua bakarrik. Zatitua izatea eta bere buruarengandik besterendua izatea da subjektuaren patua. Ezinezkoa da zatikadura gainditu eta sendatzea edo sintesia lortzea. Subjektua barnetik zatikatua da eta hori barraren bidez adierazten du Lacanek. Ezinezkoa da norbere buruaren kontzientzia osoa edo ideala lortzea; beti dugu geure baitan ezagutzen ez dugun zerbait. Adierazleen ordena sinbolikoak zatikadurara eramaten du subjektua. Aitaren metafora dago subjektuaren oinarrian eta metafora hori jatorrizko errepresioan eta adierazlearen efektuan oinarritua dago.

Inkontzientearen sorrera adierazleen ordenari eta jatorrizko errepresioari zor zaio; horregatik dago hizkuntza baten moduan egituratua. Beraz, jatorrizko errepresioari esker garatzen da aitaren metafora, baina forklusioak porrotera eramanez jatorrizko errepresio hori (Feher-Gurewich, 2006).

1950eko hamarkadan Lacanek zioen forklusioa zela psikosiaren mekanismo espezifiko. Zikiratzea onartu, gaitzetsi edo baztertu lezake haurrak. Baztertzeari forklusio deritza. Forklusioan ordena sinbolikotik kanpora jaurtikitzen da elementu bat, inoiz existitu izan ez balitz bezala. Errefulamendua gertatzen denean, esperientziaren sarea urratu egiten da; aldiz, forklusioa gertatzen denean, arrakala bat edo zulo bat egiten da esperientziaren sarean. Forklusioan subjektuak baztertu egiten ditu errepresentazio eraman ezina eta haren efektua eta errepresentazio hori izan ez balu bezala jokatzeko du.

Lacanentzat, Aitaren Izena forkluitzen denean, forkluitutakoa ez da inkontzientean hobiratzen, baizik inkontzientetik jaurtiki egiten da; zulo bat geratzen da ordena sinbolikoan eta horrek egitura psikotikoa sortzen du. Ukazioan aurrez existitzen zen zerbait ukatzen da; forklusioan inoiz existitu ez balitz lez tratatzen da forkluitu den osagaia. Forklusioan zikiramendua baztertzen da eta zikiramendurik ez balego bezala gertatzen dira gauzak; zikiratzea forkluitu egiten da, haren existentziari buruzko epairik gabe. Aitaren Izena forkluitzen denean, subjektuak ezin du asimilatu eta errealean berragertzen da.

Lacanentzat, metafora falikoa forkluitzen denean eta bereganatu ezin duen adierazlearekin tupust egiten duenean, psikosian sartzen da subjektua (Lacan, 1966). Schreber-en eta *Otsoen gizona*-ren kasuan phallusaren ordezkari den aita forkluitzen da. Otsoen gizonaren psikosia azaltzeko hark bost urte zituenean izandako eldarnio baten berri

eman zuen Freudek: aitzoaz hatz txikia moztu zuen eta azalak bakarrik eusten zion hatz txikiari. Ezin zion bere hatzari begiratu, beldurra sentitzen zuelako. Inkontzienteko adierazle forkluitua eldarnio moduan agertzen da hor, psikosietan gertatzen den moduan.

Verleugnung edo ukazioan hautemate traumatiko baten errealitatea ezagutzea errefusatzeko du subjektuak. Hurrek ikusten dute neskak zakilik ez duela, baina gertaera hori ukatu egiten dute; edozein modutara ere zakila ikusten dute. Freudek psikosian eta fetitxismoan aurkitu zuen ukazioa. Lacanek perbertsioaren egiturarekin lotzen du. Lacanentzat ukazioa da perbertsioaren oinarritzko eragiketa; errepresioa eta forklusioa, berriz, neurosiaren eta psikosiaren eragiketak dira.

Lacanentzat, Bestearen zikiratzeari erantzuteko modu bat da ukazioa. Neurotikoak zikiratzearen gauzatzea erreprimitzen du eta perbertsoak hura ukatzen du. Lacanentzat, perbertituak zikiratzearen aurrean ezjakinarena egiten du; ukazioak aldi berean ezagutu eta ukatu egiten du zikiratzea; ukatzen duen zikiratzea ezagutu egiten du.

Freuden (gaitzespena) terminoaren erabilera nahiko kontsistentea da, baina ez du terminoa zorrozki bereizten harekin erlazionaturik dauden eragiketetatik. Lacanek, ordea, terminoa teoria zorrotz baten baitan lantzen du, eta berariaz erlazionatu eta kontrastatzen du ERREPRESIO eta FORKLUSIO eragiketekin. Freud-ek gaitzespena PERBERTSIOAREN forma batekin bakarrik lotu zuen; aldiz, Lacanek perbertsio-modu guztien oinarritzko eragiketa bihurtzen du. Eta Freud-ek gaitzespena psikosiarekin ere lotzen zuen; baina Lacanek gaitzespena perbertsioaren egitura mugatzen du soilik. Gaitzespena perbertsioaren oinarritzko eragiketa da, errepresioa eta forklusioa neurosiaren eta psikosiaren oinarritzko eragiketak diren bezalaxe. Beraz, Lacanen esanetan, gaitzespena Bestearen zikiratzeari erantzuteko modu bat da; neurotikoak zikiratzearen gauzatzea erreprimitzen duen bitartean, perbertsoak hura gaitzesten du (or. 44, Evans, 2006).

Freudek hasieran pentsatzen zuen psikosian errealitatearen zentzua galtzen zela eta errealitatearekin kontaktua galtzean, errealitatea eldarnioz eraiki beharra zegoela. Baina, 1938an aldatu egin zuen psikosiari buruko iritzia. Teoria berriak zioen psikotikoaren niaren zati bat bakarrik bereizten dela errealitatetik eta niaren zatiketa, psikosian ez ezik, neurosian ere gertatzen dela. Lacanek aurre egin zion psikosian errealitatea ekiditen zela zioen teoriari eta forklusioaren kontzeptua asmatu zuen. Aitaren izena forkluitzen denean, jatorritzko errepresiorik ez da gertatzen: haurra ez da Sinbolikoaren eremuan sartzen eta ez da subjektu bihurtzen; aitaren metaforak porrot egiten du. Aldiz, haurra arlo sinbolikoan edo hizkuntzaren eremuan sartzen denean, haren psikea zatiturik gelditzen da.

Freudentzat fobia izan zitekeen sintoma, entitate edo egitura kliniko bat. Alde batetik zioen fobiak ez direla prozesu patologiko independenteak; sintoma fobikoak aurki litezkeela subjektu neurotikoetan eta psikotikoetan (Freud, 1909). Bestetik, sintoma nagusitzat fobia zuen neurosi mota bat bereizi zuen Freudek, eta antsietate histeria moduan diagnostikatu zuen, konbertsio histeriatik desberdintzeko.

Lacanek batzuetan bi egitura neurotiko (histeria eta neurosi obsesiboa) bereizten zituen eta fobia sintoma moduan deskribatzen zuen, egitura moduan baino areago. Fobia ez zen histeria eta neurosi obsesiboaren pareko egitura kliniko bat, baizik haietara eraman dezakeen ate bat, egitura perbertsoarekin ere lotura batzuk dituen. Baina, beste batzuetan,

histeriaz eta neurosi obsesionalaz gain egitura fobikoaz hitz egiten zuen. 1961 urtean dioenez, fobia da neurosi mota erradikalena. 1968-69ko mintegian ez zuen fobia entitate kliniko moduan ikusten, baizik neurosi mota handiekin erlazionatutako zerbaiten moduan: histeria, obsesio eta perbertsioarekin harremanean.

Freudek berak Hans Txikiaren kasuaren azterketan adierazi zuenez, fobieiei ez zitzaion aurretik nosografia psikiatrikoetan kokagune zehatzik ezarri. Fobiaren sailkapenaren inguruko ziurgabetasun hori konpontzen saiatu zen, baina proposatu zuen irtenbideak nolabaiteko anbiguitasun bat agertzen du. Alde batetik, subjektu neurotiko zein psikotikoen artean sintoma fobikoak aurki daitezkeenez, Freudek argudiatu zuen fobiak ezin zirela «prozesu patologiko independente»-tzat hartu (Freud, 1909b: SE X, 115). Bestalde, lan berean Freudek bere sintoma nagusia fobia duen neurosi forma jakin bat identifikatu zuen. Freudek diagnostiko-kategoria berri honi "antsietatearen histeria" deitu zion "bihurketa-histeria"tik bereizteko (aurretik Freud-ek besterik gabe "histeria" deitzen zuena). Freuden oharrak anbiguitateak dira, eta horrek esan nahi du fobia izan daitekeela sintoma bat eta azpiko entitate kliniko bat. Anbiguitasun bera errepikatzen da Lacanen lanetan, zeintzuetan galdera honela planteatzen den: fobia sintoma bat da edo EGITURA bat da? Normalean, Lacanek bi egitura neurotiko baino ez ditu bereizten (histeria eta neurosi obsesiboa), eta fobia sintoma gisa deskribatzen du, egitura moduan baino areago (S4, 285). Dena den, Lacanen lanetan ere badira, histeriaz eta neurosi obsesioaz gain, fobia hirugarren neurosi forma gisa zerrendatzen duten zatia, eta horrek adierazten du egitura fobiko bat badagoela (adibidez, E, 321); 1961ean, esaterako, fobia «neurosi forma erradikalena» gisara deskribatzen du (S8, 425) (or. 149, Evans, 2006).

Obsesioak, portaera bulkadatsuak eta erritual errepikatuak ikusten dira neurosi obsesiboa dutenengan, baina Lacanentzat garrantzitsuagoa da egitura obsesibo konpulsiboa izatea. Heriotzari buruzko galdera bati erantzuten dio egitura obsesibo-kompulsiboa duenak. Bere existentzia justifikatu behar du etengabeki. Erruduntasun handia sentitzen du. Iruditzen zaio ezingo diola ihes egin Bestearengan dagoen gabeziari, Bestearen zikiratzeari. Freudek parekidetasunak ikusi zituen egitura obsesibo-kompulsiboaren eta erlijioaren egituraren artean.

Psikopatologia aztertzean, Lacanek ikuspegi estrukturala hartzen du, eta ez da sintomatologian zentratzen. Inkontzientea deskribatzean adierazleen kateko arrakalei eta etenei begiratzen die. Sintomak adierazleen sarearen emaitzak dira; ez dira gaixotasunaren edo nahastearen alderdi bereizgarrienak. Sare egituratua da egitura psikikoa islatzen duena. Adierazleen sarea puntu batean ainguratzen da eta puntu horrek ematen dio egonkortasuna sare osoari. Aitaren izena da adierazleen sareari egonkortasuna ematen dion giltza. Giltza hori finkatu gabe badago, egonkortasunik ez dago. Diagnostikoa egitean bereizgarri estrukturalak bereizi behar dira, behagarri klinikoak baino areago (Tombras, 2019).

Ainguratze puntuei esker adierazlea eta adierazia elkarrekin lotzen dira. Ainguratze puntu horietako kopuru minimo bat behar da pertsona bat normaltzat hartua izan dadin. Ainguratze punturik ezean, psikosia sortzen da. Komunikazioa puntuazioaren efektu erretroaktiboa da, esaldia amaitua denean finkatzen delako esaldiko lehen hitzen esanahia.

Adierazpen katea puntuatzen denean ekoizten da esanahia. Puntuazioaren aurretik diskurtso kate bat eraikitzen da eta entzuleak puntuatzen du diskurtsoa. Esaldiari esanahia erretroaktiboki, atzeraelikatuz ematen zaio. Adierazpen katearen puntuazioa da esanahi finkoaren ilusioa sortzen duena. Puntuazioa txertatzean, esanahia finkatzen da. Hori ezinbestekoa da komunikazioaren egiturari. Igorleak hartzailearengandik jasotzen du bere mezu propioa. Puntuazioa nola gauzatzen den bi egoerek ilustratu diezagukete. Hizkuntza oraindik eskuratu ez duen haurrak bere premiak artikulatu ditzake eskaera primitiboa batean: garrasi eginez. Amak garrasi hori interpretatzen du eta esanahia ematen dio erretroaktiboki. Analizatzaileak puntuak dezake analizatuaren diskurtsoa, haren diskurtsoaren zati bat errepikatuz. Ustekabeko moduan eta erretroaktiboki alda dezake analizatuak eman dion zentzua.

Frantsesezko kapiton-puntuaren terminoa Lacan-en lanaren ingelesezko edizioetan modu ezberdinetan itzulita da: "korapilatze puntu" edo "ainguratze puntu" gisa. Itzulpen mota honen ondorioz sortzen den nahasketa saihesteko, hemen terminoa jatorrizko frantsesean utzi da. Literalki tapizeriaren botoi bat izendatzen du. Analogia zera da: tapizeriazko botoiak gune batzuk dira zeintzuetan «koltxoigilearen orratzak gogor lan egin duen betegarri-masa itxuragabe bati askeegi mugi dadin eragozteko» (Bowie, 1991: 74). Horrela, Kapiton puntuak «adierazia eta adierazlea elkarrekin korapilatzen diren» puntuak dira (S3, 268). Lacanek 1955-6ko psikosiei buruzko bere mintegian sartu zuen termino hori gertaera hau azaltzeko: adierazlearen azpian adierazia etengabe irristatzen den arren (ikus SLIP), subjektu arruntarengan (neurotikoarengan) oinarritzeko "atxikimendu-puntu" batzuk badira adieraziaren eta adierazlearen artean, irristadura hori aldi baterako gelarazten dutenak. Puntu hauetako gutxieneko kopuru jakin bat «beharrezkoa da pertsona bat normaltzat hartzeko», eta «puntu horiek ezarrita ez daudenean, edo lokabetzen direnean» emaitza PSIKOSIA izaten da (S3, 268-9). Honi esker azal daiteke nolatan esperientzia psikotikoan, «adierazleak eta adieraziak modu oso zatituan agertzen dituzten beren buruak» (S3, 268) (or. 151, Evans, 2006).

Giza hizkuntzak komunikazio bat eratzen du, non igorleak hartzailearengandik bere mezua forma alderantzikatu jasotzen duen (or. 72, Palmier, 1972).

Errepresioan pentsamendu eta oroitzapen batzuk gure kontzientziazatik jaurtiki eta inkontzientean gordetzen ditugu.

Lacanek bereganatu zuen Freudek lehen errepresioaren eta bigarren errepresioaren artean egindako bereizketa. Lehen adierazlea erreprimatuta eraikitzen da inkontzientean: premia eskaeran artikulatzen da eta desira besterendu egiten da. Inoiz kontzientzian izan ez dugun zerbait ahanzten dugunean, inkontzientea garatzen da. Lehen errepresioa ez da denboran lekutu dezakegun ekintza psikiko espezifiko bat, baizik hizkuntzaren ezaugarri bat, haren muga bat.

Bigarren errepresioan noizbait kontzientzian izan dugun ideia edo hautemate bat kontzientziazatik jaurtikitzen da; ekintza fisiko espezifikoa, zeinaren arabera adierazle bat ezabatua den adierazleen katetik. Bigarren errepresioa metafora baten gisara egituratua

dago. Lacanentzat, errepresioa da neurotikoa psikotikoetatik eta perbertsoetatik bereizten duena. Psikotikoek eskluitu egiten dute, neurotikoek erreprimitu eta perbertituek ukatu (errepudiatu). Errepresioak ez ditu ezabatzen bere jomuga diren ideia eta oroitzapenak; inkontzienteko barrutiaren muga barruan gordetzen ditu. Material erreprimitu hori itzul liteke sintoma, amets edo lapsus linguae moduan.

Errepresioaren kontzeptua teoria psikoanalitikoko kontzeptu oinarritzkoenetako bat da, eta zenbait pentsamendu edo oroitzapen kontzientziatik kanporatu eta inkontzientera mugatzen dituen prozesua adierazten du. Freud-ek lehenik errepresio-prozesua hipotetizatu zuen, paziente histerikoen amnesiari buruzko ikerketaren bidez. Hark, geroago, errepresioa primarioa (hasteko inoiz kontziente izan ez den zerbaiten ahazte «mitikoa», jatorrizko «ekintza psikiko» bat, zeinaren bidez inkontzientea lehenik eratua den) eta bigarren mailako errepresioa (errepresio-ekintza konkretuak, noizbait kontzienteak ziren ideia edo pertzepzio batzuk kontzientetik jaurtikiak direnak) bereizi zituen. Errepresioak bere jomuga diren ideiak edo oroitzapenak suntsitzen ez dituenek, haiek inkontzientera mugatu besterik egiten ez duenez, erreprimitutako materialak beti forma distortsionatuan itzultzeko joera du, sintometan, ametsetan, mihi-lapsusetan etab. (erreprimituaren itzulera) (or, 168, Evans, 2006).

Lacanez ere Freuden errepresio primarioaren eta bigarren mailako errepresioaren arteko bereizketari heltzen dio:

1. Errepresioa primarioa (Ger. Urverdrängung) desiraren besterentzea da, beharra eskarian artikulatzen denean (E, 286). Inkontzientearen adierazlekatea ere bada (E, 314). Lehen mailako errepresioa lehen adierazlearen errepresioa da. «Hitz egiten duen momentutik, une zehatz horretatik, eta ez lehenagotik, errepresioa dagoela ulertzen dut» (S20, 53). Lacanez ez du ikusten lehen errepresioa ekintza psikiko zehatz gisa, denboran lokalizatu daitekeena bezala, baizik eta hizkuntzaren beraren ezaugarri estruktural gisa —hau da, haren ezinbesteko osatugabetasun gisara, inoiz «egiari buruzko egia» esateko ezintasun modura (Ec, 868).

2. Bigarren mailako errepresioa (Ger. Verdrängung) ekintza psikiko espezifiko bat da, zeinaren bidez adierazlea adierazpen edo signifikazio katetik kanporatzen den. Bigarren mailako errepresioa metafora baten antzera egituratzen da, eta «erreprimituaren itzulera» dakar beti. Itzulera horren bidez, erreprimitutako adierazlea berriro agertzen da inkontzientearen eraketa ezberdinen (hau da, sintomak, ametsak, parapraxiak, txisteak etab.) itxurapean. Bigarren mailako errepresioan, errepresioa eta erreprimituaren itzulera «gauza bera dira» (or. 168, Evans, 2006).

Lacan gaztearentzat esanahia edo adierazia da erreprimitzen dena. Geroagoko Lacanentzat, adierazlea da erreprimitzen dena. Freudentzat ere erreprimitua zena ez zen afektua, bulkadaren ordezkari den adierazlea baizik. Sintoman garrantzia zuena ez zen esanahia, adierazleen egiturarekin zuen harremana baizik. Lacan ados zetorren lehen eta bigarren errepresioaz Freudek esanekin. Subjektua hitz egiten hasten den unetik errepresioa

gertatzen da; inkontzientea hizkuntza baten moduan egituratua dago, hizkuntzaren beraren izaera estrukturala adierazten baita lehen errepresioan. (Lacan, 1966; Feher-Gurewich, 2003).

Lacanentzat, sintomen ezaugarriak finkotasuna eta inertzia dira. Gozamenaren eta zikiramenduaren zirkuituan sartzen diren inkontzienteko eraketa bereziak dira sintomak. Adierazleak esanahiaren funtzioa du, batetik, baina bestetik trauma sexuala adierazten du, esanahiaren eta gozamenaren artean lotura ezarriz. Baina, Lacanek kontrajarri egiten ditu gozamenaren kontzeptua eta mezuarena eta gozamenari ematen dio lehentasuna, nahiz eta bien arteko lotura aztertu.

Lacanentzat sintoma ez da Besteari egiten zaion deia, bere buruarekin aski duen gozamena baizik. Sintomaren erreferentzia norberaren baitako gozamena da, ez Bestea; subjektuak bakar-hizketa autistan gozamena lortzea du helburu, bera baita mezu kriptikoaren jomuga. Subjektuak analisiaren eta transferentziaren bidez hitzaren sarean sartuko du gozamen autoerotikoa eta sare horretan gozatzen ikasiko du. Lacanentzat, beraz, gozamen modu bat sintoma. Hasieran, bulkada irudimenaren eremuan kokatu zuen, baina gerora bulkadaren asebetetzea errearen eremuan kokatu zuen.

Diskurtso analitikoan egiten den gauza bakarra amodioaz hitz egitea da, Lacanentzat. Tratamendu psikoanalitikoan transferentziaren efektu moduan agertzen da amodioa. Lacanek, gainera, lotura estua ikusten du amodioaren eta erasokortasunaren artean. Amodioa, Lacanentzat, gertaera imajinarioa da, nahiz eta efektuak eduki ordena sinbolikoan. Amodioa autoerotikoa da eta egitura nartzisista bat du. Norbere egoa edo nia da amodioan maitatzen dena, norbere egoa da maila imajinarioan erreal bihurtzen dena. Maitatua izatea desiratzen da amodioan; beraz, amodiozko bizipenak erreziprozitate imajinario bat darama beregan. Maitatzearen eta maitatua izatearen arteko erreziprozitateak sortzen du amodioaren ilusioa. Maitatuarekiko fusio-fantasia ilusiozkoa da amodioa eta horrek konpentsatzen du harreman sexualen gabezia. Ispiluko irudi den heinean, amodioa iruzurra da, norberak ez duena besteei ematean baitatza. Maitatzea norberak ez duena ematea da. Amodio objektuari falta zaionera zuzendua dago amodioa. Objektua baloratua da gabeziaren gunean datorrelako. Amodioa eta desira elkarren kontra doaz.

Maitasuna imajinarioaren mailan gertatzen den fenomeno da, sinbolikoaren benetako subdukzioa eragiten duena, deuseztapen baten moduko zerbait, niaren idealaren funtzioaren asaldura bat. Maitasunak ateak berriro irekitzen dizkio perfekzioari... Ich-Ideala, niaren ideala, hiltun izaerako bestea da, gure erabilpen dinamikoan, aldi berean, irudimenezko libidoaren antzekoa eta harengandik ezberdina dena (or.2015, 1. mintegia).

Ich-Ideala, niaren ideala, bestea da hiltun gisa, bestea nirekin harreman sinbolikoa duen heinean; harreman sinboliko hori gure kudeaketa dinamikoan harreman sinboliko, sublimatu eta imajinarioa da aldi berean (2. mintegia).

Bereizketa Ideal-Ich-aren eta Ich-Idealaren arteko errepresentazioan egiten da, ni idealaren eta niaren idealaren artean. Niaren idealak harreman multzoa zuzentzen du eta harreman horien mende daude bestearekiko harreman guztiak. Eta bestearekiko harreman horren mende dagoen egitura imajinarioaren izaera, asebetegarria edo ez hain asebetegarria. Halako eskema batek erakusten du irudimenezkoak eta errealak maila berean dihardutela (2. mintegia).

Amodioa desirari kontrajarria dago. Desira ordena sinbolikoan, bestearen eremuan, kokatzen da. Amodioa metafora da eta desira metonimia. Amodioak desira itzaltzen du, desira sortzen duen diferentzia ezabatzen duelako. Desira eta amodioa ezin dira asebate. Amodioan ere maitatua izateko desira dago, Bestearen desiraren objektu bihurtzeko. Premia/eskaera/desira dialektikan eskaeraren zati asegabetik sortzen da desira.

Lehen Freudentzat beste ezezagun batek bidalitako mezua zen sintoma eta desagertu egiten zen interpretatua zenean. Lehen garaietako Lacanentzat ere sintoma histerikoa desagertu egiten zen pazienteak interpretazioa onartzen zuenean; bestearen mezutzat hartzen zuen sintoma. Bigarren garaiko Freudentzat, sintoma ez da desagertzen interpretazioarekin. Errepikapen konpulsiboa sintoma obsesiboaren oinarri moduan agertzen zen eta paziente obsesiboak tratatzean, erreakzio terapeutiko negatiboa agertzen zen (Miller, 1998). Lacanentzat, errearen arloan kokatzen da sintoma, beti leku berera itzultzen da, esanahiaren ezagutzak nekez alda dezake eta esateari erresistentzia jartzen dio. Errearen eta sinbolikoaren artean kokatzen da sintoma; sinbolikoa eta erreala uztartzen ditu, irudimen arloko fantasmaren bidez (Soler, 2003).

Freudentzat (1894) neurosi obsesiboaren ezaugarriak sintoma hauek ziren: obsesiboki eta konpulsiboki errepikatutako erritual eta ekintzak. Lacanek ere neurosi obsesiboaren ezaugarritzat sintoma berberak hartzen ditu, baina harentzat neurosi obsesiboa ez da sintoma multzoa, azpiko egitura bat baizik. Gerta daiteke egitura horrek sintoma horiek ez agertzea eta hala ere neurotiko obsesibotzat hartua izatea.

Lehen garaietan, ametsekin, lapsusekin, txisteekin eta ekintza hutseginekin batera sailkatzen zituen Lacanek sintomak; baina, nahaste obsesibo-kompulsiboan aztertzean ikusi zuen sintomak ez zeudela inkontzienteko beste erakuntzen maila berean. Sintomak ez baitzuten esanahirik, analisiaren ondoren izan ezik. Sintomak, iraunkorrak eta errepikatzailak ziren.

Antzinako Grezian histeria emakumeen gaixotasun bat zen, umontzia gorputzean zehar ibiltzetik eratorria. Histeriak toki garrantzitsua izan zuen Freuden psikoanalisian. Dora emakume histerikoaren kasua izan zen Freud lehen kasu psikoanalitikoa. Histerikoak kausa organikorik gabeko paralisiak, minak eta anestesiak sentitzen zituen. Sintoma horiek ez ziren sortzen nerbio sistema errearekin lotuta; anatomia imajinario baten inguruan artikulatzen ziren.

Krafft-Ebing-ek perbertsio sexual moduan definitu zuen fetitxismoa. Kitzikapen sexuala lortzeko objektu espezifiko bat (fetitxearen) behar da. Freudentzat emakumearen zikiratzearen aurrean haurra izutu egiten da eta hor dago fetitxismoaren jatorria. Amak zakilik ez duela ikusten du fetixistak, baina ukatu egiten du gabezia hori eta objektu bat (fetitxea) bihurtzen du amari falta zaion zakilaren ordezkatzaille sinboliko (Freud, 1927). Lacanen iritziz, fetitxearen eta amaren phallusaren arteko baliokidetasuna ulertzeko hizkuntzaren eraldaketak hartu behar dira kontuan, eta ez ikusmen arloko analogia lausoak.

1956-57ko mintegian Lacanek objektu fetitxea eta objektu fobikoa bereizi zituen: objektu fobikoa zikiratze sinbolikoaren ordezkatzaille imajinarioa da; fetitxea, berriz, amari falta zaion phallusaren ordeko sinbolikoa da. Lacanentzat phallusaren ordekoa da fetitxea, ez zakilaren ordekoa; harentzat, Freudentzat bezala, mutilen perbertsioa da fetitxismoa, ez neskena. Fetitxismoa, beste perbertsioak bezala, Ediporen aurreko triangeluan sustraitua

dago; amarekiko eta phallus imajinarioarekiko identifikazioa biltzen ditu eta subjektua bi identifikazio horien artean kulunkatzen da.

Borderline pertsonaren diskurtsoak hautsi egiten ditu hizkuntzaren egituraren arauak. Sinbolikoa forkluitzen ez badu ere, haren arauak apurtu egiten ditu. Mugako nahastea duena hizkuntzaren ertzean edo muga kokatzen da eta muga horretan adierazlea eta adierazia bereizi egiten dira eta adierazleen katea arduratzen da diskurtsoaz.

Subjektua egituratzen duten arau sinbolikoak apurtzen direnean, anbiguotasuna nagusitzen da. Subjektuaren eta objektuaren artean kulunkatzen den objektua nagusitzen da. Objektua ez dena, subjektua ez dena, barnekoa ez dena eta kanpoko ere ez dena. Hizkuntza poetikoan gertatzen den moduan, mugako nahastea duenaren hizkerak ere muga hauskorrak ditu. Muga hauskor horietan ez du funtzionatzen hizkuntzaren zeinuen eta esanahien salbamen sareak.

Sormen literarioa, mugakoaren diskurtsoa bezala, zeinuetatik eta esanahietatik haratago doa. Harantzagoko eremu horretan, intuituen hondakinen oihartzunak sumatzen dira lan literarioaren erritmoan eta musikalitatean. Mugako pertsonak adierazleen katea eta hizkuntzaren zeinua apurtzen ditu. Mugako bat tratatzeko beharrezkoa da eraikuntza lana egitea, harremana eraikitzea, esanahia eta afektua berreskuratzea eta diskurtsori logika bat ematea. Aitaren funtzioa konpondu behar da. Interpretazio eraikitzaileak esanahia ematen dio adierazle hutsari.

Tratamendua

Lacan gaztea zen garaiko eskola psikoanalitikoak eremu imajinarioaren azterketan zentratzen ziren; irudimenezkoaren erregistroan oinarritutako terapiak besterendu egiten zuen pazienteak. Tratamendu psikoanalitikoak pazientearen eta analizatzailearen arteko bitariko harremanean oinarritzen zen. Aldiz, Lacanek, pazientearen irudimenezko eremua albora utzi eta tratamendua erregistro sinbolikoan oinarritzea proposatu zuen. Irudimenezkoa aztertzeke sinboloak erabiliko zituen eta irudimenezko irudiak hitzetan jarriko zituen. Modu horretara, eremu sinbolikoko adierazleak baliatuta, identifikaziotik harantzago eramane zuen analisia. Analisiaren egitekoa haurra irudiarekiko finkamendu nartzisistatik askatu eta nia deszentratzea zen. Ispiluko irudian besterendutako haurra askatu egin behar da dimentsio imajinariotik, eremu sinbolikoan sartuko bada. Haurrak Besteekin duen harremanak dimentsio sinbolikoan gauzatu behar du, hizkuntzaren bidez.

Lacanek bere garaiko psikoanalisiak kritikatu du, ordena sinbolikoa ahaztu eta dena imajinarioa mugatzeagatik. Lacanentzat, Freuden ideia oinarritzekoenei traizioa egitea besterik ez da hori; giza naturan, ordena sinbolikoarekiko erlazioan ekoiztutako efektuen eremuari dagokiona da Freuden aurkikuntza. Ordena sinboliko hori ahanzteak aurkikuntza ahanzturara kondentatzea da» (E, 64). Lacanek dio, ordena sinbolikoan lan eginez bakarrik alda ditzakeela analizatzaileak analizatuaren kokapen subjektiboak; aldaketa horiek irudimenezko efektuak ere sortuko dituzte, imajinarioa sinbolikoak egituratzen baitu. Ordena sinbolikoa da subjektibotasunaren determinatzailea, eta eremu imajinarioko irudi eta itxurak sinbolikoaren ondorioak baino ez dira.

Psikoanalisiak, beraz, imajinariotik haratago sartu eta ordena sinbolikoan lan egin behar du (or. 204, Evans, 2006).

Lacanen iritziz, oraintsu arte, tratamendu psikoanalitikoaren erregistro imajinarioa eta bitariko harremanetara mugatu izan da. Tratamendu horren helburua analizatzailearekin identifikatzea zen eta horrek besterentze handiagora eramaten zuen pazienteak. Horregatik, Lacanek zioen analizatzaileak imajinarioan oinarritu eta irudiak hitzetara eraldatu behar zituela, sinbolikoaren bidez, eta gainditu egin behar zituela eremu imajinarioko finkamenduak.

Lacanek bere garaiko teoria psikoanalitikoari egiten dion kritikarik ohikoenetako bat da etengabe huts egiten duela sinbolikoaren papera teorizatzerakoan eta, horrela, topaketa psikoanalitikoaren analizatzailearen eta analizatuaren arteko harreman bitar batera mugatzen duela. Lacanek dio akats hori teoria psikoanalitikoko gaizkiulertu sorta baten atzean dagoela (ikus E, 246). Bereziki, tratamendu analitikoaren niarengandik niarenganako topaketa batera mugatzen du; topaketa hori, imajinarioko harreman bitarretako erasokortasuna dela eta, analizatzailearen eta analizatuaren arteko "heriotzara arteko borroka" bilakatzen da, botere-borroka bat, 'sastakaia eskuetan' dituztela (or. 50, Evans, 2006).

Lacanentzat psikoanalisiak ez du bitariko harremanetara eta ordena imajinarioa mugatu behar. Psikoanalisiak mesfidatu egin behar du imajinarioaren finkotasunaz eta irudiak hitzetan jarri behar ditu. Psikoanalisiak mota batek analizatzailearen eta analizatuaren arteko bitariko erlazioari garrantzia eman eta funtzio sinbolikoari garrantzia kentzen zion. Lacanentzat, analisiak ez zuen izan behar analizatzailearen eta analizatuaren nien arteko gudu-zelai. Bitariko harremanetatik eratorritako erasokortasunak suntsipen borrokara eramaten ditu analizatzailea eta analizatua. Lacanentzat, tratamendua ez da botere borroka bat eta analizatzailearen egitekoa ez da pazientearen erresistentzia gainditzea. Analizatzaileak eta analizatuak, biek jarri behar dute hizkuntzaren eta Bestearen mendea. Analizatua ez du analizatzaileak analizatzen; analizatua da bere burua analizatzen duena.

Hasierako Lacanentzat sintomak desagerrarazteko nahikoa zen subjektua besterendu zuen irudiaren kontzientzia hartzea, baina gero (1953ko Erromako Diskurtsoa) esan zuen ez zela nahikoa subjektua bere irudira bidaltzearekin, haren besterentzea ezabatu nahi bazen. "Hitz hutsak" nia objektu moduan ezagutzen du, baina haren desira ez du ezagutzen. Sendatzearen helburua ez da ispiluko imajinarioaz kontzientzia hartzea, baizik desiraren subjektua ezagutzea. Desiraren helburua ez da asebetetze sexuala lortzea, besteek bere desira aitortzea baizik. Giza existentziak auto-kontzientzia eskatzen du. Gizakia subjektu moduan eratzeko auto-kontzientzia behar da. Pertsona batek "ni" esaten duenean, giza norberatasun bat agertzen da. Hitzek nia adieraz dezaten, desira bat ere behar da. Desira horrek izaki positibo bati eta ez-izaki bati egiten die erreferentzia.

Giza auto-kontzientzia gauzatzeko subjektu-arteko hainbat desira behar dira. Denak aitormenaren bila borrokan; beren desira besteen desiraren gainetik nagusitzearen bila. Hil ala bizikoa da borroka. Norbere desira nagusitzea nahi bada, besteak bizirik iraun behar du, hildakoarengandik aitormenik ezin da lortu eta.

Hegel eta Kojève-ren arabera, gizakiak benetan aske eta gizatiar izan nahi badu, bere jomugak lortzeko bere bizitza arriskuan jartzeko gai izan behar du (Kojève, 2013: 214).

Bi auto-kontzientzietako bat nagusitzen denean amaitzen da borroka; bietako batek ezin izan du garaitu kontserbazio instintua, eta bestearen mendean gelditu da. Garaileak ez du heriotzaren beldurrik, eta horregatik bihurtu da auto-kontzientzia garaituaren nagusi. Auto-kontzientzia menderatua bere zerbitzura jarri du. Kojèveren esanetan nagusien eta mendekoen historia amaituko da nagusiak eta mendekoak estatu unibertsal baten baitan desagertzen direnean (De la Maza, 2019).

Tratamendua botere-borroka gisa ikusi beharrian, zeinetan analizatzaileak gaixoareen erresistentzia gainditu behar duen (hori ez bailitzateke psikoanalisia, sugestioa baizik), analizatzaileak konturatu behar du, bai bera eta bai gaixoa, biak daudela hirugarren termino baten boterearen mende: hizkuntza beraren mende (or. 50, Evans, 2006).

Lacanen iritziz, analizatua ez du «analizatzen» analizatzaileak; analizatua da analizatzen duena, eta analizatzailearen zeregina hari ondo analizatzen laguntzea da (or. 10, Evans, 2006).

Lacanen arabera, ispilu-aroan osotasun eta batasun itxura faltsu bati eusten saiatuko da haurraren Nia. Horregatik mesfidantzaz hartu behar dira analizatzailearen eta analizatuaren arteko itunak, analizatuaren niak analizatzailea iruzurtzeko joera duelako. Terapia psikoanalitikoko erresistentzia ispilu aroko irudietatik dator; subjektuaren mailan ez, baizik pazientearen nian eta imajinarioan aurkitu behar da haren erresistentziaren jatorria. Horregatik, analizatzaileak mesfidantzaz hartuko ditu pazienteak bere niaren izenean egiten dituen baieztapenak. Analisiak deseraiki egin behar ditu niak eraikitako irudiak, eta hizkuntzaren sare sinbolikoan josi behar ditu. Niak jartzen duen erresistentzia irudimenaren iruzurra denez, analizatzailearen egitekoa ez da pazientearen nia indartzea, Niaren Psikologiak egiten duen moduan. Ez dira nahastu behar objektuaren eremuko erresistentzia eta subjektuaren eremuko defentsak. Subjektuaren egitura sinboliko egonkorrak dira defentsak; erresistentziak, aldiz, adierazleen sarean sartzea eragozten dio objektuari (Lacan, 1966).

Lacan, beraz, gaur egungo niaren psikologian ohikoa den ideiaren guztiz kontrakoa da. Ideia horren arabera, tratamendu psikoanalitikoaren helburua nia indartzea litzateke. Nia «ilusioen egoitza» denez (S1, 62), haren indarra areagotzeak subjektuaren besterentzea areagotzea baino ez luke lortuko. Egoa tratamendu psikoanalitikoarekiko erresistentziaren iturri ere bada eta, horrela, hura indartzeak erresistentzia horiek areagotu besterik ez lituzke egingo. Bere irudimenezko finkotasuna dela eta, egoa erresistentea da hazkuntza eta aldaketa subjektibo guztiekiko, eta desiraren mugimendu dialektikoarekiko. Niaren finkotasuna ahulduz, tratamendu psikoanalitikoak desiraren dialektika berreskuratu eta subjektuaren etorrerari berriro hasiera ematea du helburu (or. 52, Evans, 2006).

Transferentziaren interpretazioak analizatzailearen egoarekin identifikatzera darama pazienteak. Baina, Lacanentzat analisisa ez da errealitatetik urrundua zegoen pazienteak analizatzailearen aurreiritzien eta ideologiaren errealitatera berriro ekartzea, finkapen eta

fantasien bidez. Terapia psikoanalitikoan pazienteak analizatzaileari eskatzen dio konpon ditzala bere enigma eta sufrikarioak. Baina, Lacanentzat, analizatzaileak ez die analizatuaren eskaerei konponbiderik eman behar. Subjektuak gainditu egin behar du bere desiraren eskaera inkontzientea, amaren desiraren objektu (faloa) izateko eskaera, eta zikiratze sinbolikoa lortu behar du. Subjektua zikiratze sinbolikora (lehen adierazlera) hurbildu denean, amaiera emango dio analizatzaileak isiltasunari. Analizatzaileak analizatuaren inkontzientetik ateratako aztarna txikiak hartu eta berreraikuntza batzuk egiten ditu; analizatuak zikiratze sinbolikotik abiatuta inkontzientean ehundu duena hitzetan jartzen du analizatzaileak. Analizatuak ordena imajinarioa uzten du eta zikiratzearen eta Ediporen konplexuaren gatazkak zeharkatzen ditu. Adierazleen elkartzeko sareak osatzen dira metaforaz eta metonimiaz.

Lacanek psikoanalisi saioen iraupena aldatu zuen, hau da, saioaren iraupena aldatu egiten zuen. Analizatzaileak eten zezakeen saioa pazienteak hitz edo esaldi garrantzitsu bat esatean; horrela, etenduraren aurretik esandakoaz gogoeta egingo zuen pazienteak hurrengo saiora bitartean. Pazientearen hizketako etendurak, ametsak, lapsusak eta ahanzturak hartzen ditu kontuan analizatzaileak.

Ametsen interpretazio psikoanalitikoa egiteko elkartzeko askeak hartu behar dira kontuan, sinboloak baino areago (Freud, 1900). Metaforaren egiturari esker subjektuak ihes egiten die adierazleen katearen hertsapenei, adierazle bat (adierazle kate batekoa) beste batez (beste adierazle kate batekoa) ordezkaturik. Elkartzeko askea da psikoanalisiaren tresna nagusia eta baliabide horrek aukera ematen dio subjektuari bide ezberdin bat jarraitzeko, metaforaren edo metonimiaren bidegurutzetan aukerak irekitzen direnean. Lacanentzat, sintomak ere mekanismo metaforikoaren emaitzak dira. Egitura metaforikoak adierazle efektua eragiten du, adierazle batek beste adierazlearen lekuan esku-har dezala eragiten du.

Psikoanalisiaren hasieratan analizatzailearen interpretazioek eragin nabarmena zuten sintomak desagerrarazten, sintomak ideia erreprimituaren adierazpen moduan ulertzen baitziren. Interpretazioaren helburua pentsamendu inkontzienteak kontziente bihurtzen pazienteri laguntzea zen. Pentsatzen zen ideia erreprimituaren adierazpen zirela sintomak eta interpretazioaren bidez ideia horretaz kontziente bihurtzen dela pazienteak eta sendatu egiten zela. Interpretazio klasikoan pazienteak ematen ez zion interpretazio bat eman behar zion analizatzaileak. Kuestioa ez zen sintomari esanahi ezkutua ematea, esanahi apurtzailea ematea baizik. Interpretazioa ez zihoan adierazleei zentzu bat ematera, baizik adierazleen zentzurik eza ikustera. Kuestioa ez da analizatuari mezua berria ematea, baizik bereak bere buruari zuzentzen dio mezua entzuteko gaitasuna kentzea. Interpretazioa ez doa errealitatearekin korrespondentzia ezartzera, baizik efektu sinboliko batzuk ekoiztera.

Geroago ikusi zuten sintomak iraun egiten zutela, haien interpretazioa eman arren. Erresistentziaren kontzeptua landu zuten orduan analizatzaileak. Aurrerantzean, sintomak desagerrarazteko ez zen nahikoa haiek interpretatzea; pazienteak erresistentzia jartzen zion sintoma horien esanahiaz kontziente bihurtzeko (Strachey, 1934). Lacanek beste interpretazio teknika bat proposatu zuen: egin behar zena ez zen sintomari esanahi ezkutua ematea, esanahi apurtzailea ematea baizik. Zentzua ematea baino gehiago zentzu gabeziara eramatea da kontua. Bere buruari inkontzienteki bidaltzen dion mezua entzuteko prestatu behar du analizatuak, interpretazioaren bidez.

Erresistentziaren iturria egoan (niarengan) dago: «Zentzu hertsian, subjektuaren erresistentzia niaren erregistroari lotuta dago, niaren efektu bat

da» (S2, 127). Beraz, erresistentzia ordena imajinarioari dagokio, ez subjektuaren mailari; «erreprimitua denaren aldean, gauzen alde inkontzientean, ez dago erresistentziarik, errepikatzeko joera besterik ez dago» (S2, 321) (or. 170, Evans, 2006).

Analizatzailearen zeregina da analizatua gaitzea bere buruari inkontzienteki zuzentzen dion mezua entzuteko; analizatuaren hitzak interpretatuz, analizatzaileak honakoa ahalbidetzen du: analizatuaren mezua bere egiazko dimentsio inkontzientean itzultzea. Horregatik, Lacanek analisiako komunikazioa honela definitzen du: ekintza bat, zeinetan «igorleak bere mezua hartzailearengandik alderantzizko forma batean jasotzen duen» (Ec, 41) (or. 27, Evans, 2006).

Funtsezko suposizioa zen interpretazioak ezkutuko esanahi bat agerian uzten zuela, eta horren egia pazienteak elkartze gehiago sortuz baieztatu zitekeela. Suposizio hori da Lacanek zalantzan jartzen duena, zera argudiatuz: analisiako interpretazioek ez luketela jada helburutzat eduki behar ezkutuko esanahi bat aurkitzea, esanahia apurtzea baizik; «Interpretazioa ez doa hain zuzen «zentzua sortzera» zuzendua, adierazleak beren «zentzu-gabeziara» mugatzera baizik, horrela subjektuaren jokabide guztien determinatzaileak aurkitzeko» (811, 212, nire itzulpena). Interpretazioak, horrela, adierazlearen eta adieraziaren arteko erlazioa alderantzikatzen du: esanahiaren ekoizpen normalaren orde (adierazleak adierazia ekoizten du), interpretazioak s-ren mailan lan egiten du S sortzeko: interpretazioak «adierazle murriztezinak» sortzen ditu, «zentzugabeak» direnak. (S11, 250). Beraz, Lacanentzat kontua ez da analizatuaren diskurtsoa aurrez pentsatutako interpretazio-matrize edo teoria batera egokitzea («deskodetzeko» metodoan bezala), halako teoria guztiak haustea baizik (or. 90, Evans, 2006).

Analizatuak mezu anbiguoak bidaltzen ditu. Analizatzaileak kontuan hartu behar du haren mezuaren esanahi anizkoitza. Batzuetan analizatzailearen interpretazioa ez da gertaerei dagokiena, baina hala ere efektu sinboliko garrantzitsuak izango ditu. Analizatzaileak ez du joan behar analizatuaren ezkutuko mezua harrapatzera, hura literalki hartzera baizik. Lacanen iritziz, analizatzaileak zenbat eta gutxiago ulertu mezua, orduan eta hobeto entzungo du. Analizatzaileak ez du analizatuaren hizkuntza aurrez ezarritako teoria baten arabera ulertu behar; teoriarik ez balu bezala jokatu behar du.

Tratamenduan kontuan hartzekoa da analizatzailearen desira. Aztertu behar da zer desira den analizatzailea suspertzen duena. Ez da analizatua analizatzailearekin identifikatzeko desira, identifikazioaren kontrako desira baizik. Analizatzailearen nahia analizatuaren egia azaleratzea da. Baina, ezberdinak dira analizatzailearen egia eta analizatuarena. Analizatzailearen desira erabateko diferentzia lortzea da. Analizatzaileak berak ere tratamendua jaso behar du, bere desira berrantolatu eta berregituratzeko eta analizatzaile moduan ondo jokatzeko. Lacanek 1970ean zioen beti esaten zuela egia, baina ez egia osoa, hitzek huts egiten dutelako. Ezintasun horretatik egia errealari atxikitzen zaio. Egia errealari lotua dago. Hitz egitea baieztatzea da eta egia esateak esan nahi du nik onartzen

dudala hizkuntzaren subjektu naizela. Egia hitzetan esaten da, baina ezin daiteke osoa izan, hitzek huts egiten dutelako (Tombras, 2019).

Lacane bere garaiko eskola psikoanalitiko nagusiei leporatu zien psikoanalisi ordena imajinaria mugatu zutela; psikoanalista horiek analisiaren helburu bihurtu zuten analizatzailearekin identifikatzea, eta analisisa harreman bitar batera mugatu zuten (E, 246-7). Lacane psikoanalisiaren erabateko traizio gisa ikusten du hori; desbideratze bat, subjektuaren besterentzea areagotzea besterik egingo ez zuena. Erredukzionismo imajinario horren aurka, Lacane dio psikoanalisiaren funtsa sinbolikoaren erabileran datzala. Sinbolikoaren erabilera hori da imajinarioaren finkapen ezgaitzaileak desagiteko modu bakarra. Hortaz, analizatzaileak imajinarioan heldulekuren bat lortzeko modu bakarra irudiak hitz bihurtzea da, Freudek ametsa asmakizun gisa tratatzen duen bezala: «Imajinarioa sinbolo bihurtzen bada soilik da deszifragarria» (Lacan, 1956b: 269). Sinbolikoaren erabilera hori da bide bakarra prozesu analitikoak «identifikazio-planoa zeharka» dezan (S11, 273) (or. 85, Evans, 2006).

Tratamendu psikoanalitikoak ordena sinbolikoarekin edo inkontzientearekin duen harremana ezagutzera eraman behar du subjektua. Unibertso sinbolikoan adierazleak elkarrekin josi behar ditu. Inkontzientea ezagutzera heltzeko bidea elkartzeko librea da. Baina, inkontzientea murriztu ezina da; beraz, tratamenduaren helburua ez da Hegelen ezagutza absolutua. Subjektuaren eta ezagutzaren artean arrakala ekidinezina dago.

Ezagutza sinbolikoa inkontzienteko desiraren egia ezagutzea eta Bestearen gozamena da. Ezagutza sinbolikoa ez datza subjektu jakin batengan edo Bestearengan, subjektuen arteko harremanean baizik. Niaren psikoanalisiarentzat Nortasun autonomoa lortzeko beharrezkoa da bulkada primitiboen eta errealtatearen aginduen arteko oreka harmoniatsua. Analizatzaileak autonomo izaten lagundu behar dio analizatuari; analizatuak analizatzailearen ego indartsuarekin identifikatu behar du. Lacanentzat, ordea, Niaren autonomia ilusio nartzisista bat besterik ez da, nia ez da askea, ordena sinbolikoak determinatzen baitu.

Lacan oso kritikoa da ego autonomoaren kontzeptuarekiko (ikus E, 306–7). Dioenez, Ego-a ez da librea baizik eta ordena sinbolikoak determinatzen du. Egoaren autonomia maisutasunaren ilusio nartzisista bat besterik ez da. Ordena sinbolikoa da, eta ez egoa, autonomiaz gozatzen duena (or. 15, Evans, 2006).

Lacanentzat, Freudek inkontzientea aurkitu zuenean, niari kendu egin zion mendebaldeko filosofiak emandako koroa. Lacanentzat, Niaren psikologoentzat ez bezala, nia ez dago erdigunean; nia ispilu aroko ispilu irudiarekin identifikatzetik datorren eraikuntza bat da. Subjektua bere buruaz besterendu egiten da. Niak egitura paranoikoa du. Nia erresistentziaren gunea da, sintoma baten moduan egituratua dago eta ez du ordena sinbolikoa ezagutzen.

Nia oinarritzen den besterentzea paranoiaren antzekoa da estrukturalki, eta horregatik idazten du Lacane niak (egoak) egitura paranoiko bat duela (E, 20).

Nia, beraz, irudimenezko eraketa bat da, SUBJEKTUAREN aurrez aurre; eta subjektua sinbolikoaren emaitza da (ikus E, 128). Izan ere, egoa ordena sinbolikoaren ez-ezagutza bat da, erresistentziaren egoitza. Nia sintoma gisa egituratuta dago: «Egoa zehazki sintoma baten antzera egituratuta dago. Gaiaren muinean, sintoma pribilegiatu bat baino ez da, gizakiaren sintoma bikainena, gizakiaren gogamenezko gaixotasuna» (S1, 16) (or. 52, Evans, 2006).

Nia ilusioen jesarlekua da: nia indartzeak subjektuaren besterentzea handitzea esan nahiko luke. Niak tratamendu psikoanalitikoari aurre egiten dio eta nia indartzeak erresistentzia gehitzea esan nahi du. Lacan psikoanalisiaren bidez nia indartzearen kontra dago. Izan ere, nia finkapen imaginario bat da, eta kontra egiten dio aldaketari, dialektikari eta hazkuntzari. Tratamendu psikoanalitikoak niaren finkotasuna apurtu eta desiraren dialektika berriro abiarazi behar du. Lacanentzat, analizatuaren niak ez du izan behar analizatzailearen aliatua tratamenduan. Psikoanalisiaren helburua ez da nia ingurunera egokitzea eta sintoma neurotikoak desagerraraztea. Batetik, sintoma neurotiko bat desagertzen denean, beste bat agertzen da. Bestetik, Niaren edo Egoaren Psikologiaren helburua pazientearen ingurumeneko errealitatera egokitzea da; gizakiek ingurunera egokitu behar dute, neurotikoaren portaera eta sintomak ez baitatoz bat ingurunera egokitzearekin. Baina, Lacanentzat, errealitatea ez da zerbait objektiboa, hartara pertsonak egokitzeko; errealitatea pertsonaren errepresentazio eta proiektzioen emaitza da.

Psikoanalisi lacaniarraren helburua ez da sintoma neurotikoak kentzea, sintoma neurotiko bat desagertzen denean askotan beste batek ordezkutzen baitu. Hau da psikoanalisi beste edozein terapia-motetatik bereizten duena (or. 205, Evans, 2006).

Beraz, psikoanalisiaren egitekoa pazientearen errealitatera egokitzea baino gehiago, haren gehiegizko egokitzapena ekiditea da, errealitate hori eraikitzen berak esku hartzen baitu.

Errealitatea ez da niak hartara egokitu behar duen gauza soil eta objektibo bat, baizik eta niaren fikziozko irudikapen okerren eta proiektzioen emaitza... Psikoanalisiaren zeregina egokitzearen ilusiozko zentzua iraultzea da, horrek inkontzienterako sarbidea galarazten baitu (or. 4, Evans, 2006).

Psikoanalisiak egokitzapenaren ilusioa gainditu eta inkontzienterako sarrera erraztu behar du. Naturan organismoek ingurunearekin harmonian bizi behar dute; baina, ordena sinbolikoak desnaturalizatu egiten du gizakia eta heriotza bulkadak desegin egiten du gizakiak naturarekin izan zezakeen irudimenezko harmonia. Lacanentzat, Niaren Psikologiaren kontra, gizakiaren barne izaeran dago ingurunera ez egokitzea. Ego Psikologiak egokitzapena azpimarratzen duenean, kontrol sozialerako eta adostasunerako (konformidaderako) tresna moduan erabiltzen du psikologia. Aldiz, psikoanalisiaren egitekoa ingurunea eraldatzea da, ez ingurunera egokitzea (Lacan, 1966; Evans, 2006).

Lacane dio niaren psikologiak pazientearen errealitatera egokitzean jartzen duen enfasiak kontrol sozialerako eta adostasunerako tresna izatera mugatzen duela psikoanalisi. Psikoanalisiaren erabateko traizio gisa ikusten du hori, eta funtsean praktika subertsibotzat hartzen du (or. 4-5, Evans, 2006).

Lacan Nazioarteko Elkarre Psikoanalitikoaren baitan entrenatu zen psikoanalista moduan. Freuden legatuaren oinordekotzat zeukan bere burua. Laster hasi zen NEPari buruzko jarrera kritikoa hartzen. Lacanek Freudengana itzultzea proposatu zuen, Niaren psikologok traizionatu egin zituztelako Freuden aurkikuntzak.

Lacanen ikuspegitik, analizatzaileak abstinentziaren araua jarraitu eta pazienteak frustratzen jarraitu behar du. Pazientearen amodio eskaerak asebetetzeari uko egin behar dio. Izan ere, tratamenduaren eraginez sintomak desagertzen badira, pazienteak ez du tratamendurako motibatuta jarraituko. Horregatik, analizatzaileak gabezia egoeran utzi behar du pazienteak (Freud, 1919). Lacanen arabera, analizatzaileak asebeste gabe utzi behar ditu analizatuaren amodio eskaerak. Frustrazioa bitarteko bat da, helburu bat baino gehiago; frustrazioari esker eskaeren adierazleak agertuko dira eta adierazle sarean agertzen da frustrazioa. Analizatzaileak frustrazio egoeran eutsi behar die analizatuaren eskaerei, eskaeratik harantzago joan eta analizatuaren desira ager dadin.

Lacan-ek Freud-ekin bat egiten badu ere, analizatzaileak ez dituela analizatuaren amodio-eskakizunak ase behar esatean, frustrazio-ekintza hori ez dela berez helburutzat hartu behar dio. Aitzitik, soilki bitarteko baten moduan hartu behar da frustrazioa, aurretiko eskaeren adierazleak ager daitezen ahalbidetzeko. «Analizatzailea da eskaera sostengatzen duena, ez, esan den bezala, subjektua zapuzteko, baizik eta bere frustrazioari loturik dauden adierazleak berriro ager daitezen uzteko» (E, 255). Analizatzailearen helburua, frustrazio-egoeran analizatuaren eskaerak sostengatuz, eskaeratik haratago joan eta analizatzailearen desirari berriro agertzen uztea da (E, 276) (or. 70, Evans, 2006).

Abstinentziaren arauaren arabera, pazienteak analizatzaileari eskatzen badio maitasuna egiteko, analizatzaileak eskaera hori frustratu egin behar du eta erantzunik ez du eman behar. Analizatuak espero du analizatzaileak eguneroko solasaren arauak jarraituko dituela, baina batzuetan galderaren aurrean analizatzailea isildu egiten da eta bestetan analizatuak esandakoa beste modu batera ulertzen du. Horrek analizatua frustratu egiten du.

Alemanez *das Wohl* hitzak atseginezko sentipen positiboa adierazten du. *das Gute* hitzak, berriz, moralaren araberrako ongia adierazten du. Pertsona bat ongi senti liteke moralki txarrak diren gauzak eginez; edo gaizki senti liteke, moralki onak diren gauzak eginez. Horregatik, Kantek a priori lege batekin lotuko du ongia; lege moralak ez du oinarrituko subjektuaren eta objektuaren arteko harremanean. Zerbait ez da ona edo txarra izango subjektuarengan sortzen duen atsegin edo sufrikarioaren arabera. Kantin inperatibo kategorikoa unibertatsala eta baldintzarik gabekoa da; forma puruko lege unibertatsal batean oinarritu behar du borondatearen aginduak. Lege horrek subjektuaren borondatean zuzenki eragiten du, barneko edo kanpoko pizgarriak gabe (Lacan, 1966; Nobus, 2017).

Lacanek kontraesan bat ikusten zuen Kant-en idatzietan. Alde batetik, Kantek esaten zuen objektu empirikoak eskulitu egin behar zirela moralitasunaren oinarrietatik; lege moralak kontzientziaren ahotsa zela. Lacanentzat ere, inperatibo kategorikoaren logikak eskatzen du moralak arau analitikoetan oinarritzea, eta ez agindu sintetikoetan. Arau analitiko eta azaltzaileen predikatuek ez dute ezer eransten, jadanik subjektuaren kontzeptuan ez

dagoenik. Baina, beste aldetik, Kantek lege morala objektu enpirikoetan eta naturaren krudeltasunean oinarritu zuen (Nobus, 2017).

Kant with Sade artikuluan Lacanek esaten du ongizate subjektiboa lortu eta mantentzeko jarraitu beharreko arauak ezin daitezkeela atseginaren printzipioaren arabera izan, soilki. Atseginaren printzipioaren arabera lege batek ezin du ziurtatu gizakia beti izaki aktibo, aske, arrazional eta zoriontsua izango denik. Sentipen positiboak iraupen laburrekoak dira eta ezin dira izan lege moral unibertsal baten oinarri. Kantek ezartzen duen lege moralak subjektuaren sentimenduetatik aske behar du izan; subjektuaren eta objektuaren artean egon daitekeen erlazio onetik harantzago egon behar du. Zerbait moralki ona edo txarra izatea ez dago subjektuak objektuarekin lortzen duen atseginaren edo desatseginaren baitan; kontuan hartzen duena da subjektuak zenbateraino jokatzen duen lege a priori baten arabera (Nobus, 2017).

Lacanek bereizi egiten zituen analisian “esaten dena” eta “esan nahi dena”. “Esaten dena” erabiltzen diren hitzek diotena da; “esan nahi dena”, berriz, esaten ez dena da, eta entzulearen arabera interpretatzen da. Bigarren zentzu horretan, hizlariak esan nahi duena ez dago subjektuaren esku, entzulearen mende baizik. Lacanentzat, beraz, mezuaren iturburuan hartzailea dago, hark erabakitzen baitu hitzaren esanahi sakona: “Giza hizkuntza komunikazio bat da, zeinetan igorleak hartzailearengandik jasotzen baitu bere mezu propioa, modu alderantzikatuan” (or. 298, Lacan, 1966). Hizkuntzaren funtzioa ebokatzea da, ez informatzea. Hizketan ari naizenean, bestearen erantzunaren bila nabil.

SIGNIFIKAZIO KATE bat puntuatzea esanahia sortzea da. Puntuazioa baino lehen, diskurtso-kate bat besterik ez dago; entzulea/jasotzailea da diskurtso hori puntuatzen duena eta, horrela, atzeraeraginez enuntziatuaren esanahi jakin bat balioztatzen duena. Adierazpen katearen puntuazioa da esanahi finko baten ilusioa sortzen duena da: «puntuazioa txertatzen denean, esanahia finkatzen du» (E, 99; ikus KAPITON PUNTUA). Hau ezinbestekoa da KOMUNIKAZIOAREN egituran. Egitura horretan «igorleak bere mezu propioa jasotzen du hartzailearengandik», eta DESIRAREN GRAFOAREN «Oinarrizko gelaxkan» ilustratzen da. Puntuazioen funtzionamendua psikoanalisarako funtsezko garrantzia duten bi egoerei erreferentzia eginez ilustra daiteke: amaren eta haurraren arteko harremana eta analizatuaren eta analizatzailearen arteko erlazioa. Egoera horietako lehenengoan, oraindik hizkera bereganatu ez duen haurrak bere beharrak ESKAERA oso primitibo batean soilik artikulatzen dituzte, hots, garrasi eginez. Ez dago ziur jakiterik garrasi batek gosea, mina, nekea, beldurra edo beste zerbait artikulatzen duen, eta, hala ere, amak modu jakin batean interpretatzen du, horrela haren esanahia atzeraeraginez zehaztuz (or. 159, Evans, 2006).

Lacanentzat, hasieran, subjektuaren kontzientziatik erreprimituriko edo kanporatutako esanahi baten adierazle da sintoma. Subjektuaren historiako gune ilun bat da sintoma; gune horretan atxiloturik dagoen hitza askatzean desagertuko da. Analisi lanak askatuko du sintomak bahitua eta atxilotua daukan esanahia; horretarako, bere diskurtsotik

kanpora jaurtikia zuen hitza bereganatu behar du subjektuak. Sintomaren nozioa eta inkontzientearena loturik daude. Alde batetik, inkontzientea hizkuntza moduan egituratua dago eta sintomak hizkuntzaren legeak jarraitzen ditu. Bestaldetik, Besteari zuzendutako hitzaren gisara egituratua dago inkontzientea; Bestea sintomaren garapenean bildua dago. Sintomaren iturburua Bestearengan dago, hark erabakitzen baitu sintomaren izaera. Bestea hizkuntzan txertatua dago, eta handik datorkio subjektuari sintomaren esanahia.

Lacanek beste txikia (a) eta Beste handia (A) bereizi zituen 1955ean. Beste txikia ez zen benetan bestea, baizik Niaren proiektzioaren isla. Beste txikia ordena imajinarioan inskribatua dago. Beste handiak errotiko Bestetasuna adierazten du, imajinarioko ilusiozko bestetasuna transzenditzen duen bestetasuna, identifikazioaren bidez asimila ezin daitekeena. Errotiko bestetasun hori lengoaiaren eta legearen baliokide bihurtzen du Lacanek. Horrela, Beste handia ordena sinbolikoan inskribatua dago. Bestea sinbolikoa da eta subjektu bakoitzak gauzatzen du. Bestea, beste subjektua da, errotiko bestetasuna duena; eta ordena sinbolikoak beste subjektuarekiko harremana bitartekotzen du. Lacanentzat hizketa ez da niarengandik sortzen, ez eta subjektuarengandik ere, baizik Bestearengandik; hizketa eta lengoaia kontrol kontzientetik haratago aurkitzen dira; kontzientzia baino harantzago sortzen dira. Inkontzientea Bestearen diskurtsoa da. Hasieran amak hartzen du Beste handiaren lekua haurarentzat. Amak hauraren negarrak jasotzen ditu eta mezu moduan interpretatzen ditu. Zikiratze konplexua osatzen da haurrak ikusten duenean Bestea ez dela osoa, Besteak gabezia bat duela.

Errepikatzea eta oroitzea aurrez aurre kokatuak daude. Biek ekartzen dute iragana orainaldira. Iraganeko gertaerak memoriatik ezabatzen direnean, ekintza moduan itzultzen dira. Pertsonak iragana oroitzen ez duenean, hura errepikatzera kondenatua dago. Tratamendu psikoanalitikoak errepikapen beharra desegin lezake, pazienteak iragana oroitzen lagunduz. Acting out ekintzek badute osagai inpulsibo bat eta horrek eragiten du subjektuak bere ekintzen motiboak ez ulertzea. Iragana oroitzeak ez du esanahi kontzientziara zerbait ekartzea bakarrik. Hitzaren bidez besteari zerbait komunikatzea ere bada. Acting out-a gertatzen da oroitzapen hori ezinezkoa denean, besteak entzuteari uko egiten diolako. Besteak entzungor egiten duenean, pertsonak ezin dio mezua hitzez komunikatu eta mezua ekintza bidez adieraztera behartua dago. Acting out-a mezu zifratu bat da, pertsonak besteari igortzen diona; subjektua bera ez da kontziente mezuaren edukiaz eta ez da konturatzen bere ekintzak mezu bat adierazten duela. Analisiaren garaian acting out-a egiten bada, analizatzaileak hutsegite bat egin duelako da. Interpretazio oker bat egiten du analizatzaileak eta horrek adierazten du analizatzaileak entzungor egiten diola analizatuaren hitzari.

Ego-Psikologiarentzat tratamendu psikoanalitikoaren helburua pertsona errealtatera egokitzea da. Lacanek beste jarrera bat hartzen du moldaerari buruz. Errealtatea ez da zerbait objektiboa, hartara egoa edo nia egokitzeko. Errealtatea egoaren errepresentazioen emaitza da. Arazoa ez da errealtatera egokitzea, baizik hartara egokituegia egotea. Moldaerak inkontzienterako bidea ixten du.

Moldaera jartzen bada tratamenduaren helburu moduan, psikoanalizatzailea jartzen da epailari moduan. Pentsatzen da analizatzailea analizatua baino moldatuago dagoela eta analizatuak ez duen botere bat ematen zaio analizatzaileari. Horrek botere borroka bat sortzen du eta sugestioa iradokitzen du. Organismoaren eta ingurunearen arteko harmoniaren ideia ez da egokia pertsonari aplikatzeko, hutsune biologiko bat baitago pertsonaren eta ingurunearen artean. Gizakiak ingurunera gaizki egokituak dira. Lacanen iritziz, pazientea ingurunera egokitzea zuzentzen ditu ahaleginak ego-psikologiak. Horrek kontrol sozialerako eta adostasunerako tresnatzat hartzen du psikoanalisi.

Lacanez ez du onartzen adimenaren eta afektuaren arteko oposizioa. Afektiboa ez da intelektuaren kontra. Afektiboa ordenu sinbolikoari lotua da. Afektuak adierazten du subjektua bestearekiko harremanean dagoela. Psikoanaliari kontzeptuak, afektu moduan hartu izan direnak, hala nola transferentzia, egitura sinboliko moduan birpentsatu behar dira.

Alienazioa edo besterentzea ez da Lacanentzat subjektuari gertatzen zaion istripu bat, transzenditu litekeena, baizik subjektuari berezkoa zaion ezaugarria. Subjektua oinarrian zatitua eta bere burutik besterendua dago. Ezin dio ihes egin zatiketa horri; ezinezkoa zaio osotasuna eta sintesia. Egoa osatzeko alter egoa behar da. Norbera besterendua da. Rimbaud-en hitzetan, beste bat da. Besterentzea irudimenaren mailari dagokio. Psikosisa izango litzateke besterentzearen ertzeko forma. Bestetasuna bizi da subjektuaren barne-muinean.

Freudentzat analisatzaileak pazientearekiko dituen sentimendu inkontzienteak adierazten ditu kontra-transferentziak. Hainbat analisatzailek esan zuten kontra-transferentziako agerpenak analisatzaileak erabat aztertu gabeko osagaietatik zetozela. Eskola Kleiniarraren arabera, analisatzailearen interpretazioak gidatzen zituen kontra-transferentziako erreakzioak ziren. Bere sentimenduak hartzen zituen pazientearen egoera animikoaren adierazle moduan. Lacanentzat kontra-transferentzia analisatzailearen aurreiritziak, pasioak eta informazio eskasaren agerpen, tratamenduaren prozesu dialektikoaren une batean.

Analizatzaileak analizatuaren elkartze libreen bidez lortu behar du egia. Psikoanalisi esperientzia dialektiko bat da; analisatzaileak eragiketa dialektiko batean konprometitu behar du analizatua. Prozesu dialektiko etengabearen bidez irauliko ditu analisatzaileak niaren iraunkortasun eta egonkortasun ilusioak. Elkarriketa sokratikoetan bezala. Ideia berriak sortzen dira tesia eta antitesia kontrajarriz.

Tratamendu psikoanalitikoak ez da mugatzen nien arteko topaketa batera. Bitariko harreman imajinarioen erasokortasunak heriotzarako borrokara eramaten baitu. Prozesu analitikoan funtzio sinbolikoa sartu behar da eta hiru terminoen arteko harremana behar da, ez bi terminoen artekoa. Bai pazienteak, bai analisatzaileak, hirugarren botere bati mendekotuak daude, hizkuntzaren botereari mendekotuak. Bitariko harremanek imajinarioaren estiloaren zigilua dute. Errealaren eta imajinarioaren arteko oposizio

bitarikoari errealaren, imajinarioaren eta sinbolikoaren arteko hirutariko eredua kontrajartzen dio Lacanek.

Lacanen arabera, inkontzientearen aurkikuntzak kendu egin dio niari Descartesen garaitik eman zitzaion nagusitasuna. Lacanek dio ego-psikologiak Freuden aurkikuntza traizionatu eta subjektuari erdigunea kendu diola. Lacanentzat Egoa ez da erdigunea, objektu bat da. Egoa eraikuntza bat da, ispilu aroan ispiluko irudiarekin identifikatuz eratzen dena. Subjektua bere buruaz besterendu egiten da. Egoak egitura paranoikoa du. Egoa erakuntza imajinarioa da eta subjektua ekoizpen sinbolikoa da. Egoa sintoma baten antzera eratzen da.

Lacanentzat tratamendu psikoanalitikoaren jomuga ez da nia indartzea. Egoa ilusioen jesarlekua da eta erresistentzia jartzen dio tratamendu psikoanalitikoari. Niaren finkotasun imajinarioak eragotzi egiten du hazkuntza eta aldaketa. 1953-54ko mintegiaren arabera, egoaren ideala introjekzio sinbolikoa da. Ego-ideala, berriz, ispilu aroko ispilu irudian sortzen da. Egoaren batasun ilusioa da. Ediporen aurreko bitariko harremanaren guztiahaltasuna irabazi nahi du.

Lacanentzat psikoanalisiaren helburua ez da analizatzailearekin identifikatzea. Hori sugestioa izango litzateke, ez psikoanalisi. Analisiaren jomuga ez da transferentzia desegitea. Transferentziak iraun egiten du analisiaren ondoren ere.

Ondorioak

Urte erdia duenetik urte eta erdira bitartean luzatuko den ispilu aroan hasiko da haurra bere buruaren irudia eraikitzen; bere gorputzaren lehen irudi bateratua hor hautemango du eta irudi horrekin identifikatuko da lehen aldiz. Lacanentzat, ispilu aroa da subjektibitatearen egituraren oinarritzko egitura eta ordenu imajinarioaren paradigma. Estadio horretan subjektua bere irudiak harrapatua dauka.

Haurraren garapena ispilu aroko identifikazioaren inguru egituratuko da eta ezberdina izango da ikusmenaren eta motrizitatearen arloan. Haurrak sei hilabete dituenean, oraindik ez du eratu bere gorputz atalak koordinatu eta kontrolatuko dituen gorputz eskemarik eta ispiluko irudian besterendua sentitzen da, baina bere burua osotasun moduan ikus eta ezagutu dezake ispiluan, ikusmen sistema nahiko aurreratua duelako. Irudiaren osotasunak subjektu zatikatua bateratzen du eta identifikazio unea bozkarioz bizi izaten du haurrak. Subjektua ordena imajinarioan sartzen da, baina ispiluko irudiak badu alderdi sinboliko bat ere, haurra sostengatzen duen helduak ordezkatzeko duena.

Niak bestearen beharra du irudimeneko errepresentazio bihurtzeko. Haurrak irudi baten bidez lortzen du identitatea; batetik, bestearen irudiaren bidez; bestetik, beraren irudiaren bidez. Ispiluko bestearen irudia bere buruaren irudia da; hor haurrak bere antzeko bat ikusten du eta bestearen forma bere Niarekin erlazionatzen du; horrela, bere antzeko batekin, bere irudiarekin, identifikatzen denean, subjektua zatitu eta besterendu egiten da. Besterentze hori irudimenaren erregistroan gertatzen da.

Ispilu aroan bere burua edo Nia ezagutzen duenean haurrak, inguruko helduen desira eta fantasien arabera Nia ezagutzen du. Haurra inguratzen duten subjektu hiltzunen (guraso eta senitartekoek) erabakitzen dute haurraren irudia nolakoa izango den. Haurra ez da konturatzen bere niaren identitatea besteengandik barneratutako zerbait dela. Besteengandik barneratu duen irudi horrek seduzitu egiten du haurra, bera konturatu gabe, eta beste pertsonen desira kontziente eta inkontzienteen mende uztan du.

Nia ezin har dezakegu, beraz, haurraren ekoizpen autonomotzat; inguruko bultzadaz sortutako entitatetzat baizik. Niaren mugak ez daude Niaren baitan, subjektuen arteko eta subjektuez haraindiko errealitatean baizik. Haurraren Nia heteronoma da (Lacan, 1966).

Haur txikia barne-hersturatuta egiten da bere gorputza zatikatua, ahula eta zaugarria sentitzen duelako. Hautemate funtzioaren garapenari esker, zatikadura gainditu eta identitate bateratuaren esperientzia bizi izaten du. Gorputzaren irudi zatikatua gorputz oso baten irudi bihurtzen da ispilu aroan. Horrela, irudiak funtzio garrantzitsua betetzen du haurraren garapenean: haurraren barne mundua irudiari esker jartzen da inguruko munduarekin eta errealitatearekin harremanean. Gorputz bateratuaren nozioa eta Ni Idealaren irudia eraikitzen ditu eta irudi ideal horren bidez organismoaren batasuna eraikitzen du.

Haurraren lehen identifikazioaren inguru eratzen da “nia”. Ispilu aroko lehen identifikazio horretan bera ez den irudi batekin identifikatzen da haurra eta irudi horretan ezagutzen du bere burua. Ispilu aroko irudimenezko dialektikari esker eratuko du gorputz irudia eta irudi horretan oinarrituko du Nia. Bere buruaren irudi osoa eraikitzen duenean, haurrak gainditu egingo du gorputz zatikatuaren irudipena. Gorputzaren irudi osotuaren bidez eraikitzen da nia eta irudi horren gainean eraikitzen da eremu sinbolikoa (Lacan 1966).

Ispilu aroko identifikazioa ni idealaren eta ni osoaren egituratzeari lotua dago. Ispilu aroak dimentsio imajinarioa eta sinbolikoa ditu: haurrak amarekiko lotura sinbiotiko imajinarioari ihes egiten dio, identitate sinbolikoa eskuratzean. Ispiluko irudi osoaren aurrean poztu egiten da haurra eta Beste Handiari eskatzen dio baieztarazala irudi hori berea dela. Baieztapen hori dimentsio sinbolikoari dagokio. Horrela, haurra joan-etorrian ibiltzen da sinbolikotik imajinaria eta imajinariotik sinbolikora.

1953an bereizi zituen Lacanek ordena imajinarioko Nia eta ordena sinbolikoko Subjektua. Imajinarioaren eremua Niari dagokiona da; Sinbolikoaren eremuan, berriz, haurra zaintzen duen helduaren irudia kokatzen da. Egoaren edo Niaren instantzia objektu bat da, askatasunik eta autonomiarik gabea; objektu bat da, subjektu bat baino gehiago; Nia irudimenaren eremuko objektu bat da, libidoak energiaz kargatzen duena.

Aldiz, subjektua inkontzientearekin lotzen da; subjektu psikoanalitiko inkontzientearen negatibotasunak Niaren eraikuntzari ihes egiten dio. Lacanentzat subjektua ez da egile kontzientetzat hartu behar; egiletasunaren ideia Niak sortutako ilusio bat besterik ez da. Freud-ek *Nia eta Zera* liburuan jadanik bereizi zituen inkontzientearen benetako Subjektua eta identifikazio besterentzailez osatutako Nia. Lacanen iritziz, tratamendu psikoanalitikoak Subjektuarengan eragin behar du eta ez Niarengan.

Lacanentzat, ispiluko irudian islatzen den gorputzaren inguru irudimenezko ilusioak sortzen dira eta ilusio horiek efektu eraginkorrak dituzte gizakiengan; irudiaren bidez esku-hartzen baitu gorputzak gozamenaren ekonomian. Irudimen eskualdeko prozesuak (irudimena, ilusioa, iruzurra, sedukzioa, gorteiatzea) niarengan gertatzen dira; ilusioaren eremukoak direnez, kontrajarri egiten dira eremu sinbolikorekin, baina eremu honetako hizkuntzak eta adierazleek egituratzen dute irudimenaren eremua. Izan ere, hizkuntzaren jabe den pertsonaren existentzian ezinbestekoa da irudimenezko dimentsioa. Horregatik, analisiaren egitekoa ezin daiteke izan analizatuaren inkontzientea eta irudimenezko ilusioak desagerraraztea.

Ni Idealak aginduari baino gehiago begiratzen dio atsegingarri izateari, baina Niaren Idealaren jatorria introiektzio sinbolikoan aurkitu behar da. Niaren Ideala ordena sinbolikoko adierazlearen eta identifikazioaren emaitza da, eta barneratutako legetzat har liteke. Niaren Idealak Niaren koordinada inkontzienteei begiratzen die, legea jartzen du aurretik eta atsegingarri izatea bigarren mailan. (Lacan, 1966).

Gizakien arteko itunak arautzen dituen legea eta hizkuntza batera doaz. Naturan bikoteak modu indiskriminatuan elkartzen dira, baina kulturaren erreinuan oinarritzko lege bat dago. Animalien munduan ama semearekin elkar liteke, denborak edo absentziak harremanak lausotzen dituenen. Animaliek ez daukate beren identitatea finkatzeko modurik. Gizartean zer dagoen baimendua eta zer ez erabaki behar denean, hizkuntzak finkatzen ditu harremanak izendatzeko aukerak eta kokalekuak; hizkuntzak finkatzen ditu identitateak, harremanak, tabuak. Hitz multzoa baino areago ordena sinbolikoa da hizkuntza, eta ordena horri esker subjektuek arlo imajinarioko besterentze suntsitzailea gaindi dezakete, ordena hori bera ere besterentzailea izan arren.

Lacanentzat hizkuntzak ez die erreferentzia zuzenik egiten gauzen errealitateari, subjektuari berari baizik; sistema auto-erreferentziala da. Lacanentzat, adierazleek ez dituzte gauzak errepresentatzen, esanahiak baizik. Adierazleak elkarrekin harremanean jartzean, ezberdintasunak eta esanahiak sortzen dira. Horrela, “astuna” hitzaren esanahia ez dator esperientzia natural batetik, sistema sinbolikoan beste hitz batekin, “arinarekin”, duen oposiziotik baizik. Hizkuntzak gauzaren heriotza dakar berekin; gauzak eta esperientzia ezabatu egiten dira. Ordena sinbolikoa eraikitzen dutenak mundu errealetik ez datozen oposizioek dira. Oposizio horiek eraikitzen dute gizarteko ordena sinbolikoaren egitura eta errealitate horretan orientatzen da gizakia. Hizkuntzak errealitatea islatu baino gehiago, errealitatea sortu egiten du. Hitzen munduak gauzen mundua sortzen du. Esanahien sareak natura eta errealitatea ordezkatzeko ditu.

“Errealitatearen printzipiotik haratago” (1936): Lacanentzat lengoiaren helburua ez da errealitatea errepresentatzea edo esatearen aurretiko zentzu bat komunikatzea, baizik subjektu hitzuna bera hitz egitean errepresentatzea. Lengoiak subjektuaren absentziaren berri ematen du. Ez da subjektua mundua ezagutu eta egia eraikitzen duena. Adierazleek eta egiak eraikitzen dute subjektua beren baitatik. Adierazlearen eta adieraziaren arteko aldea gaindiezina da; ondorioz, subjektuak adieraziaren eta adierazlearen subjektu izan behar du (De la Maza, 2019).

Hizkuntzak beste besterentze bat eragiten du. Hizkuntzak naturaren izaera ulertzeko eta haren identitatea determinatzeko kanpoko ordena bat ezartzen du; gizarteko elkartrukea ahalbidetzen du eta elkartrukeen izaera aurre-determinatzen du. Haurrari ematen zaion izenak zehaztuko du hark ordena sinbolikoan izango duen kokalekua. Gizarteko kideen arteko harreman sinbolikoak eragin gehiago du ugaltze-ekintza biologikoak baino. Harreman sexualak ere legeria batek eta ordena sinbolikoak determinatzen ditu. Ezinezkoa da eremu sinbolikotik at harreman sexualak izatea. Beraz, gure identitatea eta harremanak determinatzen dituen ordena sinbolikoa da.

Fase imajinarioan, Ediporen fasearen aurretiko fasean, haurraren, amaren eta falo imajinarioaren arteko hirutariko harremanak gertatzen dira eta harreman horietan ez dago bitartekotza egiten duen terminorik. Lacanentzat, Ediporen aurretiko fasean ere haurra ez da

amarekin bakarrik egoten; bitariko harremana ez, baizik hirutarikoa gertatzen da han ere. Hirugarren terminoa haurraren eta amaren artean bitartekaritza lana egiten duen Phallusa da. Irudimenaren erregistroko objektu bat da Phallusa. Lacanentzat, Ediporen Konplexuaren lehen fasea da triangelu imaginarioa. Haurrak amaren gabezia edo hutsunea hautematen duenean, amarekin eta phallusarekin triangelu imaginario bat eraikitzen du.

Eremu Sinbolikoa Legearen erreinua da; lege horrek erregulatzen du desira Ediporen Konplexuan. Naturaren erreinu imaginarioari oposatua dagoen kulturaren erreinua eratzen du Sinbolikoaren legeak. Legeak eta egiturak hizkuntzaren bidez gauzatzen dira. Baina hizkuntzak imaginarioaren eta sinbolikoaren dimentsioak biltzen ditu. Imaginarioan hirutariko erlazioak gertatzen dira; sinbolikoan lautariko egiturak agertzen dira; pertsonen arteko harremana laugarren terminoak, Beste Handiak, bitartekotzen du Sinbolikoa. Eremu Sinbolikoa bestetasun erradikalaren, heriotzaren, absentziaren eta gabeziaren erreinua da. Hizkuntzaren adierazleek ez dute existentzia positiborik, elkarrekiko dituzten ezberdintasunek definitzen dituzte. Inkontzientea Bestearen diskurtsoa da eta hori ordena sinbolikoari dagokio. Erreala ez da inoiz gabetua. Gabezia sinbolikoarekin lotua dago.

Lacanentzat desirari lotua dago gabezia, honek pizten baitu desira. Gabeziak izatearen gabezia esan nahi du, desiratzen dena izatea baita eta izatearen gabeziaren metonimia baita desira. Esperientzia analitikoaren bihotza subjektuaren izatearen gabezia da. Lacanek kontrastean jartzen ditu desirarekin erlazionatzen den izatearen gabezia eta eskaerarekin erlazionatzen den eskaera.

Mendebaldeko kulturaren Niaren kontzeptua Descartesen Cogitoari lotua zetorren eta Inkontzientearen kontzeptuak hankaz gora jarri zuen kontzeptu hori. Inkontzientearen kontzeptuak eta esperientzia psikoanalitikoak Cogitoaren filosofia aldatu dute. Lacanek dio pentsatzen ez duen tokian dela pertsona eta ez den tokian pentsatzen duela pertsonak. Bereizi egin behar dira subjektibotasunaren kontzeptua eta Niarena. Lacanen subjektuaren teoriak baztertu egiten ditu Descartesen cogittoa eta handik eratorritako Niaren psikologia. Lacanentzat ez dira gauza bera Nia eta subjektutasuna, eta kontzientzia ez da gardena (Roudinesco, 2006).

Niaren Psikologia Freuden psikearen eredu estrukturalan (1923ko Nia eta Zera) oinarritzen da eta 1930eko hamarkadan hedatu zen Nazioarteko Elkarte Psikoanalitikoaren bidez. Eredu estrukturalak Nia, Zera eta Supernia bereizten zituen. Eredu horretan Niak bitartekaritza lana egiten zuen Zeraren, Superniaren eta Errealitatearen artean. Niaren garapena eta egitura aztertu zituzten Ana Freud (1936, 1993) eta Heinz Hartmann-ek (1958). Modu horretara, 1950az geroztik, Niaren Psikologiak markatu zuen Nazioarteko Psikoanalisi Elkartearen joera nagusia. Lacan psikoanalizatu zuena (Loewenstein) Niaren Psikologiaren ordezkari izan bazen ere, baina Lacan gogor borrokatu zuen Niaren Moldaeraren eta Autonomiaren teoriaren kontra.

Ispilu aroan haurrak ikusten du berak ezin duela amaren desira asebate. Amak begiratzen dionean haurrak ezin duela hura erabat asebate. Haurrak ikusten du amari falta zaiona ez dela bera; aitaren phallusa dela falta zaiona eta kitzikatzen duena. Phallusa besteari falta zaiona bezala agertzen da; inork ez dauka phallusik; amari falta zaiona da phallus zikiratua.

Haurra phallusarekin identifika liteke fantasian, eta bere burua bihur dezake amaren desiraren objektu. Zikiratzearen fantasian haurrak galdu egiten du ispiluko bere irudiaren zati garrantzitsu bat eta objektu erori eta eraitsiarekin identifikatzen da. Objektu horrek eragingo du Bestearen gozamina. Neurotikoen gozamen inkontzientea haien sintometatik eratortzen da. Sintoma gozamina da. Lacanek atsegin printzipiotik harantzago kokatzen du gozamina deitzen duen hori. Gozamina eta orgasmoa bereizten ditu (Diatkine, 2007).

Gozamenaren debekua berezko zaio hizkuntzaren egitura sinbolikoari; beraz, gozamina debekatua zaio hitz egiten duenari. Subjektuak sinbolikoan sartu behar badu, gozamenari uko egin behar dio zikiratze konplexuan. Subjektuak uko egin behar dio amaren phallus imajinarioa izateko entseguari. Ediporen konplexuko gozameneko debeku sinbolikoa paradoxikoa da: ezinezkoa den zerbait debekatzen da. Debekuaren funtzioa ilusio neurotikoa bati eustea da. Ilusio neurotikoa da uste izatea gozamina lortu ahal izango litzatekeela, debekatua ez balitz. Debekuak mugak hausteko desira sortzen du.

Heriotza bulkadak atseginaren printzipioa hautsi eta Gauzarantz joan nahi du, gehiegizko gozamina sorraraziz. Gehiegizko gozamina heriotzaranzko bidea da; bulkada bakoitza heriotza bulkada da. Gozamina desatseginarekin batera gertatzen da eta gauzaren eskualdean gertatzen da. Gozamina eta gauza (berezko gauza) nahastuta ageri dira, asebetetze mingarriak gertatzen direnean. Gozamina eta Erreala sinboliza ezinak dira. Tratamenduan dagoen pazienteak ez du askotan sendatu nahi izaten, sufrikarioak erakartzen duelako eta sintomak desagertzerik nahi ez duelako, sintomekin lotuta baitago heriotza bulkadaren asebetetzea.

Lacanek Gauza eta gozamina erlazionatu zituen. Gauza iritsiezina da eta aldendua dago Sinbolikotik eta Imajinariotik. Psikoanalisiak iritsi nahi luke gauzara, baina hori oso neketsua da, Erreala baita subjektuaren izatearen barne-muina. Muin hori sortu eta desegin egiten du adierazlearen ordenak. Adierazleak ez dio kentzen subjektuari bere izatearen zatirik; izate horrek eta ordena sinbolikoak eremu bera hartzen dute, baina arrakala existentzial batek bereizten ditu biak. Desiran hezuramamitzen da Errealaren eta adierazleen ordenaren arteko arrakala. Adierazlea eta Gauza elkarrekin artikulatzen dituen desira da. Desiraren egitura adierazleen ordenaren, hizkuntzaren eta haren baitako ezberdintasunen egitura da (Zupančič, 2006).

Libidoari dagokionez, Freudek ikuspegi dualista zuen. Libidoa energia sexuala zen eta bazegoen beste energia mota bat ere, sexuala ez zena. Jungek bizitza energia bakarra bereizten zuen. Lacanentzat libidoa soilki maskulinoa zen. Libidoa ordena imajinarioan kokatzen zuen. Libidoa eta egoa alde berean kokatzen zituen.

Ispilu aroan instintu naturalen esanetara eta amarekin harremanean garatzen da Ni nartzisista; amarengandik urruntzen eta gizartean txertatzen doan heinean, mundu imajinariotik mundu sinbolikora pasatuko da. Horrela, imajinariotik eta naturatik harantzago doa desira eta erregistro sinbolikoan kokatuko da. Imajinariotik sinbolikora pasatzean, hizkuntzak subjektu bihurtuko du Nia.

Ordena sinbolikoak determinatzen duen auto-kontzientzia indibiduala da pertsona; egitura zatitua eta zikiratua duena. Adierazleen munduan, adierazle batentzat beste adierazle batek ordezkatzeko duena izango da pertsona. Pertsonaren gorputzak, adierazle den neurrian, subjektua ordezkatzeko du beste adierazle baten aurrean (Tombras, 2019).

Ordena sinbolikoa matematika, antropologia eta linguistikarekin erlazionatu zuen Lacanek. Aitaren legea, absentsia, presentzia, heriotza bulkada eta Bestearen kontzeptua ordena Sinbolikoarekin lotu zituen. Sinbolikoa eta Erreala elkarrekin erlazioan interpretatu zituen, Sinbolikoaren dimentsioak zatitzen baitu Erreala.

Hizkuntza eta Beste Sinbolikoa gabezia baten gain oinarritzen dira. Bestea barratua da. "Atseginaren printzipiotik harantzago" idatzian Freudek zioen pertsonen portaera Inkontzienteak erabakitzen duela eta gizakiaren portaera ezin daitekeela azaldu atseginaren printzipioaz. Freud-en iritziz, portaera determinatzen duena atseginaren kontrako errepikatze konpulsioa da; neurosi traumatikoa duen pertsonak behin eta berriro errepikatzen ditu portaera mingarriak. Pertsonak kontzientziaren mailan atsegina bilatzen dute, baina maila inkontzientean gertaera mingarriek errepikatzeko joera dute. Horrela, adibidez, amesgaiztoak izaten dituzten haurrek gertaera traumatikoak irudikatzen dituzte eta heriotza bulkadak aginduko balu bezala jokatzeko dute; heriotzara eta jaio aurretiko egoerara itzuli nahiko balute bezala.

Lacanek bereizi egiten ditu desira, premia eta eskaera. Premia instintu biologikoa da; subjektua Bestearen mendean dago, premia asebetetzeko. Bestearen laguntza lortzeko premiak eskaeraren forma hartu behar du. Bestearen presentziak premia asebeteko dela eta maitatua izango dela adierazten du. Eskaerak premia adierazten du eta maitasun eskaera moduan funtzionatzen du. Baina, premia asebeteta gero ere maitasun eskaerak asebate gabe jarraitzen du, Besteak ezin baitezake eman subjektuak nahi duen baldintza gabeko maitasunik.

Lacanen iritziz, bere garaiko psikoanalisi teoriek nahastu egiten zituzten eskaeraren eta premiaren kontzeptuak. Lacanentzat, asebetetzean indarra galtzen duen premia instintu biologikoa da. Premiaren asebetetzea Bestearen mendean dago. Bestearen laguntza lortzeko premiak hitzetan jarri eta eskaera batean artikulatu behar ditu haurrak. Besteak premia asebetetzen du eta maitasuna sinbolizatzen du. Eskaerak bi funtzio betetzen ditu: premia artikulatzea eta maitasunaren eskaera. Baina, Besteak haurraren premiak asebetetzeko objektuak eskura baditza ere, ezin dezake asebate haurraren maitasun baldintza-gabearen eskaera. Maitasunaren desira asebate gabe gelditzen da. Eskaerari apetitua kendu eta desira

geratzen da. Premia eskaeran artikulatzean, soberakin bat sortzen du: desira. Premia bat asebetetzean beste premia bat agertzen da, baina desira ezin da inoiz asebate. Premia asebetetzean, subjektua ez dago motibatua, beste premia bat agertu bitartean; baina, desira inoiz asebate ezin den presio iraunkorra da.

Haurra txikia denean, amarekin lotura estuan egon nahi izaten du: amaren desiraren objektu bakarra izan nahi du. Laster, ordea, utzi egin behar dio amaren desira asebeteko duen objektu bakar izateari. Amaren falo izateari utzi behar dio eta, horretarako, amarekin batzera daraman berehalako bulkada erreprimitu behar du. Amaren eta haurraren bereizketa prozesu horretan, faloa duen aita bihurtzen da amaren absentsien zergati. Aurrerantzean, haurrarentzat aita izango da bere desiraren objektu nagusi. Aitaren irudiaren eta Aitaren Izenaren inguru egituratuko da lege sinbolikoa (Lacan, 1966).

Sinbolizazioa galera batean oinarritzen da: galdua denean sinbolizatzen edo irudikatzen da objektua. Haurrak subjektu bihurtu behar du, desiraren objektu izateari utzi ondoren. Objektu galdua sinbolizatu behar du eta sinbolizatua denean, ezabatu egiten da. Harreman zuzenaren bidez bizi izandako esperientzia erreal batetik hizkuntzaren maila sinbolikora iragango da, jatorrizko errepresio deituaren bidez. Jatorrizko errepresioari eta aitaren metaforari esker desiraren eta pertsonaren artean hizkuntza sartzen da.

Ediporen konplexuaren lehen fasean, ispilu aroko identifikazio imajinarioari ihes egiten dio haurrak eta subjektu den niaren eraikuntza abiatzen du, nahiz eta oraindik ere amarekin erlazio fusionalean jarraitu. Amaren desiraren objektu (faloa) denarekin identifikatu nahi du, amaren falo edo amaren desiraren objektu izan nahi baitu.

Konplexuaren bigarren fasea objektuaren gabeziaren erregistroan jotzen da, aitaren metafora jokoan sartzen denean: absentsia, gabezia, frustrazio eta zikiratze moduan bizi du haurrak. Gatazka edipiarrek bide desberdina hartuko du aita bere funtzio sinbolikoa ongi betetzearen edo ez betetzearen arabera. Aitaren legearekin topo egiteak zikiratze konplexuarekin harremanean jartzen du haurra. Amaren desira eta aitaren bitartekaritza sartzen dira hor jokoan. Aita bihurtzen da faloa duen aita sinboliko.

Ediporen konplexuaren azken fasean falo izatearen edo ez izatearen problematika albora uzten du haurrak eta faloa edukitzearen edo ez edukitzearen arazoa da jokoan dagoena. Ustez aita duen faloa nahi dute haurrak eta amak. Hor identifikazioen joko hasten da: haur mutila faloa duen aitarekin identifikatzen saiatzen da eta uko egiten dio amaren falo izateari. Haur neskatilak amaren falolari dagokion kokalekua uzten du, onartzen du falo gabezia, amarekin identifikatzen da eta faloren bila joaten da aitarengana eta beste mutilengana.

Fort (Utikan!) *Da* (Hator hona!) jokoaren bidez, amaren absentsiak eta presentziak irudikatzen ditu haurrak. Joko honetan paper aktiboa hartzen du: amari sinbolikoki alde egiten uzten dio eta desagertu den amarekin karreteak identifikatuz, egoeraren jabe egiten da.

Objektu galdua sinbolikoki ordezkatzten duten objektuetara transferitzen du haurrak bere desira. Aitaren metaforaren emaitza den eremu sinbolikora eramaten du amarekiko harremanaren auzia. Aurrerantzean uko egingo dio amaren desiraren objektu (falo) izateari (Lacan, 1966).

Ispilu aroko haurraren lehen identifikazioa garrantzitsua da, identifikazio horretatik eratortzen direlako geroztiko identifikazioak. Gorputzaren irudiaren lehen egituraketa hori zatitu eta desegituratzeak nahaste psikotikora eramaten dezake haurra. Haurrak bere gorputzarekin duen maila imaginarioko harremanak eragina du psikosiaren agerpenean. Haurra maila horretan finkatzen bada, ispilu aroa gainditu ezinik, maila sinbolikoa ez du lortuko eta psikosia garatuko du. Ondorioz, haurrak gorputz irudia bateratzea lortzen ez duenean, psikotiko bihurtuko da eta bere irudia baztertuko du. Gorputz zatikatuaren esperientzia amets, artelan eta pasarte psikotikoen fantasien bidez agertuko du.

Lacanez psikosietan errepresio forma berezi bat ikusten du: errealitatearen baztertzea (Verwerfung), Aitaren Izenaren forklusio moduan. Jainko-Aita ezin goraipa liteke, perfektua delako. Sinestunarentzat Jainkoa den bezalakoa da ama psikotikoarentzat: ezer ezin erantsi lekiok eta falo sinbolikorik ere ez. Aitaren Izena funtzio sinbolikoaren oinarria da; funtzio sinbolikoa legearen irudia da. Forklusioa: borrokalaria bere burua hiri harresitutik eskluitua sentitzen du, handik irten eta gero itzuli denean, ateak itxiak aurkitu dituelako. Psikosian aita eskluitua dago psikotikoak eta haren amak osatzen duten gaztelu eraso ezinetik (Diatkine, 2007).

Testuinguru horretan ulertzen da *Fort-Da* edo sinbolizazioaren jokoa. Joko horrek Bestearen desiraren dialektikara eramaten du subjektua: subjektua ordenu sinbolikoak egituratzen du. Adierazleen sareak subjektua zeharkatzen du eta bestearen desiraren katean txertatzen du haren bakardadea. Ispilu aroko imaginario guztiahaltsua adierazleen sareak zeharkatzen du eta ordena sinbolikoaren mendean gelditzen da. Adierazleen sareak egituratzen du Inkontzientea, heriotzaren eta absentiaren aztarnak agerian utziz. Inkontzientea hizkuntza baten moduan, adierazleen kate moduan egituratzen da; haren barneko sare sinbolikoak hizkuntzaren arauak jarraitzen baititu.

Horrela, histeriko baten sintomek hizkuntza baten egitura agertzen dute pertsonaren gorputzean eta gaixotasunaren historiarekin eta adierazleen katearekin erlazionatuta hartzen dute zentzua (*Fonction et champ de la parole et du langage en psychanalyse*: Jacques Lacan, 1966; 1953: Erromako Kongresuan). Adierazleen katean metaforaren eta metonimiaren mekanismoek funtzionatzen dute. Metaforan adierazle batzuek beste adierazle batzuk errepresentatzen dituzte. Metonimian, berriz, adierazle batzuek beste adierazi batzuk errepresentatzen dituzte (Tombras, 2019; Feher-Gurewich, 2006).

Lacanentzat, hiru ukazio mota gertatzen dira neurosi, perbertsio eta psikosietan. *Verneinung* ukazioan inkontzienteak adierazi nahi lukeen pentsamendu bat baztertzen du neurotikoak. *Verleugnung* ukazioan baztertze sakonagoa gertatzen da, hala nola amaren zikiratzea baztertzen denean. *Foreclosure* ukazioan (forklusioan) gabezia eta absentsia handiagoak dira eta psikositik hurbilago dago beste ukazio motak baino (Shepherdson, 2003).

Lacanentzat subjektu bat ezin daiteke aldi berean neurotikoa eta psikotikoa izan. Neurotikoak errepresioa darabil; perbertsoak, ukazioa eta psikotikoak, forklusioa.

Freudentzat, antsietatearen zergatia amarengandik bereiztea da. Lacanentzat, berriz, amarengandik ez bereiztea da antsietatea sortzen duena. Antsietatea errealaren kontzeptuarekin lotzen du Lacanek. Gertaera tramatikoak sinbolizaziotik at gelditzen dira. Antsietatea egitura neurotiko guztietan agertzen da; bereziki, fobietan. Fobiak antsietatea ordezkutzen du. Antsietatea sortzen da subjektua bi egitura hauen artean dagoelako: Ediporen aurreko irudi triangeluarra eta Ediporen lauki egitura. Hans antsietatetik babestuko zukeena, aita errealaren esku-hartze zikiratzailea da. Baina, aita ez du esku-hartzen Hans bere amarengandik bereizteko. Horregatik, Hansek fobia bat garatzen du, aitaren esku-hartzea falta izan zaiolako. Hans antsietatera daramana ez da amarengandik bereiztea, harengandik ez bereiztea baizik.

Freudek beldurra eta antsietatea bereizten ditu. Beldurra objektu batean fokatua dago eta, antsietatea, fokatu gabea. Lacanentzat, ordea, antsietatea ez dago objektu gabe. Objektu mota ezberdina du, besteak bezala sinbolizatu ezin daitekeena. Objektu hori α objektua da: desiraren kausa den objektua, eta antsietatea agertzen da objektu horren tokian norbait agertzen denean. Antsietatea agertzen da subjektua Bestearen desiraren aurrean jartzen denean eta ez dakienean zer objektu dagokion desira horri. Desirak gabeziatik ateratzen dira; antsietatea, berriz, gabeziaren gabeziaren aurrean sortzen da. Antsietatea ez dator bularraren gabeziatik, baizik haren presentzia biltzailetik. Absentziaren aukerak babesten gaitu antsietatetik. Acting out-a eta ekintzara pasatzea antsietatearen aurkako babesak dira.

Lacanek ez du eredu biologikoaren gainean eraikitzen psikoanalisia. Pertsona bakoitzak zakil bat duela pentsatzetik emakumeek zakilik ez dutela pentsatzera pasatzen da haurra zikiramendu konplexua bizi izatera. Mutilak pentsatzen du zakila kenduko diotela. Emakumeak pentsatuko du zakila kendu diotela. Mutilak zein neskak zakila dutela pentsatzen dute haurrek. Mutilarentzat zikiratze konplexua da Ediporen Konplexuaren irteera. Neskarentzat, zikiratze konplexua da Ediporen konplexuaren sarrera.

Freudentzat zakila kentzearen fantasia da zikiratzea. Lacanentzat gorputzaren zatikatzearen fantasia da. Zatikatzaren fantasia zikiratzaren fantasiarekin lotzen du Lacanek. Objektu errealaren gabezia (frustrazioa) eta objektu sinbolikoaren gabezia erreala (gabetzea) ez bezala, zikiratzea irudizko objektuaren gabezia sinboliko moduan definitzen du Lacanek. Zikiratzea ez da organo erreala den zakilari buruzkoa, phallus imajinarioari buruzkoa baizik. Eredu biologikotik harantzago doa Lacanen zikiramenduaren eredu. Lacanentzat Ediporen konplexuarekin amaitzen da Ediporen konplexua bi sexuetan.

Lacanen iritziz, Ediporen konplexuaren hasieran haurrak hautematen du amak haurra bera baino zerbait gehiago desiratzen duela eta amaren phallusa izaten saiatzen da. Aita imajinarioak esku-hartzen du eta bere objektuaz gabetzen du ama, intzestuaren tabua aldarrikatuz. Ez da zikiratzea, gabetzea baizik. Ediporen konplexua disolbatzen da. Aita

errealak parte hartzen duenean, eta phallusaren jabe dela adierazten duenean. Haurrak utzi egiten dio phallusa izateko ahaleginari.

Lacanekek bi zentzu ematen dizkio zikiratzeari. Alde batetik, amaren zikiratzea dago. Sexu bietako haurrentzat amak phallusa du eta ama falikoa da. Aita imajinarioak intzestuaren tabua ezartzen du eta phallusaz gabetzen du ama. Bestetik, subjektuaren zikiratzea dago. Lehen amak ez zeukan phallusik eta, orain, subjektua ez da amaren phallusa. Zikiratzeak esan nahi du gozamenari uko egin behar zaiola.

Amaren zein haurraren zikiratzean, zikiratzea onartu edo ukatu egin behar da. Zikiratzea asunituta lor dezake subjektuak normaltasuna. Zikiratzea baztertua dago egitura psikopatologikoen oinarrian. Baina zikiratzea erabat onartzea ezinezkoa denez, posizio guztiz normala lortzea ezinezkoa da.

Kodearen osagaiak indizeak dira. Kodeak animalien komunikazioan erabiltzen dira, ez pertsonen arteko komunikazioan. Indizearen eta erreferentearen arteko erlazioa biunibokoa da. Erlazio biunibokoak ez du anbiguetate eta ekibokazio potentzialik. Hizkuntzaren osagaiak adierazleak dira. Ez dago erlazio biunibokorik adierazlearen eta erreferentearen artean.

Cogitua Egoaren kontzeptuari lotua doa: kontzientziaren auto-sufizientzia eta autogardentasuna adierazten du. Lacanekek baztertu egiten du Freuden ikuspegia: kontzientzia eta hautematea Egoarekin lotzen dituenak. Kontzientzia auto-gardenaren ilusioa baztertu egiten du psikoanalisi esperientziak. Lacanentzat kontzientzia ez dator ordenu naturaletik; kontzientzia errealtate ez-jarraitua da, sortzearekin lotuago dagoena eboluzioarekin baino.

Lacanentzat psikologia konplexuetan oinarritua dago, intuituetan baino areago. Konplexuak entitate kulturalak dira eta intuituak naturalak dira. Lacanekek Beste handia eta beste txikia bereizten ditu. Beste txikia ispiluko irudiarentzat edo beste imajinarioarentzat gordetzen du. Beste txikia ez da benetako bestea. Errotiko bestea Bestea da.

Ispilu aroan osotasun baten moduan ikusten du haurrak bere isla ispiluan. Aldiz, gorputz erreala koordinatu gabe dago. Tentsio erasokor bat dago ispiluko irudiaren eta gorputz errearen artean. Irudiaren osotasunak gorputza mehatxatzen du desintegrazioarekin eta zatikatzearekin.

Komunikazioan, alde batetik intentzio edo asmo kontzienteak daude. Baina, psikoanalisiaren arabera, asmo kontzientetik harantzago doa hizketaren intentzionalitatea. Komunikazioan mezua pertsona batek besteari bidaltzen dio. Hizlariaren mezua bestearengana eta norberarengana zuzentzen da. Norberarengana zuzentzen den hizlariaren mezua mezuaren intentzio inkontzienteak da. Analizatzaileari hitz egiten ari zaiola, bere buruari hitz egiten ari zaio analizatua. Analizatzaileak gaitu egin behar du analizatua, bere buruari inkontzienteki igortzen dion mezua entzuteko. Mezu igorleak hartzailearengandik jasotzen du bere mezu propioa, modu alderantzikatu.

Komunikatzen ari direnean hizlariaren eta entzulearen gogamenak sinkronizatu egiten dira, garunaren eskualdeetan funtzio berdinak partekatuz. Garunaren eskualde berdinak aldi

berean sinkronizatzen dira. Batzuetan entzulearen garun aktibazioa hizlariaren aktibazioaren aurretik doa. Kontatzaileak esan behar duena aurrez aurreikusten du entzuleak.

Imagoa pertsona batekin erlazionaturiko irudizko estereotipoa da. Konplexua, berriz, elkarreraginean ari diren irudien konstelazio osoa; subjektu baten hasierako egitura sozialen barneratzea. Elkarreraginean dauden irudiekiko identifikazio anizkoitza. Subjektuak errepresentatzen ditu familiako kideen arteko gatazkak. Konplexu horiek gidoi bat ematen dute errepresentazio horretarako. Giza psikologia konplexuetan oinarritua dago, kultura produktuetan, instintuetan baino areago. Gizakiaren instintuak ez dira egokiak.

Lacanek baztertu egiten ditu kontzientzia eta hautematea EGOarekin lotzeko Freudek egiten dituen entseguak. Egoaren eta kontzientziaren artean lotura egotekotan, seinale terminotan da. Kontzientzia auto-gardenaren ilusioa hankaz gora jartzen du esperientzia psikoanalitikoak. Lacanentzat kontzientzia ez dator ordenu naturaletik; ez-jarraitua da eta haren jatorriak sormenaren antz gehiago du hautematearena baino.

Lacanek Beste handia eta beste txikia bereizten ditu. Beste txikia kontra-partida edo ispiluko irudia da. Kontra-partida ez da benetako bestea, ez da Beste erradikala, baizik norberaren antza duen bestea.

Heriotzak ordenu sinbolikoa eratzen du; sinboloak gauzaren lekua hartzen du, gauza sinbolizatzen du eta gauzaren heriotza da; gauzaren erailtzea da sinboloa. Giza historiako lehen sinboloa hilobia izango litzateke. Adierazleak heriotzatik haratago jartzen eta hildakotzat hartzen du subjektua. Horrela, betikotu egiten du. Ordenu sinbolikoan aitaren heriotzarekin erlazionatua dago heriotza. Aita sinbolikoa aita hila da.

Hegelengandik (Kojève-ren bidez) jasotako ideien arabera, Lacanentzat giza existentziak esanahia edo zentzua heriotzatik hartzen du: heriotzak eratzen du giza askatasuna (Kojève, 1947). Heriotzak toki garrantzitsua du maisu eta esklaboaren dialektika hegeliarrean. Heriotza desirarekin lotua dago. Maisuak bere burua bestearen aurrean heriotzaren desiraren bidez baieztatzen du.

Heidegger-engandik ideia hau hartzen du Lacanek: heriotzak jartzen duen mugaren bidez hartzen du zentzua giza existentziak. Giza subjektua heriotzarako izaki bat da. Lacanen iritziz, analizatuak prozesu analitikoaren bidez bere heriotza asumitu beharko luke. Analisiaren dialektikan parte hartzen du analizatzaileak, hildakoarena eginez. Heriotza presente egiten du.

Izatea ez da izaki bat. Izakia bere atributuen bidez errepresentatzen da, hartaz esaten diren predikatu batzuen bidez. Izatea ez da izaki bat: gabezia moduan bakarrik errepresenta liteke. Izatea ezereza da, baina horrek ez du esan nahi izatea ezer ez denik. Izakiaren eta izatearen arteko diferentzia ontologikoa eza da; ezereza, izatearen eza. Izatearen esentziari dagokio eza.

Bizitza eta heriotza bulkadak nahasturik daude Freudentzat. Heriotza bulkada isila da, eta bizitza bulkadarekin nahastua ez balego, ez genuke hura hautemango. Heriotza bulkada

garrantzitsua da Freudentzat eta Lacanentzat. Hura ulertzen ez duenak ez du teoria psikoanalitikoa ezagutzen.

Lacane 1938an amarekiko harmonia galdura itzultzeko desira moduan ulertzen zuen heriotza bulkada; amaren bularrarekin zuen fusioaren desira moduan. Lacane hiru ordenuak asmatu zituen (1950 inguruan), ordena sinbolikoan kokatu zuen heriotza bulkada. Ordena sinbolikoak errepikapenerako duen oinarritzko joera da heriotza bulkada. Heriotza instintua ordena sinbolikoaren mozorroa da. Freudek biologiarekin edo naturarekin lotzen zuen heriotza instintua, baina Lacane kulturarekin eta sinbolikoarekin lotzen du.

Freudentzat heriotza instintua bulkada sexualei kontrajartzen zaie. Lacanentzat heriotza bulkada ez dago beste bulkadetatik bereizia, bulkada guztiek duten alderdi bat da. Bulkada guztiak dira potentzialki heriotza bulkada, bulkada guztiek lortu nahi dutelako beren iraungitzea. Bulkada bakoitzak biltzen du subjektua errepikapenean eta bulkada bakoitzak nahi du atsegin printzipiotik harantzago joan. Gehiegizko gozamenera (jouissance-era), zeinetan gozamena sufrikario moduan bizitzen den.

Paranoikoak gabezia du Aitarenean. Lehen adierazlearen absentsiak zuloa uzten du haren unibertso sinbolikoan eta zulo hori bete nahian dabil paranoikoa. Eldarnioa ez da paranoikoaren gaixotasuna, baizik bere burua sendatzeko entsegua. Freudentzat, eldarnioen ekoizpena berreraikuntza entseatzea da.

Eldarnioak hautemate faltsuak dira. Kanpoko kinada egokirik gabe sortzen diren hautemateak dira. Eldarnio ikusmenezkoak, somatikoak, usaimenekoak eta dastamenezkoak ohikoak dira psikosian. Lacanentzat eldarnio psikotikoak forklusio eragiketaren ondorioak dira. Subjektu psikotikoaren unibertso sinbolikotik aitarenean izena kendu da. Haluzinazioa: adierazle forkluitua itzuli egiten da errealearen dimentsioan.

Lacanentzat, haurrak amari egiten dion deia ez da instintuen seinalea, baizik sistema sinbolikoan antolatua dagoen deien sare sinkronikoa. Haurren garrasiak hizkuntzaren egituraren antolatuak daude, haurrak oraindik hitzak artikulatzen ez dituenen. Haurren garrasien izaera sinbolikoak osatzen du eskaeraren kontzeptuaren nukleoa. Haurra ez da gai bere premia biologikoak asetzeko, beraz amak lagundu behar dio. Haurren eskaerak bi helburu ditu: beharrianak asebetetzea eta amodioaren eskaera. Objektuaren funtzio sinbolikoa amodioaren froga da. Funtzio bikoitz horretatik sortzen da desira. Haurren premien eskaera asebate liteke, baina amodioaren asebetetzea baldintza gabea eta aseezina da. Beharriana asebate eta gero ere desirak jarraitu egiten du. Eskaera hasieran babesgabetasunari lotua dago.

Lacanentzat desiraren kontzeptua da gizakiaren esentzia. Desira inkontzienteaz ari da. Desira inkontzientea da psikoanalisiaren kezka nagusia. Desira inkontzientea sexuala da. Psikoanalisiaren desira izendatu, artikulatu eta gauzatu egin behar da. Hitzetan jarri, existentziara ekartzen da desira. Baina, desira eta hizketa bateraezinak dira. Hizketak inoiz ezingo du artikulatu desiraren egia osoa. Beti dago desiraren soberakinen bat, hitzetan jarri ezin dena. Ez da nahastu behar desira eskaerarekin eta beharrianarekin. Beharriana instintu

biologikoa da. Haurrak ezin ditu bere beharrianak ase, eta Bestearengandik dependitzen du beharrianak asetzeko. Beharrianak eskaera moduan artikulatzen da.

Beharrianaren eta desiraren arteko aldea animalia- eta gizakiaren desiraren arteko alde bera da. Pertsona baten desira bestearen desirari zuzendua da. Bestearen desiraren desira da desira. Lacanek Kojève-ren bidez Hegelengandik hartzen du honako ideia hau: giza desira da gorputza desiratu ordez bestearen desira desiratzen duena. Desira humanoa da objektu berera zuzentzen den bestearen desirak bitartekotzen duena. Humanoa da besteek desiratzen dutena desiratzea.

Histerikoak beste pertsonaren desira sostengatzen du; bestearen desira norberaren desira bihurtzen du. Histerikoaren analisia ikusten dugu inportantea dela subjektua norekin identifikatzen den, pertsona batek zein lekutatik desiratzen duen.

Analizatzailea ez da ezagutzen duela suposatzen dena, desiratzen duela suposatzen dena baizik. Baina, analizatzailearen desiraz ari garenean, ez gara haren desira erreala ari, baizik analizatuak hari egozten dion desiraz. Analizatuari ezinezkoa zaio ziur jakitea analizatzaileak zer lortu nahi duen harengandik. Analizatzailearen desirak eragiten du psikoanalisian. Analizatzaileak Bestearen tokia hartzen du, eta hari subjektuak galdetzen dio: Zer nahi duzu niregandik?

Desira ez da analizatu analizatzailearekin identifikatzea, ez doa identifikazioaren zentzuan. Analizatuaren egia tratamenduan jalgiko da; analizatuaren eta analizatzailearen egia ezberdinak dira. Analizatzailearen desira diferentzia absolutua lortzea da. Analizatzaile bihurtzeko norberak tratamendu analitikoak jaso behar du. Analizatzaile izan behar duenaren desira-ekonomian aldaketa egin behar da tratamenduan zehar. Desira berregituratu egin behar du.

Verleugnung ukazioa da. Ukazio horretan trauma bat hauteman izana baztertzen du subjektuak. Freuden arabera, neskatilak zakilaren gabezia hautematen du, baina gertaera hori ukatu egiten du eta zakila ikusi duela sinesten jarraitzen du. Psikosian eta fetitxismoan gertatzen da hori. Lacanek errepresio eta forklusioarekin lotzen du. Freudek perbertsio mota batekin bakarrik erlazionatu du, baina Lacanek perbertsio guztiekin lotzen du. Lacanentzat, ukazioa da perbertsioaren mekanismo nagusia; baina errepresioa eta forklusioa dira neurosiaren eta psikosiaren mekanismoak. Perbertsoak zikiratzea ezagutzen du eta ukatzen du aldi berean. Freudek ukazioa lotzen du emakumearen zakil gabeziaren hautematearekin; Lacanek Bestearen Phallusaren gabeziak konturatzearekin erlazionatzen du. Ukatzen duenak ez du onartzen gabeziak desira sortzen duela. Uste du desira presentziak sortzen duela.

Histeria eta neurosi obsesiboa dira neurosiaren bi forma nagusiak. Lacanentzat neurosiaren egitura galdera batena da eta galderaren izaera da histeria eta neurosi obsesiboa bereizten dituenak. Neurosi obsesiboa subjektuaren existentziaz ari da; histeria subjektuaren posizio sexualaz ari da: gizona ala emakumea naiz? Lotura ikusten du Lacanek histeriaren eta feminitatearen artean. Emakume gehienak histerikoak dira eta neurotiko obsesibo gehienak gizonak dira. Lacanek histeriaren sintomatologia gorputz zatikatuaren irudiarekin lotzen du.

Histeria ez litzateke sintomen multzo bat, baizik egitura bat. Gerta liteke histeriaren sintomarik ez agertzea eta histeriaz diagnostikatua izatea.

Groddeck-entzat niak modu pasiboan jokatzeko du eta gu indar inkontziente eta kontrolatu gabeek bizi gaituzte. Freuden bigarren topikoaren arabera, psikea hiru agentzietan banatzen da: nia, supernia eta zera. Zera sistema inkontziente da. Zera hizketaren jatorri inkontziente da. Ez naiz ni hitz egiten duena. "Nik hitz egiten dut" esan ordez, "Ni hitz egin naiz" esan beharko genuke. "Hark hitz egiten nau ni" esan beharko litzateke. Niak eratzen duen selfaren zentzu imajinariotik haratago, zeraren izaera sinbolikoa da Lacanek subjektu deitzen duena. Tratamendu psikoanalitikoan "Zera" zen lekuan "Nia" jarri behar al da? Tratamendu psikoanalitikoaren helburua kontzientziaren esparrua zabaltzea al da? Niak Zeraren lekua hartu behar ote du? Lacanen iritziz Nia da ordenu sinbolikoaren esanetara jarri behar dena. "Hura" zen lekuan "Ni" izatera heldu beharko nuke.

Identifikazio-eragiketen bidez eratzen da subjektua. Identifikazioan subjektuak berarenak bezala hartzen ditu beste subjektu batenak diren bereizgarri bat edo gehiago. Nia eta Supernia identifikazio serie baten bidez lortzen dira (Laplanche eta Pontalis, 1967). Lacanen arabera, identifikazioa da subjektuak egiten duen eraldaketa, irudi bat asumitzen duenean. Irudia asumitzea norbera irudi batean ezagutzea da, eta irudia norbera bezala bereganatzea.

Lacanek identifikazio imajinarioa eta sinbolikoa bereizten ditu. Identifikazio imajinarioaren bidez sortzen da Nia ispilu aroan. Eremu imajinarioan gertatzen da identifikazio hori. Haurrak bere isla ispiluan ikusten duenean, irudi horrekin identifikatzen da. Kanpoan dagoen zerbaitekin identifikatzen denean, nia bere buruaren etsai batekin egituratzen da. Hor besterentzea eta erasokortasuna daude jokoan. Ispiluan lehen identifikazioaren arabera gertatzen da Ego Idealaren sorrera.

Identifikazio sinbolikoa Ediporen Konplexu amaieran gertatzen den aitarekiko identifikazioa da. Niaren Ideala eratortzen da hortik. Bigarren identifikazioa da, lehen identifikazioaren erasokortasuna gainditzen duena. Lacanentzat, identifikazio sinbolikoa adierazlearekin identifikatzea da. Lacan ez dago ados analisiaren jomuga analizatzailearekin identifikatzea dela diotenekin.

Imajinarioak Niaren eta Ispiluko irudiaren arteko bitariko harremanari egiten dio erreferentzia. Ispilu aroan eratzen da nia. Egoa eratzen da ispiluko irudiarekin identifikatuz. Nia eta ordena imajinarioa besterentzearen alde biak dira. Niaren eta irudiaren arteko bitariko harremana nartzisista da. Ordena imajinarioko nartzisismoa erasokorra da.

Imajinarioaren eta sinbolikoaren arteko oposizioak ez du esan nahi imajinarioak egiturarik ez daukanik. Imajinarioa ordena sinbolikoak egituratzen du. Imajinarioak badu alderdi linguistiko bat eta Matrize imajinarioa sinbolikoak egituratzen du. Adierazlea ordena sinbolikoak sostengatzen du; esanahia eta signifkazioa ordena imajinarioaren zati dira. Hizkuntzak alderdi sinbolikoa eta imajinarioa ditu.

Diskurtsoan hizkuntzaren izaera transindibiduala azpimarratzen da. Lacanentzat inkontzientea bestearen diskurtsoa da. Lotura soziala hizkuntzak eratzen du. Lotura sinbolikoa da pertsonen arteko harremanak erregulatzen dituen. Hauek dira sare sinbolikoaren lau artikulazioak: maisuaren diskurtsoa, unibertsitatearen diskurtsoa, histerikoaren diskurtsoa eta analizatzailearen diskurtsoa.

Maisuaren diskurtsoa jakiteaz baliatzen da. Diskurtso hori jasotzen duen entzuleari iruditzen zaio, maisuak dakiena jakingo balu, gaindituko lukeela subjektuaren zatiketa. Maisuaren diskurtsotik eratortzen dira beste hiru diskurtsoak. Adierazle maisuak beste adierazlearentzat subjektua errepresentatzen du. Maisuaren diskurtsoak subjektuaren zatiketa mozorrotzen du.

Unibertsitatearen diskurtsoan ezagutza da nagusi; jakiteak hartzen du leku nagusia. Diskurtso horretan ezagutza da nagusi. Ezagutza banatzearen atzean bestea menderatzeko igurikapen bat egon liteke: bestea ezagutzaren bidez menderatzea. Ezagutzaren hegemonia adierazten du. Zientziaren nagusitasuna. Unibertsitarioak erakunde publikoek emandako tituluak behar ditu. Freudentzat lorpen maximoa zen zientziarena. Lacanek jarrera anbiguoagoa du zientziari buruz. Lacanentzat zientziak ez du giza existentziaren alderdi sinbolikoa kontuan hartzen. Subjektibitatea ahanzten du. Zientzia modernoa osoki gauzaturiko paranoia da. Zientziaren eraikuntza osoek haluzinazio baten arkitektura dirudite. Lacanentzat positibismoa benetako zientziaren desbideratze bat da. Zientziak egiarekin erlazio berezi bat du.

Histerikoaren diskurtsoan subjektu zatitua edo sintoma da nagusi. Posizio menderatzailea subjektu zatituak edo sintomak hartzen du. Ezagutzaren bidea aurkitu nahi du diskurtso histerikoa egiten duena (XVII)

Analizatzailearen diskurtsoan *a* objektu txikiak hartzen du tratamenduan analizatzaileak duen posizioa; sendatze-bidean analizatzailea bihurtzen da analizatuaren desiraren kausa. Eragilearen posizioa *a* objektu txikiak hartzen du. Analizatuak ikusiko du bere desiraren jakitea ez dagoela analizatzailearen esku.

Gizakiaren bizitza sexuala ez dute instintuek erregulatzen, baizik bulkadek. Lacanek eusten dio Freudek instintuen eta bulkaden artean egindako bereizketari. Instintuak hizkuntzaren aurretiko beharrian mitikoa adierazten du; bulkada, berriz, biologiatik kanpora gelditzen da. Bulkadak ezin dira asebate, objektuaren inguru biraka ibiltzen dira. Bulkadari ez dagokio jomuga bat lortzea, baizik bere helburua jarraitzea, objektuaren inguruko biraka ibiltzea. Bulkadak lau elementu ditu Freudena eta Lacanen arabera: presioa, jomuga, objektua eta iturburua. Eraikuntza kulturala eta sinbolikoa da.

Freudentzat sexualitatea bulkada partzialez osatua zegoen. Bulkada osagarriek modu anarkikoan eta partzialean jokatzen zuten haur perbertso-polimorfoan, baina pubertaroan antolatu egiten ziren atal genitalen nagusigoaren pean. Lacanentzat bulkada partzialak ez ziren erabat fusionatzen modu harmonikoan. Bulkadek partzialki errepresentatzen dute sexualitatea.

Estadio genitala hiru eta bost urte artean agertzen da. Gero latentzia aroa dator, eta berriro indarberritzen da pubertaroan. Lacanentzat garapen psikosexualeko estadioak ez dira naturalak, baizik eskaera batek egituratuak. Aho eta uzki estadioetan eskaeraren mendean eklipsatua gelditzen da desira, eta estadio genitalean bakarrik eratzen da desira erabat. Lacanentzat fase genitala zikiramenduak egituratzen du. Heldutasun edo egituratze genitala subjektuak zikiramendua onartzen duen neurrian bakarrik gerta liteke (4. mintegia). Bulkada genitala ez du Lacanek beste bulkaden moduan kokatzen. Amodio genitala eskuzabaltasunarekin (oblatibitatearekin) erlazionatzen da. Oblatibitatea litzateke amodioaren forma heldua. Lacanentzat oblatibitateak genitalarekin baino erlazio gehiago luke uzki erotismoarekin. Dena bestearengatik egitea lotuago dago neurotiko obsesiboaren fantasiarekin.

Freudek bulkada sexualak eta egoaren bulkadak bereizten zituen: ondorengoak ziurtatzen zituena eta norberaren biziraupena ziurtatzen zuena. Gero ikusi zuen egoaren bulkadak ere sexualak zirela eta bizitza-bulkadak eta heriotza-bulkadak bereizi zituen. Lacanek nahiago izan zuen sinbolikoa eta imajinarioa kontrajartzea. Lacanentzat bulkada guztiak dira bulkada sexualak eta bulkada guztiak dira heriotza bulkadak, bulkada guztiak direlako gehiegizkoak, errepikatzailak eta ezabatzaileak. Bulkadak desirari estuki loturik daude. Desira bakarra eta zatitu gabea da, bulkadak berriz desiraren agerpen partzialak dira.

Bitariko harremanak ordena imajinarioaren bereizgarri esentzialak dira. Egoaren eta ispilu irudiaren arteko erlazioa da bitariko harremanen eredu paradigmatikoa. Bitariko harremana antzekotasunak, simetriak eta erreziprozitateak bereizten dute. Irudimenezko ordena bitarikotasunak bereizten du; ordena sinbolikoa, berriz, hirutarikotasunak bereizten du. Ordena sinbolikoko harremanek hiru termino eskatzen dituzte. Hirugarren terminoa Beste Handia da, bitariko harreman imajinarioak bitartekotzen dituen. Bitariko harreman irudimenezkoen erreziprozitate ilusioak kontrastea egiten du ordenu sinbolikoaren erreziprozitatearekin. Ediporen konplexuak egitura triangeluarra du. Amaren eta haurraren arteko bitariko harremanen artean aita sartzen da. Bitariko harremanetatik harreman triangeluarretara iragatea imajinariotik sinbolikorako iragatea da. Bikote imajinariotik hirukote sinbolikorako urratsa konplikatu egiten du Lacanek, hirukote imajinarioaz hitz egiten duenean. Ediporen aurreko unean, phallus imajinarioa sartzen du haurraren eta amaren artean. Hirugarren elementua izan liteke, haurraren eta amaren artean, edo laugarren elementua, haurraren, amaren eta aitaren artean.

Ordenu sinbolikoak prozesu analitikoan duen funtzioa azpimarratzen du Lacanek. Topaketa analitikoan Bestea sartzen du hirugarren osagai gisa. Analizatzaileak jakin behar du bera eta pazientearen hirugarren terminoaren botereari mendekotuak edo lotuak daudela: hizkuntzaren esanetara. Oposizioa ez da errearen eta imajinarioaren artekoa, imajinario, errearen eta sinbolikoaren artekoa baizik.

Niaren psikologiak eta objektu erlazioen teoriak garapen psikosexualaren azken etapaz hitz egiten dute. Etapa horretan lortuko luke haurrak objektuarekiko harreman heldua, harreman genitala. Baina, Lacanek baztertu egiten du teoria hori, harentzat ez baitago

heldutasunik edo osotasunik. Subjektua beti zatitua dago eta desiraren metonimia geldiezin da. Instintuen heldutasunaren mitologiak hitz egiten du. Estadio genitalaren aurreko aroak ez dira haurraren garapeneko une ordenatuak, baizik iraganera erretroaktiboki proiektatutako egitura denbora gabeak.

Freudentzat bizitza sexuala ez du instintuak erregulatzen, bulkadek baizik. Instintuak ez bezala, bulkadak oso aldakorak dira. Lacanek ere instintuaren eta bulkadaren arteko diferentzia egiten jarraitzen du. Instintuak hizkuntzaren aurretiko premia adierazten du. Bulkadak ihes egiten dio biologiaren erreinuari. Bulkadak, instintuak ez bezala, ezin dira asebate.

Bulkadak ez doaz objektu batera zuzenduak, baizik objektuaren inguru biratzen dira. Lacanen arabera bulkadaren egitekoa ez da jomuga bat lortzea, baizik objektuaren inguru biraka ibiltzea. Ez da asebetetzea. Zirkuitu itxiaren mugimendu errepikatzailea da bozkarioaren jatorria.

Freuden bulkadaren teorian oinarritzko dualismo bat dago. Alde batetik, bulkada sexualak eta auto-kontserbazioaren bulkadak daude. Bestetik, bizitzako bulkadak eta heriotza bulkadak bereizten dira. Lacan Freuden dualismoaren alde eta Jungen monismoaren kontra zegoen. Jungentzat indar psikikoak erreduzitu litezke energia psikikoaren kontzeptu sinplera. Lacanek nahiago du dualismoa erreformulatzea, sinbolikoaren eta imajinarioaren arteko oposizio moduan, eta ez bulkada mota ezberdinen arteko oposizio moduan. Lacanentzat bulkada guztiak dira bulkada sexualak eta heriotza bulkadak. Bulkada guztiak dira gehiegizkoak, errepikatzaileak eta suntsikorrak. Bulkadak desirari estuki lotuak daude. Bulkadak desiraren alderdi partzialak dira.

Bitariko harremanak eta dualismoa ordenu imajinarioaren bereizgarriak dira. Bitariko harremana Niaren eta ispiluko irudiaren (a eta a') artekoa da. Bitariko erlazioa antzekotasunak, simetriak eta erreziprozitateak karakterizatzen dute.

Ordenu imajinarioa ez bezala, ordenu sinbolikoa hirukoteek bereizten dute. Ordenu sinbolikoko harremanek hiru termino dituzte. Hirugarren terminoa Beste Handia da, imajinarioko bitariko harremanak bitartekotzen dituen. Bitariko harreman imajinarioko erreziprozitate ilusioa kontrastean agertzen da sinbolikoarekin, erreziprozitategabeziaren erreinua baita sinbolikoa. Ediporen konplexua da egitura triangeluar paradigmatisikoaren egitura, aita sartzen baita haurraren eta amaren arteko harreman bitarikoan. Bitariko harremanetik hirutarikorako urratsa imajinariotik sinbolikorako urratsa da.

Irudimenezko harreman bitarikoen eta hirukote sinbolikoen arteko oposizioa konplikatzera dator Lacanen hirukote imajinarioa. Hirukote imajinarioan, Ediporen konplexuaren aurretik hirugarren elementu bat sartzen da (phallus imajinarioa) amaren eta haurraren artean. Beraz, Ediporen konplexuan hirugarren osagaia (aita) sartzen denean, har liteke hura amaren eta haurraren arteko hirugarren osagai moduan edo amaren, haurraren eta phallusaren artean sartzen den laugarren osagai gisara.

Ordenu sinbolikoan integratua dagoena bakarrik existitzen da. Ez baitago errealitate prediskurtsiborik. Zentzu honetan (Lacan) emakumea ez da existitzen. Ordenu sinbolikoak ez du feminitatearentzat adierazlerik. Emakumearen posizioa ezin daiteke osoki sinbolizatu. Ordenu sinbolikoan ezer ez da existitzen, ezpada absentziaren oinarria. Ezer ez da existitzen, existitzen ez den neurrian ezpada. Ordenu sinbolikoan existitzen den guztia beste zerbaitekiko diferentzian bakarrik existitzen da. Saussure: hizkuntzan ez dago termino positiborik, diferentziak bakarrik daude.

Errealaren existentziari dagokionez, haren erreinuan sinbolizatu ezina dena bakarrik existitzen da. Adierazlearekin asimila ezin daitekeen zerbait da. Adierazi ezina dena inkontzientearen subjektua da. Sinbolikoaren arloan existentzia izatearekin lotua dago. Errealean eremuan izatearen aurkakoa da existentzia.

Errealitatea diskurtsoan eraikitzen da. Memoria diskurtsoan eta irudimenean eraikitzen da. Iraganeko gertakarien oroitzapena etengabe birformulatzen ari da. Sintomak ez dira sortzen gertakari objektiboetatik, baizik dialektika konplexu batetik, dialektika horretan fantasiak funtzio bat betetzen duelarik.

Lacanentzat babes funtzioa betetzen du fantasiak. Fantasiak zikiramendutik babesten gaitu. Bestearen gabeziatik babesten gaitu. Fantasia irudimenean aurkezten da eta desira inkontzientea adierazten du. Fantasiako eszena izan daiteke kontzientea edo inkontzientea. Fantasia finkoa eta mugiezina da. Pantaila batean aurkezten den irudi izoztu baten modukoa da fantasia: irudi horrek ekidin egiten du ondoren datorren eszena traumatikoa ikustea.

Ediporen konplexuan konbinatzen dira aitaren babes funtzioa eta funtzio debekatzailea. Lacanek garrantzi handia ematen dio aitaren irudiari. Kleinek amaren eta haurraren harremanari ematen dio garrantzia. Lacanek aitaren irudia azpimarratzen du, hirugarren termino moduan: amaren eta haurraren arteko harreman bitariko imajinarioa azpimarratzen du, hori delako haurra psikositik babesten duena eta gizartera sarrera ematen diona. Aita ez da amaren maitasunagatik haurrarekin lehiatzen dena bakarrik. Gizarteko ordenaren ordezkari da, eta haurrak gizarteko ordenan sartu behar badu, Ediporen Konplexuan aitarekin identifikatu behar du. Egitura psikopatologiko guztien etiologiako faktore garrantzitsua da aitaren absentsia. Baina aita kontzeptua konplexua da. Lacanek aita sinbolikoa, imajinarioa eta erreala bereizten ditu.

Aita sinbolikoa ez da izaki erreala, funtzio bat baizik. Aitaren funtzioa da. Funtzio hori Ediporen konplexuan legea ezartzean eta desira erregulatzean datza. Amaren eta haurraren arteko bitariko erlazio imajinarioan esku-hartzen du eta haien artean distantzia sinbolikoa jartzen du. Desira eta legea elkartzen ditu aita sinbolikoak. Legearen eta lengoaiaren egiturak ordena sinbolikoa adierazten du. Aita sinbolikoaren funtzioa betetzeko ez da ezinbestekoa pertsona fisikoa, amaren diskurtsoaren bidez bitartekotza egin baitezake. Aita sinbolikoa bere semeek erail duten aita hila da. Aita sinbolikoari Aitaren Izena ere deitzen zaio (Lehen mintegia). Aitaren lerrotik datorren oinordekotzak kulturaren ordena sinbolikoa adierazten du. Ordena naturaletik ezberdina den egitura bat lortzen du kulturaren ordena sinbolikoak.

Legeak gizakia eta animaliak bereizten ditu. Aitak ezartzen dio legea subjektuari Ediporen konplexuan. Aitaren funtzioak debekua eragiten du.

Ediporen aurreko triangelu imajinarioan hirugarren termino moduan agertzen da phallus imajinarioa. Aita sinbolikoa Ediporen aurreko estadioan agertzen da jadanik. Ama sinbolikoaren atzean aita sinbolikoa dago. Aita sinbolikoaren absentsiatik dator egitura psikotikoa.

Aita imajinarioa imago bat da: irudimenezko eraikuntzek konposatutako egitura bat: aitaren irudiaren inguru subjektuak fantasian eraikitzen duena. Aitaren irudia eraiki liteke aita ideal moduan edo aita beldurgarri moduan. Kasu bietan guztiahaltsua izaten da. Psikosia eta perbertsioa aita sinbolikoa aita imajinariora mugatzetik dator.

Aita erreala zikiratze sinbolikoa egiten duena da. Aita erreala aita biologikoa izan liteke. Baina, "pater semper incertus est". Ama, ordea, "certissima" da (Freud, 1909). Aita erreala subjektuaren aita biologikoa dela esaten den hura da. Beraz, aita erreala hizkuntzaren efektua da. Hizkuntzaren erreala, biologiaren erreala baino areago.

Hasierako Lacanen arabera, psikosian aita eskluitzen da familiako egituratik. Familia egitura amaren eta haurren arteko harremanetara mugatzen da. Erreala, sinbolikoa eta imajinarioa bereizten dituen Lacanentzat, psikosiari lotua dagoena aita sinbolikoaren gabezia da.

Verwerfung (Lacan): psikosiaren mekanismo espezifikoa da Lacanentzat: elementu bat ordenu sinbolikotik kanpora baztertzen du pertsonak eta behin ere izan ez balitz bezala jokatzen da. "Forklusio" moduan itzultzen du Lacanek "Verwerfung". Subjektu batek Aitaren Izena forkluitzen duenean, ordenu sinbolikoan zulo bat egiten da, bete ezin daitekeena. Geroago Aitaren Izen forkluitua errealean agertzen denean, subjektuak ezin izaten du asimilatu, eta psikosian sartzen da. Haluzinazioak agertzen dira.

Forklusioa bereizi egin behar da errepresiotik, ukaziotik eta proiektiotik. Forkluitzen den elementua ez da inkontzientean gordetzen, inkontzientetik kanporatu egiten da. Errepresioak neurosia eratzen du eta forklusioak psikosia eratzen du.

Forklusioa mekanismo psikotikoa da. Proiektzioa mekanismo neurotikoa da. Proiektzioa barnetik kanporantzko prozesua da; forklusioa, forkluituriko elementua kanpotik barnera itzultzen da. Freudentzat, barnean ezabaturiko hautematea kanporantz proiektatzen dela esatea hutsegitea da. Egia hau da: barnean ezabatzen duguna kanpotik itzultzen zaigu. Lacanentzat, ordenu sinbolikoan baztertzen den guztia errealean agertzen da (3. mintegia).

Ispilu aroak eremu imajinarioan kokatzen du haurra eta bere gorputzaren ispiluko irudian oinarrituta egituratuko du haurrak bere identitatea. Haurrak oraindik giharren koordinazioa lortu gabe duenean, ispiluko irudiari esker koordinazio maila bat aitzinatzen du. Gorputz eskema garatu gabea izanik ere, ikusmen hautematea garatua duenez, osotasun moduan hautematen du ispiluko bere irudia eta osotasun hori bere buruaren errepresentazio bateratutzat hartzen du; harreman zuzena ezartzen du bere gorputzaren eta irudiaren artean

eta kanpoko irudi baten forman hautematen du bere gorputza. Modu horretara gainditzen du bere organismo zatikatuaren eta irudi osoaren arteko arrakala. Haurra oraindik beste pertsonekin identifikatu ez denean, subjektua osatu gabe duenean, ispiluko irudiak emango dio egitura haren Niari (Lacan, 1966). Nia eratuko badu haurrak identifikazio besterentzailea gauzatu behar du. Lacanen iritziz, identifikazio horren bidez gorputz eskemaren gabeziak (zatikamendua eta koordinaziorik eza) ezkutatu eta mozorrotu egingo ditu Niak. Bere irudimenak eraikitako proiektzioak ezartzen dizkio Niak munduari (Lacan, 1966).

Bibliografía

- Assoun, Paul-Laurent (2008). *Lacan*. Buenos Aires: Ed. Amorrortu.
- Bannet, E.T. (1989). Introduction: The Voice of Someone. In *Structuralism and the Logic of Dissent*. London: Palgrave Macmillan. https://doi.org/10.1007/978-1-349-19744-6_1
- Braunstein, N. (2006). Desire and jouissance in the teachings of Lacan. In Jean-Michel Rabaté (arg.), *The Cambridge Companion to Lacan*. Cambridge: Cambridge University Press. or. 102-115.
- Burgoyne, B. (2003). From the letter to the matheme: Lacan's scientific methods. In Rabaté, M. (arg.), *A Cambrigde Companion to Lacan*. Cambridge: Cambridge University Press.
- De la Maza, L. M. (2019). Hegel en Lacan. Las trampas de lo imaginario y la función del lenguaje en la constitución del sujeto. *Veritas*, 43, 29-47.
- Dean, C. J. (1992). *The Self and Its Pleasures: Bataille, Lacan and the History of the Decentered Subject*. Ithaca, NY: Cornell University Press.
- Diatkine, G. (2007). Lacan. *International Journal of Psychoanalysis*, 88, 643–60.
- Dor, J. (1996). La "psicosis lacaniana". Elementos fundamentales del abordaje lacaniano de la psicosis. *Psicoanálisis*, 18(3), 461-476.
- Evans, D. (2006). *An Introductory Dictionary of Lacanian Psychoanalysis*. <https://www.davidbardschwarz.com/pdf/evans.pdf>
- Evans, D. (2006). *An Introductory Dictionary of Lacanian Psychoanalysis*. London: Routledge.
- Feher-Gurewich, J. (2003). A Lacanian approach to the logic of perversion. In Jean-Michel Rabaté (arg.). *The Cambridge Companion to Lacan* (or. 191-207). Cambridge: Cambridge University Press.
- Fink, B. (2007). *Introducción clínica al psicoanálisis lacaniano*. Barcelona: Editorial Gedisa.
- Freud, S. (1894). Obsesiones y Fobias. Su mecanismo psíquico y su etiología. In *Sigmund Freud: Obras Completas*, III. Alea (arg.) (or. 69-80). Buenos Aires: Editorial Amorrortu.
- Freud, S. (1900). The Interpretation of Dreams. <https://psychclassics.yorku.ca/Freud/Dreams/dreams.pdf>
- Freud, S. (1905/1994). Tres ensayos de teoría sexual. In *Sigmund Freud: Obras Completas* (arg.), 7. alea (or. 109-222). Buenos Aires: Amorrortu.
- Freud, S. (1908/1994). Sobre las teorías sexuales infantiles. In *Obras Completas: Sigmund Freud* (arg.) 9. alea (or. 183-201). Buenos Aires: Amorrortu.
- Freud, S. (1909). Analysis of a phobia in a five-year-old boy. In *Collected Papers: Volume 111, Case Histories* (1949) (or 149-289). London: Hogarth Press.
- Freud, S. (1911). Puntualizaciones psicoanalíticas sobre un caso de paranoia (Dementia paranoides) descrito autobiográficamente. In *Sigmund Freud: Obras Completas* XII. Alea. Buenos Aires: Amorrortu. 1997. https://clinicadelosocial.weebly.com/uploads/6/6/9/1/6691816/caso_schreber.pdf

- Freud, S. (1917). Sobre las trasposiciones de la pulsión, en particular del erotismo anal. In *Obras completas*. Tomo XVII. Buenos Aires: Amorrortu.
- Freud, S. (1919/1958). Lines of advance in psychoanalytic therapy. In J. Strachey (arg.), *The standard edition of the complete psychological works of Sigmund Freud*. 17. Alea (or. 159–162). London: Hogarth Press.
- Freud, S. (1920/1996). Au-delà du principe de plaisir. In *Sigmund Freud: Œuvres complètes*, XV. Alea (or. 273-338). Paris: PUF.
- Freud, S. (1923). El yo y el ello. In *Sigmund Freud: Obras Completas*, 19. Alea (or. 15–66). Buenos Aires: Amorrortu.
- Freud, S. (1924). El sepultamiento del complejo de Edipo. In *Sigmund Freud: Obras Completas*, 19. Alea (or. 181–187). Buenos Aires: Amorrortu.
- Freud, S. (1927). Fetichismo. In *Sigmund Freud: Obras Completas de*. XXI. alea. Buenos Aires: Amorrortu.
- Freud, S. (1930). El malestar en la cultura. In *Sigmund Freud: Obras Completas*. XXI. alea (or. 57-140). Buenos Aires: Amorrortu.
- Freud, A. (1936-1993). *The Ego and The Mechanisms of Defence*. <https://psptraining.com/wp-content/uploads/Freud-A.-.The-ego-and-the-mechanisms-of-defence.-London-Karnac-Books.pdf>
- García Arroyo, J. M eta Domínguez López, M. L. (2011). Aproximación al "esquema L" de Lacan y sus implicaciones en la clínica (parte II). *Revista de la Asociación Española de Neuropsiquiatría*, vol. 31, núm. 110, 197-211. Madrid: Asociación Española de Neuropsiquiatría.
- Greenshields, W. (2017). *Writing the Structures of the Subject: Lacan and Topology*. London: Palgrave Macmillan. <https://www.youtube.com/watch?v=EF-SEImdOY4>
- Hartmann H. (1958). *Ego Psychology and the Problem of Adaptation*. New York: International Universities Press.
- Kojève, A. (1947). *Introducción a la lectura de Hegel*. Madrid: Trotta
- Lacan, J. (1932). *De la psychose paranoïaque dans ses rapports avec la personnalité*. Paris: Éditions du Seuil.
- Lacan, J. (1938/2003). *La familia*. Buenos Aires: Argonauta.
- Lacan, J. (1953/1982). Le Symbolique, l'Imaginaire et le Réel. *Bulletin de l'Association freudienne*, 1, 4-13.
- Lacan, J. (1953-54). *Seminaire I: Les Écrits techniques de Freud*. Paris: Seuil. 1975.
- Lacan, J. (1954-55). *Seminario II: El yo en la teoría de Freud y en la técnica psicoanalítica*. Buenos Aires: Paidós. 1983. ISBN 978-950-12-3972-0. OCLC 318393556.
- Lacan, J. (1955-56). *Livre III. Les psychoses*. Paris: Éditions du Seuil (1981).
- Lacan, J. (1956-1957). *La relation d'objet*. IV. mintegia. Paris: Seuil.
- Lacan, J. (1958/1977). The signification of the phallus. In *Écrits: A Selection*. London: Tavistock: 281-91.
- Lacan, J. (1959-60). *Le Séminaire, livre VII: L'éthique de la psychanalyse*. Paris: Seuil.

- Lacan, J. (1962-63). The Seminar of Jacques Lacan. Book 10. Anxiety. https://www.valas.fr/IMG/pdf/THE-SEMINAR-OF-JACQUES-LACAN-X_I_angoissee.pdf
- Lacan, J. (1964). *Le Séminaire - tome 11: Les Quatre Concepts fondamentaux de la psychanalyse*. Seuil: Collection Le Champ freudien.
- Lacan, J. (1966). *Ecrits II. La direction de la cure*. Paris: Seuil, 1999. <https://fedepsy.org/wp-content/uploads/2020/11/Eph%C3%A9m%C3%A9ride-11-C.-Ottmann.pdf>
- Laca, J. (1964). *El seminario, libro 11: los cuatro conceptos fundamentales del psicoanálisis*. Buenos Aires: Paidós. 1987. ISBN 950-12-3981-0. OCLC 55976569.
- Lacan, J. (1966). Le stade du miroir comme formateur de la fonction du Je telle qu'elle nous est révélée dans l'expérience psychanalytique. In *Écrits*. Paris: Seuil.
- Lacan, J. (1968-69). *El seminario, libro 16: De un otro al otro*. Buenos Aires: Paidós. 2008. ISBN 978-950-12-3980-5. OCLC 317147660
- Lacan, J. (1969-70). *El seminario, libro 17: El reverso del psicoanálisis*. Buenos Aires: Paidós. 1992. ISBN 84-7509-759-6. OCLC 803097278.
- Lacan, J. (1974-1975). *Le Séminaire. Livre XXII. R. S. I.* Paris: Seuil.
- Lacan, J. (1975). *Le Séminaire XX*. Paris: Seuil.
- Laplanche, J. et Pontalis J.-B. (1975). *Vocabulaire de la psychanalyse*. Paris: Presses Universitaires de France.
- Laznik Penot, M.C. (1990). Il n'y a pas d'absence s'il n'y a déjà présence. Du rôle fondateur du regard de L'Autre. In *La psychanalyse de l'Enfant. Revue de l'Association Freudienne*, 10 (Les Psychoses de l'enfant)
- Leader, D. (2006). *Lacan's myths*. In Jean-Michel Rabaté (arg.). *The Cambridge Companion to Lacan* (or.35-49). Cambridge: Cambridge University Press.
- Lévi-Strauss, C. (1969 [1949]). *The elementary structures of kinship*. Oxford: Taylor and Francis.
- Luepnitz, D. (2006). Beyond the phallus: Lacan and feminism. In Rabaté, Jean-Michel (arg.). *The Cambridge Companion to Lacan* (or. 221-237). Cambridge University Press.
- Miller, J.-A. (1998). Première séance du Cours (mercredi, 18 novembre 1998) <https://jonathanleroy.be/wp-content/uploads/2016/01/1998-1999-Le-r%C3%A9el-dans-lexp%C3%A9rience-analytique-JA-Miller.pdf>
- Nobus, D. (2006). Lacan's science of the subject: between linguistics and topology. In Jean-Michel Rabaté (arg.). *The Cambridge Companion to Lacan* (or., 50-68). Cambridge: Cambridge University Press.
- Nobus, D. (2017). *The Law of Desire: On Lacan's 'Kant with Sade'*. Cham (Switzerland): Palgrave Macmillan.
- Palmier, J.-M. (1972). *Lacan*. Paris: Éd. Universitaires.
- Rabaté, Jean-Michel (2006). Lacan's turn to Freud. In *The Cambridge Companion to Lacan*, (arg.). Cambridge: Cambridge University Press. DOI:10.1017/CCOL0521807441.001
- Rabinovich, D. (2006). What is a Lacanian clinic. In Jean-Michel Rabaté (arg.). *The Cambridge Companion to Lacan* (or. 208-220). Cambridge: Cambridge University Press.
- Roudinesco, E. (2006). The mirror stage: an obliterated archive. In Jean-Michel Rabaté (arg.). *The Cambridge Companion to Lacan* (or. 25-34). Cambridge: Cambridge University Press.

- Shepherdson, CH. (2006). Lacan and philosophy. In Jean-Michel Rabaté (arg.). *The Cambridge Companion to Lacan* (or. 116-152). Cambridge: Cambridge University Press.
- Soler, C. (2006). The paradoxes of the symptom in psychoanalysis. In Jean-Michel Rabaté (arg.). *The Cambridge Companion to Lacan* (or. 86-101). Cambridge: Cambridge University Press.
- Spinoza, B.(1996). *Ética Demostrada según el Orden Geométrico*. México: Fondo de Cultura Económica. Traducción de la edición latina titulada: *Ethica, Ordine Geometrico Demonstrata* de 1677 por Oscar Cohan.
- Strachey, J. (1934). *La naturaleza de la acción terapéutica del psicoanálisis*. Revista Psicoanálisis, 78, 81-114. 2016. Madrid. [.file:///C:/Users/Mikel/Downloads/LANATURALEZADELAACCI%C3%93NTERAP%C3%89UTICADELPE2%80%A6.pdf](file:///C:/Users/Mikel/Downloads/LANATURALEZADELAACCI%C3%93NTERAP%C3%89UTICADELPE2%80%A6.pdf)
- Tombras, Ch. (2019). *Discourse ontology: Body and the Construction of a World, from Heidegger Through Lacan* by. Palgrave Mac Millan: The Pelgrave Lacan Series.
- Zupančič, A. (2006). Ethics and tragedy in Lacan. In Rabaté, Jean-Michel (arg.). *The Cambridge Companion to Lacan*, (or. 173-190). Cambridge: Cambridge University Press.